



Iturria: *Testamentu berriko Kondaira*, Francisco Ignacio Lardizabal  
(Blanca Urgellen edizioa). Euskal Editoreen Elkarte, 1998.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LardizabalBerriko.htm>

## TESTAMENTU BERRIKO KONDAIRA EDO HISTORIA

Francisco Ignacio Lardizabal

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabetasun Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

# LENENGO IRAKURGAIA

## 1. Mesiasen eskeñera

Jaungoikoak asieran zeru-lurrak gizonaren serbitzorako egin zituen; eta gizona Jainkoaren serbitzorako; baña gizona bere Egillearen kontra bereala jaiki zan, eta ordutik Zeruari aserrerazo zion eta zerekin pakeak egin etzuela arkitu zan. Jainkoa errukitu zan, eta Bitartekotzat bere Semea eskeñi zion, eta onen bitartez jarri zan barkazioa iristeko bidean. Jainkoak, gero ere, mesede andiak egiten ziozkan; baña onek guziak aztu, eta bere gaiztakeriakin Jainkoa beartzen zuen kastigu gogorrak bialtzera. Atzenerako gizonak ain gaiztotu ziran, non Jainkoa ipiñi zuten beretzat Erri bat aututzera. Erri au prestatu zuen eskeñitako Bitarteko andia bere odoletik eman zezan. Erakutsi ziozkan etorkizunak, zer egin eta nola bizi; eta eraman zuen Bitarteko andi onek gizonak erosi eta erremediatu bear zituen lekura. Erri autu au, ainbeste mirari eta gauza arrigarri ikusita gero, jartzen da errege arrotz baten mendean; eta izaera onek adierazten zuen lau milla urte aietan eskeñita zegoan, Patriarka Santuak itxedoten zioten eta Profetak erakusten zuten Mesias munduan agertzeko denbora.

## 2. Mesiasen berri-emalle Juan Baupista

Egunak betetzer ziran Jainkoaren Semea gizon egiteko, munduari Erremediatzallea emateko eta arterañoeko Profetaen berri onak egiztatze-



ko; baña Jainkoak aginduta zeukanez, aurretik izan bear zuen berri-emalle bat, bideak garbituko ziozkana eta gizonai aditzera emango ziena. Berri-emalle au zan Zakarias eta Isabelen seme Juan, zortzieun urtez lenago Isaias Profetak eremuan otsegiten duena, eta Malakias Profetak, Isaias-gandik irureun urtez geroago, Jaunaren Aingeru bere aurretik bidea presatzera bialdua deitu ziotena.

Zakarias eta Isabel Aaronen jatorrikoak ziran; beragatik Zakarias apaiza zan, eta Jerusalemgo Elizan bere txandak Jainkoaren serbitzoan egiten zituena. Guraso zorioneko oiek Judako basoetan Jainkoaren txit bildur andian bizi ziran, baña aurrik etzutelako atsekabearekin. Zakarias Jerusalemenera jatsita, Elizan inzensua aldarean prestatzen ari zala, Aingeru San Gabriel aldarearen eskuiko aldean agertu zitzaion. Zakarias izutu zan, eta Aingeruak esan zion: Zakarias, ez ikaratu; bada zure erreguak adituak dira, eta emazte Isabellek emango dizu seme bat, Juan deituko diozuna. Atsegin artuko dezu, eta bere jaiotzan asko poztuko dira, zeren Jaunaren aurrean andia izango dan. Ez du ardorik, ez beste edari orditzekorik artuko, eta amaren sabeletik Espiritu Santuz betea izango da. Israelko seme asko Jaunagana ekarriko ditu. Oiek eta onelako beste berri asko adituta, Zakariasek Aingeruari esan zion: Zertatik berri oni igerriko diot? Ni zarra naiz, eta emaztea egunetan txit eldua da. Aingeruak orduan erantzun zion: Ni Gabriel Jainkoaren aurrean nagoana naiz, eta zuri berri on au ematera nator: zu mututurik geratuko zera, eta nik esan guzia bete bitartean ez dezu itzik izango, sinistu nai izan ez didazulako.

Jendea Zakariasen Eliz barruan inzensua ipintzeko lekutik ez irteari luzetsita zegoan, eta irten zanean ikusi zuten mututua eta zer gertatu zitzaion, keñuz baizik ezin adierazo ziela. Zakarias etxera joanda, Isabel laster aurdun egin zan, eta zarzaroan onela jarri zala esaten uzkurta-sun edo lotsa-antz bat zeukalako, bost illabete ezkutuan egin zituen.

### 3. Jainkoaren gizon-egitea

Bitartean Maria guziz santa, San Joakin eta Santa Anaren alaba pare-rik gabea, Israelko Birjiña, egunetik egunera zijoan ontasunean aurreratan eta, lureko batek dezakeneraño, Jainkoaren semea bere erraietan

artzeko prestatzen. Eldu zanean mirari ez-ikusi au eta Jainkoaren eskue-tatik irtendako lanik andiena egiteko egun, lau milla urte aietan mundua begira zegokiona, Jakoben ondorengo alaba bat, birjiñatasuna galdu gabe, ama egin eta Jainkoak, jainkotasuna utzi gabe, gizatasuna artu bear zuena, San Gabriel Aingerua Mariari joan zitzaion Nazaret zeritzan Galileako errira, non bizi zan San Joserekin ezkondata. Bere otoitz edo orazio-lekuan bakarrean zegoala, Aingerua sartu zitzaion, eta diosal au egin zion: Agur, Maria, graziaz betea, Jauna zurekin da, andre guzien artean bedeinkatua.

Isabelek sabelean zeukan aurra saltoka asi zan, eta amak pozez beterik otsegin zuen: Andre guzien artean bedeinkatua zera, eta zure sabeleko frutua bedeinkatua da. Nondik datorkit nere Jainkoaren amak ikusteko zorion au? Begira, bada, zer gertatu zadan. Zure diosala aditu orduko, erraietan daukadan aurra pozez saltoka asi zat.

Mariak orduan Jaunaren gloriarako esan zituen *Magnificat* deritzan kanzio eder aren itzak, esanaz: Nere animak Jauna altxatzen du, eta nere barruna Jainko nere Salbatzallearekin poztutzen da, zeren bere serbitzariaren txikitasuna ikusi duen; gaurtik aurrera, bada, adin guziak zorionekoa deituko naute, altsua dan, eta gizalditik gizaldira bere errukimentua bildur zaiozkanetan zabalduko duen guziz Santuak, nigan gauza andiak egin dituelako. Itz oiek esanda, isildu zan. Mariak Isabelen etxean iru illabete egin zituen, sabelean zer zeukan Zakariasi eta besteri esan gabe; baña Isabellek, Jainkoak ala adierazota, baziendien, beragatik bere ondoan luza-roago iduki nai izan zuen; Maria, ordea, Nazaretera itzuli zan.

### 5. San Juanen jaiotza

Andik laster Isabellek semea egin zuen: alderdi guzian barreatu zan; eta guziak jaiotza miragarri onekin poztu ziran. Zortzigarren egunean aurjao-berria zirkunzidatzera aide eta adiskideak bildu ziran; eta despita sortu zan, zer izen emango zitzaion. Aide guziak, aitari bezala, Zakarias deitzea nai zuten; baña ama, Aingeruak esanik zeukalako, leiatzen zan Juan ipintzeko. Ezin erabakiz zeudela, aitari esan zioten keñuz bedere adierazo zezala zer izen ematea nai zuen. Oltxo bat artuta, ipiñi zuen:



Izena Juan du; eta guziak arriturik geratu ziran. Orduetik itzegiten asi zan ainbeste illabetean mutututa egon zan Zakarias, eta esan zuen *Benedictus* deritzan kanzio ederra, zeñetan esan zituen Mesias eta onen berri-emalleari zegozkien geroko gauza asko.

Bereala ezagutu zuten Juan jaio-berria Jainkoak doaiez janzia zala, eta gurasoak ere txit kontu andia izan zuten aziera ona emateko. Urte asko baño lenago eremura joan, eta bizitza latz eta nekezkoarekin prestatu zan, Mesias ondoren zetorkionaren berriak munduari ematera irten bear zanerako.

## 6. Mariaren bizitza Nazareten

Maria guziz santa, Isabelgandik irten ezkeru, bere erri Nazareten bizi zan bere senar Joserekin batean, lurrean al ditekean bizitarik obena eta jainkozkoena egiñaz, sabelean zeraman semea noiz jaioko zitzaion begira. Baña ordua betetzerako, naigabe min bat izan zuen, eta Joseri ere zer pensatu andia eman zion. Illetan aurrera zijoan, eta San Josek ere, naitanaiez, igerrri zion nola zegoan. Senarrak baziakien garbia edo birjiña zala, eta zekusanez, etzan. Emazteak etzion esan nai Jainkoak isillik egin ziozkan mirariak, eta Jaunaren eskuetan utzita zeukan langai au zegokionean adieraztea. Senarra, legez eta bidez, ezin bizi zitekean ezkontzako leialtasuna autsi zuelako emaztearekin, eta San Jose au egin bearrean arkitzen zan, emaztearen egoerari begiratu ezkeru, Jainkoaren lana zala jakin gabez; baña denbora berean ezin zuen alako gauzarik bere emaztearen ontasunean sinistu. Zalantza edo duda onetan luzaro egonda, erabaki zuen isillik aldegitza, zergatik zijoan iñori esan gabe.

## 7. Aingeruak Mariaren izaera Joseri agertzen dio

Asmo oietan zebillela, Jainkoaren Aingeruak San Joseri ametsetan esan zion etzedilla ikaratu: emazteak sabelean zeukana, Espiritu Santuak

egiña zala; eta jaiotzen zan semeari, Jesus deitutzeko. Esnatu zan, eta lengo kezka guziak utzi, eta jarri zan Jainkoari eskerrak ematen, emazte ain zorionekoaren jabe egin zuelako. Emazteari, lengo berezko ontasun eta doai ederraz gañera, berri paregabe au artu zuen ezkeru, zein begi onakin begiratuko zion esatea, erraz ez da.

## 8. Jose eta Mariaren joanera Belenera

Anziña-anziñatik esana zan, munduaren Salbatzallea, ez Nazareten, ezpada Belen zeritzan Judako urian jaioko zala, eta Jainkoak gauzak zuzendu zituen, aurrez-esan au betetzeko eran. Erromako agintari Zesar Augustok agindu zuen bere mendeko guzien izenak, nori bere aurrekoak nondik zetozkion, erri artan artzeko: eta Zesar Augustoren mendekoa Nazaret izanik, eta San Jose eta Maria guziz santa Belengo jatorriak, beren anziñako asaba Dabiden aita Isai emen jaioa zalako, onara bearrean arkitu ziran. Juda eta Galileako etxe-jaun edo familiaetako buru guziak bidean zijoazen, norik bere lekuan izena uzteko. Senar-emazte zorioneko oiek ere, besteak bezala, Beleneron abiatu ziran. Maria aurgiteko bete-betea zegoan; ala ere ogeita amar leguako bidea txit ondo egin zuten. Baña Belenera eldu ziranean, ostatu gabe arkitu ziran. Etxe guziak ordurako beteta zeudelako, iñon etzuten etxaleorrik topatu, eta atzenean estalpe batean gelditu ziran. Leku egokia zeru-lurren Jabea jaiotzeko! Baña gurutzean gizonagatik il nai izan zan Jainkoaren Semeak estalpe txar bat jaio-tokitzat aututzea, mirestekoa ez da.

## 9. Jesusen jaiotza

Munduaren asieratik lau milla urtera, eta Zesar Augustoren agintearren berrogeigarreneko abenduaren ogeita bostgarren egunean gauerdian Maria guziz santa estalpe onetan aurgiten jarri zan, eta munduari eman zion bederatziz illabete aietan bere errai garbietan zekarren Jainkoaren Semea. Emakume parerik gabeko onek etzuen besteak bezalako sumiñik



eta oñazerik izan; beragatik aurtxo eskuetan artu, zapitxoetan bildu eta seaskarik etzuelako ganbela batean ipiñi zuen. Berri pozgarri au laster barreatu zan. Belengo inguruan zebilzan artzai batzuei Aingerua agertu zitzairen, eta esan zien: Ez ikaratu; berri on batekin natorkizute. Jakizute, Dabiden urian munduaren Salbatzalea gaur jaio zatzutela. Ara nondik igerriko diozuten. Zapietan bilduta, ganbela batean aur bat arkituko dezute. Itz oiek esan orduko aingeru-samalda bat ingurutu zitzairen, eta guziak asi ziran esaten: Gloria Jaunari goietan, eta pakea gizon biotz onekoai lurrean. *Gloria in excelsis Deo et in terra pax hominibus bonae voluntatis.*

Artzaiak arri egin ziran, eta zerbait berera ziranean, elkarri esan zioten: Belenera goazen, eta eman zagun albista dakuskun. Korrika joan ziran, eta estalpe batean arkitu zituzten Maria guziz santa eta San Jose, aur jaio-berria ganbelan zutela. Belaunikatu ziran, Jainkotzat ezagutu zuten, eta zeramazkiten eskuerakutsi biotz onekoak emanik, ardietara itzuli ziran, eta aditu eta ikusi guzia bereala zabaldu zuten.

## 10. Jesusen Zirkunzisia

Legeak agintzen zuen zortzigarren egunean semeak zirkunzidatze-ko. Aur Jainko au agindu onen azpian etzegoan, kulpagabeko garbi-garbia zalako; baña odola isurtzen lenengo egunetatik asi nai izan zan. Zortzigarren egunean, bada, zirkunzidatu zuten, eta eman zioten Aingeruak amari erakutsitako izen Jesus, zeñak Salbatzalea esan nai du. Izen gozoa! Izen maitagarri, beti aoan erabilli bear gendukeana! Izen zoragarri, gure illuntasunak argitu, naigabeak poztu, nekeak arindu, negarrak leortu eta gaitzak sendatzen dituen!

## 11. Iru Erregeen adorazioa

Berri pozgarriak Belen inguruan ez ezen, urrutietan ere barreatu ziran. Eguzkiaren sort-aldeko iru erregeri izar eder batek adierazo zien

Jesus jaio zala, eta izarrari zerraizkiola, Jerusalemenera eldu ziran Zirkunzisia bost egunen buruan, eta galdetu zuten: Juduen Errege jaio-berria non da? Bere izarra sort-aldean ikusi degu, eta adoratzera gatoz. Herodes, Jerusalemenera Errege egiten zuena, Erri guziarekin batean, albista onekin izutu zan, eta apaiz nagusi eta lege-jakintsuak bildurik, galdetu zien ea Kristo non jaio bear zan. Judako Belenen, erantzun zioten. Iru Erregeak bereala artuta, galdeak egin ziezten, izarra noiz agertu zitzairen jakiteko, eta esan zien Belenera joanda aurra billatu zezatela, eta gero argana itzultzeko; bada, berak ere adoratu nai zuela.

Iru Erregeak Herodesi agur eginda Jerusalemendik irten ziranean, berriro agertu zitzairen urian sartutakoan ezkutatu zitzairen izar eder, lenago bidea erakutsi ziena. Oni bazerraizkion aurra zetzan estalpe gañean jarri zitzairen arteraño. Bereala igerrri zioten, billa zebiltzana non zegoan. Estalpean sartu, eta arkitu zuten Zeruetako Errege Aurtxo zapi txar batzuetan bilduta, ama gaxtea eta aita-usteko gizon eldu bat beste lagun gabe. Zetzan pobrezari begiratu gabe, Jaunak emandako argiarekin aurra Jainkotzat ezagutu zuten; auzpez jarri zitzaiozkan eta urrea, inzensua eta mirra eskeñi ziozkaten. Lan au egin zutenean, etxeronz abiatu ziran, eta aingeru batek esan zien, Jerusalemenera gabe, beste bide batetik etxera itzultzeko.

## 12. Maria guziz santaren Eliz-sartzea

Errege oiek ikusi au emanda gero, aurgite ondoko berrogei egunak igaro artean Belenen egon eta Jerusalemenera igo ziran, legeak agintzen zuen bezala, amaren garbitzea eta semearen aurkeztea, edo berebat dana, eliz-sartzea egitera. Onelako bearrik ez bata eta ez besteak zuten, zeren ama txit garbia eta birjiñatasuna, ez len eta ez gero, autsi gabea zan, eta semea gizon egin zan unetik zegoan Aita Betikoari eskeñi; baña egin nai izan zuten gañerakoai erakusteko. Ama guziz santak aurra besoetan zeraman, eta eliz-atera ziranean, apaizari ofrendan bi usakume eman ziozkan. Bear-tsua edo pobrea zalako, etzion arkumerik eskeñi; baña an zeraman munduko bekatuak kentzera zetorren Bildots garbia. Elizan sartu orduko, Simeon zar, gizon on eta Jainkoaren bildurrekoak ezagutu zituen, ez munduko berririk zuelako, ezpada Zeruak argi egin ziolako. Aurra besoetan artu, begiak zeruronz jaso eta otsegin zuen: Noiznai orain emendik era-



man nazazu, zeren zure ona ikusi dedan. Au zion, Jainkoak esanik zeukalako, Israelko Poza ikusi gabe etzala ilko. Simeonek onetan ziardun bitartean, Ana Profetiza an agertu zan. Emakume on onek larogeita lau urte zituen, eta senarrarekin zazpi urte eginda alargundu zan ezkerro, Elizatik aldegin gabe bizi zan, egunez eta gauzez Jainkoa barau eta orazioekin serbitzen zuela. Munduaren Salbatzallea an zekusanean asi zan Simeonekin batean Jauna alabatzen. Simeonek aurra amari itzulita, bere lekura joan zan. Ana ere bai, esanaz Mesias mundura etorri zala.

Lanbide au Elizan lagun gitxiren artean igaro bazan ere, bereala otsa barreatu zan, eta Herodesek aditu zuen. Errege onek aur au iltzea beregan erabakita zeukan, sort-aldeko iru Errege edo Mago aiek adierazo zioten ezkerro; argatik esan zien itzuli zekizkiola ikusita gero: baña agertu etzitzaiozkanean, uste izan zuen gezurretan ibilli zirala eta lotsaz beste alde batetik itzuliko zirala. Orain otsa berriro zabaldu zanean, pensatu zuen ari ez esateagatik iges egin ziotela, eta su eta gar egiñik, agindu zuen bi urte ezkerro Belen eta ingurumai guzian jaiotako aur seme guziak iltzeko, Aur Jainkoa ere besteakin batean atzituko zuelakoan; baña gizonaren alegiñak Jainkoarentzat indargabeak dira.

Familia santa au, eliz-lanak egin zituenean, ez Belenera, ezpada Nazaretera itzuli zan: eta emen aingeru batek San Joseri bereala ametsetan esan zion: Aurra eta bere amarekin Egiptora zoaz, eta nik esan artean, an zaude: bada Herodes aurraren billan abiatuko da, iltzeko. Berri onekin San Jose, ama-semeak artuta, Egiptora joan eta Herodes il artean an izan zan.

### 13. Aur kulpagabeen iltzea

Arestian aitatu dan erregearen agindu gogorra Belen eta inguruan erruki gabe egin zan, bi urtez beeko aur guziak illaz. Aitaen deadarrak, amaen aieskak, senideen garraxiak, aideen negarrak batean ziran; baña alperrik: aur gaxoai zerien odolak bazter guziak gorritzen zituen. Herodes, agindu gogor au eman zuen erregeak, zegokion saria artu zuen. Gaizkitu zan. Gorputza usteldu zitzaion, arrak zeriozkala eta bizirik jaten zute-

la. Bere kirats lizunak etzion iñori ere alderatzen uzten; eta atzenean ernegazioan luzaro onela egonda, il zan.

Herodes ilda bereala, Aingeruak San Joseri esan zion, aurra eta ama arturik Israelera itzuli zedilla; bada, aurra galdu nai zutenak il zirala. Egipton egon ziran Jesus zazpi urteetara iritsi bitartean. Orduan Israelerantz abiatu ziran; baña San Josek jakin zuenean Herodesen lekuan Arkelao semea jarri zala, ikaratu zan eta, Aingeruak esanda, Jerusalem alde utzirik Nazaretera joan zan, eta beren bizilekua emen artu zuten.

### 14. Jerusalemgo Elizan semearen geratzea

Nazaretan bizi zirala, Jerusalemgo Elizara urteoro oituraz joaten ziran, Pazkoako pesta egitera. Aurrak amabi urte zituenean besteetan bezala joan ziran: eta eliz-gauzak egiten zazpi egun igarotakoan, Nazareterantz gurasoak itzuli ziran. Uste zuten aurra berekin zutela; baña, egun bateko bidea egin ezkerro, oartu ziran semea etzeramatela. Badirudi gurasoak zerbait zabartu zirala, semea gabe irteten; baña lan artan Jainkoa bera zebillen. Erromeri oietan gizonak samalda batean eta emakumeak bestean ibilli oi ziran. Ah, orain ere au egingo balitz! Aurra oraïndik gaztea izanik, batzuen eta besteen artean joan zitekean. Aitak uste zuen amarekin zala, eta onek aitarekin; eta illunabarrean bildu ziranean, kontuan jauzi ziran semea ez batarekin, ez bestearekin zala; eta, atsekabeturik, aide eta adiskideen artean galdez asi ziran, eta arkitzen etzutenean, Jerusalemgo bideari eman zitzaiozkan. Irugarren egunean Elizan topatu zuten, jakinsuen erdian eserita, egiten ziezten galde eta ematen ziezten erantzuerakin guziak arritzen zituela. Ai ene semea! ama espatsuak ikusi orduko esan zion: Zergatik gurekin batean etorri etzatzagu, naigabe andi au guri eman gabe? Etsiziniekiten, Jesusek erantzun zien, nik nere Aitaren lanak egin bear ditudala? Jesus Elizatik irtenda, irurak Nazaretera joan ziran, eta ogeita amar urte bete artean, emen gurasoen mendean bizi izan zan. Bitarte luze onetako aur onen beste berririk ez degu: bada, Ebanjelio Santuak gai onetan ez digu ezer esaten, gurasoen mendean egon zala baizik. Zer umiltasuna, senar-emazte beren eskuko lanaz irabazitako ogiarekin bizi diranen esanera dagoan zeru-lurren Egille eta Jabearena! Zein egoki eta argiro erakusten digun gizonagatik ezereztu zala!



## BIGARREN IRAKURGAIA

### 1. San Juanen predikua

Munduaren Salbatzalleak bere lan andia asitzeko denbora eldu zanean, bere berri-emalle San Juan Bauptistak ere bereari ekin bear zion. Jesusek ogeita bederatzi urte eta sei illabete zituen, eta San Juanek ogeita amar urte, au, aspaldian eremuan zeraman bizitza isilla eta bakarra utzita, asi zanean jendea penitenziako bidetik prestatzen Jauna artzeko. Eginkizun onetarako San Juan baño erazkoagorik arkitzea, erraz etzan. Ere mu-  
 Eremu bakarrean gamelu-illez eotako soñeko zatar batekin gorputza estaltzen zuen; larrapote edo mendi-langostak eta bas-ertzia janaritzat, eta ur piska bat edaritzat zituen: eta urte askoan onela bizitu zan, Jainkoak aren kontura ipiñitako lanbide andia, denbora zanean egiteko.

Eremutik irtenda, Jordango ibai ondora jatsi zan, eta guziaz otsegi-  
 ten zien bekatuak uzteko eta Jaunagana itzultzeko. Jerusalem eta ingurue-  
 tatik jendeak samaldaka zijoazkion ikustera eta aditzera; eta onen bizitza  
 gogor eta latzak guziak arriturik uzten zituen; eta egiazko damuarekin  
 agertzen zitzaiozkanak bataiatzen zituen, ez Jesusek gero ipiñitako bataio-  
 arekin, ezpada onen antza baizik etzuenarekin, eta aldurrez adierazteko  
 Jesusek geroago munduari emango ziona.

Gizon andi onegan zekusten ontasuna ain andia izanik, uste izan ere  
 bazuten Mesias zala, eta mandatariak joan zitzaiozkan galdetzera ea  
 Mesias zan. San Juanek erantzun zien etzala, ez. Ni Mesias ez naiz, zion.  
 Niri darraikit ni baño geiagokoa, zeñaren oñetako lokarria askatzeko gai  
 ere ez naiz. Nik urez bataiatuko zaituztet; baño ark Espiritu Santuarekin  
 bataiatuko zaituzte. Oiek eta onelako beste esan askorekin erakusten zien  
 Mesias alderatzen zitzaiea.

### 2. San Juanek Jesus bataiatzen du

San Juanek lanbide onetan sei illabete zeramazkien, eta Jesus Naza-  
 retetik irtenda aurkeztu zitzaion bataio eske. San Juanek etzuen Jesus

egundaño ikusi; ala ere, aurkeztu orduko ezagutu zuen. San Juan  
 uzkur zegoan Jesus bataiatzeko, eta gogor egiten zion, esanaz: Zer? Zuk  
 ni bataiatu bear, eta Zu bataio eske niri zatozkit? Baña Jesusek esan zio-  
 nean: Nik diodana, zuk egizu; bada, ala konbeni da; bereala Jesusen esa-  
 nera jarri zan, eta Jesus bataiatu zuen. Au egindakoan, Zeruak idiki ziran;  
 Espiritu Santua uso baten antzean gañean jarri zitzaion, eta aditu zan ots  
 bat, ziona: Au da nere Seme maitea, zeñagan nere atsegin guzia dedan.  
 Jesus bataioa artuta baso illun batean sartu zan, eta bakar onetan berro-  
 gei egun eta berrogei gau otoitzean egin zituen, ezer ere jan eta edan gabe.

### 3. Deabruak Jesus tentatzen du

Berrogei-aldi onen ondoren deabrua alderatu eta tentatzen asi  
 zitzaion. Jainkoaren Semea bazera, esan zion, arri oiek ogi egin itzatu.  
 Jesusek erantzun zion: Gizona ogiak bakarrik ez du bizi, ezpada Jainkoa-  
 ren aotik datorren itzak. Etzion onenbestez utzi. Deabruak artu, Jerusa-  
 lenera eraman eta Elizaren galyurrean ipiñi zuen, eta esan zion: Jainkoa-  
 ren Semea bazera, ortik beera zoaz: bada, eskribaturik dago, Aingeruak  
 zuri kontu artzeko daudela, arririk jo ez dezazun. Baita ere eskribaturik  
 dago, Jesusek erantzun zion: Ez dezu zere Jaun Jainkoa tentatuko. Dea-  
 bruak etzuen oraindik ere etsi. Muñats goitu batera eraman zuen; mun-  
 duko erreinu guzien edertasuna erakutsi eta esan zion: Au guzia emango  
 dizut, baldin auzpez jarrita adoratzen banazu.

Lanbide oiek guziak deabruak egin zituen, Jesus Jainko egiazkoa zan  
 edo ez jakiteko. Lenbizikoetan Jesusek gozotasun guzian erantzun zion;  
 baño aditu zuenean adoratu zezala esaten, ezin geiago eramanez, esan  
 zion: Satanas, begietatik ken akit. Eskribatua zeagok: Ere Jaun eta Jainkoa  
 adoratuko dek, eta au baizik serbituko ez dek. Deabruak orduan iges egin  
 zuen, eta Aingeruak etorrita Jesusi jaten eman eta lagundu zioten.

Jesus gero Galileako uri Kafarnaumera joan zan, eta au bizilekutzat  
 artu zuen. Emendik irteten zan bere ondo-esanak egitera eta Eskritura  
 Santak erakustera. Ain jakinduri andiarekin galdeak egin eta erantzuten  
 zien, non asi ziran Mesias zala esaten; baño osotoro sinistetik atzeratzen  
 zituen, ezer gabeko gizon guraso bear batzuen semea zala ikusteak; eta



etzitzaiozkan txit jartzen. Irteera oietatik batean ibai-ondo batera joan zan, eta San Juan Baupstaren bi ikasle Andres eta Juan Ebanjelista alde-ratu zitzaiozkan, eta bere maisuari utzita, itzik esan gabe, zerraizkion. Jesusek galdetu zien ea zeren eske zebiltzan. Jauna, non bizi zera? esan zioten. Atozte eta ikusiko dezute, Jesusek erantzun zien. Aldameneko erri txiki batera joan, eta berarekin geratu ziran. Elkarrekin egindako itzaldiak, biak ipiñi zituen gañerako guziari lagata Jesusekin ibiltzera eta alegin guzian lagunak egitera.

Andresek lenbiziko topatu zuena, Simon bere anaia zan; eta esan zion: Badakizu Mesias arkitu degula? Biaramonaren zai egon gabe, bertatik Simon Jesusi joan zitzaion, eta Jesusek ikusi orduko bere Elizaren Buru gero izango zan Apostolu andi hura, esan zion: Zu Jonasen seme Simon zera; zuri Zefas, au da, Pedro deituko zatzu. Biaramonean guziak Galilearonz zijoazela, Felipe topatu zuten, eta Jesusek esan zionean: Nerekin atoz, joan zitzaion. Andik laster Felipek bere adiskide Natanaeli Mesiasen berria eman zion, eta Natanaelek ere Jesusi jarraitzea erabaki zuen. Jesus gisa onetan zijoan ikasleak egiten, oraindañokoan atoz uts bat esatea beste gabe; baña andik irugarren egunean erakutsi nai izan zuen bere esku altsuak zenbat zezakean.

#### 4. Kanako eztaiak. Jesusen lenengo mirari agirikoa

Kana zeritzan Galileako erri batean ezteiak egiten ziran, eta Maria guziz santa eta bere semea eztei oietara deitu zituzten. Ordurako San Jose senar doatsua illa zan: beragatik, batzuek diote ama zorioneko au Nazaretetik Kanara bizitzaz aldatu zala; besteak Nazaret iru orduz apart egiten zanean oraindik bizi zala. Gai onetan dana dala, benik bein dala aidetasunez, dala bere ontasunagatik, guziak ondo begiratu eta ikusia zalako, nai izan zuten ara eraman. Semearen izena ere ordurako barreatu zan, eta bere ikasleakin deitu zioten. Jan edanak ugari ipiñi bazituzten ere, atzenarako ardoa aitu zitzairen, eta ezkon-berriak txit lotsa andian arkitzen ziran. Amak semeari belarrira esan zion: Ardorik ez daukate. Eta, zuri eta niri zer dijoakigu, o emakumea? semeak erantzun zion. Nere ordua oraindik

ez da bete. Jesusek ordurako erabakita zeukan zer egin; baña etzion esana amari bereala egin nai izan, gañerakoak ardoaren ez-izanaz oartu zitezen, eta egingo zuen miraria obeto ezagutu zezaten. Semearen erantzuerak etzuen ama isildu. Mai-serbitzariari esan zien, Jesusek agindu guzia egin zezatela.

Juduak apaletan ontzi andi batzuek idukitzen zituzten, garbiketarako egiteko. Jesusek jan-tokian ikusi zituen sei ontzi ogeita bostna pitxar ardo kabitzen zituztenak, eta morroiari esan zien urez betetzeko. Gero agindu zien mai-buru egiten zuenari eramateko. Onek edan zuen; eta bereala asi zan esaten, sekulan iñork edandako ardorik obena baño ohea zala. Ikusi zuten morroiak ontzietara ura bota zutela, eta ur hura, Jesusen esanera, ardo egin zala zekusatenean, guziak arritu ziran, eta Jesusi begirune edo begiramentu txit andia artu zioten; eta au izan zan Jesusek agirian egindako lenbiziko miraria, edo beintzat munduak artakotzat artu zuena.

#### 5. Jesusen igoera Jerusalemenera

Kanatik Kafarnaumera jatsi zan. Emen egun batzuek eginda, Jerusalemenera joan zan, Pazkoa egin bear zuten egunetan. Jesusek etzuen uri onetan arteraño bere burua agertu. Baziekien etzutela beti-beti ondo artuko; baña asi nai izan zan, zein zan munduari erakusten. Elizara bere ikasleakin igota, ikusi zituenean eliz-atarian idi, ari eta usoak sakrifizioetarako saltzen, eta diru-trukatzeako maiak ere bazeuzkatela, aserretu zitzaion, soka bat artu zuen eta guziak kolpeka eraso zien, eta salkari eta saltzale guziak andik kendu zituen, ziosala: Ez nere Aitaren etxea sal-etxe egin.

Jerusalenen egon zan Pazkoako egun oietan, mirari asko eta andiak egin zituen: argatik asko eta asko jarri zitzaiozkan berari jarraitzera; bada, egiten zituen gauza arrigarriak sinisterazotzen zieten egiazko Mesias zala. Oien artean bat zan Nikodemo zeritzan lege-jakintsu eta Sanedrin zeritzan batzarrekoa. Gizon andi au Jesusi gauez isillik joan zitzaion esatera: Badakigu Jainkoagandik etorritako Maisua zerala; bada, zuk egiten dituzun mirariak, ezin ditzake Jainkoa berekin ez duenak. Mene-menetan esaten dizut, Jesusek erantzun zion, berriz jaiotzen ez danak, Jainkoaren Erreinua ez duela ikusiko. Nikodemok itz oiek azaletik artu zituen, eta esan zion:





Gizona bein urteetan aurreratu ezker, nola amaren sabelera itzuli diteke jaio-berritzeko? Mene-menetan esaten dizut, Jesusek erantzun zion: Ura eta Espiritu Santuarekin jaio-berritzen ez dana, ezin Jainkoaren Erreinuan sartu diteke. Nikodemo, bere jakinduri guziarekin ere, etzan gauza oiek bear bezala aditzeko edo igerritzeko gai. Jesusek esan zion jaiotza berri au bataioaren bitartez egingo zala; eta egon ziran itzaldi luze onetan, Jesusek beste gauza asko ere Nikodemori erakutsi ziozkan; zeñak adituta, uzkur-tasun guzia utzirik, osotoro jarri zan Jesus Mesiasztat amoriorik bizienarekin ezagutzera, eta onen lege santa gau eta egun erakustera.

Gizon andi au beretuta, Jesus Jerusalemik irten zan, eta bazter-errietara bere ikasleakin joan. Emen Jerusalemen baño jende sinistkorragoa arkitu zuen. Bere erakutsi on eta amoriozko ondo-esanakin asko irabazten zituen; eta gogoz eta menaz jartzen zitzaizkela igerritzen zienak, bere ikasleai bataiatu erazotzen ziezten: eta Sakramentu santu bataioko onek asiera emen izan zuen.

## 6. Samariako emakumearekin Jesusen itzaldia

Egiteko oietan egun batzuek igarota, Galilearonz abiatu zan. Bidean, Jakob anziñakoak bere seme Joseri emandako lurretik urrean zegoan, Sikar zeritzan Samariako erri bat. Emengo putzu-ondo batean eseri zan, bideak easan eta egarritua. Ikasleak jan billan errira joan zitzaizkan bitartean, emakume bat ur eske etorri zan, eta Jesusek esan zion: Edaten indazu. Samariar emakume onek erantzun zion: Nola zu judu orrek ni samariar oni ur eske zagozkit? Juduak eta samariarrak erlejioko gauza askotan bat etzetozen; beragatik elkarrekiko artu-eman eta adiskidetasun andi gabe bizi ziran; eta emakumeak au guzia gogoan zuela gisa onetan erantzun zion. Baña etzuen ezagutzen norekin ziardun; eta Jesusek esan zion: Ai, ene emakumea! Baziñieki nork esan dizun «edaten indazu», zuk zero-rrek menturaz eskatuko ziñioke, eta ur bizia emango lizuke. Samariar lenago baño ere arrituagoak, Jauna, esan zion, ura txit bean dago, eta zerekin aterarik ez dezu: ur bizi ori, bada, non dezu? Zer? Gure aita Jakob bere semeakin emen edan eta guri ura utzi ziguna baño geiago zera? Jesusek erantzun zion: Ur au edaten duena, berriz ere egarrituko da; baño nik emandako uretik edaten duenak, ez du egundaño egarririk izango. Ur ori

indazu, emakumeak esan zion, berriz egarritu ez nadin eta onara etorri bearrik izan ez dezadan.

Jesusek eskaera oni ezer erantzun gabe, esan zion senarragana joateko eta biak itzultzeko. Senarrik ez det, erantzun zion. Alaxe da, senarrik ez dezu, Jesusek esan zion. Bost izan dituzu, eta orain daukazuna zurea ez da. Erantzuera au emakume arentzat txit miña zan, zeren senartzat etzana zeukan, eta bere bizitza gaiztoa arpegira ematen zion. Ala ere, ontzat artu zuen, eta esan zion: Jauna, zu profeta zera, noski. Bere biziera asmatu ziolako profetatzat artu zuen, eta bere egitekoen gañeko galde asko egin ziozkan. Jesusek biotz andiarekin erakutsi zion zer egin, eta atzanean esan zion hura zala Mesias aspaldian itxedoten zutena. Emakumeak etzuen biotzik izan geiago ezer erantzuteko, eta geratu zan zer egin etziekiela.

Onetan zeudela, errira jan eske joandako ikasleak itzuli ziran, eta Jesus ikusi zutenean, oi ez bezala, emakume batekin itzegiten, arritu ziran; baño etzan iñor benturatu galdetzera ea zergatik emakume arekin itzketan zegoan. Emakumeak, Jesus bere ikasleakin utzirik, aldegin zuen, errikoai esatera Mesias ikusi zuela. Bitartean ikasleak Jesusi esan zioten: Maisua, jan ezazu. Baziékiten, alabañan, zein auldua utzi zuten, errira joan ziran. Baña Jesusek erantzun zien: Nik, zuek ez dakizuten zer-jana daukat. Au aditutakoan ikasleak elkarri esaten zioten, emakume ark zerbait jaten ekarriko ziola. Etzuten, bada, uste, Maisua lurreko gauzaetatik zerukoetara igotzen zala, eta igerrri etzioten zer janari zan aitatzen ziena. Nere janaria, zion, bialdu nauenaren naia egitea da.

Itzketa onetan Maisu-ikasleak ziarduten bitartean, emakume samariarra errian oska zebillen: Atozte eta ikusiko dezute, egin ditudan gauza guzi-guziak asmatu dizkidana. Ots onetara erriko asko Jesusi joan zitzaizkan, eta erreguz Sikar-era eraman zuten, eta bi egun igaro zituen jende guziari erakusten eta asko bereganon izipintzen.

## 7. Jaun baten semearen sendatzea Kafarnaumen

Sikardik Kanara joan zan, eta emen zegoala, Kafarnaumgo jaun bat aurkeztu zitzaion, eskatzera gaxo zeukan seme bat sendatzera, arren, joateko. Etzuen nonbait uste Jesusek urrutitik, etxera joan gabe, sendatu



zezakeanik; benik-bein, joateko eskatzen zion. Baña Jesusek bere esku andia erakusteko, esan zion: Zoaz, zure semea bizi da. Aita pozez etxerontz abiatu zan, eta morroiak bidera irtenda, esan zioten semea sendatu zala; eta egin ziezten galdeakin igerrri zion, Jesussek «zure semea bizi da» esandako ordu bere-berean, gaitzak semeari aldegin ziola. Mirari onekin aitak bere seme eta etxeke guziakin Jesus Mesiastzat ezagutu eta aitortu zuen.

## 8. San Juan Baupista itxian sartua

San Juan Baupista arestian utzi degu Judean erakusten; baña nork gaizki ikusi izan zuelako, aldegin bearrean arkitu zan eta, Judea utzirik Galileara joanda, Salimgo eremu bakarrean jarri zan. Emen bere bizitza on eta erakutsiak jende guzia berari begira ipiñi zuen. Herodes alderdi artako tetrarka edo agintariak ere asko nai zion; baña profeta andi onen esanak ezin eramana biotzean laster sartu zitzaion. Ara zergatik.

Filipo, Herodes onen anaia, Judeako tetrarka Aristobuloren alaba Herodiasekin ezkondata zegoan. Herodes hura emakume onezaz lilluratu zan eta anaiari kenduta emaztetzat berak artu zuen. San Juanek etzion pakean uzten, esanaz: Zure anaiaren emazte ori ezin dezakezu zeretzat iduki. Herodesek gaztigu au aditzen bazion ere, etzuen aintzat artzen; bai, ordea, Herodiasek. Emakume lotsa gaiztoko onek San Juanen esana onean ezin eramane, galtzeko asmoak artu eta era zai zebillen. Herodesek, batetik, bazekusan jendeak San Juani zenbat nai zion; bestetik, emazte zalakoak, hura begietatik kendu naiez erasotzen zion; eta atzanean agindu zuen itxian sartzeko.

Orañago esan dan miragarritzko sendatzearen ondoren, Jesus Kafarnaumgo sinagoga edo elizara joan, eta arkitu zuen gizon bat gaizkiñak zituena. Jesus, jendeari bere erakutsiak ematen ziarduela, deabruak gizon aren aotik otsegin zuen: Jesus Nazaretekoa, utzi zaguzu; gurekin zer egiteko dezu? gu galtzera zatoz? Badakit zein zeran: Jainkoaren Santua zera. Jesussek esan zion: Gizon orregandik oa. Eta gaizkiña bereala irten zan, oju izugarriak egiñaz. Begira zeudenak arriturik zioten: Au zer da? Deabruai agintzen die, eta oiek aren esana egiten dute.

Mirari oien otsera, kafarnaumtarrak inguratzeraz zijoazkion; baña jai-eguna zalako luzatu zuten, eta bitartean Jesus bere ikasle batzuekin Pedroren etxera joan zitzairen. Pedroren amagiarraba miñez oatua zetzan, eta Jesus, aurrean jarrita, gaitzari agindu aldegitteko, eta eria sendatu zan, eta Jesus eta onen ikasleak bazkaltzen berak eman zien. Jai-eguna joan orduko, gaxo, elbarri, itsu, mutu, gor eta beste miñantzik zeukan guzia Jesuserontz abiatu zan osasun billan, eta guziak sendatu zituen. Jesussek, ikusirik hura ikusteagatik artzen zituzten nekeak, esan zien ez inora ibiltzeko, bada erri andietara ez ezen, bazter-errietara ere joango zala, eta poz onekin etxetara itzuli ziran.



## IRUGARREN IRAKURGAIA

### 1. Zortzi Zoriontasunak agertuta

Andik egun batzuetara bazijoan bere bizilekura, beste ezin esan ala jende zerraikiola, eta ikusirik berari aditzeko zein eresi andiarekin zebiltzan, mendi-muño batera igo zan, eta guziak aditzeko eran eserita, egin zien Zortzi Zoriontasunen Sermoia deritzana, onela esanaz:

1. Zorionekoak gogozko beartsuak, bada zeruko Erreinua oiena da.
2. Zorionekoak asaldatzen ez diran mansoak, bada lurraren jabe dira.
3. Zorionekoak negar egiten dutenak, bada poztuak izango dira.
4. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri diranak, bada atsegin andiak artuko dituzte.
5. Zorionekoak biotz-beraak, bada errukituak izango dira.
6. Zorionekoak biotz garbikoak, bada Jainkoa ikusiko dute.
7. Zorionekoak paketsuak, bada Jainkoaren semeak deituko zaie.
8. Zorionekoak zuzentasunagatik nekeak daramazkitenak, bada zeruko erreinua oientzat izango da.

### 2. Jesusek Apostolui aurrena, eta besteai gero bere ikasbideak ematen diezte

Salbatzalleak baziekien zer eramankizun gogorren begira egongo ziran Ebanjelioaren erakustzalle eta Jaunaren ministroak; argatik atzeneko zoriontasunean onela itzegin zien. Gero au obeto erakusteko, bere

apostolu eta ikasleai esan zien: Zorionekoak izango zerate, gizonak gorrotatzen zaituztenean; beren artetik bota, eta edozein gauza zuen kontra darasatenean. Egun artan poztu zaitetze, zeren zuen saria zeruan andia izango dan. Baña zuen egitekoan kontuz zabilzate; bada, lurreko gatza zerate, eta gatzak gazitasuna galtzen badu, zerekin gazituko da? Ezertako ere gero balio ez du, kanpora bota eta ostikopean ebalitzeko baizik. Munduaren argia zerate. Mendi-tontorrean dagoan erria ezin ezkutatu diteke; eta argia ez du inork biztutzen lakari-pean ipintzeko, ezpada zutargi edo kandeleroan, etxeko guziaz argi dakien. Zuen argiak gizonen aurrean onela argi egin bear du, zuen obra onak dakuskiten eta zuen Aita zeruetan dagoana gloriatu dezaten.

Gero esan zien: Ez uste izan natorrela legea eta Profetak kentzera; etorri naiz, ez kentzera, ezpada betetzera; bada, egiaz esaten dizutet, zerulurrak dirauten bitartean, nere legeari tilde bat ere kenduko etzaio, eta guzia egin bear ko da. Nere aginduetatik txikiena ere austen duena, eta gizonai onela erakutsi, Zeruetako Erreinuan txikia deituko da; baña nere aginduak erakutsi eta gordetzen dituen, Zeruetako Erreinuan andia deituko da. Are geiago diotsuet: Eskriba eta fariseoak baño zuzenagoak ez bazerate, Zeruetako Erreinuan sartuko etzerate. Eskriba eta fariseoak azaletik zuzenak ziran; au da, gauza agirikoetan on-irudia egiten zuten; baña Zeruan sartuko dana, barrunen ere garbia izan bear da, eta bekatu ezkutukorik ere ez egin. Gero esan zien: Aditu zenduten anziñakoai esan zitzaie: ez dezu ilko. Nik berriz diotsuet: bere lagun urkoaren kontra aserretzen dana, juiziora eramana izango da; burlaka edo siñuka dagokiona, batzarrearen aurrera joan bear ko da; eta buru-gabea edo zoroa deitzen diona, infernuko suaren diña izango da.

Zure etsaiarekin ondo jarri zaite bidean zeran bitartean, onek jueza-  
ren aurrera eraman eta, juezak bere morroia emanda, itxian sartua izan  
etzaitzen: bada, egiaz esaten dizut, atzeneko ardita pagatu arteraño,  
andik irtengo etzerala.

Aditu zenduten anziñakoai esaten: Inoren bizi-lagunarekin nastuko  
etzera; bada, nik esaten dizutet, emakume bati begiratzen dionak kutizia-  
tzeko, bere biotzean bekatu egin du. Jesusek emen gurari gaiztoen kontra  
itzegin nai izan zien, eta garbitasuneko doaia autskorra bezain bearrekoa  
izanik Zeruan sartzeko, esaten die, munduko gauza guziak lenago galdu  
bear dirala hura baño. Baldin eskuiko zure begiak, dio, gaiztorako bidea  
ematen badizu, atera ezazu; bada, obe dezu begi bakarrarekin Zeruan



sartu, birekin betiko sutan baño; eta zure eskuiko eskuak bekatura bazaramazki, ebaki ezazu; bada, obe dezu alderdi bat galtzea, zure gorputz guzia infernuko sura bialzea baño. Lurreko gauza guziak lenago galdu bear dira, anima baño; eta Jesusek emen erakutsi nai izan ziena, au zan. Gero esan zien: Esan izan zan: baldin iñork bere emaztea uzten badu, aldekiago edo banakatutako agiria eman bizaio; baño nik esaten dizutet: bere emaztea, leialtasuna galdu diolako ez dala, uzten duenak, ezkontza loitzeko bidea ematen diola; eta onela utzitakoa artzen duenak, berea ez dana artzen du.

Denbora batean, emazteak ezkontzako leialtasuna austen zutenean, legeak eragozten etzuen, agiria emanda, uztea; eta beste gizon batekin ezkondu zitekean, eta senar utzitzallea ere bai beste emakume batekin. Baña Jesusek eskubide au osotoro kendu zuen, eta ezkontza bere lenengo oñera itzuli zuen, eta erakutsi zigun bein lotua ezin askatu ditekela. Bizi-alarguntza ere, desleialtasuna ez, beste edozein bidegatik egitea debekatzen du, eta onela banakatuai zorrotz agintzen die ez besterekin ezkontzeko, lena bizi zaion bitartean.

Askotan aditu izan dezute anziñakoai esan zitzaie: Gezurrezko juramenturik egingo ez dezu, eta Jaunari itz emana beteko dezu; baño nik esaten dizutet: iñola ere juramenturik egingo ez dezute, ez zeruagatik, zeren Jainkoaren eserlekua dan; ez lurragatik, zeren bere oñ-lekua dan; ez Jerusalemagatik, zeren Errege andiaren uria dan; ez zuen buruagatik, zeren ille zuri edo beltz bat egin ezin dezakezuten. Esan ezazute bada, bai, bai, ez, ez: itz oiezaz gañerakoa okerretik dator.

Juramentua, bear dan bidez egin ezker, ona da; baño artara oitua juramentu gezurrezkoetan txit erraz eta askotan erori ditekela edo beste alderen batetik utsegin dezakealako, esaten da okerretik datorrela; argatik Jesusek eskatzen du bear-bearrean baizik ez egiteko.

Legeak agintzen dituen gauzaen gañean onela itzeginda gero, asi zitzairen borondatezkoak erakusten. Oiek egitera kristaua beartua ez dago; ala ere, oiek diotena egitearekin, Jainkoaren aurrerako txit asko irabazten da. Aditu dezute esaten, Jesusek esan zien, begia begiagatik, ortza ortzagatik; baño nik esaten dizutet gaizki egin dizunari ez gaizkiarekin ordaintzeko, ezpada batek eskuiko masallan jotzen bazaitu, ezkerrekoa eskeñtzeko; eta iñork auzia ipiñi nai badizu eta barrungo janzia kendu, kanpoko ere utzi zaiozu; eta batek beartzen bazaitu zamatuta milla pausoa

joatera, bi millan zoazkio. Eskatzen dizunari eman zaiozu, eta ordañetan zuk zerbait ematea nai duenari ez arpegia itzuli.

Gero esan zien: Aditu zenduten esaten: Zure lagun urkoa maite izango dezu eta etsaia gorrotatuko dezu; baño nik esaten dizutet: zuen etsaiak maite izan itzatzute; gorroto dizutenai on egin zaiozute, eta galdu nai zaituztenagatik erregutu ezazute, Aita Zerukoaren semeak izan zaitzen, zeñak eguzkiaren argia on eta gaiztoai bialtzen die, eta euria zuzen eta biurriai datorkie; zergatik ezen, baldin maite zaituztenak maite badi-tuzute, zer ordañen begira zaudete? Publikanoak ere au bera egiten ez dute? Eta zuek senideai bakarrik diosaltzen badietzute, zer bestek baño geiago egiten dezute? Jainko egiazko gabeko jentillak ere ori bera egiten ez dute? On osoak edo perfektoak izan zaitezte bada, Zeruko zuen Aita dan bezala.

Nork bere etsaia edo gaizki egin diolako maite izatea aldats egiten da; baño Jesus zuzenak ala agindu zigun, eta berak aurrena erakutsi zuen, galdutzen zutenagatik bere Aita Eternoari erregutuaz.

Egiten diran gauza onak, munduari on-irizteagatik bakarrik egiñak izan ez ditezen, gero esan zien: On egitera zoaztenean, begira ezazute gizonak ontzat idukitzeagatik egin ez dezazuten; bada, onela egiten badezute, sariarik Zeruetako zuen Aitagandik artuko ez dezute. Amoina edo limosna ematen dezunean, ez aurretik soñurik joerazo, gaitz-estali edo hipokritak eliza eta karrikaetan egiten duten bezala, gizonak onratu ditza-ten; bada, egiaz esaten dizutet oiek beren saria artu zutela. Baña zuk amoi-na ematen dezunean, ezkerrek ez beza jakin eskuak egiten duena, zure limosna ezkutuan egon dedin; eta zure Aita ezkutu guziak dakuskienak ordainduko zaitu. Erregutzen dezutenean etzaitzela izan, ikusiak izan ditezen Elizan zutik edo leku agirietan jartzen diran hipokritaen antzeko-ak. Egiaz esaten dizutet oiek beren saria artu zutela. Baña zuk, gelan sartu eta atea itxita, Aitari isillik erregutu zaiozu, eta isillikako guzia aditzen duen Aitak ordaña emango dizu. Erregutzen dezutenean ez asko itzegin, asko itzegin ezker adituak izango dirala uste duten jentillak bezala. Ez oien antzekoak nai izan; bada, zuen Aitak badaki, eskatu ere baño lenago, zuek zer bear dezuten.

Bi moduz orazioa egin diteke, isillik eta agirian edo itz egiñaz; baka-rrean eta lagunakin. Jesusek emen orazio isilla eta bakarrekua aitutzen du; baño ez da uste izan bear, agirikoa eta lagunakikoa debekatzen duela; bada, berak beste aldi batean esaten zuen: Zuetatik bi lurrean bildutzen



badira, eskatzen dutena Zeruetako nere Aitak emango die; zeren bi edo iru nere izenean zeraten tokian, an izango nazuten.

Jesusek etzien esaten, nola eta zer itzakin erregutu bear zan, eta ikasle batek eskatu zion erakusteko. Jesusek orduan esan zien: Onela erregutuko dezute: Aita gurea, zeruetan zaudena, zure izena santuro erabilli bedi; zure Erreinuua gugana betor; zure naia, zeruan bezala, lurrean ere egin bedi. Gure egunoroko ogia gaur iguzu; gure zorrak barkatu zazkiguzu, guk gure zordunai barkatzen dieztegun bezala; utzi ez dizaguzu tentazioan erortzen; ezpada gaitzetik gorde gaitzatzu. Ala izan bedi.

Nola erregutu bear zuten erakutsita ondoren, barauaren gañean itz egin zien, esanaz: Barau egiten dezutenean, ez arpegi itun edo tristea ipiñi, gaitz-estali edo hipokritak barautzen dutela gizonai adierazotzeko egiten duten bezala. Egiaz esaten dizutet oiek beren saria artu zutela. Zuk, bada, barautzen dezunean zere burua igortzi eta arpegia garbitu ezazu, gizonak jakin ez dezaten barautzen dezula, ezpada zure Aita isilla dakienak; eta onek saria emango dizu.

Ez ondasunak bildu lurrean, non erdoiak eta sitsak ondatzen dituen, eta lapurrak ostutzen dituzten. Bildu itzatzute zeruan, non ez erdoiak jaten dituen, ez sitsak galdu, eta nondik lapurrak ez ateratzen dituzten, ez ostu. Pensa ezazu, zure ondasunak dauden lekuan zure biotza ere daukazula.

Emen Jesusek erakusten du lurreko gauzaetara ez dala geiegi etzin bear, eta oietan biotza daukana Jaunaren deia gor egingo zaiela; argatik dio gogozko beartsuak zorionekoak dirala.

Jana eta janziagatik ere itzegiten die, esanaz: Zure begia zure gorputzaren argi-ontzia da; zure begia argia bada, zure gorputz guzia argia izango da; baña zure begia illuna bada, zure gorputz guzia ere illuna izango da. Begira ezazu, bada, zure argi ori illundu ez dedin. Zure begia lurreko gauzaetan itsutzen bada, nola zerukoak ikusiko ditu? Inork ezin bi nagusi serbitu ditzake. Edo bata maite izango du, eta bestea gorrotatuko du; edo bata gordeko du, eta bestea ezer gitxian idukiko du. Ezin Jainkoa eta dirua serbitu ditzakezu. Orregatik esaten dizutet, ez ardura geiegirik artzeko animako janaz eta gorputzeko janiaz.

Anima ez da janaria baño lenago, eta gorputza janzia baño? Zeruko egaztia begira: ez dute ereiten, ez itaitzen, ez ganbarætan bildutzen, eta zuen Aita Zerukoak jaten ematen die. Zuek aiek baño lenago etzerate? Zuetatik nork bere gorputza beso bat geiago luzatu dezake? Eta, zertako

janziaren orrenbat ardura? Begira nola larra-lirioak, ez lanik egin, ez iruten duten; ala ere, Salomon bere anditasun guzian etzan ain ederki janzi, zein da aietatik bat. Orain, bada, gaur jaiotze eta biar labe sutuari emango zaiozkan belarrak ain ederki jazten baditu, zenbat geiago ez du egingo zuekin, fede gitxiko gizonok? Etzaitzela, bada, larritu esanaz: Zer jan edo zer edango degu, edo zerekin estaliko gera? Onelakoen billan jentillak dabilta. Baña zuen Aita Zerukoak badaki zuek gauza oien bear zera-tela. Jainkoaren Erreinuua eta zuzentasuna lenengo billa itzatzute, eta hura guzia emango zatzute. Biaramonean ardurarik ez artu, zeren biarko egunak berea ekarriko duen. Egunean eguneko nekea asko da.

Salbatzalleak gero esan zien: Ez inor juzgatu, zerok juzgatuak izan etzaitzeten; bada, bestegatik egiten dezuten juzgua, zuek egiten ere egingo da; eta besterik neurtzen dezuten kanarekin, zuek ere neurtuak izango zerate. Zertako, bada, zure anaiaren begian lastoa dakusu, eta zure begiko aga ez? Edo nola zure anaiari esaten diozu: Ots, begiko lasto ori kenduko dizut, zurean aga bat daukazula? Gaitz-estalia! Zure begiko aga lenengo kendu ezazu, eta orduan zure anaiaren begitik lastoa kentzea pensatuko dezue.

Gauza santak txakurrai eman ez dieztezutela, ez eta zuen perlak txerrien aurrera bota ere, ostikopetu ez ditzaten eta, zuetaronz itzulita, triskatu etzaitzaten. Eska ezazute, eta emango zatzute; billa ezazute, eta arkituko dezute; jo ezazute, eta idikiko zatzute: bada, eskatzen duenak, artzen du; billatzen duenak, arkitzen du; eta jotzen duenari, idikitzen zaio. Zuetatik zein gizon da, semeak ogia eskatuta, arria emango diona? Eta arrai edo ezkalu bat eskatzen badio, suge bat emango diona? Zuek, bada, gaiztoak zeratelarik, baldin badakizute eman zazkizuten ondasunetatik zuen semeai ematen, zenbat obeto zuen Aita Zeruetakoak eskatzen dutenai emango diezte? Ala bada, gizonak zuei egitea nai dezuten guzia, zuek ere aiei egitezute: orra legea eta profetak.

Ate estutik sartu zaitezte, zeren ondamenara daraman atea andia dan, eta bidea zabal; eta asko dira emendik sartzen diranak. O zein ate estua dan, eta bide mearra bizitzara daramana, eta zein gitxi diran topatzen dutenak! Profeta gezurrezko edo falsoakin kontuz zabilzate: ardi janzita datorkizute; baña beren barruan otso amorratuak dira. Beren fruetatik ezagutuko dituzute. Menturaz elorriak matsik ematen du, edo larrak pikurik? Ala bada, arbola onak frutu onak ematen ditu, eta txarrak gaiztoak. Arbola onak ezin frutu gaiztorik eman dezake, ez eta arbola txarra



rrak onik ere. Frutu ona ematen ez duen arbola, ebaki eta suari emana izango da. Beraz, beren frutuetatik ezagutuko dituzute.

Zeruetako Erreinuan ez dira «Jauna, Jauna» dioten guziak sartuko; zeruetan dagoan nere Aitaren naia edo borondatea egiten duena bakarrik zeruetako Erreinuan sartuko da. Zerua ez da itz utsakin irabazten, ezpada Jaunaren aginduak gordetzearekin. Askok egun artan esango didate, Jesusek dio: Jauna, Jauna, ez giñituen etorkizunak zure izenean asmatu edo profetizatu, deabruak zure izenean bota, eta mirari andiak zure izenean egin? Nik orduan esango diet: Begietatik ken zakizkit gaiztoa egin dezutenok, zeren beñere ezagutu etzinduztedan. Nere esanak aditu eta gordetzen dituen berdinduko da bere etxea arkaitz gañean egin zuen gizon zintzo argi batekin. Euria egin zuen, ibaiak anditu ziran, aizeak irten ziran, etxea indar guziarekin jo zuten, eta erori etzan, arkaitz gañean egia zalako. Baña nere esan oiek aditu eta gordetzen ez dituen, bere etxea are gañean egin zuen gizon zoroaren antzekoa izango da. Euri-jasa erori zan, urak azi ziran, aizea irten zan, etxea indarrez jo zuen, eta erorita auts egin zan.

Jesus, itz oiek eta onelako beste asko aldi luzean esanda, isildu zan, eta aditzalleak arriturik zeuden erakusten ziezten zeruko gauzakin, eta agintea zeukanaren antzean itzegiten zielako: eta gerozkoan beti-beti berari jarraitzeko asmo biziarekin geratu ziran.

### 3. Soraioaren sendamena

Menditik jatsita Kafarnaumeron zijoala, legenardun edo soraio bat bidean belauniko jarri zitzaion, ziosala: Jauna, nai badezu, garbitu nazezu. Jesus errukitu zan; eskua luzatu zion, esanaz: Nai det; eta bereala garbitu zan. Orduan Jesusek esan zion: Begira, ez iñori esan; apaizari zoazkio, eta Moisesek agindutako eskeña edo ofrenda egizu.

Jesusen iñori ez esateko aginduari begiratu gabe, soraio onek bereala barreatu zuen zer gertatu zitzaion, eta guziak are arrituagoak eta Jesusganon ezziñagoak jarri ziran; eta soraio bakarrean bizi bearrean arkitzen zana, gero gizonen artean bizitzen asi zan.

### 4. Zenturion-en mutillaren sendamena

Jesus Kafarnaumera joan zan; eta emen arkitzen zan euntari edo zenturion baten morroi elbarri ezin ibilli eta iltzer zan bat. Nagusiak jakin zuenean Jesus ara zala, judu zar batzuek bialdu ziozkan, etorri eta sendatu zezala esatera. Mandatariak esan zioten mesede au, arren, egiteko: bada txit asko zor ziotela. Joango natzaio eta sendatuko det, Jesusek erantzun zien. Etxera alderatu zitzaiozkanean, euntariak Jesusi adiskide batzuek bialdu ziozkan, esatera: Jauna, ni diña ez naiz Zu nere etxean sartu zaitez; argatik ez natzazu bidera irteten; bada, zure esan uts batekin nere morroia sendatuko da.

Euntari onen humiltasunarekin Jesus arritu zan, eta lagunai esan zien: Ez det Israelen onenbeste sinismen arkitu. Gero euntariari esan zion: Zoaz, eta zuk sinistu dezun bezala, egin bedi. Eta morroia ordu berean sendatu zan.

Gertaera onen ondoren, bere ikasleak arrantzara, oi bezala, joan ziran batean, Jesus ere errege-aldia eginda, Genesareteko itsas ondoan arkitzen zan, aren billan zebillen jende andia inguruan zuela. Ur-ertzean bi batela iñor gabe ikusi zituen, mariñelak sareak garbitzeagatik lurrera irten ziralako. Bat Pedrorena eta bestea bi anaia Juan eta Santiagorena ziran. Jesusek, Pedroren ontzian sartuta, jendeari erakusten luzaro jardun zuen; eta itzaldiaren ondoren Pedrori agindu zion itsasoan barrunago eramateko.

### 5. Miragarrizko arrantza

Itsas-zabalera ziranean, Pedrori esan zion sareak bota zitzala. Pedrok erantzun zion: Jauna, gau guzian ezer atzitu ez degu; baña zuk diozun ezker, zure izenean zabalduko ditugu. Ala egin zuten, eta ainbeste arrai sarean nastu ziran, non austen zitzairen. Arrantza andi au ikusirik, beste



ontzira otsegin zuten, eta biak arraiez bete zituzten. Ikasleak txit arritu ziran, eta Pedrok esan zion: Jauna, nigandik aldegin ezazu; bada bekatari bat naiz. Pedrok etzuen uste Jesusen ondoan egoteko diña zanik; argatik onela itzegin zion. Ez ikaratu, Jesusek erantzun zion; gaurtik aurrera ez arraien, ezpada gizonen atzitzalle izango zera. Ontziak baztertu, morroiak bialdu eta zuten guzi-guzia utzita, Jesusi jarraitu zitzaiozkan, ez geiago uzteko asmo biziarekin, eta Kafarnaumera joan ziran.

Kafarnaumen egun batzuek eginda, Jesus bere ikasleekin arratsalde batean Genesaretoko itsas-bazterrera berriz ere joan zan, jendetza andia ondoren zuela. Bidean lege-jakintsu batek noranai jarraitzeko eresia agertu zion; baña Jesusek esan zionean arekin zebillenak zer bizitza neketakoa egin bear zuen, atzeratu zan. Beste bati bereala Jesusek berak otsegin zion: Jarraidazu. Erantzun zion: Jauna, pozik jarraituko natzazu; baña zure baimenarekin aita lurpetzera noa. Illai utzi zaiezu illak lurpetzen, Jesusek esan zion, eta zuk Jainkoaren Erreinua erakutsi ezazu. Beste batek esan zion: Jauna, zurekin joango natzazu; baña utzi zadazu nere etxeko gauzai beren eraena ematen. Jesusek erantzun zion: Goldeari eskua ezarri eta atzera begiratzen duena, Jainkoaren Erreinurako egokia ez da. Itzketa onekin adierazo zuen lurreko gauzak ez diotela Jainkoaren legea erakutsi nai duenari biotza beretu bear.

Itsas-bazterrera zanean Jesus bere ikasleekin ontzian sartuta, beste ontzi asko ondoan zituela, beste alderonz abiatu zan. Itsasoa aserretu zitzaian, eta ondatzeko zorian jarri ziran. Jesus lo zetzan, eta ikasleak esnatuta esan zioten: Maisua, gorde gaitzazu, bestela galduak gera. Gizon sinismen gitxikoak, zerk ikaratzen zaituzte? Jesusek esan zion. Itsasoari agindu zion gelditzeko, eta eznetan jarri zan. Beste ontzietakoak ere irris-ku berean arkitu ziralako, arriturik, zioten: Nor da itsasoa eta aizeak bere esanera ipintzen dituen au? Ongille andi oni eskerrak nola eman ezin asmatuz, itsas-adarra igarota, Gerasako ondoan lurra egin zuten.

## 6. Bi gaizkindunen sendamena

Jesusi lenbiziko aurkeztu zitzaiozkanak bi gaizkindun izan ziran. Bi errukarri oiek basoetan edo lurpeetan, abere basatien gisan, bizi ziran.

Biak iltura edo tormentu andiak zeramazkiten, endamas bata, zeña egunez mendietan garraxika eta gauzez lurpean orruka oi zegoan; arri zorrotzakin aragiak ebakitzen zituen; askotan lotu nai izaten zuten, baña kate eta ubalak bereala etentzen zituen. Gizaxo au, bada, Jesus ikusi orduko, joanda auzpeztan oñetan jarri zitzaion. Espiritu loia, Jesusek esan zion, gizon orregandik irten adi. Deabruak deadar egin zuen: Zer det nik zurekin zer ikusi, Jainko andiaren Seme Jesus? Gizon onek zeuzkan deabruak asko ziran, eta alegin guzia egin zuten ez gizon ari uzteko; baña Jesusek atzanean agindu zion irteteko, eta larrean zebilzan txerri-samaldan sartu, eta itsasoan ondatu ziran. Txerrizaiak, izu-ikara egiñik, nagusietara joan ziran eta zer gertatu zitzaian esan zieten. Beste lagunari ere deabrua berebat irten zitzaion, eta biak jarri ziran Jaunari eskerrak ematen. Ingurumaikoak mirari oiek jakin zituztenez, Jesus ikustera joan ziran, eta bere almen eta eskubide andiak zabaldu zituzten. Bakarrik gerasarrak erakutsi zuten esker gaiztoko billaukeriarik beltzena. Ain mirari andiak egiten zebillien Ongillea beren artean iduki nai-eza biotz dollor aietan sortu zan. Bildu ziran eta, Jesusi gelditzeko esan bearrean, eskatu zioten lenbait-len begietatik kendu zekiela. Munduaren Salbatzalleak eratan zion zorianak poz baño, txerriak itsasoan ondatuak min geiago ematen zion; eta bildur ziran, baldin gero ere Jesusek aiekin baziardun, onelako beste gauzaren bat egingo ziela; argatik nai zuten bereala aldegin zezan. Jesusek, bada, utzi zituen eta Kafarnaumeron ziran, Gerasakorik inor ere etzerraikiola. Gaizkindun bi sendatutako aiek bakarrik jarraitu nai izan zitzaiozkan; baña Jesusek agindu zion beren lekuan egoteko. Lurreko ondasun ustelagatik Jauna uzten dutenen zer irudi mene-menetakoa gerasarrak begietan ipintzen diguten!

## 7. Eri baten sendamena

Kafarnaumen Pedroren etxera joan zan; eta emen, Galilea, Juda eta Jerusalem bildu zitzaiozkan batzuekin bere legearen gañean itzegiten ziarduela, guziak isildu zituen gauza bat gertatu zan. Jesus ikusirik eri guziak sendatzen, lau gizonen elbarri bat andaetan zeramatzen, Jesusi erakusteko asmoan; baña egin-al guziakin ezin ziran atetik sartu, jende asko bildu zalako. Tellatura igo, eta zulo batetik zinzilika Jesusen oñetaraño



jatsi zuten. Jaunak, eri aren uste osoa eta laguntzalleen on egin naia ikusita, esan zion: Sinistu ezazu, semea, zure bekatuak barkatu zaskizu. Eserita zeuden lege-jakintsu, eskriba eta fariseoak beregan zioten: Zein da onela itzegiten duen au? Nork, Jainkoak bestek, bekatuak barkatu ditza-ke? Jesusek igერი zien barrunen zer zerabilten, eta esan zien: Errazago zer da, «bekatuak barkatu zaskizu» esatea, edo oiean datzana irakori, oia artu eta ibillierazotzea? Jakin ezazute, bada, gizonaren Semeak bekatuen bar- katzea eskuan duela. Eriari esan zion: Jaiki, oia artu eta etxera zoaz. Eriak ala egin zuen, osotoro sendaturik. Jende ez-jakin guziaz arritu zan, eta otse- gin zuen egundano ez-ikusitako gauzak zekuskitela. Eskriba eta fariseoai ere mirari onek begiak garbitu bear ziezten; baña biotzak gogortuak zeuz- katen, eta etzuten egia ezagutu nai izan.

## 8. Mateori Jesusen deia

Pedroren etxetik itsas ondora joan zan, eta ikusi zuenean Mateo aul- kian eserita, alkabala edo erregeak ipiñitako petxak biltzen, esan zion: darraidazu. Ots onetara gauza guziak utzita, Jesusekin joan zan. Mateok bere etxean bazkari bat bereala prestatu zuen; eta maiean zeudela, fari- seoak ikasleai esan zioten: Nola zuen Maisuak bekatariakin jaten du? Petxa-biltzalle oiek publikano edo bekataritzat zeuzkaten; argatik oiekin Jesusek jateaz miresten ziran. Jesusek esan zien: Sendatzallearen bear gaxoa da, ez osasuna daukana. Ni etorri ez naiz justuen billan, ezpada bekatariak ontzera.

## 9. Jairoren alabaren biztutzea

Bazkalondoan Jesus bere ikasle eta San Juan Bautistarenakin, oiek egin ziozkaten galde batzuen gañean ziarduela, Jairo Sinagogako nagusia joan zitzaion, eta eskatu zion aren etxera, arren, joateko, iltzer utzi zuen alaba sendatzera edo, ordurako illa bazan, biztutzera. Jesus jaiki zan; eta Jairorekin zijoala, amabi urtean odol-jarioz bizi zan emakume gaxo bat

jende artetik sartu zitzaion eta soñekoan ukitu zion, esanaz: Baldin soñe- koari ukitzen badiot, sendatuko naiz; eta ordu berean gaitzak utzi zuen. Miñantz au zeukanik ezin iñorekin batu zitekean, eta langai artan isillik ibilli zan; ez ordea Jesus oartu gabe, zeñak esan zuen: Nork ukitu dit? Emakumeak igერი zion ezagutu zuela, eta aitortu zuen. Orduan Jesusek esan zion: Zure uste onak sendatu zaitu; pakean zoaz, eta bizi zaite.

Emakume onekin itzketan ziarduela, Jairori alabaren il-berria etorri zitzaion. Aitak, lege dan bezala, min zuen, baña Jesusek bereala poztu zuen, esanaz: Sinistu ezazu, eta zure alaba biziko da. Eta etxeronzko bideari eman zitzaiozkan. Alderatu ziranean, Jesusek Pedro, Santiago, Juan eta illaren gurasoak berekin arturik, etxean sartu zan eta negarrez zeudenai esan zien: Orrela zer dezute? Neskata ez ilda, ezpada lo datza. Gelan sartu zan, eta eskutik artuta esan zion: Neskata, jaiki zaite. Bereala jaiki eta ibilliari eman zion. Jesusek gurasoai agindu zien ez iñori esateko zer egin zuen; baña bazter guztietara laster barreatu zan.

## 10. Bi itsuren argitzea

Mirari oien ondoren Jesusek, Kafarnaumdik irtenda, Jerusalemeneron- z bidea artu zuen, jende andiazeraiola. Bidean eskean zeuden bi itsuk, oartu ziranean Jesus an zala, deadar egin zioten: Dabiden Semea, erruki gaitzazu. Jesusek ez-aditu egin zien; baña etsi etzuten. Gaua egin bear zuen etxerano jarraitu zitzaiozkan eta jendea sakabanatu zanean, berriz ere joan zitzaiozkan erregu berarekin, ziotsatela: Dabiden Semea, erruki gaitzazu. Jesusek, begira jarrita, esan zien: Uste dezute nik on ori egin dizazutekedala? Bai, Jauna, erantzun zioten. Jesusek orduan bere eskuak begietan ipiñi ziezten, esanaz: Zuen sinismenari dagokiona egin bedi. Eta biak argitu ziran. Esan zien ez iñori esateko; baña etxetik irten orduko, asi ziran barreatzen.

Itsu oiek argituta bereala, gaizkiñak zeuzkan gizon mutu bat eraman zioten. Jesusek, geroke begira egon gabe, deabrua kendu zion, eta gizona asi zan itzegiten. Guziak arritu ziran, eta zioten egundano etzala Israelen alakorik ikusi; baña baziran Jesusen egin miraritsu oiek ezin eraman zituz- tenak. Eskriba eta fariseoak, arrokeriaz beterik, benturatu ziran esatera





Jesusek deabruarekin parte arturik mirari aiek egiten zituela. Jesusek igerri zien zer zioten; baña etzien orduan aintzakotzat artu, eta Jerusalemeneron bazijoan, esan diran mirari, eta onelako beste asko bidean egiñaz.

tzeko gogo geiago. Jesusi arpegira eman zioten zertako jai-egunean gauza hura egin eta erriari oiarekin joateko agindu zion; baña Jesusek, aien berri ondo ziekienak bezala, erantzun zien eta bere egiña garbitu zuen.

## 11. Ogeita emezortzi urtean eri zanaren sendatzea

Jesus Jerusalemen sartu zan pesta andi bat egiten zan egunean. Jerusalemen arkitzen zan putzu bat *Piscina probatica* zeritzana. Putzu onetara urtean bein Aingerua jatsi eta ura erabilli ondoan lenengo sartzen zana, gaitz guziak sendatuta gelditzen zan. Beragatik, putzu inguru guzia eri eta gaxoz estalia egon oi zan, Aingerua zetorreanean elkarren leiean sartzeko. Ogeita emezortzi urte aietan an arkitzen zan gizon elbarri bat Jesusek ikusi zuen oiean zetzala, eta galdetu zion ea sendatu nai zan. Eriak erantzun zion: Jauna, iñor ez daukat, ura mugitzen danean lenengo sartu nazan, eta asi orduko, bat edo bat sartzen da. Jaiki zaite, Jesusek esan zion, zure oia artu, eta zoaz. Eria bereala sendatu eta oia sorbaldan zuela joan zan.

Mirari au egindako eguna jai-eguna zan; eta eskriba eta fariseoak emendik artu zuten gaizki itzegiteko oña. Berak etzuten mirariak egiteko eskubidea bestek izatea ezin, alabañan, eraman zuten. Etziekiten nork egin zuen; baña, ikusirik Jesusek egindako beste asko, zain txarrak bereala eman zien, au ere Jesusek egiña zala. Lenbizian, erriari eraso zioten, esanaz jai eguna zalako, oia ezin eraman zezakeala. Baña onek erantzun zien, sendatu zuenak esan ziola oia artuta joateko; esaten bazien bezala, ogeita emezortzi urteko gaitza ain aisa kendu didanak, zuek baño obeto daki jai-egunean au edo ori egin ditekean. Orduan galdetu zioten: Nor da, oia artuta joateko esan dizun gizon ori? Etziekien nor zan, eta Jesusek isillik aldegin zuen.

Eri sendatua, oia etxean utzita Elizara joan zan, Jainkoari eskerrak ematera. Jesus eta eria, ustez-ustekabe, an arkitu ziran, eta Jesusek esan zion: Begira, sendatua zaude, eta ez geiago okerrrik egin. Orduan ezagutu zuen Ongillea nor zan. Bereala eskriba eta fariseoai joanda esan zien sendatzalle Jesus izan zuela. Berri onekin artu zuten Jesus esesi edo persegi-



## LAUGARREN IRAKURGAIA

### 1. Amabi Apostoluen aukera

Jesusek igerri zien galdu nai zutela, eta ordu au etorri baño lenago autu nai izan zituen bere lege santa bere ordezkari ondoen nork erakutsiak, bizi zan bitartean bere ondoan ondo ikasita. Jerusalem irten eta Kafarnaumera joan zan. Aukera au egiteko, gau batean mendira igo zan otoitz egitera; bada, lan andi guzietan aurretik prestaera au beti zeraman. Biaramonean goiz, ikasleai otsegin zien; eta oien artean amabi autu, eta Apostoluak deitu zien. Oiek ziran Simon Pedro eta onen anaia Andres, Santiago andia eta Juan anaia, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago gaztea, Judas Tadeo, Simon eta Judas Iskariote gero saldu zuena.

Gauza arrigarria! Gizon argal ez-jakin batzuek Jesusek bere ordekoztzat aututzen ditu mundu guzia bere legera ekartzeko, bere Elizari oña emateko, bere izena mundu guzian zabaltzeko. Baña, amabiak zer ziran ain lan andirako? Batzuek arrantzale sareak zabaltzen baizik etziekitenak, besteak nekazale eskolatu gabekoitsuak; guziak jende beenekotik ateratuak, izen gabeko inor uts ezertan ere aintzakotzat artzen etziranak. Oiek bada, aututzen ditu gizonaren berezko grina txar guziaz, deabruari eta munduari gerra emango dien lege andia erakusteko; baña Jainkoak autuak dira, eta au asko da gauzarik miraritsuenak eta arrigarrienak egiteko.

Jesusek autu zituenean esan zien: Zoazte, eta mundu guziari esan zaiozute Jainkoaren Erreinua badatorrela; zoazte, ez oraindik ordeza jentillenen artera, ez eta samariarren errietan sartu ere; ezpada Israelko ardi galduetara: eriak sendatu, illak biztu, legenardunak garbitu eta gaizkiñak kendu itzatzute. Eskualdi au doan artu dezute, eta doan erabilliko dezute. Bidean ez ezer eraman, ez urrerik, ez zillarrik, ez zizkuetan dirurik, ez zakutorik, ez bi janzirik, ez oñetakorik, au da, soñean zeramazkitenak beretik; bada, lana egiten duenak, saria edo jornala merezi du.

Edozein errietan sartzen zeratenean, galdetu ezazute ea erri artan diña zein dan. Etxe onetan zaudete, etxetik irten bitartean. Sartzen zera-

tenean, esango dezute: Pakea etxe onetan. Eta etxeak merezi badu, pakea sartuko zaio, bestela zeroi itzuliko zatzute; eta norbaitek ez bazaituzte artzen edo zuen itzak aditzen, aren etxetik edo errietik irtetean, oñetako autsak astindu itzatzute. Egiaz esaten dizutet, Sodoma eta Gomorra atzen juizioko egunean ez dirala ain gogorkiro artuko, zein etxe edo erri hura.

Erakutsi oiek, esan diteke zuzentzen zirala Jesus bera bizi zan arteño; baña geroagorako ere eman nai izan ziezten, esanaz: Bialtzen zaituztet ardiak otsoen erdira bezala; izan zaitezte kontuzkoak, sugeak bezala; eta doblez gabeak, usoak bezala. Gizonetatik gorde zaitezte; bada erabakileku edo tribunaletara eramango zaituzte, sinagogaetan azotatuak izango zerate eta eraentzalle edo gobernadore, eta erregeen aurrean nigatik ipiñiak.

Orduan ez pensatzen egon nola edo zer itzegingo dezuten; bada, zer-esanak emango zatzizute; zuek etzerate itzegiten dezutenak, ezpada zuen bitartez itzegiten duen Aitaren Espiritua. Anaiak anaia eriotzara eramango du, eta aitak semea, eta semeak gurasoen kontra jaikiko dira eta ilerazoko dituzte, eta zuek guziok nere izenagatik gorrotatuak izango zerate; baña atzeneraño irauten duena, salbatuko da. Uri batean esetsi edo persegituak bazerate, bestera zoazte. Egiaz esaten dizutet, ez dituzutela Israelko uri guziak onduko gizonaren Semea datorren arteño. Ikaslea maisua baño geiago ez da; morroia ere ez nagusia baño. Ikasleak asko du maisua bezala izatea, eta morroiak ere bai nagusia bezala. Baldin etxenagusia edo familiako buruari Belzebub deitu bazioten, etxeokai zer dituko ez diete? Baña ez ezergatik ikaratu; bada, ez da gauza ezkutaturik agertuko ez danik, eta isillik jakingo ez danik. Nik isillik esaten dizutedana, zuek agirian esan ezazute, eta belarrira esan zazutena, tellatuetatik erakutsi ezazute. Ez gorputza iltzen dutenai bildur izan, zeren anima il ez dezaketen. Bildur izan zatzakio anima eta gorputza Infernura bota ditza-keanari. Zer bada, ez dira bi arditgatik bi txori saltzen, eta ala ere oietatik bat bakarra ere zuen Aitaren baimena gabe lurrera eroriko ez da? Zuen buruko illeak zenbatetuak dira, eta esku hura gabe bat bakarra ere galduko ez da. Ez ikaratu, bada, zeren txori askok baño geiago balio dezuten. Gizonen aurrean aitortzen nauena, nik ere nere Aita Zeruetakoaren aurrean aitortuko det; baña gizonen aurrean ukatzen nauena, nik ere nere Aita Zeruetakoaren aurrean ukatuko det.

Ez uste izan pakea dakardala, au da, munduak paketzat daukana, ez; pake orrekin ez nator, ezpada ezpatarekin, au da, pake ona eta txarra



berezitzen dituen nere itzaren ezpatarekin. Nator banakatzera semea aita-gandik, alaba amagandik, erraña amagiarrabagandik, zeren gizon leialaren etsaiak bere etxeokak izango diran. Bere aita eta bere ama ni baño maiteago dituen, nere diña ez da; eta bere semea eta alaba ni baño maiteago dituen, nere diña ez. Eta bere gurutzea artuta, ez darraikidana nere diña ez da. Bere bizia gordetzen duenak, galduko du; au da, bere biziari niri baño geiago nai dionak, anima galduko du, eta bere bizia nigatik galtzen duenak, anima gordeko du. Zuek artzen zaituztenak, ni artzen naute; eta ni artzen nauenak ni bialdu ninduen artzen du. Profeta bat profetatzat artzen duenak profetaren saria artuko du; eta justu bat justutzat artzen duenak justuaren saria artuko du; eta nere ikasleetan txikienari baso-ur bat bakarria ematen dionak, ez du ikaslearen saria galduko. Oiek eta onelako beste gauza asko esan ziezten, bera bizi zan artean eta gero zer egin bear zuten erakusteko.

Itzaldi au eginda, Jesus menditik beeratu zanean eri eta gaizkindun askorekin arkitu zan, guziak sendatzeko eskatzen ziotela. Guziari mesede au egin ondoan, eseri zan, eta mendian lenagoko egonaldi batean erakutsitako zortzi zorionak edo bienabenturantzak berriro ziezten. Gero bereala jendea nor bere aldera bialduta, Kafarnaumen sartu zan, bere Apostoluakin zerbait artu eta atsedetera.

## 2. Amabi Apostoluak biñaka bialduak

Emendik amabi Apostoluak biñaka bialdu zituen Jainkoaren Erreina erakustera, eriak sendatzera eta gaitzkiñakbotatzera. Berak beste ikasle batzuek laguntzat artu zituen, bere ondoan geroko ikasi zezaten. Aukera au eginda, Naim-era lenbizi joateko asmoa artu zuen. Erriko atera zanean, topatu zuen ama alargun baten seme bakar illoian zeramaten. Jesusék ama negarrez ikusita esan zion: Ez negarrik egin. Illoizaleak gel-ditu ziran. Orduan Jesus illari alderatu zitzaion, eta esan zion: Gaztea, jaiki zaite. Jaiki eta itzegiten asi zan, eta amari eman zion. Guziak arritu ziran, eta deadar egiten zuten: Profeta andi bat sortu zagu, eta Jainkoak bere Erriari begiratu dio.

Egun oietan San Juan Baupista oraindik itxian zeukaten, eta bere ikasleak joan zitzaiozkan, Jesusék egiten zituen mirariak esatera. San Juanek gogoz eta poz andiarekin aditu zituen; baña igerrri zien, bear zan adiña sinismen Jesusgan oraindik etzeukatela, eta biri agindu zien Jesusgana joanda galdetzeko: Zu zera etorri bear dana, edo besteren baten zai egongo gera? Jesus jende askok inguratua zegoan San Juanen ikasleak galde au egin ziotenean; eta etzien ezer erantzun; baña bai asko eri sendatu, gaizkin bota eta itsu argitu. Gero esan zien: Zoazte, eta Juani esaiozute zer aditu eta ikusi dezuten: itsuak dakustela, errenak dabilzala, sarnatiak garbitu dirala, gorrak aditzen dutela, illak biztu dirala eta beartsuai Ebanjelioa adierazten zaiela.

Bereala San Juanen aldeko itzaldi luze bat egin zien, zeñetan, beste gauza askoren artean, erakutsi zien umiltasuna zein andia eta ederra dan. Aditzalleak txit gogoz egon zitzaiozkan, eta fariseoai besteri ez bezala ukitzen zien itzketa bazan ere, oietatik Simon zeritzan batek, batere atsekaberik artu gabe, esan zion aren etxera bazkaltzera joateko; eta Jesusék Simonen eskeñtza au aintzat artuta, joan zitzaion; maiean jarri zan, fariseo asko inguruan zituela; eta onela zeudela, gertatu zan gauza bat, emen zearo ezarritzea dagokana.

## 3. Maria Magdalenaren ondutzea

Naimgo erri onetan bizi zan Maria zeritzan andre galdu bat. Maria Betanian jaioa eta guraso aberatsen alaba zan. Iru senide ziran, Lazaro, Marta eta Maria. Gurasoak ilda, ondadea iru senideak, nork bere zatia, artu zuten. Lazaro eta Martari Betanian zituzten ondasunak erori zitzaiozkatzen, eta Mariak artu zuen Magdalengo gaztelua, zeñaren bidez Magdalena deitzen zaion. Maria Magdalena egun batzuetan bere senideen ondoan egon zan; bitarte onetan senideak igerritzen zioten bere bizitasun argia eta munduaren begietan agertu nai geiegikoa; beragatik asko nekatzen ziran Jainkoaren bildurrean idukitzeko; baña alperrik.

Magdalenak senide on oien ondoko izaera txit gogokoa iñolaz ere etzuen, eta aiek utzita Magdalengo gaztelura joan zan bizitzera. Senideen itzaletik aldegin zuenean, bereala arkitu zan galai zoro askok ondo itzegi-



ten ziotela; eta neskatx buru-arin onen eresi guziaz, bere gorputza andade bat egiñik erakustea zan. Egun oietan alderdi onetara ere Jesusek eginda-ko mirarien otsa zabaldu zan. Lazaro eta Marta Jaunari bertatik jarraitu zitzaiozkan, baita arreba zoro argatik eskatu ere. Jesusek, bekatarien billan mundura etorriak bezala, biotzean ukitu zion. Jesusek Naimen predikatzen zuen, eta Magdalenak aditurik Jesusgatik esaten ziran gauza andiak, joan zitzaion aditzera, eta biotz osotero aldatuarekin itzuli zan: bere gaiztakeriaren damu min bat artu zuen, eta bertatik Jesusi jarraitzea ere bai. Onetarako galdetu zuen non egongo ote zan, eta esan ziotenean erriko andizki geienakin Simonen etxean bazkaltzen zala, joan zan; eta begiratu gabe, ez zer esango zuten, ez zer iritziko zioten, bazkaltokian sartu zan; eta arpegiz-arpegi Jesusi begiratzeko biotz gabe, aulki atzean jarri zitzaion, auzpeztu zan eta negarrari eman zitzaion; Jesusen oñak malkoakin busti zituen, buruko illeakin leortu ziozkan, muñ egin zion eta berekin zeraman balsamu usai gozokoarekin igortzi ziozkan, eta bere utsegite eta gaiztakeria guzieren barkazio eske jarri zitzaion.

Etxeko nagusi Simon Fariseoak beregan zion: Baldin au profeta balitz, balekike emakume au bekatar bat dala. Jesusek Simonen esan isillari igerrita, esan zion: Gauza baten galdez nagokizu. Bereala erantzun zion: Jauna, esazu. Gizon batek bi artzeko zeuzkan: batak seieun erreal zor ziozkan, eta besteak irurogei erreal; baña zerekin zorra kendu etzute-lako, artzekodunak biai barkatu zien. Bi oietatik norke geiago nai izan bear dio? Simonek erantzun zion, aren iritzian zorrik andiena zuenak. Ondo diozu, Jesusek esan zion; eta Magdalenari begira jarrita, esan zion: Emakume ori dakusu? Zure etxean sartu nintzan, eta urik ere etziñidan eman oñak garbitzeko; baña onek negar-malkoz busti eta illeakin garbitu dizkit. Zuk olioarekin ez didazu burua igortzi; baña onek oñak balsamuz egin dizkit. Beragatik esaten dizut bekatu askoak barkatu zaiozkala, zeren asko maitatu zuen.

Bitartean Magdalena buru makurtuarekin zegoan barkazio eske, eta Jesusek esan zion: Zure bekatuak barkatu zazkizu. Maiean zeudenak esan oni asko iritzita, asi ziran esaten: Au zein da bekatuak barkatzeko? Nork, Jainkoak bestek, bekatuak barkatu ditzake? Egiaz, Jesusi arteraño etzitziaion bekatuen barkazio eske iñor jarri: batzuek billatu izan zuten makiak zuzentzeko, besteakitsuak argitzeko; oiek ezkabiak garbitzeko, aiek illak biztutzeko; eta guziak gorputzeko eritasun eta gaitzak kentzeko. Iñork ez, ordea, animako zauriak sendatzeko; argatik ikusten zeudenak arritu ziran, aditu zutenean bekatuak barkatzeko eskubidea bere buruari

ematen ziola. Gauza oiek buruan zerabilzkiten bitartean, Jesusek oñetan zegokion Magdalenari berriz ere begira jarrita, esan zion: Zure sinistek salbatu zaitu, pakean zoaz.

Egundaño etzan barkazio osoagorik eta aldaketa obeagorik ikusi. Jaungoikoaganako amorioa mundurakoaren lekuan sartu zan, eta biotz andi hura sutu zuen. Lazaro eta Martak berri onekin txit poz andia izan zuten. Magdalena bereala joan zitzaien; esan zien zer gertatu zitzaion; eta gero Jesusgana itzulita, etzuen Maisu onegandik geiago aldegin.

#### 4. San Juan Baupstaren eriotza

Bazkari gogoangari onen ondoren Jesusek amabi Apostolui deitu zien, eta guziak elkarrekin zebilzan. Baña Jesusek laster izan zuen albista bat, txit min eman ziona. Herodes, errege egiten zuenak, bere jaiotegunaren oroipenean andizki askorekin bazkari andi bat egin zuen, eta San Juan Baupstaren galmena bazkari onetatik etorri zan. Herodias, Herodesen emazte ordekoak, zeukan bere egiazko senar utzi zuenagandik izandako alaba txit eder egokia; eta onelako bazkarietan emakumeak ez bazuten ere lekurik izaten, Herodesek Herodiasi esan zion, alaba al zan ondoena apainduta jan-tokira bialtzeko. Begiak zoratzeko eran ipiñi zuen, eta aurkeztu zan. Herodes eta gañerakoen aurrean txit askatasun andiarekin dantzatu zan; eta Herodesen biotza ain beretu zuen, non esan zion nai zuen gauza eskatzeko, eta emango ziola: ala bear bazan, itz ziñeztuaren azpian erreinuaren erdia ere agindu zion. Alaba dantzaria gelatik irtenda, ama Herodiasi joan zitzaion galdetzera ea erregeari zer eskatuko zion. Herodiasiek etzuen utzi nai bere bizitza gaiztoaren salati San Juan Baupstia galtzeko zetorkion ain era ona; eta alabari esan zion ez beste gauzarik eskatzeko, ezpada Juanen burua. Dantzariak bereala Herodesi joan, eta belarrira esan zion Juan Baupstaren burua platera batean eman zizaiola.

Herodesi etzitziaion eskaera au ondo erori, Juani nai ziolako; baña etzuen bear adiña biotz izan arestian emandako itza jateko, eta lege guziak naiago izan zituen autsi, bein esana ukatu baño. Bere morroi bati agindu zion, itxian zegoan lekura joanda lepoa ebakitzeko; eta serbitzari onek, nagusiaren esana gogorkiro egiñik, burua, odola zeriola, Herodesi eraman



zion, onek neskatx dantzariari eta alabak amari eman eta santu andi aren eriotzarekin dantzari ergel baten gora-beerak eta arinketak saristatuak izan ziran. Iru oiek ere etziran sari gabe geratu. Zegokien patu gaiztoak laster artu zituen. Urte gitxiren epean Kaligula enperadoreak Herodesi erregetza kendu zion eta Leon Franziahora erbestetu zuen, eta emen il zan. Herodias etzion alakorik agindu; baña bere galaiarekin ibilli nai izan zan, eta gisa berean Leonen il zan. Alaba dantzaria ibai izoztu batera erori, eta ormak lepoa ebaki zion. San Juan Baupstistaren ikasleak Maisuaren gorputz illa kontuz jasota, Samariako uri Sebaste-n lurpetu zuten. Burua ere ontzi batean ipiñi zuten, eta geiena orain Erroman dago.

## 5. Bost ogi eta ezkalu birekin bost milla gizon bazkatuak

San Juan Baupstistaren ikasleak ill-berri onekin Jesusi joan zitzaiozkan, Jesusenak ere beren misio-aldia eginda Jesusgana itzuli ziran egunetan. Nori bere albistak aditurik, Jesus guziakin batela batean sartuta, Betsaidako eremu bateron z joan zan. Jesus eta bere lagunak itsasoz orduko beste jendetza andi bat ere leorrez eta oñez joan zan, Jesusi geldituko zala igerrri zioten tokira. Jesus guzien erdian jarri zan, eta Zeruko lege santa erakusten zien, eta gaxoak sendatzen zituen. Onela ziardun arratsalde batean, ikasleak esan zioten: Jauna, eremu soll batean gaude; illuntzera dijoa; eta jende au bialdu ezazu zer jana billatu dezan. Ez ori, Jesussek erantzun zien; ez dira joango: zuek jaten eman zaiozute. Eta Feliperi esan zion: Oientzat ogia non erosiko degu? Itz oiekin Felipe arritu zan, zeren oraindik etzuen uste ogiak ugaritzeko eskubidea Jesussek zuenik; eta erantzun zion: Berreun errealebiko asko ez dira ogi-zerraxo bana erosteko; ala ere, joango gera erostera, eta emango diegu. Zenbat ogi daukazute? Jesussek galdetu zien. Bost garagar-ogi eta bi ezkalu mutiko batek zeuzkanak arkitu zituzten. Baña onenbeste lagunentzat oiek zer dira? Andresek zion. Jende guzia Jesussek zelaiean saldoka esererazo zuen; eta gizon utsak bost milla ziran, beste ainbeste emakume eta aurrekin. Jesussek ogi eta ezkaluak eskuan artuta, Aita Betikoari eskerrak eman ziozkan, bedeinkatu zituen, eta Apostolui agindu zien jendeari zabaltzeko. Eman ten asi ziran, eta naiko guzia jateko adifña ogi eta arrai bost ogi eta bi ezka-

luetatik sortu zan. Gero agindu zien ogi eta arrai-puskak biltzeko, eta amabi saski bete zituzten.

Mirari berri au ikusi zutenean arriturik, osotoro sinistu zuten Jesus Mesias zala. Baña nola bizi ziran lurreko errege baten izenean Mesias etorriko zalakoan, ipiñi nai izan zioten koroa buruan, eta errege-zigorra edo makilla eskuan, eta erregetzat ezagutu. Jesussek igerrri zien gogoan zer zerabilten; eta illuna gañean zalako aitzakian inguruko errietara bialdu zituen, gaua egitera. Gisa onetan jendea beregandik bialtzen zuen bitartean, Apostolui agindu zien ontzian sartuta Betsaidaronz abiatzeko, eta Genesareteko itsas-adarra igarotzeko.

## 6. Jesussek itsas aserretuan Apostoluak gordetzen ditu

Jesus bakarrik arkitu zanean mendira igo zan eta otoitzari eman zitzaion. Apostolui itsasoa aserretu zitzaien, eta gau guzian ondatzeko zorian ibilli ziran, eta amar orduan arraunakin nekatuta, etzuten ordu beteko biderik egin. Jesussek ikusi zituen nola zebilzan, eta aurkeztu zitzaien. Sarreran izutu ziran, iratxo edo duenderen bat zalakoan; baña Jesussek esan zien: Ez ikaratu, Ni naiz. Jauna, Zu bazera, Pedrok esan zion, zeregana artu nazazu. Jesussek esan zion: Atoz. Pedro ontzitik irtenda urean Jesusgana zijoala, aizeak artu eta ondatzera egin zuen, eta deadar egin zion: Jauna, gorde nazazu. Jesussek eskua luzatu, eta bere ontzira artu zuen, esanaz: Siniste gitxiko gizona, zertako zalantzan jarri zera? Esan bazion bezala: Nere eskubidearen berri etziniakien? Pedro Jesusen oñetan auzpeztu zan, eta esan zuen: Jainkoaren Seme egiazkoa Zu zera. Itsasoa gelditu zan, eta beste neke gabe ur-ertzera joan ziran.

Jesus lurrera zanean, bereala, zekusatzen guziak ezagutu zuten, eta zebillen leku guzietan eri eta makiak bidean ipintzen ziozkaten eta eskatzen zioten, arren, besterik ez bazan ere, soñekoaren ertzari ukitzen uzteko, eta au iristen zutenak sendaturik gelditzen ziran. Onetan zebillela, jai-bezpera batean Kafarnaumera joan zan. Aurreko egunetan errege egin nai zutenak, igerrri ziotenean aldegin ziela, eske abiatu eta uri onetan arkitu



zuten, eta asi zitzaizkan espasunak agertzen; baña Jesusek esan zien zein lan zoroa zan arekin egin nai zutena, eta alako asmoari uzteko.

## 7. Animako janariaren gañean Jesusen itzketa

Zuek billatzen nazute, esan zien, ez egin ditudan mirariakgatik, ezpada jaten eman dizutedalako. Nekatu zaitezte, bada, ez bereala aitzen dan janaren ondoren, ezpada gizonaren Semeak emango dizuten eta beti iraungo duenagatik. Eta, zer egingo degu au irabazteko? galdetu zioten. Jesusek erantzun zien bera zala Zerutik jatsitako ogi bizi, betiko bizitza ematen zuena, eta berari sinisteko. Baña, au gogor egiten zitzairen, eta menturatu ere baziran galdetzera ea zer egiten zuen beren sinismen osoa ari emateko. Egia da, esaten zioten, bost ogirekin egun batean bost milla gizon bazkatu dituzula; baña gure aita Moisesek ere berrogei urtean seieunda geiago milla lagun eremuan manarekin bazkatu zituen. Bai, ala da, Jesusek erantzun zien; baña Moisesek emandako mana, Zeruko ogi egiazkoaren irudipena edo antza baizik etzan: hura jandakoak il ziran. Zeruko ogi egiazkoa Zerutik jatsi eta munduari bizia ematen diona da. Ni naiz ogi bizia. Ni artzen nauenak betiko bizitza dauka. Aditzalleak esan zioten: Jauna, ogi orretatik beti iguzu; eta Jesusek erantzun zien: Bizitzako ogia ni naiz; nigana datorrenak, goserik izango ez du, eta nigan sinisten duenak, egarririk ere ez. Juduak gaizki-esaka asi ziran, esan zuelako «Bizitzako ogia naiz», eta zerasaten: Zer? au ez da Joserren seme, bere aitamak ezagutzen diozkaguna? Gaizki-esate orri utzi zaiozute, Jesusek esan zien. Inñor nigana ezin datorke, ni bialdu ninduen nere Aitak ez badakar. Egi-egiaz esaten dizutet, nigan sinisten duenak betiko bizitza duela. Ni naiz ogi bizi, Zerutik jatsia. Inñork ogi onetatik jaten badu, betiko biziko da. Jakizute, Nik munduagatik emango dedan ogia, nere aragia dala.

Juduak orduan elkarri zerasaten: Nola onek bere aragia jaten eman dizaguke? Juduak uste zuten, beste edozein aragi bezala, Jesusek berea eskeñtzen ziela. Egi-egiaz esaten dizutet: gizonaren Semearen aragia ezpada ezute jaten eta odola edaten, ez dezute bizitarik izango. Betiko bizitza, nere aragia jaten duenak eta nere odola edaten duenak du; eta atzeneko egunean nik biztuko det. Bada, nere aragia da egiazko janaria eta nere odola egiazko edaria, eta nere aragia jaten duena eta nere odola edaten

duena nigan dago, eta Ni argan nago. Oiek eta onelako beste gauza andi Aldareko Sakramentu Santua adierazten zuten asko erakusten ziezten, egun aietan egiten zituen itzaldietan, esanai mirariakin indarra emanaz. Ala ere, asko ziran sinisten etziotenak; batez ere, eskriba eta fariseoak ikusi ere ezin zuten, eta begietatik kentzeko bideak egiten zebilzan. Jesusek igerrri zien zer asmo zerabilten, eta aldegin zuen. Baña noranai zijoa-la, gaxo, elbarri eta makiz beti inguratua zegoan, eta guziaz osasuna emanda, agintzen zien ez, arren, barreatzeko, galdu nai zuten aiek jakin etzezetan. Jesusek baziekien galduko zutela; baña ordua etzan artean bete; argatik kontuan ipintzen zituen, geiago sutu etzitezten.

## 8. Esku-txangu baten jai-eguneko sendatzea

Baña fariseoak etzuten inñork ezer esankizunik, nondik galdu zeza-keten billatzeko. Gauzarik onenetatik ere artzen zuten Jesusgatik gaizki itzegiteko oña. Ara sinisbide bat. Jai-egun batean Jesus Elizan sartu zan, eta eskriba eta fariseoak begira zegozkion, an arkitzen zan esku-txangudun bat sendatzen ote zuen, jai-eguna zalako erasotzeko. Jesus lan artara baño lenago galdetu zioten ea zillegi edo ondo zan jai-egunean sendatzea. Galdera au bere gatzarekin zan; baña Jesusek aien barrun galduai igerrri zien, eta ezer erantzun gabe, elbarriari esan zion zutitzeko eta guzien erdian jartzeko. Onela zegoala, esan zien: Zillegi da jai-egunean on edo gaitz egitea? Bizia gorde edo kentzea? Zuetatik zeñek, jai-egunean zulora ardi bat erortzen bazaio, ez dio eskua luzatuko andik ateratzeko? Gizona zenbat geiago da ardia baño? Zillegi da, bada, jai-egunean on egitea; eta begiratu zorrotz bat gizon itsutu aiei eginda, esku-txangudunari esan zion eskua luzatzeko, eta sendatu zitzaion. Aien biotzak mirari argi onekin bigundu bearrean, ezaguturik berak bakarrik asko etzirala Jesus galtzeko, Herodesen adiskideetara lagun eske joan ziran. Bitartean Jesusek Galileako itsas-ondoko ordekaetara aldegin zien. Onara ere ezin esan adiña jende jarraitu zitzaion, eta joandako gaxo eta elbarri guziak sendatu zituen.



## 9. Gizon gaitzkindun itsu eta mutuaren sendatzea

Andik laster Kafarnaumera itzuli zan, eta bereala eraman zioten gizon gaitzkindun itsu eta mutua. Emen ere eskriba eta fariseoak inguratu zitzaizkion arestian aitatu dan asmo galgarriarekin; baña oien bildurrak etzuen Jesus gizon errukarri ari on egitetik atzeratu. Begien itxi-idiki batean gaizkiña kendu, begiak argitu eta mingaña askatu zion, eta guziak arriturik geratu ziran.

Bakarrik eskriba eta fariseoak ausardia izan zuten esateko, deabruen buru Beelzebuben izenean eta eskuarekin mirari aiek egin zituela; baña Jesusek erantzun zien aien itsutasunari zegokion eran, gauza asko eta andiak erakutsiaz, aientzat alperrik bederik.

## 10. Beste miragarrizko sendatzeak

Egun oietatik batean eskriba eta fariseoekin elean ziarduela, Ama eta aide batzuek Nazaretetik Kafarnaumera joan zitzaizkion ikustera, eta elkarrekin guziak egon bat emen eginda, Nazaretera joan ziran. Jakinduri argia itzketan eta esku andia sendaketan erakusten zituen; baña jainkozko doai oiek nazaretarrentzat ezer etziran, Jose eta Maria beren errikoen semea zala oroitzean: beragatik etzuten aintzakotzat artzen, eta Jesusek aldegin zuen bere Lege santa beste errietan erakustera. Lanbide onetan zebilela, bein batean Kanango emakume bat bidera irten zitzaion, oska: Jauna, Dabiden Semea, erruki nazazu: alaba deabruak artuta daukat. Jesusek ez-aditu egin zion; baña emakumea leiatzen zitzaion, berriz eta berriz esanaz: Jauna, Dabiden Semea, erruki nazazu. Emakume onen negarrakin Apostoluak kupituta, Jesusi esan zioten: Jauna, emakume ori isiltzen ez da, eta bialdu ezazu. Jesusek erantzun zien: Ni ez naiz etorri Israelko ardi galduak biltzera baizik. Emakumeak ikusirik Apostoluak ere etzutela ezer iritsi, Jesusi oñetan auzpeztu zitzaion, esanaz: Jauna, balia zatzakit. Jesusek esan zion: Semeen ogia txakurrai ematea on ez da. Ondo diozu, emakumeak erantzun zion; baña txakurkumak ere nagusien maietik eroritako

ogi-apurrak jaten dituzte. Orduan Jesusek esan zion: O emakumea! sinis-te andikoa zera: zure naia egin bedi. Eta ordu berean alaba sendatu zan. Ama bereala etxera joan zan, eta alaba gaizkiñik gabe arkitu zuen.

Sendatu onen ondoren, or-emen ibilli andiak eginda, mendi batean jarri zan atsedeten. Beste eri eta gaxo askoren artean gor-mutu bat eraman zioten: beatzak belarrietan sartu ziozkan, eta istuarekin mingaña igortzi zion, eta zeruronz begiak ipiñita esan zion: Efeta. Eta bereala belarriak garbitu eta mingaña askatu ziran, eta aditzen eta itzegiten asi zan. Egikera au gogoan duela, Eliz-Ama Santak bataiatzean belarriak istuz egi-ten ditu.

## 11. Zazpi ogi eta ezkalu batzuekin lau milla gizon bazkatuak

Mirari au eta beste asko eginda gero, ikasleai esan zien: Jende onek biotza erdiratzen dit; iru egun oietan nerekin dira, eta zer janik ez dute. Nik ez nituke baraurik bialdu nai, bidean desmaiatu ez ditezen. Eta, nola eremu onetan arkituko degu, ikasleak esan zioten, oiek guziak asetzeko adiña ogi? Etzirudien, illabete gitxiz onara amar milla eta geiago lagun bost ogi eta bi ezkalurekin Betsaidako eremuan bazkatzen ikusitakoak, galde au egingo zutenik; baña aien sinistea oraindik epela zan. Jesusek, itzik ere itzuli gabe, galdetu zien ea zenbat ogi zeukaten, eta erantzun zioten zazpi ogi eta ezkalu banaka batzuek zeuzkatela. Jesusek bereala jendea lurtean esererazo zuen. Ogi-ezkaluak artuta, bedeinkatu zituen, ikasleai eman ziezten, eta oiek jendeari; eta lau milla gizon, kopuru onetan emakume eta aurrak sartu gabe, ase ziran; eta ondarrakin zazpi saski bete zituzten. Gero ontzi batean sartuta, Magedako alderdira Jesus bere Apostoluakin joan zan. Emen ere itsu bat argitu zuen, eta bereala Zesareako Filipora aldatu zan.



## 12. San Pedrok Jesusen jainkotasuna aitortzen du

Emen Jesusek, bere Apostoluakin bakarrik jarrita, galdetu zien: Gizonaren Semea nor dala diote? Esaten bazien bezala: Beren gogoa nerekin baño zuekin obeto agertuko dute; zuek aien itzketak aditzen diozkazute. Zein diote, bada, Ni naizala? Bat ez datoz, Apostoluak erantzun zioten. Batzuek Juan Baupista, besteak Elias, besteak Jeremias eta besteak anziñako profeta biztutako edo aien antzekoren bat zerala diote. Eta zuek, zein naizala diozute? Onelako gauzaetan Pedro beti nabarmentzen zan, eta erantzun zion: Zu zera Kristo Jainko biziaren Semea. Zorionekoa, Simon, Jesusek esan zion; bada, ez aragiak, ez odolak ori erakutsi dizu, ezpada Nere Aita Zeruetakoak; eta nik diotsut zu zerala Pedro (zeñak arria esan nai du), eta Nere Eliza arri onen gañean jasoko dedala, eta Infernuko atea onen kontra ez dutela garaituko. Zeruko giltzak Nik emango dizkizut: zuk lurrean lotzen dezuna, Zeruan lotua izango da, eta zuk lurrean askatzen dezuna, Zeruan askatua izango da. Esan gogoangarri onen ondoren zorrotz agindu zien, hura bizi zan artean ez esateko Pedrok zer aitortu zuen. Orduetik kontuan ipiñi zituen, zer neke eta eriotza gogorraren begira zegoan. Orduetik Jesus asi zitzairen bere ikasleai esaten zein konbeni zan Jerusalemara joatea, eta emen zar, eskriba eta apaizburuen aldetik neke gogor latzak igarotzea, iltzea eta irugarren egunean biztutzea. Itzketa onekin Pedro txit arritu zan, eta bazterrera otseginda, Jesusi esan zion: Ez orrelakorik, Jauna, ez: Zeruari nai ez dakiola, zuk diozun ori zuri gertatu dakizun; ori zuri ez dagokizu. Pedrok oraindik ere etziekien Jesusen Elizak zer zimendu izan bear zuen, eta ondo etzeritzan Jaunak alako nekeak eta humiltasunak eramatea; eta Jesusek, begira-begira jarrita, zorrozkiro esan zion: Ortik ken zatzakit, nere etsaia; bada, gogoa ez Jainkoaren gauzaetan, ezpada gizonenetan daukazu.

Itzketa au Apostoluakin izanda, ikasle eta gañerako jendeak berekin zituela, Zesarearonz abiatu zan, eta bidean esan zien: Nere ondorean etorri nai duenak, bere burua ukatu eta gurutzea artu beza, eta berraikit, zeren bere bizia gorde nai duenak, anima galduko duen; baño bere bizia nigatik eta Ebanjelioagatik galdutzen duenak gordeko du. Gizonari, mundu guzia beretzeak zer balio dio, bere anima galtzen badu? edo, gizonak zeren truke bere anima emango du? Nerekin eta nere esanakin lotsa-

tzen dana, gizonaren Semea ere, bere Aitaren glorian aingeruak lagun dituela datorrenean, lotsatuko da, eta orduan nori bere irabazia emango dio. Egiaz diotsuet, emen badirala gizonaren Semea bere Erreinuan ikusi gabe illko ez diranak. Batzuek badiote Jesusek itzegin ziela denboraz gertatu zan bestiruditze edo transfigurazioaren, besteak illen artetik biztutzearen eta askok zerura igotzearen gañean; baño geienai deritzate orain bereala esango dan bestiruditzeagatik onela itzegin ziela.





## BOSTGARREN IRAKURGAIA

### 1. Taborco mendian Jesusen bestiruditzea edo transfigurazioa

Zesareako ingurumaietan bere legea erakusten zebillen egun oietatik batean, Taborco mendi ondora alderatu zan, eta emen agertu nai izan zan bere edertasun eta anditasun guzian. Bere Pasio eta eriotzaren gañean Apostolui itzegin zienetik seigarren egunean, Pedro, Juan eta Santiago ez, beste guziak mendiaren oñean utzita, iru Apostolu aiekin tontorrera igo zan, eta beti bezala otoitzari eman zitzaion, eta iru Apostoluak loakartu zituen. Bitarte onetan Jesusen gorputzak beste antz eder bat artu zuen. Arpegiak eguzkia zirudien, eta soñekoak distiatuak eta elurra bezain zuri jarri ziran. Jesusen albo bietan Moises eta Elias agertu ziran, eta Jesusekin itzketan ziarduten. Milla eta bost eun urte baziran Moises il zala, eta bederatzí eun Elias gizonen begietatik ezkutatu zala: baña Jainkoaren esana egiteagatik, zeuden lekuak utzita emen agertu ziran. Iru Apostoluak esnatu ondoan, begietako miragarri hura ikusi zutenean batetik, eta beren maisu andiak Jerusalemene laster igaroko zituen neke, oñaze eta gurutzeko eriotzaren gañean itzegiten aditu ziotenean bestetik, arri egiñik geratu ziran, itzegiteko ere kemen gabe. Pedrok bakarrik biotza izan zuen esateko: Jauna, on da gu emen izatea: iru bizi-leku dagizkigun, bat Zuretzat, bestea Moisesentzat eta irugarrena Eliasentzat. Pedrok onela ziardun bitartean, odei eder batek irurak estali zituen, eta ots bat irten zan. Apostoluak ots onekin are geiago izutu, eta auzpez jautsi ziran. Orduan Jesusuk ukitu zien, esanaz: Ots gora, ez izutu. Alde guzietaronz begiratu zuten; baña Jesus besterik etzuten ikusi, eta Jesus ere len-lengo izaeran. Menditik beeronz abiatu ziran, eta Jesusuk agindu zien zer ikusi zuten ez iñori esateko, alik eta illen artetik bera biztutzen zan arteraño, eta isillik, beste lagunai ere esan gabe, gorde zuten.

### 2. Jesusek gaizkindun Apostoluak ezin zutena sendatzen du

Menditik zelaiera iru Apostoluakin jatsi zanean, igotzean utzitako jendea ugaritua arkitu zuen. Oien artean aita bat aurkeztu zitzaion, esanaz seme txit aldi gaiztoak egiten zitzaiozkana zeukala, batean urera, bestean sutara erortzen zala eta, arren, arnaz errukitzeko. Jauna, esan zion, Zu emen etzendelako zure ikasleai erakutsi diet; baña ez dute ezer egin. Zure seme ori ekartzu, Jesusek esan zion. Alderatu zitzaionean, deabrua, lenago bezala, asi zitzaion lurrera botaka, eta bitsa zeriola aztarriaka zebillen. Orrela noiz ezker dago? Jesusek aitari galdetu zion. Txikitatik, aitak erantzun zion. Jesusek deabruari agindu zion irteteko, eta bereala iges egin zuen; baña iltzer bezala utzita. Orduan Jesusuk eskutik artuta aitari sendaturik eman zion. Apostoluak min zuten aien esanera deabruak ez iges egitearekin; eta Jesusi, baztertu zanean, isillik galdetu zioten ea aiek sendatu eziña zertan zegoan. Zuek, erantzun zien, ez dezute zuten sinismen gitxiz deabrua bialdu; bada, fede bizi bat bazendute, eta mendi oni esan «Emendik aronz o», aldatuko litzake. Esan ere bazien, onelako deabruak otoitz eta baruakin baizik etzerala bialtzen.

### 3. Jesusek bere eriotza eta biztutzearen gañean Apostolui itzegiten die

Bere ikasleai gauza oiek onela erakutsi ondorean, Zesareara joanda, emendik Kafarnaumeronz abiatu zan. Jerusalemenera alderatzen zan, eta uri doakabe onetan zer gertatuko zitzaion gogoratzeak izutu eta alderagin bear zien; baña Aitaren naia egitera etorri zan, eta ezerk ere atzeratzen etzuen. Bidean amabi Apostolui berriz eta berriz bere eriotzaren gañean itzegiten zien. Gizonaren semea gizonen eskuetan ipiña izango da, zion, ilko dute eta iru egunen buruan biztuko da. Apostoluak etziran Maisuaren esanetan sartzen. Eriotza ain lotsagarria izango zuenik etzien gogoak ere ematen, zeren baziekiten zein eskualdi andikoa zan, bere burua gor-



detzeko, nai izan ezkerro; eta ilda geroko biztutzea nola zitekean ezin igerri zioten. Itzketa onetan biotz txit illakin Kafarnaumen sartu ziran.

#### 4. Petxa-pagatzea

Petxa-biltzalleak bereala Pedrori esan zioten: Zuen Maisuak petxak pagatzen ez ditu? Bai, Pedrok erantzun zion. Eta Jesusgana joan zan, gai onetan itzegitera. Baña Pedrok itzik ere atera baño lenago, Jesusek igerri zion zer zeraman, eta galdetu zion: Lurreko erregeak norgandik petxak artu bear dituzte? Semeetatik edo atzeetatik? Atzeetatik Pedrok erantzun zion; beraz, semeak zor ez dute, Jesusek esan zion. Jesus Jainko zanetik errege guzien erregearen Semea zan, eta gizatasunetik Dabid Erregearen odolekoa; beragatik etzuen petxarik zor. Ala ere, zer esanik izan ez dezaten, Pedrori esan zion: Itsasora zoaz, amua bota eta atzitzen dezun arraia-ri aoa idiki zaiozu, eta peseta-biko bat arkituko diozu. Pedrok ala egin zuen, eta diru onekin petxa pagatu, eta Maisuagana poz andiarekin itzuli zan.

#### 5. Apostoluen arrokeria beeratua

Guziak elkarganatu ziranean, Jesusek galdetu zien ea bidean zer itzketa ekarri zuten. Etzioten itzik irauli; lotsatzen ziran, alabañan, Mesiasen Erreinuan nor geiena izango ote zan elean etorri zirala esaten; eta Jesusen galderatik ezagutu zuten, itzketa guzia igerri zuela. Aditu izan zioten ilda irugarren egunean biztuko zala, eta uste zuten bere Erreina orduan ipiñiko zuela, eta Apostolu danak nork bere burua lenengo mallan ikusi nai zuten, eta Jesusi galdetu ere bazioten nor lenengo izango zan. Baña Jesusek aien andinaia-ri zegozkion erakutsiak eman ziezen, esanaz: Lenengo nai duena, atzeneko izango da. Gero aur bat artu, eta erdian ipiñi zien, esanaz: Baldin aur egiten ez bazerate, Zeruko Erreinuan zer egiñik ez dezute izango. Aur oietatik bat nere izenean artzen duenak, Ni artzen

nau. Begira oietatik iñor ezer utsean beñere iduki ez dezazuten: bada, oien Aingeruak nere Aita Zerukoaren arpegia Zeruan beti dakuste.

Onela beren arrokeria eta andinaia arpegira eman zien, geroz umillak izan zitezen; baña Jesusen esan guziak asko izan etziran, Apostoluen andinaia bear adiña beeratzeko, eta osotoro kendu ere etzan, Espiritu Santuak geroago argi egin zien arteraño.

#### 6. Eskandaloaren gañeko itzketa

Itzketa onetan ziardutela Juanek, guzien izenean itza artuta, Jesusi esan zion: Jauna, bat ikusi degu, zure izenean deabruak botatzen, eta eragotzi diogu, gu bezala ez darraikizulako. Esan au Juani Jesusek txit gaizki artu zion, eta agindu zion ez berriz alako eragozpenik ipintzeko Jainkoa gloriatu nai zuen iñori; eta emendik oña artuta gaitzbide edo eskandaloaren gañean itzezin zien, esanaz: Nigan sinisten duten oiei gaitzerako bidea ematen dienak, obe luke errota-arri bat lepotik lotuta, itsasora botako balukete. Ai munduaren zorigaitzokoa gaitzbideakgatik! Bekaturako bideak izan bearrak dira, bai; baña, ai oiek dakarzkien gizonaren zorigaitzokoa! Jesusek bere Apostolu eta ikasleai esan oiekin erakutsi nai izan zien, ona egiteko eragozpena eta gaiztorako bidea besteri emateak zein ikuskizun andia dakarren, ez bata eta ez bestea egin zezaten.

Gero berriz esan zien: Gizonaren Semea galduak salbatzera dator. Zer iritzitakoak zerate? baldin eun ardi dituen bati bat galtzen bazaio, larogeita emeretzia basoan utzita, galdu bakar aren eske abiatzen ez da? Eta arkitzen badu, onekin geiago poztutzen da, beste larogeita emeretzi ezkutatu etzitzaiozkanakin baño. Onela, bada, zuen Aitak ez du nai txiki-txo oietatik bat ere galdu dedin.

#### 7. Lagun urkoari barkatzearen gañeko itzketa

Beragatik zure anaiak zure kontra gaizki egin badu, gaiztorako bidea zuri emanaz, zoazkio eta buruz burulotsa eman edo erreprenditu ezazu;



aditzen badizu, zere anaia irabazi dezu; baña enzuten ez badizu, lagun bat edo bi artu itzatzu, bi edo iruk agiria eman dezaten. Baldin oiei aditzen ez badie, Elizari esaiozu; eta baldin Elizari ere aditu nai ez badio, Jainko egiazkoa ezagutzen ez duen fedegabekotzat artu ezazu. Egiaz esaten dizutet, zuek lurreen lotutzen dezuten guzia, Zeruan lotua izango dala, eta lurreen askatzen dezutena, Zeruan askatua izango dala.

Orduan Pedrok, Jesusi ondora joanda, esan zion: Jauna, nere anaiak zenbat aldiz niri gaizki egingo dit, eta nik barkatuko diot? zazpi aldiz? Jesusek erantzun zion: Ez zazpi aldiz, baita irurogeita amar aldiz zazpitan ere, esan onekin aditzera emanaz beti-beti barkatu bear zaiola. Gero Jesusek esan zion: Zeruko Erreinuak dirudi bere serbitzariak kontuak artu nai ziezten erregea. Au asi zan kontuak eskatzen, eta aurkeztu zioten amar milla talentu, au da, irureunda amasei milloi eta zortzieun milla erreal bezalatsu, zor ziozkan morroi bat. Zor andi au zerekin kendu edo pagatu morroiak etzuelako, erregeak agindu zuen serbitzari au, bere emazte, hume eta gauza guziak saltzeko, eta ari zor zitzaiona emateko. Orduan morroiak, oñetan jarrita eskatzen zion, arren, leku emateko, eta dana pagatuko ziola. Erregea errukitu zan, eta ez leku eman, ezen zor guzia barkatu ere zion, eta joaten utzi zion. Andik irtenda zijoala, topatu zuen, oni beroni eun denario, au da, berreun erreal bezalatsu, zor ziozkan morroi-lagun bat, eta lepotik itsatsita, itotzeko zorian zeukala, esaten zion: Nere artzekoa edo zor didakana indak. Lagun zorduna auzpez jarri zitzaion, eta eskatzen zion leku piska bat emateko, eta guzia pagatuko ziola; baña eperik eman nai izan etzion, eta itxian sartu zuen, zorra kitatu arteraño. Beste lagunak eginbide onekin txit atsekabetu ziran, eta nagusiari joan zitzaiozkan, zer gertatzen zan salatzer. Nagusiak serbitzari gogor oni otseginda, esan zion: Serbitzari gaiztoa, nere artzeko guzia nik barkatu nikan, erregutu idakalako; eta i ere ire lagunaz errukitu bear ez intzakan, ni izaz errukitu nindukan bezala? Erregeak, osotoro aserretuta, borraroen eskuetan ipiñi zuen, zor guzia kitatu arteraño. Nere Aita Zerukoak zuekin ere au bera egingo du, baldin nork bere anaiari utsegiñak biotz-biotzetik barkatzen ez badiozka.

Itzketa onetan luzaro Kafarnaumen jardunda, Jesus bere Apostolu eta ikasleekin Jerusalemeneroz abiatu zan.

## 8. Irurogeita amabi ikasleen aukera

Bidean zijoala, amabi Apostoluak bere ondotik ez uzteagatik, irurogeita amabi ikasle autu zituen, eta ingurumaiko errietara biñaka bialdu zituen, eskubide andiak emanik, bere ordeaz legea erakustera, esanaz: Lan asko, eta beargilleak gitxi dira. Eta agindu zien denbora jakiñean itzultzeko. Egun oietan jai-egun batean sinagogan bere Apostoluakin sartu zan, eta lege-jakintsu batek galdetu zion ea Zeruko Erreinu irabazteko zer egin bear zan. Jesusek erantzun zion, Legeak erakusten zuena: au da, gauza guzien gañean zere Jaun eta Jainkoa amatuko dezu lenengo, eta zere burua bezala zere lagun urkoa gero. Ori egia da, jakintsuak esan zion; baña jakin nai litzake lagun urkoa nor dan. Jesusek orduan antz-esate edo parabola bat ipiñi zion.

Jerusalendik Jerikoronz gizon bat zijoala, lapurrak bidera irtenda, zeraman guzia kendu, elbarritu eta erdi-illa utzirik, aldegin zuten. Apaiz bat bide berean sortu zan, eta ezertan artu gabe bideari jarraitu zitzaion. Lebita bat berebat eldu zan, eta au ere begiratu gabe aurrera joan zan. Samariako bat alderatu zan eta eria ikusi zuenean errukitu zitzaion; zauriak edo ebakiak olio-ardoakin igortzi, paxakin lotu eta astoan arturik, ostatura eraman zuen, eta gauean kontu egin zion. Iru oietatik, zein uste dezu lapurren eskuetan eroritakoaren lagun urkoa dala? Lege-jakintsuak erantzun zion: Errukitu zana. Bada zoaz, eta ori egizu, Jesusek esan zion. Erantzuera onekin jakintsua utzi zuen zer esan etziekiela. Itzketa au aditzen zegoan emakume batek, deadar egin zuen: Zorionekoa Zu sortu ziñan sabela eta edan ziñituen bularrak.

Fariseo eta jakintsuak bazebilzan onelako galde asko Jesusi egiten, itzetan atzitzen ote zuten ikusteko; baña Jesusek, Jakinduri utsa dan bezala, etzien ezertan ere gaizki esateko biderik ematen. Ikusirik beren beste egin al guziak alperrik zirala, uste izan zuten jan-otordua izango zala zertanbaitean erortzeko garairik onena, eta fariseo baten etxean bazkari bat eskeñi zioten. Jesusek baziekien zertako zan; ala ere, aintzat artu zien, joan zitzairen, eta maiean zeudela zabaldu ziozkaten sare eta amu guziak desegin ziezten, eta erakutsi zien agertu nai zuten ontasun guzia, on-irudi uts bat baizik etzala, eta lotsaturik utzi zituen, lotsakorrak baziran.



## 9. Amar sarnadunen sendatzea

Egun oietatik batean, Judearonz zijoala, Samariako alderdian amar gizon sarnati edo lepraz josi irten zitzaizkion; eta alderatu ere gabe, otsegin zioten: Jesus Maisua, guzaz erruki zaite. Jesusek esan zien: Zoazte eta apaizai aurkeztu zatzakiete; eta apaizetara baño lenago garbituta geratu ziran. Amar aietatik bat, berez samariarra, txit sendatua ikusi zanean, itzultita Jesusi auzpeztu zitzaion, eta oñetan muñ egitez eta eskerrak ematez etzan nekatzen. Orduan Jesusek galdetu zion: Amar ez dira sendatu? Beste bederlatziak non dira bada? Etzan Jaunari nor eskerrak eman, atze bat baizik? Ea gora, oraindik auzpez zegoan samariarrari Jesusek esan zion, eta zoaz; bada zure sinismenak sendatu zaitu.

Bazkari eta sarnati oien sendatzearen ondoren laster, arestian aitatutako irurogeita amabi ikasle aiek beren egitekotik itzuli ziran, eta beren lanaren berriak Jesusi eman ziozkaten.

## 10. Fariseoen Jesus galdu naia

Jerusaleneronz bidean Jesus bazerraikion, eta jai batean sinagogan sartuta erakusten edo predikatzen ziarduela, emezortzi urtean gaxo zetzan emakume bat sortu zan. Jesusek otseginda, ukitu zion, eta bereala sendatu zan. Fariseoak etzioten lanbide au Jesusi onean artu, jai egunean egin zuelako. Baña bere jakinduri ezin geiagokoarekin aien esan txar eta aitzaki guziak ezereztu eta desegin zituen. Jerusalemen sartu zan, eta zerraizkionai beti erakutsi onak egiten ziezten, eta guziak arriturik uzten zituen. Fariseoak au ezin eraman eta gizonak bialdu ziozkaten eskuak ezartzera; baña oraindik etzan onetarako ordua bete, eta Jesusek esan zienekin ezer egin gabe itzuli ziran. Bialtzalleak su bizian jarri ziran etzeramatelako, eta batzarra egin zuten il bear zala erabakitzeke; baña Nikodemus Jesusen alde irten, eta aldi onetan lanbide ari gerorako utzi zioten, ez ordea galtzeko amuak botatzeari.

Jesus bazebillen egunez Elizan erakusten, eta gauetz Olibeteko mendian otoitz egiten. Goiz batean Elizan erakusten ziarduela, eskriba eta

fariseoak eraman zioten emakume, bere senarra ez beste batekin atzitu zutena. Jende guziaren erdian ipiñita, Jesusi esan zioten: Moisesen legeak agintzen du onelako emakumeak arrikatzeko; zuk zer diozu? Jesusek itzik ere esan gabe, makurtu eta beatzarekin lurrean eskribatzen zuen. Fariseoak ikusirik etziela ezer esaten, leiatzen zitzaizkion, galdetuaz ea zer zion. Jesusek burua jaso, eta esan zien: Zuen artean bekatu egin gaberik bada, arria bota bizaio; eta berriz ere makurtu, eta lurrean eskribatzeari zerraikion. Jesusen esana aditu zutenean, guziak bat-banaka irten ziran, emakumea jendearen erdian utzita. Orduan Jesusek emakumeari galdetu zion: Zure salatiak non dira? Etzaitu iñork kondenatzen? Ez, Jauna, emakumeak erantzun zion, lotsaturik eta malkoak zeriozkala. Ezta nik ere, Jesusek esan zion. Zoaz, eta ez berriz bekatu egin. Zer Jesusen biguntasuna, eta bekatariak irabazteko eresial!

## 11. Jesusek itsua argitzen du

Gertaera onen ondoren Jesus Elizatik irtenda bidean zijoala, jaiotzatik itsu zetorren batekin topo-topo egin zuen, eta bere ikasleak galdetu zioten: Maisua, nor bekatu egin du, au itsu jaiotzeko? berak edo gurasoak? Jesusek erantzun zien: Ez onek eta ez bere gurasoak bekatu izan dute: itsu jaiotze da, Jainkoaren mirariak agertu ditezten. Eguna dan artean, bialdu ninduenaren lan miragarriak egin bear ditut. Gaua badator, eta orduan iñork ezin ezer egin dezake. Munduan nabillen bitartean, munduaren argia naiz. Au esanda, lur piska bat eskuan artu, istua bota eta ore egin zuen; eta ore onekin begiak igortzi ziozkan; eta esan zion: Zoaz, eta Siloe-ko putzuan garbitu zaite. Itsua garbitu zan, eta begiak argitu zitzaizkion.

Mirari onen otsa bereala zabaldu zan, eta eskriba eta fariseoak aserre bizian sartu ziran, eta gezurtatu naiez zebilzan, baña alperrik: zenbat eta naiago ukatu, anbat geiago agertzen zan. Alde guzietatik jendeak ziota azkion ikustera, elkarri ziotsatela: Au ez da etxe ondoetan eskean egoten zana? Bai, batzuek zioten; ez, aren antzeko bat da, besteak zioten. Baña itsuak deadar egiten zuen: Ni naiz; eta bera ikusitakoan, sinisten zuten. Baña, nola begiak argitu zazitzu? galdetzen zioten. Jesus deritzan gizon ark, erantzuten zien, loa eginda, begiak igortzi zizkidan, eta esan zidan:



Siloeke putzura zoaz, eta garbitu zaite. Joan nintzan eta orain dakust. Fariseoetara eraman zuten, eta aitormen bera egin zien. Jai-eguna zan Jesusek sendatu zuenean; eta fariseoak emendik artzen zuten Jesusgatik gaizki itzegiteko bidea, esanaz jainkozkoa danak jai-egunik autsi ezin dezakeala. Beste askok berriz zioten ea gizon gaizto batek alako mirariak egin zitzaiekan. Despita onetan ziardutela, berriz ere itsuari galdetu zioten ea zer zeritzan. Profeta da, erantzun zien. Gero gurasoai galdetu zieten ea aien seme itsu jaioa hura zan. Nola bada orain dakus? Guk badakigu, erantzun zuten, au gure semea dala eta itsu jaio zala: baña ez dakigu orain nola dakutsun; berari galde: urteak baditu. Gurasoak onela itzegiten zuten, juduai bildur zitzaieztelako, zeren agindua zeukaten Jesus aitortzen zuena sinagogatik bota zedilla. Itsu argituari gero deitu zioten, eta egiak esan zieztelako, beren artetik kendu zuten. Orduan Jesusek ikusita, galde-tu zion: Jainkoaren Semeagan sinisten dezu? Zein da ordea, itsuak erantzun zion, zein da, nik argan sinistu dezadan? Jesusek esan zion: Ikusi dezu, eta zurekin itzketan dagoana da. Sinisten det, Jauna, erantzun zion, sinisten det Jainkoaren Semea zaitudala; eta auzpej jarrita adoratu zuen.

## 12. Fariseoen buruaren etxeko bazkaria

Biramonean Jerusalemendik irten zan, eta egun gitxi batzuetara fariseoen buruak bazkaltzera etxera eraman zuen, ezertatik eldu ote zitzaiokean ikusteagatik. Eriak bereala ziekiten Jesus nondik nora zebillen, eta ur-miña zeukan gizon bat joan zitzaion bazkaltzen zuen etxera. Jai-eguna zan, eta esankizunik izan etzezaten, maikoai galdetu zien ea jai-egunean sendatzea zillegi zan. Guziak elkarri begira jarrita, etzioten itzik erantzun. Orduan gaxoa artu, sendatu eta bialdu zuen. Gero fariseoai esan zion: Zuetatik nork, asto edo idi bat jaiean putzura erortzen bazaio, bereala atera gabe uzten du? Etziekiten zer erantzun, eta lotsaturik gelditu ziran. Jesusek lanbide onekin erakutsi zien mirari egiteak jai-egunari etziola ezer kentzen, lenago ere bein baño geiagotan esan izan zien bezala.

Etxe onetan zegoala, beronekin batean afaltzera deituak izan ziranai igerrri zien, maiean leku goenenekoakartzen zituztela, eta oietatik bati, besteak aditu zezaten, esan zion: Eztaien batzuetara otsegiten zatzunean, ez beñere mai-buruko eserlekua artu, zu baño lenagokoren bat an arkitu-

ta, zu eta au eztaietara eraman zaituztenak, gelan sartzen danean, esan ez dizazun: Oni leku egiozu; eta atzeneko aulkira lotsa gorrian jatsi bearrean ikusi etzaitzen. Kontrara, deitua zeranean, zoaz eta atzeneko aulkian eseri zaite, eraman zinduenak etorrita esan dizazun: Adiskidea, gorago zoaz; eta orduan, guzien aurrean onratua izango zera: bada, goratzen dana beeratua izango da, eta beeratzen dana goratua.

Gero berriz eztaigileari itza emanda, esan zion: Bazkari edo afari bat ematen dezunean, ez dizeiezula deitu zure adiskideai, ez zure anaiai, ez zure aideai, ez zure auzoai aberatsak badira, oiek ere beren aldiari zuri otseginda ordaindu etzaitzaten; ezpada, janen bat eman nai dezunean ots egin zaiezu beartsu edo pobrei, argal edo ezinduai, errenai eta itsuai, eta zorionekoa zu, zeren oiek zuri trukean zer emanik ez duten; eta justuen biztueran saria emango zatzu. Jesusek emen ez ditu gaizki artzen aide eta adiskideak elkarrekin maitaro egiten dituzten eztaian-jean neurrizkoak eta billera onak, ezpada etheen ondagarri eta kalteko diran geiegikoak.

Onen ondoren Jesusek ipui au esan zion: Gizon batek afari andi bat ipiñi zuen, eta askori deitu zien edo konbidatu zituen. Afal-ordua zanean morroi bat bialdu zuen deituai esatera zetozela, bada guzia prest edo ipiñia zegoala. Guziak asi ziran aitzakiak ematen. Lenengoak esan zion: Baserri bat erosi det, eta au ekustera joan bearra daukat; ontzat, arren, eraman zadazu. Bigarrenak esan zion: Bost uztar-idi erosi ditut, eta oien probara edo nola egiten duten ikustera noa; ontzat, arren, eraman zadazu. Besteak esan zion: Emaztea artu det, eta ezin noake. Morroia etxera itzuli zan, eta nagusiari esan zion zer gertatu zan. Orduan nagusiak, aserre bizian sartuta, esan zion: Erriko plaza eta karrikaetara bere-bereala zoaz, eta ekarzikidazu agiri diran beartsu, argal, itsu eta erren guziak. Morroia joan zan; topatu guziak etxera eramanda, maiean ipiñi zituen; eta nagusiari esan zion: Zuk agindua egin det, eta oraindik toki geiago ere badago. Nagusiak esan zion: Bide eta estrataetara zoaz, eta agiri diran guziak sar-erazo itzatzu, etxea bete dedin. Egiaz diotsuet, lenago deitutako gizonetatik batek ere nere afaria ez duela ukituko.

Orra zer epai izugarria Jesusek gizon afari emalle aren aotik eman zuen, bere dei amoriotsuai belarriak itxita, legea zintzo ez gordetzeko aitzaki billan dabilzan bekatarien kontra. Baserria erosi zuenak andinaiekoak adierazten ditu; uztar-idadunak diruzaleak, eta ezkonduak aragikoi edo lujuriotsuak, iru gaitz Jaunaren Eztaian betikoetan eseri gabe zenbat anima gaxo uzten dituztenak.



### 13. Seme ondatzallearen parabola

Jan ondoan Jesus etxetik irten eta bere ikasleekin Galilearonz joan zan. Jendeak bereala inguratu zuten, eta asi zitzairen esaten zein poz andia bekatari baten ondutzearekin Jainkoak artzen zuen. Eta au obeto adierazteko, beste gauza askoren artean esan zien seme ondatzallearen parabola edo ipui au. Gizon batek bi seme zituen, eta gazteena aitari senipartearen eske jarri zitzaion. Aitak bi anaiai, nori bere zatia eman zien, eta gazteena berearekin urrutietara joan, eta gauza guziak ondatu artean gaiztakeriatik gaiztakeriara ibilli zan. Denbora onetan, alderdi aietan gosete andi bat sortu zan, eta seme ondatzalle oni ere ukitu zion. Bere burua ezer gabe ikusi zuenean, jango bazuen, morrontzan jarri zan, eta nagusiak txerri-zai ipiñi zuen. Ain izaera errukarrira iritsi zan, non txerriai emandako ezkurak ere pozik jango zitukean; baña etzion iñork ematen, eta berak ere eskurik etzuen, txerriai kenduta jateko. Kontuan jauzi zan, eta zion: Zebatek nere aitaren etxean ogia naroro jango dute, ni emen goseak iltzen naukan bitartean! Nere aitari joango natzaio, eta esango diot: Aita, gaizki egin det Zeruairen kontra eta zure aurrean. Ez naiz zure semetzat idukitzeko diña: zure morroitat artu nazazu. Au esan, eta bideari ekin zion. Etxera alderatu ere baño lenago aitak ikusi zuen. Aita onari, semea erreki artan ikustearekin biotza erdiratu zitzaion, eta bidera irtenda, besoak egotzi eta laztandu zuen. Ai, ene aita maitea! seme lotsaz beteak, malkoak zeriozkala, deadar egin zuen: Ai, ene aita biotzekoa! gaizki egin det Zeruairen kontra eta zure aurrean. Zure semearen izenik ere merezi ez det. Aita amorioz beteak bereala morroiari esan zien: Zoazte, eta soñekorik onena ekardazute; janzi, erraztuna beatzean sartu eta oñetakoak ipiñi zaiozkazute. Txal guri-guri bat il, eta bazkaria prestatu ezazute; bada, seme au illa zan, eta biztu da; galdu zan, eta agertu da; eta guziak maiean jaten jarri ziran.

Seme zarrena garai onetan kanpoan zan, eta etxe-ondoratuta ain poz andiko soñuak aditu zituen, morroi bati galdetu zion ea zer zan. Eran-tzun zionean zer gertatzen zan, aserretu zitzaion, eta etxean sartu ere nai etzuen. Baña aita oartu zanean esan zion, arren, sartu zedilla. Semeak orduan bere espak agertu ziozkan, esanaz: Onenbeste urtean egin dizut

agindu guzia, ezertan ere utsegin gabe, eta antxume bat egundaño eman ez didazu, nere adiskide eta lagunakin arratsalde-gosari bat gozoro egin dezadan. Orain etorri zatzu seme gaizto andre galduakin bere gauza guziak ondatu dituen ori, eta txal gizen bat ilerazorik, ongi-etorria egin diozu. Begira, ene semea, aitak esan zion: zu beti nerekin zaitut, eta nere gauza guziak zureak dituzu; bada, txit bidezkoa da, guk bazkari bat egin eta poztutzea etorri zakunean zure anaia ilda zegoana, eta biztu dana; galdua zana, eta agertu dana.

Ara emen bekatari baten irudi mene-menetakoa. Seme ondatzalleak adierazten digu, bekatuan sartu eta itsututako bekatari ezeri ere begiratzen ez diona, bere gogo gaiztoak asetzearren. Seme aitagana itzuliak erakusten digu, bekataria, bere bekatuak ezagutu dituen, zer biotzekin itzuli bear dan, eta zein ondo Jainkoak artua izango dan. Berri txit pozgarria bekatariarik andientzat ere! Jainkoa, alabañan, prest daukate, egiaz damututa badijoazkio, beso zabalakin artzeko.

### 14. Aberats saiearen parabola

Fariseoak ondasunetara ere txit etziñak ziran, eta Jesusek gai onetan ere erakutsi nai izan zien zein gaitzki egiten zuten, diru-zaleegiak izatea; eta esan zien aberats saiearen parabola edo ipui au. Gizon aberats bat zan eun me-mez eta sedaz txit ederki apaingutuz zana, eta mai guziz ona egunoro zeukana. Eta eskale bat, berriz, Lazaro zeritzana, zauriz alde guzietatik josia, aberats aren etxe atarian egoten zan, aren maiko apurrak jango zitukeanean. Baña iñork ezer ematen etzion: txakurrak bakar-bakarririk zetozkion, eta zauriak miazkatzen ziozkatzen. Eskalea il zan; eta ain-geruak Abrahamen ondora eraman zuten. Aberatsa ere il zan eta infernura amildu zan. Emengo su garretan zetzala, aberats zorigaiztoko onek zeruronz begiratu zuen, eta Abraham eta onen alboan Lazaro ikusi zituen. Orduan deadarrari eman zitzaion, esanaz: Aita Abraham, niaz erruki zaite, eta Lazaro bialdu zadazu, bere eskuko beatza urean bustita, nere mingaña zerbait oztu dezan; bada, emen kiskaltzen natza. Abrahamek erantzun zion: Oroitu zaite, zure bizian ondasunak izan ziñituela, eta Lazarok nekeak; orain, emen Lazaro atsegiñetan dago, eta zu or garretan. Onezaz gañera, zuen eta gure artean leize andi, emengoak orrera edo



orako onara aldatzea eragozten duena dago. Au ezin badateke, aberatsak esan zion, benik-bein, aita Abraham, arren, Lazaro bialdu ezazu nere aita-eren etxera; bada bost anaia ditut, eta esan dizaien emen zer gertatzen dan, aiek ere suzko leku onetara ez datozten. Moises eta profetak badituzte, Abrahamek erantzun zion, aditu bizaiete. Aberatsak esan zion: Ez, aita Abraham: baldin ildakoetatik bat badijoakie esatera, penitentzia egingo dute. Moises eta profetai aditzen ez dietenak, Abrahamek erantzun zion, ilda biztutakoari ere ez diote adituko.

## 15. Fariseo eta publikano erregutzalleen parabola

Jesus etzan aspertzen zerraizkionai ondo erakusten, eta lanbide onetan ziarduela, Jaunari erregutzeko eta eskatzeko dan premiaren gañean itzegin zien. Lenago ere gai bera askotan jo izan zuen; baña esan al guzia geiegi etzeritzan. Esan zien beingoan eta bitan iritsi ez arren, etsi bear ez dala, eta ez aspertu ere, bada, eskatzen zaiona ematea zenbat aldiz luzatzen badu, gure onagatik dala. Esan ere zien, umiltasun andiarekin eskatu bear zaiola; eta fariseoak berez ain arroak izanik, esan zien ipui au.

Bi gizon Elizara joan ziran erregutzera, bata fariseoa zan, eta bestea publikanoa. Fariseoak, zutik jarrita, beregan zion: Jauna, eskerrak ematen dizkizut, ez naizalako beste gizon lapur, bidegabekeriak egiten dituzten, beren bizi-laguna ez bestearekin dabilzanen antzekoa, publikano au dan bezala. Astean bi aldiz barautzen det; amarrenak osoro egiten ditut. Publikanoa, berriz, urrutitik begiak jasotzeko ere biotz gabe bular-joka zegokion, esanaz: Jauna, kupidaz begira zadazu, ni bekatari andi oni. Orain bada, Jesusek esan zien, mene-menetan diot, Elizatik etxera publikanoa joan zala garbitua, eta ez fariseoa, zeren goratzen dan gizona, beeratua izango dan, eta beeratzen dana goratua.

## 16. Zakeoren umiltasuna

Joan-etorri oietan Jesus zebilela, Zakeo zeritzan publikanoen andizki txit aberats batek Jesus ikusi nai zuen; baña gizon txikia zalako, ezin

zuen. Jesusekin zebillen jendearen aurretik joanda, basa-piku batera igo zan, Jesus andik igarotzean ikusteko. Jesus alderatu zan, eta piku gañean ikusi zuenean, esan zion: Zakeo, beera atozkit; bada gaur zure etxean ostatuz gelditu bear naiz. Zakeo bereala jatsi zan, eta poz andiarekin etxean artu zuen. Juduak bereala gaizki-esaka jarri ziran, Jesus publikano baten etxean sartu zalako. Baña onetarako biderik izan etzezaten, Zakeo zutik zegoan, bere umiltasun eta beeratasuna adierazteko; eta zion: Nere ondasunen erdia bearrean daudenai ematen diet; eta inñori kalterik egin badiot, lau geiagorekin ordaintzen det. Orduan Jesusek esan zion: Etxe onetara ona gaur etorri da, zeren au ere Abrahamen umea dan; bada, gizonaren Semea etorri da galdua billatzera eta salbatzera.



## SEIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Jerusalemik Betaniara Jesusen joanera

Gertaera oien ondoren bereala, Jerusalemera joan eta Eliz-pestak ziralako egun batzuek emen igaro zituen, geiago eta geiago erakusten; baña alde batetik asko beretzen bazituen, bestetik hura ezin ikusi zutenak ere, endamas eskriba eta fariseoak, su bizian sartzen ziran, eta arrikatzeko asmoak artu ere bazituzten. Baña Jesussek oraingoan ere etzien galtzen utzi; eta Jerusalemik irtenda, Jordanen jaiotaldeko Betaniara joan zan, eta iru illabete urrean emen egin zituen, bere bizia emateko ordua bete zai. Bitarte onetan joan zitzaizkan Jerusalemgo asko, bere erakutsi on eta mirariakin argitu zituen eta sinistu ziotenak. Oietatik geienak San Juan Baupistaren ikasle izanak ziran, eta Jesusgana osotoro jarriak, beren maisu zanak Jesusgatik esandako guzia gertatzen zalako. Emen ere baziardun eriak sendatzen eta erakutsi onak ematen: baña asmo garbiko askoren artean, ezin ikusi zuten fariseoak ere inguratzen zitzaizkan, nola zertanbaitean atzituko ote zuten, beste egiteko gabe.

Asmo onekin bereala itzegin zioten, batek bere emaztea noiznai uztearen gañean, esanaz Moisesek ere esku-aldiau eman izan zuela. Jesussek erantzun zien, aien biotz gogorrai begiratuta, eskubide au Moisesi emanerazo zitzaioa; baña ezkontza gizonen asieratik betikoa zala, eta aurrera ere ala bearko zala, bizi-laguna beñere uzteko esku gabe. Bada, zion, bein Jainkoak bat egin zituenak, gizonak ezin banakatu ditzake.

Gero aur batzuek eraman ziozkaten, eskuakin ukitu eta oiekgatik erregutu zezan. Apostoluak aur-zaien kontra aserretu ziran, eta atzeratu nai izan zituzten; baña Jesussek lanbide au etzien Apostolui ontzat artu, eta esan zien: Aurrai utzi zaiezute datozkidan; bada Zeruetako Erreinua oiena da. Eta besarkaturik, bedeinkatu zituen, eta bialdu. Gero aurren erru-eza edo inozenziari zenbat nai zion adierazteko, esan zien: Nere Ebanjelioa aurtxo batek bezain argi eta garbi artzen ez duena, Jainkoaren Erreinuan sartuko ez da.

Egun oietatik batean, erri batetik bestera zijoala, gazte aberats bat oñetan belaunikatu zitzaion, eta galdetu zion: Maisu ona, zer egingo det betiko bizitza irabazteko? Zeruan sartu nai badezu, Jesussek erantzun zion, aginduak gorde itzatzu. Zer agindu? gazteak galdetu zion. Inñor ez dezu ilko, Jesussek erantzun zion; inñoren ezkontzarik ez dezu loituko; ez dezu ostuko; ez dezu ez danik inñorgatik esango; ez dezu bide ez danik egingo; zure aita-amak onratuko dituzu; eta lagun urkoa, zerori bezala maite izango dezu. Ori guzia beti-beti egin det. Zer geiago egin bear det? Jesussek begiratu zion eta amatu zuen, Ebangelio Santuak dio. Bereala esan zion: Obea izan nai bazera, zoaz, dezun guzia saldu, beartsuai eman eta nerekin atoz. Itz oiekin gaztea estutu zan, eta biotz txit eroriarekin aldegin zuen, zeren ondasun andien jabe zan. Gazte hura, ez dirudi ain illa geratu zala bere ondasunak uzteko miñez, ezpada onetarako bear adiña indarrekin arkitzen etzalako. Onegatik Jaunaren aurrerako zer ikusirik etzuen, zeren eskatzen ez duen bizitza onena, ezpada ona; eta bere ondasunak ondo eta zuzen erabilliaz, au egiteko asmoarekin, guziak utzita Jesusi jarraitzeko adiña indar arkitzen etziztaion ezker, bere etxera itzuli zan.

### 2. Aberastasunen gañeko itzketa

Jesusek emendik oña arturik, ondasunen eta oiek zeuzkatenen gañean itzegin zien. Zein gaitz izango da aberatsak Jainkoaren Erreinuan sartzea! esan zien. Ikasleak esan onekin arritu ziran; baña Jesussek bere itzketari baziardun, esanaz: Gamelu bat jostorrazaren begitik igarotzea errazago da, aberats bat Zeruetako Erreinuan sartuko dan baño. Ikasleak geiago eta geiago arriturik, elkarriziotzaten: Nor salbatu al diteke? Orduan Jesussek adierazo zien, Jainkoak aberatsari erakutsiko diola ondasunakin zer egin bear duen, eta oietan biotza geiegi sartu gabe, nola bizi bear dan, aiek betiko ondamerako bideak izan ez dakizkion.

Pedro besteak baño beti biziagoak esan zion: Jauna, ara emen gu, gauza guziak utzita garraizkizunok: guzaz zer izango da? Mene-menetan diotsuet, Jesussek erantzun zien, niri jarraitu zatzazkitenok, munduaren atzenean gizonaren Semea bere gloriako jarlekuan esertzen danean, zuek ere amabi aulkitan eseriko zerate, Israelko amabi Tribuak juzgatzeko. Eta





bere etxea, edo senideak, edo gurasoak, edo emaztea, edo semeak edo lur-bazterrak nigatik uzten dituenak, baten truke eun artuko ditu, eta gero betiko bizitza.

### 3. Langilleen parabola

Juduak beren buruak ontzat, eta gañerako guziak gaiztotzat idukitzeko griña zuten, eta Jesusek parabola au esan zien. Zeruetako Erreinua, goizean goiz bere mastirako langilleen eske irten zan etxeko buruaren antzekoa da. Langilleak arkitu zituenean, bakoitzari erreal biña eskeñita, bearrera bialdu zituen. Berriz ere bederatzia aldean irten zan, eta berebat esanda, bialdu zituen. Geroago ere irten zan, eta plazan geldu arkitu zituena esan zien: Nere mastira zoazte, eta bidezkoa dana emango dizutet. Berriz eta berriz ere amabiak eta arratsaldeko irurak inguruan irten zan, eta plazan topatu zituena esan zien: Emen egun guzian alperkerian zertan zaudete? Erantzun zioten: Nork otsegiñik ez degulako gaude. Zoazte, bada, zuek ere nere mastira, esan zien.

Eguzkia sartu zanean, nagusiak maiordomoari agindu zion, langilleai otsegin eta atzenekoetatik asita lenengoetarañoko guziaz beren alogera edo jornala emateko. Atzena joandakoak erreal-biko bana artu zutenean, lenengoak uste izan zuten, alogera andiagoa emango zietela; baña guziak berdin egin zirala ikusi zutenean, nagusiaren kontra gaizki-esaka zerasaten, esanaz: Atzeneko oiek lanean ordu bete baizik egin ez dute, eta egun guziko nekea eta eguzkia artu degunokin bat egin dituzu. Nagusiak bati erantzun zion: Adiskidea, bear ez danik egiten ez dizut. Erreal-biko bat emateko geratu ez giñan? zuk zerea ar ezazu, eta zoaz; bada, nik oni zuri ainbat eman nai diot. Edo nerearekin nai dedana egin ez dezaket? edo zure begia gaiztoa da, ni ona naizalako? Atzenekoak lenengo, eta lenengoak atzeneko izango dira. Deituak asko dira, esleituak, ordea, gitxi. Itz oiek juduentzat itz ikaragarriak ziran, eta gu kristaudentzat ere berebat dira, eta egin al guzian nekatzera ipiñi bear gaituzte, gure salbazio, ain galbide andian dabillena, irabazteko.

### 4. Jesusek bere eriotzaren gañean Apostolui itzegiten die

Jesusen ilbearra urreratzen zan; eta Betanian bi illabete eta erdi ares-tian aitatu diran gertaeraetan eginda, artu zuen Jerusalemeneron abiatzeko asmoa. Uri doakabe onen izenak Apostoluak txit izutzen zituen, zeren gogoan zeukaten lenagoko aldietan ere Jesus zein gaizki ikusia eta artua izan zan. Jesusek, bada, bildur oni igerritzen zion, eta zerraikion jendeartetik Apostoluak aterarik, iñoiz lenago ere bezala, esan zien: Ea, Jerusalemenera bagoaz, eta gizonaren Semeagatik profetak esandako gauza guziak egingo dira. Ipiña izango da apaiz-buruen, eskriba eta fariseoen, eta erriko zarren eskuetan, zeñak erabakiko dute il dedilla. Gero jentillai emango diete, il dezaten. Oiek berriz isekatu, txistuz bete, zeatu, gurutzean josi eta ilko dute. Baña irugarren egunean biztuko da.

Juduak uste zuten Mesias lurrera zetorrenean, mundu guziko erregetzat jarri eta erri guziak mendean idukiko zituela; eta Apostoluak ere, oraindik uste berean zeuden. Eta Jesusi aditu ziotenean, ilda irugarren egunean biztuko zala, pensatu zuten erreinaldi andi hura orduan asiko zala. Au gogoan arturik, Juan eta Santiago Apostoluen ama bere bi semeakin Jesusi urreratu zitzaion, agur egiñaz eta zerbaiten eske. Zer nai dezu? Jesusek galdetu zion. Jauna, amak erantzun zion, nik nai dedana da, Zuk nere bi seme oiek zure Erreinuan bata eskuian eta bestea ezkerrean artu ditzazula. Jesus semeai begira jarri zitzaion, eta esan zien: Ez dakizute zeren eske zaudeten. Edan dezakezute nik edango dedan edakaia edo kaliza? Esaten bazien bezala, nik eramango ditudan oñaze eta miñak eramateko adiña indar eta biotz izango dezute? Badezaguke, erantzun zioten. Bai, Jesusek esan zien: Nere kaliza edango dezute, baña niri ez dagokit nere eskuian edo ezkerrean artzea, nere Aitak prestatuta daukaenai baizik. Bi aien kontra beste amar Apostoluak aserretu ziran; baña Jesusek esan zienean gizona zein argala eta ezjakiña dan, eta nola bear ez diran gauza asko eskatzen dituen, paketu ziran.

### 5. Itsu baten argitzea

Itzketa onetan bidean zerbait luzatu zuten, eta Jerikora alderatu zanean, bide ondoan eskean egoten zan itsu batek jendeari galdetu zion:



Or zer dezute? Jesus Nazaretekoa dijoa, erantzun zioten. Itsuak bereala deadarrari eman zion: Jesus, Dabiden Semea, nizaz erruki zaitte. Aurretik zijoazenak isilerazo nai zuten; baña itsuak geroago eta ots andiagorekin esaten zuen: Jesus, Dabiden Semea, nizaz erruki zaitte. Jesus gelditu zan, eta itsuari, aurean artuta, galdetu zion: Zer nai dezu nik egin dizazudan? Argitzea, Jauna, erantzun zion. Ikusi ezazu, Jesusek esan zion, zure sinismenak sendatu zaitu. Itsua argitu zan, eta Jesusi besteen artean jarraitu zitzaion.

## ZAZPIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Lazaroren gaitza eta eriotza, eta biztutzea

Jesus Jerikon sartu zan, eta errian eta auzoetan bere erakutsi onak ematen zebillela, gaztigatu zioten, Marta eta Mariaren anaia Lazaro Betaninan txit gaizki zetzala. Jesusek Lazaro txit maite zuen, eta albista au artu zuenean esan zuen: Gaitz au iltzeko miña ez da, ezpada Jainkoaren gloriarako, eta beraren bitartez Jainkoaren Semea goratua izan dedin. Baña Jesus etzan beste egun bian Jerikotik Betaniaronzako irten, eta Lazaro ordu gitxiren buruan il zan.

Betaniaronz abiatuta, bidean zijoala bere ikasleai esan zien: Lazaro gure adiskidea lo datza, eta Ni esnatzera noakio. Lo badatza, Apostoluak erantzun zioten, gaitzik ez dauka. Jesusek berriz esan zien: Lazaro il da, eta pozik nago an ez nintzalako, sinistu dezazuten.

Betaniara urreratzen zan, jakin zuenean illik eta lurpeturik lau egun zirala. Progu-etxean judu asko batu ziran, Marta eta Mariari damuan edo miñean laguntzera, eta anaia aztuerazotzera. Martak lenengo jakin zuen Jesus zetorrela, eta bidera irtenda negarrez esan zion: Jauna, Zu emen izan baziña, gure anaia etzan ilko; baña badakit Zuk eskatu guzia Jainkoak egingo dizula. Zure anaia biztuko da, Jesusek esan zion. Badakit, Martak erantzun zion, badakit il guziak biztuko diranean, nere anaia ere biztuko dala. Biztutzea eta bizitza Ni naiz, Jesusek esan zion, eta Nigan sinisten duena, il bada ere, biztuko da. Nigan bizitzen dana eta sinisten duena, sekulan ez da ilko. Au sinisten dezu? Bai, Jauna, Martak erantzun zion, sinistu det Zu zerala Jesu Kristo, Jainko biziaren Seme mundura etorri zerana, Zugan sinisten dutenak salbatzera.

Mariak etziekien Jesus zetorrenik, eta Martak isillik esan zionean Jauna an zala eta deitzen ziola, zegoana zegoan lekuan utzita, Jesusi bereala bidera joan zitzaion, eta oñetan auzpezturik, negarrez esan zion: Ai Jauna, zu emen izan baziña, etzan nere anaia ilko. Etxera poztutzera joan zitzaiozkan juduak, ikusi zutenean etxetik bat-batetan irteten, ondoren



jarraitu zitzaiozkan, gorputz-illa zetzan tokira negar egitera zijoalakoan. Baña oiek ikustera orduko, hura Jesusen oñetan auzpez zetzan, eta negarrari eman zioten. Jesusek bata eta besteak negarrez ikusi zituenean, barruna illundu zitzaion, eta nastu zan. Non ipiñi zenduten? Jesusek galdetu zien. Atoz, Jauna, eta ara emen, erantzun zioten. Guziak obira edo sepulturara joan ziran, eta Jesusek ikusi zuenean negar egin zuen. Orduan juduak esan zuten: Ara zenbat nai zion. Baña baziran esan zutenak: Jaiotzatik itsu zetorrena argitu zuen onek, ezin zezakean bere adiskide au bizi-rik gorde? Esan onekin Jesusen biotza are geiago il zan; bada itz oietan, dirudienez, esan nai zuten, edo itsua etzuela argitu, edo Lazarori bizia gordetzeko eskubiderik etzuela, eta naiz batarekin, naiz bestearekin, Jesusi bidegabekeria andia egiten zitzaion.

Jesus, bada, joan zan obira, zeña zan lur-zulo arri andi batekin estalitako bat. Arri ori kendu ezazute, Jesusek esan zien. Jauna, kiratsa dario, Martak esan zion; bada, lau egun dira il zala. Marta, Jesusek erantzun zion, ez dizut esan, sinisten badezu, Jainkoaren gloria ikusiko dezula? Orduan Jesus, begiak zeruronz ipiñirik, Aitari itzegiten asi zitzaion: Aita nerea, eskerrak ematen dizkizut, aditu didazulako. Baniekien, bai, beti aditzen didazula; baña esan det, inguratzen nautenak sinistu dezaten Zuk bialdua naizala. Guziak zekusten lur-zuloan arrak gora-beera zebilzkion gorputz-illa, eta zer gertatuko ote zan jakin naiez zeuden. Jesusen ikasle, mirariak ikusten ain oituak, lenagoko guzien azkarria ikusteko ustea zuten. Lazaro zanaren bi arrebak ere larri ziran. Adiskideak, ikusiko zana lenbait-len ikusi nai zuten. Orduan Jesusek ots andi batekin esan zuen: Lazaro, atoz kanpora. Eta berealaxe obitik irten zan. Esku-oñak lotuta zeuzkan, arpegia zapi batekin estalia eta gorputza maindre batean bildua. Jesusek agindu zuen askatzeko, eta Lazaro zutik osasun betean jarri zitzaion.

Begira zeuden judu askok sinistu zuten Jesus Mesias egiazkoa zala, eta eskriba eta fariseoai joan zitzaiezten, Lazaro nola biztu zan eta Jesusek onekin egindako guzi-guzia esatera. Berri au bazan eskriba eta fariseoak, besterik izatera, ezagueran sartzeko adiña; baña sinisgogorregiak ziran, eta Jesusen kontra su biziagoak artu zituen.

## 2. Jesus iltzeko asmoak artzen dira

Ikusirik egunoro eta argiro egiten zijoan mirariak ezin ukatu zitezkeala, eta bildurturik geldi utzi ezkerro, denbora gitxiren epean jende guzia beretuko zuela, batzarrean bildu ziran, lenbaitlen eskuak egotzi eta galtzeko bideak artzera. Zertan gaude? batzarrean elkarri esaten zioten. Gizon onek mirari asko egiten ditu, eta pakean uzten badiogu, guziak sinistuko diote, eta erromarrak etorriko zazkigu, eta gure bazter eta jende guzia artuko digute. Denbora onetan Anasen sui Kaifas apaiz nagusi egiten zuenak esan zien: Zuek ezer ez dakizute. Konbeni da gizon bat iltzea, erriagatik eta jende guzia galdu ez dedin. Itz oiekin aldeaurrez esan edo asmatu zuen, nola Jesus gu guziokgatik ilko zan. Batzar onetan, bada, erabaki zan Jesus il zedilla, eta agindu zuten, Jesus nondik nora zebillen ziekienak batzar edo tribunalari berri eman zizaiola.

Jesus bitartean Lazaro, Marta eta Mariaren etxetik irtenda, egun erdiko bidean, Efrengo urira joan zan. Emen egin zituen astelenetik ostiral arteko egunak, bere ikasleai erakusten eta Jerusalemene igaroko ziran gauza arrigarriak ikusteko prestatzen. Ostiralean osterata Betaniara itzuli zan; baña etzan Lazaroren etxean larunbat illunabarreraño sartu. Iru senide zorioneko aiek beren Jaun eta Ongillea beren artean berriro ikusi zutenean, zer egin etziekiten, artutako mesede andi ari zegozkion esker onak emateko. Bereala afari eder bat prestatu zuten Simon Lepratsuaren etxean, eta maiean jarri ziran Jesus bere Apostoluakin, eta Lazaro biztuberria ikustera joan zitzaiozkan bere adiskide askorekin. Mai-serbitzoan, beti bezala, Marta zebillen, eta Maria aurkeztu zan libra bat okendu garbi ontzi eder batean zuela. Jesusi aurrean auzpeztu zitzaion; oñak okenduz aurrena igortzi, eta gero bere buruko illearekin leortu ziozkan, eta etxe guzia usai gozoz bete zan.

Lanbide au gaizki artuko zuenik etzirudien izango zala, batez ere noiz eta nori egiten zitzaion begiratu ezkerro; baña izan zan bat, eta au Apostoluen artean, ontzat eman etzuen. Judas Iskariote apostolu eskergabeko saldu ark esan zuen: Zertako okendu au salduta, artuko ziran irureun erreal-biko beartsu pobreak eman etzaizte? Judasek zeraman Jesus eta Onekin zebilzanen artu-eman guzia; eta iñoren gauza zalea izanik, aren eskuetarazten zanetik zerbait isillik beti gordetzen zuen, eta orain ere griña berak espa hura ateraerazo zion, ez beartsuak laguntzeko gogoak.



Jesus, Judasek ondo edo gaizki itzegin zuela erabaki gabe, Mariaren alde irten zan, eta esan zuen: Utzaiozute; bada nerekin lan ona egin du. Bear-tsuak zerokin beti izango dituzute, ez ordea Ni. Onek zezakeana egin du. Nere gorputza obirako lendanaz igortzi du. Egi-egiaz esaten dizutet, Ebanjelioa erakutsiko dan leku guzietan, mundu guzian, emakume onek nerekin egin duena ere bere oroipen onerako esango dala.

Apaiz-buruak ernegatzen zebilzan, Lazaro biztua izan zan ezkerro, Jesusi are jende geiago eta eresi andiangoan zijoakiola ikustearekin; eta artu zuten Lazaro iltzeko asmoa. Baña, zer itsumen! Gaitzak illa biztu zue-nak, ez ote zezakean gizonak illa biztu? Lazaro berak illarekin Jesusi lena-goko eskubidea kenduko ote zioten? Ezagutu zuten nonbait, zorakeria andi bat izango zala, edo beren buruak geiago agertzea baizik etzutela iri-tsiko; beintzat, asmoa artu bazuten ere, il gabe utzi zioten.

### 3. Erramu eguneko Jesusen joanera Jerusalemenera

Jesusek bazekusan zein gorroto andiarekin begiratzen zioten, eta gorroto au beragandik mesedeak artutakoetara ere zabaltzen zala; ala ere, etzitzaian oraingoan ezkutatu. Iltzeko eguna bazetorren, eta biaramo-nean, Eliz-Ama Santak orain Erramu-Eguna deitzen dion egunean goiz, Betaniatik bere ikasleekin irten zan, eta Betfaje zeritzan Olibeteko mendi ondora eldu zanean, bere bi ikasleri esan zien: Zoazte or aurrean ikusten dezuten etxadi orretara, eta arkituko dituzute lotuta asto-eme bat, eta asto-kume iñor oraïndik igo etzaiona. Askatuta ekarzkidazute, eta iñork ezer esaten badizute, erantzungo diozute: Jaunak bear ditu; eta bereala utziko dizute ekartzen. Ikasleak joan ziran, eta Jesusek esan bezala guzia gertatu zan. Isaiasen bitartez anziñatik esana zan: Siongo alaba, ez ikara-tu, ara emen zure Erregea umiltasun guziarekin astotxo baten gañean jarria.

Ama-humeak eraman ziozkaten; Apostoluak beren soñekoak txal-matzat ipiñi ziezten: Jesus aurrena amari, eta gero humeari igo zitzaion, eta guziak Jerusalemeneron abiatu ziran. Jerusalemetik eta inguruko errieta-tik jendetza andiak batu zitzaiozkaten; eta Jesusek zeraman bidean, batzuek beren kapak lurrean zabaltzen zituzten; besteak adar ostoduna-

kin bide-ertzak apaintzen zituzten, eta guziak erramu edo olibo ostoko eskuan zeramazkiten, eta andi-txiki guziak deadar egiten zuten: Hosanna Dabiden semea, au da, Dabiden semea, gorde ezazu. Bedeinkatua izan bedi Jainkoaren izenean datorren Israelko Erregea. *Hosanna filio David, benedictus qui venit in nomine Domini.*

Fariseoak, Jesus ain onratua ikusirik, esaten zuten: Ez dakusute ezer aurreratzen ez degula? mundu guzia berari darraikio! eta batzuek Jesusi albora joanda, esan zioten: Maisua, zure ikasle oriek isilerazo itzatzu. Oriek isilduko balira, Jesusek erantzun zien, arriak itzegingo lukete.

Jesuentzat txit pozgarria zan ainbeste jende beragana jarri eta agur onak egiten ziozkatala ikustea; baña une berean, Jerusalemenera alderatuago eta biotza illunagotuzten zitzaion, zeren baziekien egun gitxiren buruan uri doakabe artan gertatuko ziran gauza ikaragarriak. Jerusalem txit maite zuen, eta bere biotz guzia argan zeukan, eta ikustera zanean, negarrari eman zitzaion, esanaz: Ai, Jerusalem, Jerusalem, gaur bederik ezagutuko bazendu zerk on egingo dizun! Baña zure begiak itsutuak daude, eta bada-tor eguna, zure etsaiak inguratu eta alde guzietatik estutuko zaituztena, zure paretak lurrera ezarri, zure semeak il, eta guzia ondatuko dutena, arria arriaren gañean utzi ere gabe, zeren ezagutu ez dezun, ondo ikusi nai izan zaituzten ordua.

Zispuruz eta negarrez Jesus bazijoan, eta uri zorigaiztoko artan sartu zanean, guziak azoratu ziran, eta Jesusekin zijoazenai galdetzen zieten: Zein dakarzute? Orrelako andiustean datorren ori zein dezute? Au Jesus Nazaretoko profeta da, erantzuten zuten. Jesus, gelditzerik ere egin gabe, Elizaraño joan, eta Eliz-atarian astotxotik jatsi zan. Begien aurrean jarri zitzaion lenbiziko agirakagarria edo aserrerazo ziona izan zan, orazioko etxea saldu-erosietarako leku egiña arkitzea; eta bere predikuaren asieran bezala, orain ere arpegira eman zien, zein gaizki egiten zuten leku santuan artu-emanetan jarduten.

Saldu-erosleen kontra ain aserretua Jesus ikusi arren, onen bear ziran elbarri, itsu eta gisa guzietako beste eri gaxoak bazijoazkion osasun eske, eta guziak sendatzen zituen. Aur eta gaztetxoak ere inguratu zuten, otse-giñaz: Hosanna Dabiden semea. Apaiz-buruak eta eskribak, ikusirik egi-ten zituen mirariak, eta aditurik gazte oien bedeinkazioko otsak, sutu ziran, eta esan zioten: Ez dezu aditzen, oiek zer dioten? Bai, Jesusek eran-tzun zien, aditu det. Eta zuek ez dezute irakurri Profetak diona: Txiki-txoen eta bularreko aurren aotik zure alabantza artu zenduen? Esan oni



zer erantzunik izan ez, eta isillik aldegin zuten. Oien lekuan, eta oiek baño biotz obeagoko greziar batzuek sortu ziran, eta beren erritar Felipe Apostoluari esan zioten Jesus ikusi nai zutela, eta Jesusgana berekin eramane zioten, eta Elizan sartuta Jesusi aditzen egon ziran.

#### 4. Gal-aziaren parabola

Jesusek, bada, itzaldia onela asi zuen: Etorri da ordua, gizonaren Semea gloriartzua edo altxatua izango dana; baño onekin gertatuko da gal-aziarekin gertatzen dana. Gal-azia erortzen danean, iltzen ezpada, bakarrik dago; baño iltzen bada, ugaritzen da. Gizonaren Semearekin au bera gertatuko da. Au esatearekin batean gogoratu zitzaion zetozkion iltura edo tormentuen eramane-bearra, eta otsegin zuen: Nere barrua estua dago eta, zer esango det? nori itzegingo diot? Zugana, Aita nerea! zugana nator nere esturasun guzien erdian. Gorde nazazu datorkidan ordu ikaragarri artatik; baño ez orrelakorik, Jainko nerea, Ni ez naiz etorri ilturari iges egiteko, ezpada Zuri eskeñtzeko. Artu zadazu bada, Jauna, egingo dizudan ofrenda, eta zure Izen guziz Santua altxa ezazu. Atzeneko itz oiek esan orduko, Zerutik irten zan ots bat, ziona: Altxatu det, eta altxatuko det. Ots au batzuek turmoi-soñutzat artu zuten; besteak Jaunaren Aingeruaren itz-otsa zala zioten. Baña Jesusek esan zien: Ots au ez nigatik, ezpada zuekgatik izan da, ezagutu dezazuten Jainkoaren Semea naizala. Mundua orain neurtu edo juzgatuko da; mundu onetako agintaria orain kanpora botako da, eta lurretik jasotzen nautenean guzia neretuko det. Itz oiekin aditzera eman nai izan zien, Ebanjelio Santuak dio, gurutzean ilko zala. Orduan juduak esan zuten: Guk gure legean aditu izan degu, Kristok beti iraungo duela, eta Zuk, nola diozu gizonaren Semea gurutzean jasotzea konbeni dala? Gizonaren Seme ori nor da? Oraindik ere zuen artean argi piska batek badirau, Jesusek esan zien, eta argi onek dirauen bitartean ibilli zaitezte, illunak itsumustuan artu etzaitzaten. Illunpean dabillenen ez daki non dabillen; argia dezuten artean, argiagan sinistu ezazute, argiaren humeak izan zaitezten. Esaten bazien bezala, etzitzatela galdu aien artean egingo zituen egun banakak, bada hura il ezker sartuko zitzaien illunak etziela onik egiten utziko. Ala gertatu zan: Juduak orduko argiari etzioten lekuri eman nai izan, itsutu ziran Egia ezagutzeko, eta gaur dan egunean

ere itsutasun onek jende zorigaiztoko argan badirau. Itzaldi onen ondoren illuntzean Jesus bere Apostoluakin Elizatik irtenda, Betaniara Lazaro eta bere bi arrebaen etxera itzuli zan.

#### 5. Masti-jabearen parabola

Beste egun batean goiz Jesus bere Apostoluakin Jerusalemenera joan zan, eta Elizan, leku santuari ez dagozkion gauzak egiten zituztenen kontra bere espasunak berrituta gero, ipiñi zien parabola bat, garbiro adierazten zuena bere laster il-bearra, eta zein bidegabe ilko zuten. Ara parabola. Etxejaun batek masti bat eginda esiz itxi zuen; gero dolare bat eta etxea egiñik, maizterrai beren gañ eman zien, eta urrutietara joan zan. Mats-biltzeko egunak alderatu ziranean, morroiak bialdu zituen errenta eske; baño maizterrak morroi bat elbarritu, bestea il eta irugarrena arrikatu zuten. Nagusiak, berriz ere, lenak baño morroi geiago bialdu zituen, eta maizterrak oiekin ere berebat egin zuten. Orduan masti-jabeak esan zuen: Zer egingo det? Nere seme maitea bialduko diet, eta au ikusita, lotsatuko dira. Maizterrak seme au ikusi zutenean, elkarri esan zioten: Nagusiaren oñordekoa da, ots, il dezagun, eta bere ondadea guretzat izango da. Maizter gaiztoak eldu zioten, eta mastitik aterata, il zuten. Orain, bada, masti-jabea datorrenean, maizterrai zer egingo die? Gaiztoak galduko ditu, eta errenta zuzenago pagatuko dioten beste maizter batzuei mastia emango die.

Eskribak, fariseoak, apaiz-buru eta erriko agintariak Jesusi laster igerrri zioten, itzketa au guzia beren asaba profetak il izan zituztenakgatik, eta orain Jainkoaren Semea bera il naiez zebilzan berakgatik zala; baño Jesusi zerraiakion jende andiaren bildurrez, etzuten biotzik izan eskuak ezartzeko.

#### 6. Errege-semearen eztaien parabola

Parabola onen ondoren esan zien beste bat are lotsagarriagoa. Zeruetako Erreina semea ezkontzeko eztaiak prestatu zituen errege



baten antzekoa da. Guzia zuzendutakoan, morroiak bialdu zituen, lenda-naz esanda zeudenai etortzeko gaztigatzera; baña etziran etorri nai izan. Berriz ere morroiak bialdu ziezten esatera: Maia ipiñita dago, idi gizen eta egaztiak il dira, eta gañerako gauza guziak prest daude, eta eztaietara atozte. Orduan ere gaztigua etzuten ezertan artu; bata sorora eta bestea bere egitekoetara joan ziran, eta gañerakoak morroiak eskuak egotzi eta farragarri asko egin ondoren, il zituzten. Erregea albista onekin aserretu zan, eta gizon armadunak bialduta, iltzalleak ondatu eta erriari su emanda, auts egin zuen; eta morroiak esan zien: Eztaiak prestatuta daude; esan zitzaie-nak etziran etortzeko diña. Bidegurutzetara zoazte, eta dakusuten guziari esango diozute eztaietara etortzeko. Morroiak joan ziran, eta arkitu zituzten on eta gaizto guziakin itzuli ziran, eta maia bete zan. Erregea sartu zan maiean zeudenak ikustera, eta eztai-janzia gabe bat arkitu zuenean, esan zion: Adiskidea, nola onara eztai-soñekoa gabe etorri zera? Etzion itzik erantzun. Orduan erregeak bere serbitzariak esan zien: Esku eta oñak lotuta, bota ezazute kanpoko illunetara, non negarra eta orz-karraskotsak baizik izango ez dan.

Emen bukatu zuen parabola, zeñarekin erakusten digu asko ez dala Elizan sartzea, au da, kristau egitea; graziazko soñekoa ere iduki bear degula, salbatuko bagera: eta soñeko au, Jainkoak betiko eztaietara deitzen digunerako beñere kendu gabe gorde bear dala erakusteko, Jesusek ipiñi zuen beste parabola, Eliz-Ama santak ain sarriro Meza Santan irakurtzen digun au.

## 7. Amar birjiñaen parabola

Zeruetako Erreina ezkon-berriak, kriseluak eskuan zituztela, bidera irten zitzaizten amar birjiñaen antzekoa izango da. Amar birjiña oietatik bost zoroak ziran, eta beste bost zintzoak. Zoroak etzuten berekin olio-rik artu; baña zintzoak bai. Esposoaren etorrerak luzatzen zuelako, birjiña logaletu ziran, eta geroenean loak bota zituen. Gauerdian izan zan ots bat, ziona: Begira, esposoa badator eta bidera irten zatzazkio. Orduan birjiña guziak jaiki eta asi ziran kriseluak zuzentzen; baña zoroak zintzo-ai esan zieten: Zuen oliotik iguzute, bada, gure kriseluak itzaltzen zazki-gu. Eta zintzoak erantzun zuten, esanaz: Zoazte saltzen dan tokira, eta

bear dezutena erosi ezazute, guk zuei emanda, gero zuek eta gu batere gabe geratu ez gaitzen. Zoroak olio-erosten ziran bitartean, esposoa etorri zan, eta prest zeudenak eztaietara onekin sartu ziran, eta atea itxi zan. Beste birjiña gero etorri ziran, esanaz: Jauna, Jauna, idiki zaguzu; baña esposoak erantzun zien: Zin-ziñez esaten dizutet, ezagutzen etzaituzteda-la. Esnai egon, bada, zeren ez dakizuten zein egun eta zer ordutan deituko zatzuten.

Parabola onek aditzera ematen digu, obra onen olioarekin prestatuta beti egon bear gerala, Jainkoak beste mundura deitzen digunerako. Itz-keta oni zerraikiola beste parabola bat ere esan zien. Ara zer.

## 8. Talentuen parabola

Gizon aberats batek artu zuen urruti batera joateko asmoa, eta morroiak beregana eramanda, bere dirua eman zien, zeritzan neurri batean. Bati bost talentu eman ziozkan, eta talentu bakoitzak ogeita amai-ka milla seieunda larogei erreal bezalatsu balio zituen. Beste bati bi, eta besteari bat, eta bere bidean joan zan. Bost artu zituenak irabazian ipiñi, eta beste bost atera zituen. Bi artu zituenak ere, berebat beste bi irabazi zituen. Baña bat bakarra artu zuenak, lurrean zulo bat egin eta gorde zuen. Denbora luzearen buruan, nagusia etxera zan, eta morroiak kontuak eskatu ziezten. Bost artutakoak beste bost eraman ziozkan, esanaz: Jauna, bost talentu eman ziñizkidan, eta ara gañera beste bost irabazi ditudanak. Txit ondo, morroi on eta leiala, nagusiak esan zion; zeren gitxian leiala izan zeran, asko emango dizut: zure Jaunaren pozean sar zaite. Bi artu zituenak ere joan zitzaion, eta esan zion: Jauna, bi talentu eman ziñizkidan, eta ara emen, gañera beste bi irabazi ditudanakin. Txit ondo, morroi on eta leiala, nagusiak esan zion; zeren gitxian leiala izan zeran, asko emango dizut: zure Jaunaren pozean sar zaite. Talentu bat bakarra artu zuena ere joan zitzaion, eta esan zion: Jauna, badakit gizon zorrotza zerala, erein etzendum lekuan segatzen dezula, eta banatu etzendum tokian biltzen dezula; eta bildurrez, zuk eman ziñidan talentua lurpean gorde nuen: orra non dezun zere-zerea. Morroi gaizto alperra, nagusiak aserrez esan zion, zuk baziñiekien, diozunez, nik erein ez dedan lekuan segatzen dedala, eta banatu ez dedan tokian bildu: beragatik, nere dirua irabazian ipiñi bear



zenduen, obariarekin nere-nerea orain nik artu nezan. Kendu zaiozute, bada, talentu ori, eta amar dituenari eman; zeren daukanari emango zaion eta ugaritu: baña ez daukanari, daukala uste duen hura ere kenduko zaion. Orain morroi alper au bota ezazute kanpo illunera, negar eta orz-karras-kots lekura.

Jesusek parabola onekin aditzera eman zigun, nor bere doaiakin, asko dituen bezala gitxikoa ere, bere eta besteren salbazioa irabazten nekatu bear dala; eta, ai nag-alperraren errukarria, ezpadu dezakean guzia bere aldetik egiten! Zein estu Jainkoak kontuak artuko diozkan!

## 9. Atzen juizioaren gañeko itzaldia

Oraindanoan Jesusek antz-irudi edo parabolaetan aditzera ematen zuen, munduaren atzenean guziok neurtzera etorriko dala; baña orain garbiro eta argiro gai onen gañean itzegin zuen. Gizonaren Semea, esan zien, bere anditasun guzian, aingeru guziak berekin dituela datorrenean, bere aulki edo tronoan eseriko da, eta jende guzi-guziak bere ondora bilduko dira. Batzuek besteetatik banakatuko ditu, artzaiak antxumeen arte-tik ardiak bezala, eta ardiak, au da, onak bere eskuian ipiñiko ditu, eta antxumeak, au da, gaiztoak ezkerrean. Orduan gizonaren Semeak eskui-aldekoai esango die: Atozte, nere Aitaren bedeinkatuok, munduaren asieratik prestatuta dagokizuten Erreinura; bada gose nintzan, eta jaten eman ziñidaten; egarri nintzan, eta edaten eman ziñidaten; arrotza nintzan, eta etxean artu ninduzuten; billosa nengoan, eta estali ninduzuten; gaxo nintzan, eta ikusi ninduzuten; itxian, eta ikustera etorri zintzazkidaten. Orduan onak esango dute: Jauna, noiz, ordea, gosetua ikusi zindugun, eta jaten eman? edo egarritua eta edaten eman? noiz arrotza izan, eta etxean artu, edo larrugorrian, eta janzi? Edo noiz gaxo ikusita, edo itxian zendela, ikustera joan gintzazun? Juezak erantzungo die, esanaz: Egi-egiaz esaten dizutet, nere anaiatxo oietatik bati egiten ziñiotenean, niri egin ziñidaten.

Orduan ezker-aldekoai ere esango die: Nigandik zoazte, madarika-tuok, deabru eta bere aingeruentzat prestatuta dagoan su betikora: bada gose nintzan, eta etziñidaten eman jaten; egarri nintzan, eta etziñidaten

eman edaten; arrotza nintzan, eta ez ninduzuten etxean artu; billosa nengoan, eta ez ninduzuten estali; eri eta itxian, eta ez ninduzuten ikusi. Eta berak ere erantzungo dute, esanaz: Jauna, noiz ikusi zindugun gosetua, edo egarritua, edo arrotza, edo larrugorrian, edo eri edo itxian, eta ez giñizun lagundu? Juezak esango die: Txikitxo oietatik bati egin etziñiotenean, niri ere etziñidaten egin. Eta oiek su betikora joango dira, eta onak betiko bizitzara. Esan ikaragarria! Epai izugarria! baña gertatuko dana. Emen gogoan artu bear degu, Jesusek onerako edo gaitzerako bere epaia emateko, etzituela gauza andi edo bekatu agiri-agirikoak aitatu, ezpada guk aintzakotzat ere, menturaz, artzen ez ditugunak, nola diran zerbaiten bearrean daudenai laguntzea edo ez laguntzea. Beragatik, etzagu iñoiz ere aztu bear, gure bizitzako on eta ez-onak zein zearo eta zuzen neurtuak izango diran.



## ZORTZIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Jesusen Pasioa

Eldu gera Jesusen bizitzaren zatirik gogoangarrienera. Munduan igaro zituen egun eta orduak zein baño zeinik etzuten; ala ere, esan ditek atzeneko orduetan egindako gauza andiak eta ez-adituak lengo guzien azkarriak zirala. Oraindano Jainko gizonaren bizitza ikusi degu; emendik aurrera Jainko gizonaren eriotza ikusiko degu. Orain artean, zebillen leku guzietan, erakutsi onak ematen, Zerurako bidean nola ibilli bear dan esaten, gizonari ona eta ona egiten ikusi degu; gaurgero gizonagandik eta gizonagatik billaukeriarik beltzenak, penarik andienak eta eriotzarik lotsagarriena artzen ikusiko degu. Baña geiago luzatu gabe, sallari garraizkion.

### 2. Jesusen salmena

Ordua bazetorren, eta Jesusen betiko etsaiak, Kaifas apaiz nagusiaren etxean batzarrea egin zuten; eta erabaki zan Jesus Nazaretekoa atzitzeko eta bereala iltzeko. Lenago ere au bera erabaki izan zan, ordua bete etzalako egin ez bazuten ere; baña oraingoan artu zuten nolabait galtzeko asmoa. Bi eragozpen aurrean jartzen zitzaiezten: batetik, jendeari bildur zitzaiozkan, zeren asko eta asko ziran Jesusi txit ondo nai ziotenak, eta bildur onegatik guzia isillik eta astegunean, inor oartu gabe, egin nai zuten; bestetik, guzia naierara egiteko denbora neurtua zeukaten. Batzarra asteazken goizean egin zuten, eta Pazkoa ostiral arratsaldean asten zan, eta bitarte onetan Jesus atzitu, auzi-antza moldatu eta gañerako guzia prestatu nai zuten, Pazkoa asi baño lenago iltzeko. Eta nondik eta nola asiko ziran ezin asmatuz zebizala, gitxiena uste zezaketen lekutik, erarik onena agertu zitzaien.

Denbora onetan Jesus egunez Jerusalemenera joan, eta Elizan erakusten edo predikatzen ziardun, eta gauerako Olibeteko mendira igo eta erreku-aldi luzeak egiten zituen. Egun aietatik batean Betanian, Simon Lepratsua zeritzanaren etxean bere ikasleakin afaltzen zegoala, Maria, Lazaroren arrebak, lenagokoan okendu gozoa onetara bezala, oraingoan burura bota zion. Judasek etzion ontzat artu, naiago zuelako okendua salduta onen dirua artu, gero beretzat zer gorde geiago izan zezan. Gañerakoan, beste lenagoko afarian gertatu zana bera oraingoan ere gitxi-gorabera gertatu zan. Emen esan ziran itzetatik Judasek, nonbait, ezagutu zuen Jesus laster ilko zala, eta ikusirik berekin zebilzanai zer utzirik etzuela, bere diru-nai zorigaiztokoarekin Satanasi biotzean leku eman zion eta artu zuen bere Maisu ona galtzeko eske zebilzkion etsai saltzeko asmoa. Barrun gaizto onekin Betaniatik irtenda Jerusalemenera joan zan; eta oraindik batzarrean ziardutela sartu zitzaien, eta esan zien: Zer eman nai didazute, eta nik eskura eman edo entregatuko dizutet? Berealaxe ogeita amar diru zillarrezko eskeñi ziozkatzen. Ogeita amar diru oiek, batzuen iritzian, oraingo irurogei erreal balio zuten; besteak, berriz, berreunda ogeita amasei erreal eta erdi diote; baña dana dala, ezertan artzea ere merezi ezute-nak, beintzat, ziran, eta gauza uts onen truke Jesus saltzeko itza Judasek eman zien. Itz oiek elkarri emanda, Judas Betaniara itzuli zan, ezer egindako antz gabe. Beste Apostoluak oartu ere etziran Judas kanpoan izan zanik; bada, apostolu galdu onek or-emenak bereala eta isillik egin zituen.

### 3. Pazkoarako prestamena

Pazkoako arkumea urte artan ostegun arratsaldean jan bear zan; eta Apostoluak au gogoan zeukatela, ostegunera iritsi ziranean, Jesusi alderatu zitzaiozkan eta galdetu zioten: Non nai dezu Pazkoa jan dezagun? Jesusek Pedro eta Juan bialdu zituen, esanaz: Urira zoazte, eta topatuko dezute lusull edo pegarra urarekin dijoan gizon bat, eta ondoren zoazkiote, eta sartzen dan etxeko nagusiari esango diozute: Maisuak au dio: Afaltokia non da? Nere ikasleakin Pazkoa non jango det? Nere denbora alderatu da. Pazkoa nere ikasleakin zure etxean egitera noa. Orduan afaltoki eder-eder bat erakutsiko dizute, eta bear dan guzia emen presta ezazute. Pazkoa au egiten zan arkume erre, letxuga min, legami gabeko ogi eta ardoarekin.





Gauza guziak zuzendu zituztenean, Jesus bere Apostoluakin Jerusalemenera joan zan, eta illunabarreko zazpiretan gitxi-gorabeera maiean eseri zan, bere Apostoluak alboetan zituela. Jaten eta edaten lanotasun guziarekin ziardutela, Jesusek guziaz begiratu zien, aitzak bere humeai bezala, eta esan zien: Opa-opa nuen Pazkoa au zuekin egitea, il baño lenago; bada, egiaz esaten dizutet, ez dedala berriz jango, Jainkoaren Erreinuian jan dezadan artean. Au esanda, ardoz edanontzi bat bete zuen, Aita Eternorari eskerrak eman ziozkan, eta bere Apostolui luzatu zien, edan zezaten. Andik laster, alako berri tristerik uste ezin zezaketenean, Jesusek esan zien: Nerekin emen jaten duen zuetatik batek salduko nau. Guziak larritu ziran, eta galdetzen zioten: Jauna, ni naiz? Plateran eskua nerekin sartzen duena da ni salduko nauena, Jesusek esan zien; eta gizonaren Semea badijoa, esanik eta erabakirik dagoan bezala. Baña, ai, gizonaren Semea salduko duenaren zorigaiztoko! Obe izango zuen sekulan jaio ez balitz! Apostoluak are geiago larritu eta ikaratu ziran, eta asi ziran elkarri galdezka, zein aien artean izango zan onelako gaiztakeria egingo zuena. Judasek, ez jakin eginda, izan zuen biotza Jesusi esateko: Maisua, ni ote naiz? Apostolu billau onek nonbait gogoan etzeukan Jesusi etzitziola ezer ere oartzaka egiten, eta jakin nai zuen aren asmo gaiztoai igerrri ote zien; baña erantzura ikaragarri au artu zuen: Zuk esan dezu. Jesusekin Judasen arteko itzketa au isillik noski izan zan; beste Apostoluak, beintzat, geroago ere etziekiten.

#### 4. Jesusek Apostolui oñak garbitzea

Afaria bukatzera zan, eta Jesusek adierazo zien gauza andi batzuek buruan zerabilzkiela. Izatez ere alaxe zan; bada, iñori gogoak ere eman ezin zizaiokean miraria egitera zijoan: mundutik irten bear zan orduetan bere Gorputz eta Odol biziak uztera zijoan; Aldareko Sakramentu guziz santua ipintzera zijoan, baña bere burua umiltasunik gogoangarrienera lenago beeratuta.

Jesus maietik jaiki zan, gañeko bere soñekoa kendu, eta esku-zapi edo toaja batekin gerria lotu zuen; ontzi batera ura botata, prestatu zan Apostolui oñak urarekin garbitu eta zapiarekin leortzeko. Umiltasunaren andia Zeru-lurren Jabearentzat! Apostolu guzien buruari bezala Pedrori

bereala asi zitzaion; baña Apostoluak, txit arriturik, otsegin zuen: Zer! Zuk, Jauna, niri oñak garbitu? Nik egiten dedana, Jesusek erantzun zion, zuk orain ez dakizu; gero jakingo dezu. Ez, Jauna, ez, Pedrok esan zion; egundano ez dizut, Zuk niri oñak garbitzen utziko. Bada Nik ez garbitzera, Jesusek esan zion, ez dezu nerekin zer egiñik izango. Pedro larritu zan, eta esan zion: Jauna, garbitu zazkidazu oñak ez ezen, esku eta burua ere. Jesusek esan zion: Garbi dagoanak, oñak beste garbitukizunik ez du; bada guzia garbia dago, eta zuek garbiak zaudete, guziok ezpada ere. Esan au zeñentzat edo zeñegatik zan, Judasek igerrri zion, baña etzan aren biotz arrizkoa biguntzeko adiña izan; eta bere Maisu andi salduta zeukanari utzi zion oñ asko aldetatik zikin aiek garbitzen, damutasunaren antzik ere eman gabe.

Guziaz oñak garbitu ondoren, esku-zapia utzita, soñekoa artu zuen eta maiean eseri zan, eta esan zien: Dakusute, zuekin zer egin dedan. Jauna eta Maisua deitzen didazute, eta egia diozute: ala naiz. Orain, bada, baldin Nik zuen Jaun eta Maisu naizan onek, oñak garbitu badizkizutet, zuek ere elkarri garbitu bear diozkazute, zeren erakutsi dizutedan, Nik zuekin egin dedan bezala zuek ere elkarrekin egin dezazuten. Egi-egiaz esaten dizutet: morroia ez da nagusia baño geiago; bialdua ere ez, bialtzallea baño. Au zintzo aditu eta egiten badezute, zorionekoak izango zerate. Zuekgatik ez diardut: badakit zeintzuek autu ditudan; ezpada bete ditezen Eskriturako itz oiek: Nerekin ogia jaten duenak orpoa nere kontra jasoko du. Bertatik eta aldeurrez, gertatuko dan baño lenago esaten dizutet, gero gertatzen danean sinistu dezazuten Ni naizela Mesias, Jainkoaren Semea. Egi-egiaz esaten dizutet: nik bialtzen dedana artzen duenak, Ni nerau artuko nau, eta Ni artzen nauenak, Ni bialdu nauena artuko du.

#### 5. Apostolu saltzallearen kontrako Jesusen espak

Umiltasun ezin geiagoko erakutsi onen ondoren, Jesus prestatu zan guganako bere amorio neurrigabea agertzeko. Bere Gorputz eta Odol guziz santuak Aldare Santuan utzi nai zizkigun, baña Apostolu dollor sal-



tzalle bati ematera zijoala gogoratzeak zerbait atzerasan zuen, eta esane-razo zion: Egiaz esaten dizutet, ene Apostoluak, zuetatik batek nere etsaien eskuetan ipiñiko nauela. Irugarren aldia zan Jesusek espasun berak Apostolui iragarri ziezteela. Eta Pedrok ezin eramanik ain biotz gaiztoko gizona aien artean agertu gabe egotea, jakin nai izan zuen nor ote zan, lagun artetik benik-bein bereala kentzeko, besterik ezin egin bazitzaio-kean ere. Jesusen eskuitik Pedro eta ezkerretik Juan zeuden. Pedrok guzien burutzat autua zan aldetik bazirudien Jesusi beste bitarteko gabe galdetuko ziola; baña uste izan zuen Juan Apostolu maitea zala, Jaunari alako galde bat egiteko egokiena, eta oni galderazo zion. Juan Jesusen saietsean zetzan, eta era oberik artarako ezin zitekean. Juanek galdetu zion, bada, eta Jesusek erantzun zuen: Nik ogi-puska bat bustita ematen diodan hura da: eta ogi-zerra bustita, Judas Iskarioteri eman zion.

## 6. Aldareko Sakramentu guziz santuaren ipiñera

Afari jakiña eginda gero, Apostoluak begira zeuden Jesus noiz jaiki-ko zan, noranai jarraitzeko; baña Jesusek egin asmo zuen sekula guzian gogoan izango dan lan andi hura, Aldareko Sakramentu guziz santuaren ipintzea. Legami gabeko ogia bere eskuetan artu zuen; Aita Eternoari eskerrak eman ziozkan; bedeinkatu zuen, eta ebakita, bere Apostolui eman zien, esanaz: Artu, eta jan ezazute: AU DA NERE GORPUTZA, ZUEKGATIK EMANGO DANA. Au nere oroipenean egizute. Gero edanontzia ardoarekin artu zuen; Aita Eternoari eskerrak berebat eman ziozkan; bedeinkatu zuen, eta Apostolui eman zien, esanaz: Emendik guziok edan ezazute; AU DA, BADA, TESTAMENTU BERRIKO NERE ODOLA, ZUEKGATIK, ETA ASKOGATIK BEKATUEN BARKAZIORAKO ISURIKO DANA. Au egiten dezuten guzian, nere oroipenean egingo dezute.

Itz oiekin, bada, Jesusek ipiñi zuen Sakramentu adoragarri au, zeñetan utzi zizkigun bere Gorputza gure janaritzat, eta bere Odola gure edaritzat. Apostolui eman zien au bera egiteko eskubidea; baita beren ondorengo edo ordekoak uztekoa ere: eta eskubide onen bitartez Elizak beti izan ditu, dauzka eta izango ere ditu apaiz, ogia Jesusen gorputz, eta ardoa Jesusen odol izatera aldatu dezaketanak.

## 7. Jesus Jerusalemik Getsemanirako bidean

Jesusek, afari gogoangarri au eginda, bere Apostoluakin batean esker-rrak eman zituen, israeldarrak oitura zuten era eta itzak. Judas Iskariotek isillik aldegin zuen, bere saldukeriari buru ematera. Eta Jesus beste amaika Apostoluakin afaltegitik eta Jerusalemik irtenda, Olibeteko mendirantz abiatu zuen. Mendi au Jerusalemik gitxi-gorabera milla pausora zegoan, bitartean Josafateko zelaia zuela. Bere albo batean zegoan Getsemaniko alderria, eta Aita Eternoarekin bere itzaldia egiteko Jesusek autu zuen baratz. Apostoluak Jesusekin bazijoazen, baratza artan ain argaltasun andia agertuko zuten uste gabe, gai au bidean bein eta birretan Jesusek jo bazien ere. Zuek guziok, esan zien, gaur arratsean okerrerrako bidea nigandik artuko dezute; bada esana da: Artzaia joko det, eta ardiak sakanbanatuko dira. Berri mingarri au gozotzeko, bereala esan zien: Ni biztuta gero, Galileara zuek baño lenago joango natzazute. Itz oiek aditutakoan, Pedro, bere bizitasunez, nonbait aurreratu zuen zerbait erantzutera; beintzat, Jesusek berari itza emanda, esan zion: Simon, Simon; ara non Satanasek artzatu nai zaituzten, garia artzatzen dan bezala; baña Nik zugatik erregutuko det, zure sinismen edo fedeak utsegin ez dezan, eta zuk, zure anaiaetara itzulita, fedean sendotuko dituzu. Pedrok erantzun zion: Jauna, beste guziak zugandik gaitzerako bidea artuko balute ere, nik benik bein etzaitut utziko. Egiaz esaten dizut, Jesusek esan zion, egiaz esaten dizut arrats onetan berean ollarrak bi aldiz jo baño lenago, iru aldiz ukatuko nazu. Apostoluak etzion Jesusen esanari bildurrik artzen, eta bere irmotasuna iragarri naiez, esan zion: Jauna, ni prest nago presondegira zurekin joateko eta iltzeko; eta ala bear bada, zurekin batean ilko naiz, eta ez nik zu sekulan ere ukatu. Beste Apostoluak ere berebat esan zuten.

Getsemaniko baratzarantz bazijoazen, eta Jesusek Zedrongo ibai bizia igaro zuenean, baratzan sartu baño lenago, Apostolui begira jarrita, esan zion: Zizku, zaku eta oñetako gabe predikatzer aialdu zinduztedanean, ezere ez-izanik edo utsaldirik izan zenduten? Ez Jauna, erantzun zioten. Bada orain zizkua eta zakua dituenak, saldu bitza, eta ez dituenak, bere soñekoa saldu eta ezpata erosi beza: konbeni da, alabañan, nerekin bete ditezen aspaldian esandako itz oiek: Gaiztoakin bat egin zuten.



Jauna, Apostoluak esan zioten, ara bi ezpata emen. Asko da, Jesusek erantzun zien; eta bideari jarraitu zitzaiozkan.

Baratzan sartu zanean esan zien: Emen zaudete, eta erregutu ezazute, tentazioan erori etzaitzeten, Nik, aurreraxeago joanda, nere otoitzaldia egin dezadan bitartean. Pedro, Santiago eta Juan Apostoluak berekin artuta, barruragotu zan, eta otoitzari eman zitzaion. Tristuraz bereala bete eta ikaraz jarri zan; eta iru Apostolui esan zien: Nere anima tristuraz iltzeko zorian dago. Emen zaudete, eta kontu egizute. Arrikada bat bidean aldegin zuen, eta auzpez arpegia lurrean zuela, orazioan jarri zan, eta Aita Eternoari onela itzegin zion: Ene Aita, zuretzat eziñik ez da; egizu kaliza au nigandik kendu dedin; baña ez bedi egin nik nai dedana, ezpada zuk gogo dezuna. Eskaera au eginda, bere iru Apostoluetara itzuli zan, eta lo arkitu zituen, eta Pedrori esan zion: Ordu betean ere nerekin esnai ezin egon izan zerate? Kontuan zaudete bada, eta erregutu ezazute, tentazioan erori etzaitzeten. Espiritua prest dago, baña aragia argala. Berriz ere Jesus bakartu zan, eta Aitari erregutzen zion, esanaz: Ene Aita, kaliza au kendu ezin baditeke nik edan gabe, zuk nai dezuna egin bedi. Apostoluetara itzuli zan, eta lo arkitu zituen; baña oraingoan etzien ezer esan, eta irugarren aldian bakartu zan, eta Aita Eternoari erregu bera egin zion.

## 8. Judas eta juduak Jesusen billan

Orduan Zeruko Aingerua aurkeztu zitzaion sendotzera; baña Jesus auzpez arpegia lurrean ipiñita zetzan, eta odolezko izerdi otzak eman zion lurra bustitzeraño, eta Aita Jainkoak nai zuena egitera jarri zan. Aingeruak aldegin zuen; Jesus bere otoitzalditik jaiki, eta Apostoluetara itzuli zan, eta guziak lo arkitu zituen, eta esan zien: Ots, jaiki zaitezte eta erregutu ezazute, tentazioan erori etzaitzeten. Goazen. Badator gizonaren Semea bekatarien eskuetan ipiñia izango dan ordua. Badator ipiñiko nauena. Itz-keta onetan ziarduela, Judas agertu zan. Saltzalle gaizto onek baziekien Jesus eta bere Apostoluak askotan egoten ziran lekua, eta ara joan zan gizon armadun askorekin, zuzi-argiak eskuetan zeramazkitela. Beste lagun geiagoren artean bosteun soldadutik seienera berekin bazituen. Jende au guzia erriko agintari edo kargudunak Judasi eman zioten, Jesus errazago eta seguruago atzitu zezaten. Judasek jakin bear zuen onelako

prestamen bearrik etzala, iges egin nai etzuen bat eskuratzeko, eta iges egin nai izan ezkerro, oiek eta gizonak artu zitzaiekan beste guziak alper-alperrik zirala. Bein baño geiagotan ikusi izan zuen, galdu nai zuten bere etsai txarren aldetik, berak zekustela ere, iges egiten; aditu izan ere bazion, ordua bete artean, arekin etsaiak etzutela zer-egitiñik izango: baña anziñatik esana zan: gaiztoakin bat egin zuten; eta esan au bete bearra zan.

Jesus Judasi bidera irten zitzaion. Judas ere bazijoan, bere gizonak ondoren zerrazkiola. Oiek esanak zeuzkan, laztanduko zuen hura Jesus Nazaretekoa zala, eta bereala eskuak ezarrita kontuz eramateko. Judas, jendeari aurreratuta Jesusi alderatu zitzaion, eta musu eman zion, esanaz: Agur Maisua. Adiskidea, Jesusek esan zion, zertara zatoz? Gizonaren Semea laztan batekin etsaien eskuetaraten dezu? Itz oiek, Judas ez beste edozeñen biotza bigunduko zuten; baña apostolu billau hura gogortua zegoan amorezko esanak aditzeko, eta damutasunaren arrasto txiekien ere etzuen eman.

Jesus amaika Apostoluakin bere etsaietara urreratu zan, eta galdetu zion: Nor billatzen dezute? Jesus Nazaretekoa, erantzun zioten. Ni naiz, Jesusek esan zien; eta *Ni naiz* au esan orduko, nagusi-morroiak, agintari eta soldaduak, eta Judas berak elkarren gañean atzez lurra jo zuten. Jaiki ziran, eta asiera gaiztoa ezagutu bearrean, beren asmo galdua aurrera zeramaten; eta Jesusek berriz ere galdetu zion: Nor billatzen dezute? Jesus Nazaretekoa, lenago bezala erantzun zuten. Esan dizutet Ni naizala, Jesusek esan zien; eta nere billan zatozten ezkerro, nerekin datozen oiei utzi zaiezute joaten.

Apostoluak ikusirik Jesusi eskuak ezartzera zijoazkiola, galdetu zioten: Zer egiten degu? Ezpataz joko ditugu? Eta Jesusen erantzueraren begira egon gabe, Pedrok berekin zeramana zorrotik aterata, apaiz nagusiaren morroi Malko zeritzanari belarria kendu zion. Jesusek Malko beregana eramanez zuen, eta belarria bere lekuan ipiñita, sendatu zion. Malko eta besteak mirari onetatik ezagutu zezaketen nor zan galdu nai zutena; baña alperrik izan zan, aiek beren asmo txarrai uzteko. Pedrori gero esan zion: Ezpata ori zorrotu ezazu; bada, ezpataz besterik iltzen duena, ezpataz ilko da. Uste dezu Nik nere Aitari eskatu ezin dizaiokedala, eta bialduko dizkidala aingeruzko amabi lejio edo samalda ere baño geiago, gorde nazaten? (Lejio bakoitzak sei milla ditu). Baña nik au egitera, nola beteko litzake Eskrituraren esana, dionean, Ni iltzea konbeni dala? Zer! Nere aitak prestatutako kaliza edango ez det? Jende orri utzi



zaiozute etorri dakidan. Itz oiek esaterako, soldadu-agintaria bere soldaduakin eta gañerako guziak alderatu zitzaiozkan, eta Jesusek esan zien: Ezpata eta makillakin zatozte ni arrapatzera, lapur bat banintz bezala! eta Elizan egunoro zuekin egon izan banaiz ere, etziñidaten eskurik ezarri! Egunoro zuei erakusten niarduen, eta ez ninduzuten artu; baña orain da zuen ordua, eta illunaren eskualdia.

Apostoluak itz oietatik igerrri zioten, atzitzen uztera zijoala, eta guziak iges egin zuten. Orduan soldaduak eta besteak Jesusi eldu zioten, eta bereala lotu-lotu egin zuten. Baña, zer balioko zuten etsai txar oien lotura guziak, Sansonek beste denbora batean filistindarrenak baño aisa-go, nai izan ezkeru, eten eta urratu zitzaizkan Jesusentzat? Lotutzen utzi zien, gizonaren onerako konbeni zalako.

## 9. Jesusen Getsemanitik Jerusalemara eramana

Getsemaniko baratzatik irtenda Jerusalemaren Jesus lotuarekin zijozela, ikusi zuten mutil gazte bat, bere soñekoaren gañetik maindire bat zuela, eta oni ere eldu zioten, Jesusen ikasleren bat izango zala pensatuta, baña maindirea eskuetan utzita iges egin zien, eta Jesus bakar-bakarrik, bereetakorik inor ere gabe, etsaien artean gelditu zan.

Jesus galtzeko lanbidean zebilzan guziak Jerusalemen zai zeuden, Jesus noiz eramango zuten, oi zan auzi-legea edo prozesoa jaso eta iltzeko epaia edo sententzia emateko. Urte artako apaiz nagusi Kaifas zan; eta aginduta zeukan, Jesus atzitzen zuten bezain laster, Kaifas beraren aita-giarraba Anas lenago apaiz nagusi izandakoari eramateko. Anasek Jesus bere aurrean ikusi zuenean, galde batzuek eginda, bereala Kaifasi bialdu zion, apaiz nagusi zan aldetik zeritzana egin zezan. Onak ordurako batzarrera bilduta zeukan, eramaten ziotenean bereala zer egin bear zitzaion erabakitzeko.

## 10. Jesus Kaifasen etxean

Pedro eta Juan, beste Apostoluakin batean bildurrez iges eginda, berera ziranean, Jesusi bazerraizkion; baña urrutitik, soldaduak ezagutu eta arrapatu etzitzaten. Ikusi zutenean Jesus Kaifasen etxean sartu zutela, Juanek etzuen bildurrik izan atea jo eta otsegiteko, zeren Kaifas eta onen etxekoen ezaguna zan, eta morroiak ere atea bereala idiki zioten. Pedro, etxean ezaguerarik etzuelako, atarian egon zan, Juanen bitartekotzaz eskarazean sartzen utzi zioten arteraño. Bi Apostoluak elkarrekin barrura pozik joango ziran, Jesusi zer egiten zioten ikustera; baña Juanek iritsi etzuen, berekin batean laguna sartu zedin; eta Pedro eskarazean soldadu eta apaiz nagusiaren morroiakin gelditu zan. Udaberria zan, eta oraindik otz egiten zuen, batez ere gauetan, eta eskarazaren erdian sua zeukaten, berotzeko. Pedro ere, bere zorrigaitzean, su-ondoratu zan, zer erabakitzen ote zuten ikusi artean.

Kaifas bera lenen-lenengo Jesusi asi zitzaion galdezka bere ikasle, eta erakusten zituen lege eta gauzaen gañean. Nik, Jesusek erantzun zion, munduari agiri-agirian itzegin diot. Nik Elizan eta sinagogaetan, non juduak biltzen diran, erakutsi izan det, ezer ere isillik esan gabe. Zertako niri galdetzen didazu? Niri aditu didatenai galdetu zaiezu, ea zer esan die-dan. Berak dakite zer esan dedan. Erantzueria au txit bidezkoa eta egia garbi-garbia bazan ere, apaiz nagusiak bekosko beltza ipiñi zion. Orduan onen morroi batek Jesusi masalleko bat eman zion, esanaz: Apaiz nagusiari orrela erantzuten diok? Morroi zital txar oni Jesusek bere ontasun guziarekin esan zion: Gaizki itzegin badet, esan zadazu zertan; eta ondo itzegin badet, zergatik jotzen nazu? Zer negargarria Jesusen arpegi ederrean eskutzar zikin ats hura ikustea! Ai nola Aingeruak begiak estaliko zituzten ez ikusteagatik! Apaiz nagusiak berak ere etzuen onean eramana bear, morroi txar bat batzarre-lekuan eta ainbesteren aurrean ala ausardiatzea; baña Jesusi edozeñek nai guzia egitea zan aren eta bere laguneren pozik andiena.

Jesusen galtzalle oiek lekuko edo testiguak billatu zituzten, Jesusatik etzan gauza andiren bat esan zezaten, baña ezer ere atera ezin izan zuten beren asmo galduak edertzeko; bada lekukoak bat etzetozen. Geroenean lenago beste asko alperrik artuta, eramana zituzten bi gezurti, esan zutenak: Guk gerok aditu diogu esaten: Jainkoaren Eliza ondatu dezaket,



eta iru egunean berriztu ere bai. Aditu ere badiogu: Nik ondatuko det eskuz egindako Eliza au, eta iru egunean altxatuko det beste bat eskuz egin gabea. Lenengoak bezala, oiek egia esaten etzuten. Eliza au ondatu ezazute eta iru egunean berriztuko det, Jesusek esan izan zuen, bai; baña bere gorputzagatik, zeñari Elizaren izena askotan ematen zion. Itz oiekin, bada, esan nai zuen il zezatela; baña irugarren egunean biztuko zala, gero ikusi zan bezala.

Kaifas apaiz nagusiak ezagutzen zuen lekukoak esandako guzia ezer etzala egin nai zutena edertzeko; eta ikusirik, berriak artzera, bere alde zerbait esan bearrean, bearbada izan zitezkeala egia garbiro agertu, eta lotsatuta utziko zutenak, lan oni laga zion. Ala ere, gauza andiren batzuek Jesusen kontra esan zituztelako antzean juez-aulkitik jaikita, Jesusi esan zion: Ez diezu ezer erantzuten zugatik esan dituzten gauza oiei? Jesus isillik zegoan. Orduan Kaifasek esan zion: Jainko biziaren izenean agintzen dizut esan zaguzula, Kristo Jainkoaren Semea Zu zeran. Jesusek igerritzen zion, galdera oni zegokion erantzura ematea bizia kostako zitzaiola; baña zana zan bezala esan bear zuen, eta erantzun zion: Ni nai, zuk zerorrek diozu. Eta egi-egiaz esaten dizutet, emendik gitxi batera ikusiko dezute gizonaren Semea Jainkoaren eskuian esertzen, eta zeruko odeietan etortzen. Kaifasek itz oiek aditutakoan, soñekoak urratu zituen eta deadar egin zuen: Blasfematu du; añenekoa bota du. Zertako degu iñork esan bearra? Añenekoa aditu dezute: Zer deritzazute? Batzarrekoak ito-itoka erantzun zioten: Iltzea merezi du.

Kaifasek epai au poz guziarekin aditu zuen, eta Jesusek ere bai pazienziarik andienarekin. Au erabaki ezkeru, beren gogoz berealaxe ilko zuten; baña Jainkoak aututa zeukan ordua, batetik, bete etzan; eta bestetik, batzarreak erabakia erromarren izenean agintzen zuenak ontzat eman bearra zan; eta au biaramonerako utzita, nor bere etxera atsedetera joan ziran, goizean goiz elkarganatzeko itzean.

Kaifasen etxeari kontu-artzen zeuden Soldaduak Jesus eman zieten, goiz artean gordetzeko, eta eskarazera jatsi zuten, gau mingarrien hura bereakin igarotzeko. Pedro Apostolua an arkitzen zan, arestian esan dan bezala, arañoiko baimena Juanek iritsi ziolako. Bere Maisua soldadutzarrak erdian zekartela ikusi zuen; baña ez-ezagutu egin zan, ari ere zerbait egin edo preso artuko zuten bildurrez.

## 11. Pedroren ukamena

Soldaduak eta morroiak su ondoan zeuden, eta Pedro ere bai aiekin batean berotzen. Neskame atezai an sortu zan eta Pedrori galdetu zion: Zu ere preso onen ikaslea etzera? Ez nai, Pedrok erantzun zion; eta Pedrok itz oiek esan orduko, ollarrak jo zuen. Andik gitxi batera apaiz nagusiaren neskame bat agertu zan; eta Pedrori begira-begira jarrita, esan zion: Zu Jesus Nazaretekoarekin ziñan. Pedrok ukatu zion, esanaz: Ezagutzen ez det, eta zer diozun ere ez dakit. Ordu beteren buruan, Pedrok belarria kendutako Malkoren aide zan apaiz nagusiaren morroi batek esan zion: Zu baratzan arekin batean ikusi etzindudan? Dudarik gabe aietakoa zera; bada galilearra zera, eta zure itzkuntzak berak agertzen zaitu. Orduan Pedro asi zan juramentuaren azpian ezetz, ezetz esaten, eta ezagutzen zuela ere ukatzen. Onetan ziardutela, ollarrak bigarren aldan jo zuen; eta Pedro oroitu zan, ollarrak bi aldiz jo baño lenago, Jesus iru aldiz ukatuko zuela Jesusek esana. Ollar-soñu au bakarrik asko zan Pedrok ezagutzeko, zein gaizki egin zuen, gizon zirzill aien bildurrez Jesus ukatzen. Bai, baña are geiago argitu zuen, Jesus onak denbora onetan egin zion begiratuak. Ollar-otsa belarrian sartu zitzaion; baña Jesusen begiratuak biotzean ukitu zion: eta bere gaizki-egiñaz damututa, apaiz nagusiaren etxetik bereala irten zan; negarrari eman zitzaion, eta Jainkoagandik bere bekatuaren barkazioa iritsi zuen.

## 12. Jesusen gaueko neke portitzak

Pedrok bere ukamena negar-malkorik samiñenakin garbitzen zuen bitartean, soldaduak, morroiak eta beste serbitzariak, Jesus beren konturara artuta, gau negargarri artan guzian zer burla eta farrak egin, eta zer penak eman ziozkaten, eta zenbat erakutsi zioten ezin diteke esan. Batzuek istu eta karkaxaka, besteak ukabilka zerabilten, eta askok begiak estali eta eskutzarrak masallaetan ezartzen ziozkaten, esanaz: Asma zaguk, Kristo, nork jo aukar. Jesusek itzik ateratzen etzuen; eta isillik uzte



onek berak su geiago ematen zien biotz gabeko gizon gaizki-azi aiei. Nagusien gogoko berri morroiak bazuten; baziekiten aien atsegiñik andiena egin-al guzian Jesus penatzea zala, eta gau guzia onetan igaro zuten.

## BEDERATZIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Ostiral goizeko Batzarrea

Biaramon goizean apaiz-buru edo sazerdoteen prinzipiak, erriko kargudunak, eskribak eta gañerakoak batzarrera bildu ziran. Jesus eskarazetik bereala igoerazo zuten. Egitera zijoazenari edergarri bat emateko, lenagoko arratsean itzegindako guzia berriztu zan; eta nola Jesus iltzeko, ezin asmatu zuten bere burua Jainkoaren Seme egiten zuela beste aitzakiarik, galdetu zioten: Kristo bazera, argiro esaguzu. Esango banizute, Jesusek erantzun zien, sinistuko ez didazute, eta galdetuko banizute, erantzungo ez didazute, eta askatu ere ez. Baña gizonaren Semea Jainkoaren poderearen eskuian laster eseriko da. Beraz zu Jainkoaren Semea zera? esan zioten. Bai, ondo diozute, Jesusek erantzun zien, ondo diozute, Jainkoaren Semea Ni naizela. Zer geiago bear degu? juezak deadar egin zuten. Guk gerok bere aotik esaten aditu diogu. Orduan soldaduak Jesus artuta, batzarre-gelatik Judeako buru egiten zuen Ponzio Pilatoren etxera eramán zuten.

### 2. Judasen urkamena

Judas Apostolu gaiztoak, ikusirik Jesus iltzera zijoazela, bere saldukeria ezagutu zuen, eta apaiz-buru eta kargudunai salmentako ogeita amar diruakin Elizara joan zitzaien, esanaz: Gaizki egin det oben-kulpa gabeko on baten odola salduarekin. Apaiz eta kargudunak erantzun zioten: Guri zer zagu, zuk ondo edo gaizki egin badezu? Zuk zerorrek ikusiko dezu; eta diruak artu etziozkaten.

Judasek, bere okerra iragarri zion argiari zerraikiola, Pedrok bezala Jaunari barkazio eskatu bazion, zorionekoa izan zitekean; baña lenago



Jainkoaren zuzentasunari egindako bidegabekeria, orain bere errukimendu baztergabeari berriztuta, etsi zuen arentzat barkaziorik etzala; ernegatu zitzaion. Elizan diruak bota ziezten; eta soka batetik zinzilika jarrita, bere burua urkatu zuen, errai guziak lurrera zeriozkala. Eriotza ikaragarria, eta parerik ez duena!

Apaiz-buruak Judasek Elizan botatako diruak jaso zituzten, eta esan zuten diru hura etzala Korbonan (au da, Elizako dirutegian) gorde bear, odol-trukekoa zalako. Gauza onen gañean gero batzarrea egin zuten, eta erabaki zan eltzegille baten soroa erosteko, erromes edo peregrinoen gorputz-illak lurpetzeko izan zedin, zeñari deitu zitzaion Hazeldama, au da, odolaren soroa.

### 3. Jesus Pilatoren etxean

Jesusen etsaiak iltzeko sententzia emanda gero, nai zuten Pilato Judeako gobernadore len aitatu danak ere ontzat eman zezan. Pilato onek bere erabaki-lekua edo tribunala Jerusalemene zeukan, eta onengana Jesusekin joan ziran. Pilato berez artara jarriko ez bazan ere, txit bildurtia zan. Baziekien eskriba, fariseo eta besteak Jesusekin nola zebilzan; baña pensatzen zuen ezin-ikusiak zerabilzala, eta argana joan zai zegoan, arrazoi-bidera ekartzen nekatzeko.

Jesus goiz-goizean eraman zioten, eta soldaduak auzi-gelan edo audienziako salan Jesus sartuta, judu etsai salatzaileak etxe-atarian gelditu ziran, jentil baten etxean sartuta, beren eliz-lanetarako kutsutu zitezen bildurrez. Etxeak atari aldera baranda bat zuen; eta Jesusi barrunen galde andirik egin gabe, barandara irtenda, Pilatok salatzailei itzegin zien, esanaz: Gizon onen kontra zer esankizun dezute? Gaitzgille biurria ezpalitz, ez giñizun ekarriko, erantzun zioten. Orain bada, Pilatok esan zien, baldin gaitzgillea dala badakizute, artu eta zuek zerok juzgatu ezazute, zeron legeak dion gisan. Ez, erantzun zioten, guri ez dagokigu iñor iltzea. Jesus askotan esan izan zuen, gurutzean ilko zala; baña eriotzaera au israeldarretan iñori ematen etzitzaion; beragatik Jesusen esaten zuen jentillen eskuetan ipiñiko zutela, gurutziltzatu zezaten. Aurrez-esan au Pilatoren etxean asi zan betetzen. Juduak nai zuten Jesus gurutzean il zedin, baña

Pilato jentillak aginduta; eta igerririk onek alako gauzaren asmorik etzera-billela, judu salatzaileak iskanbilla andi bat jaso zuten. Jesusi gauza asko egozten ziozkaten; baña guzietan andienak bi. Guk gerok, zerasaten, guk gerok gizon au arkitu degu jende guzia nasten, eragotziaz petxa edo tributoa Zesar-i pagatzea, eta erakutsiaz bera Kristo Erregea dala. Salatzaile aien esanak Pilato etzuten itsutu edo engañatu: ala ere, egozten ziozkaten gauzak ain pisuak izanik, aintzat artu bearrean ikusi zan.

Atarian zeudenai utzita, gelara itzuli zan, eta Jesusi isillik galdetu zion: Juduen Erregea zu zera? Zuk diozu, Jesusen erantzun zion: baña, zuk zerez galdetzen dezu, edo bestek nigatik ori esan dizu? Zer bada! Pilatok esan zion, ni judua al naiz? Zure jendeak eta apaizak nere eskuan ipiñi zaituzte. Zer egin dezu? Esan det Errege naizela, Jesusen erantzun zion; baña nere Erreinua mundu onetakoa ez da: mundu onetakoa balitz, nere serbitzariak gerra egingo lukete, juduai eman ez nazaten; baña nere Erreinua emengoa ez da. Beraz Zu errege zera? Pilatok esan zion. Zuk diozu, Jesusen erantzun zuen; zuk diozu, Ni Errege naizela. Ni mundura onetarako etorri naiz, egiaren sinismena emateko, zeren egiatik datorren guziak nere otsa aditzen duen.

Egia zer da? Pilatok galdetu zion, eta zer erantzuten zion begira egon gabe apaiz-buru eta jendeari aurkeztu zitzaion, esanaz: Nik gizon onengan okerrik arkitzen ez det. Orduan indar andiagorekin zerasaten: Erria nastua dauka. Pilatok isillera zituena; eta jendea zerbait paketu eta onera zanean, Jesusi esan zion: Ez dezu ikusten, zenbat gauza egozten dizkizuten? Jesus isillik zegoan, eta itzik ere trukutzen etzion, Pilato bera ere arri-tzeraño. Onek Jesus, ezer egin gabe, pozik bialduko zukean, zeren bere uste guzian ikuskizunik etzuen; beragatik oben-kulpa gabeko baten odolarekin kutsutu nai etzuen. Baña juduak Pilatoren uzkurtsunari igerrizioten, eta pensaturik beste iskanbilla berri batekin Pilato ipiñiko zutela, bildurra utzita, aiek naia egitera, berriro zerasaten: Zuk ez dakizu gizon ori nor dan. Ori Galilean asi zan lege berri nasleak erakusten; gero Judeara etorri zan zabaltzen, eta atzenik Jerusalemene bertan ere lan berean jardundu.

### 4. Pilatok Herodesi Jesus bialtzen dio

Pilatok Galilearen izena aditu zuenean, uste izan zuen lanbide gogai-karri artatik bere burua gordetzeko erarik onena agertzen zitzaioa; eta



galdetu zuen ea Jesus Galileakoa zan. Erantzun zioten Galileako uri Nazaret zeritzanean jaioa zala. Uri onetan Jesusek bizitarik geiena egin zuen, eta bere Ama Maria guziz santa eta bere aita-ordeko San Jose ere jatorriz, Isai anziñako asabaren odolekoak bezala, eta askoren iritzian jaiotzaz ere, emengoak ziran: beragatik juduak Jesus Nazaretekoztat zeukaten, Belenen jaioa bazan ere. Pilatok bada, ikusirik Galileako agintari edo gobernadore Herodesen mendekoa zala, eta jakiñik Herodes, ala bearrez, egun aietan Jerusalem arkitzen zala, Jesus ondo lotuta kontu-artzalleakin etxera bialdu zion, eta salatzaileak ere ondoren jarraitu zitzaizkan.

Herodes, izen-goitiz Antipas zeritzan au zan, Jesus jaioberrian ainbeste aurtxo ilerazo zituen Herodes zarraren eta Kleopatra jerusalendarraren semea. Antipas onek, bere anaia Filiporen emazte Herodias emazte-ordetzat artuta, itzketako-bide andiak ematen zituen, eta zeraman bizitza lotsagarri onegatik San Juan Baupistik esaten ziozkanak ezin eraman zituelako, Jesusen berri-emalle andi hura ilerazo zuen, lenago esan dan bezala.

Herodes ain oitura galduetako gizon lotsagarri oni, bada, eraman zioten Jesus ona, zeñaren ikusteak Herodesi txit poz andia eman zion. Aspaldian eresi onekin bizi zan, zeren aditu izan zuen gauza arrigarriak egiten zituela, eta uste zuen berak zekusala ere zerbait egitea. Jesusi zerrai-kion jendea, batez ere apaiz-buru eta eskribak, etziran aspertzen Herodesen aurrean berriz eta berriz salatzen; baña oien ots-iskanbillak alde batera utzita, Jesusi asi zitzaion galdeak egiten. Herodes, ikusirik bere aurrean miraririk egin ez ezen, erantzun ere nai etziola, su biziak artu zuen, aintzat ez artzeagatik erantzuten etziolakoa, eta bere soldaduakin batean iseka eta burlaka eraso zion, eta eroa bazan bezala soñeko zuri bat janzi-ta, Pilatogana itzuli zuen.

Herodes eta Pilato arteraño aserre izaten ziran, eta Pilatok Herodesi Jesus bialdu ziolako, lengo elkar ezin-ikusi guziak utzita, biak adiskidetu ziran: baña Pilato gelditu zan Herodesi ezarri nai zion Jesusekikoa bere gañ zuela. Pilatoren etxera Jesus itzuli zuten, bada, Herodesenera eramandako iskanbilla eta triska berakin. Soldaduak sartu zuten len idukitako auzi-gela edo pretorioan, eta salatzaileak atarian gelditu ziran. Pilatok gero apaiz-buru, kargudun eta gañerakoai itzegin zien, esanaz: Zuek gizon au ekarri ziñidaten erriaren galtzalletzat, eta dakusute nola zuen aurrean galdeak eginda, zuek egozten diozuten utsegiterik arkitzen ez diodala; eta are geiago dana, Herodesek ere, berez judua eta zuen legean

ondo ikasia izanik, il-gai egiten duen gauzarik topatu ez dio. Ez esan oiekin, ez lengo egin alakin iritsi zuen Jesusi pakean uztea, eta beste bide bat gogoratu zitzaion, alperrik bedere.

## 5. Jesus utzita Barrabasen aukera

Juduak erromarren mendean jarri ziran lenbiziko urteetatik eskatu zuten, eta iritsi ere bai, Erromako enperadoreak bere izenean agintzera Judeara bialtzen zuen eraentzalle edo gobernadoreak, beren gaiztakeriakatik iltzeko itxian zeudenetatik juduak berak aututzen zuten bat, Pazkoaz libratu zezala, israeldarrak Moisesek Egitotik atera zituelako oroipe-nean. Pilatok baziakien erriko andizkiak ezin-ikusiak zeramazkiela Jesus galtzera, eta etsirik zegoan oietatik barkaziorik iritsiko etzuela; eta oiei utzita, erriko jende beeari itzegin zion, ezaguerara errazago ekarriko zituelakoan; baña ustea uts irten zitzaion. Oiturari zerraizkiola, etxe ataritik Pilatori oska jarri zitzaiozkan, iltzeko zegoan bat askatzeko. Beste askoren artean itxian arkitzen zan Barrabas zeritzan gizon gaizto, iskanbilla-naste batean gizon bat il zuena. Pilatok Jesus eta Barrabas aukeran ipiñi ziezten, Barrabas utzita Jesus libratzeko eskatuko ziotelakoan: baña ordurako andizkiak jendea irabazita zeukaten.

Pilato, gauza au erabakitzeko, juez eser-aulkian zegoala, emazteak bialdu zion mandatarari batekin itzegitera aldegin bearrean arkitu zan. Emazteak mandatarari onen bidez esaten zion: Ez gero justu orrekin ikuskizunik artu; bada, gaur ametsetan gauza asko burura orregatik etorri zaizkit. Gaztigu onek zer pensatu andirik Pilatori eman etzion, zeren bera ere aitzaki billan zebillen justu hura libratzeko. Mandatariarekikoa eginda, juez-aulkira itzuli zan, eta Jesus bere ondoan artuta, iskanbillan ziardun jendeari galdetu zion: Zein nai dezute eman dizazutedan? Barrabas edo Jesus, Kristo deritzana? Pilato emaztearen gaztigua artzen zan bitartean, apaiz-buru eta kargudunak jendearen erdian sartuta, ibilli ziran esaten ez iñola ere eskatzeko Jesus libratu zedilla, zana zala Jesusekin aukeran ipintzen ziena. Pilatok aotik itza atera bezain laster, indarka zerasaten: Barrabas askatu ezazu; Barrabas iguzu. Zer pena Jesusentzat, Barrabas bezain gizon biurri bati naiago izatea! Eta zer egingo diot Jesus, Kristo deritzana? Pilatok galdetu zien. Gurutziltzatu bedi, guziak erantzun zuten.





Baña zer gaitz egin du? Pilatok esan zien. Deadar biziagoakin esaten zuten: Gurutziltzatu bedi. Pilato berriz ere leiatzen zitzairen, Jesus libratu naiez; baña geroago eta miñago zerasaten: Gurutziltzatu ezazu, gurutziltzatu ezazu. *Crucifige, Crucifige*. Irugarren aldian Pilatok esan zien: Zer gaitz, orde, onek egin du? Nik ilerazotzeko biderik ez diot arkitzen. Kas-tigatuko det, bada, eta utziko diot joaten. Baña berean ziarduten, gurutzean il zedilla oska.

Pilatok ikusirik iskanbilla geiago jasotzea baizik ateratzen etzuela, ura artu eta eskuak garbitzeari eman zitzaion, esanaz: Justu onen odolean, ni beintzat, ez naiz kutsutzen: or konpon. Erri guziak erantzun zion: Orren odola gure eta gure humeen gañ izan bedi. Orduan Pilatok agindu zuten Barrabas itxitik ateratzeko, eta eman zien. Jesus, berriz, itxian sartu zuten gurutziltzatu zedin, oraindik ere libratu ezin bazezakean.

## 6. Jesus azotatua

Erromako legeak agintzen zuten, gurutzean il bear ziranak lenago azotatuak izan zitezela. Pilatok pensatu zuten kastigu-modu au Jesusi ematea, onela ikusita, iltzeko zerabilten asmoari utziko ziotelakoan. Baña erruki-ustean egindako lanarekin, aien biotzak samurtu ez, eta Jesusi penarik izugarrienak eman ziozkan. Bere soldaduak agindu zien atarira eraman eta azotez zeatzeko, il ez beste guzia egin arteraño, eta gero beregana itzultzeko. Soldaduak etzuten nagusiaren agindua aditu besterik nai, bereala ekiteko. Atarira jatsi zuten: soldadu guziak erdian artuta, soñekokak kendu ziozkaten, jende lotsagabe-tzar aren aurrean larru gorri-gorrian ipintzen zutela. Pillare bati lotuta, azotez zeatu zuten, ezur guziak agertu eta gorputz guzia aragi bizi-bizi egiteraño, odola alde guzietatik txirrian zeriola. Ain andiak eta latzak izan ziran Jesusenaldi onetako oñazemiñak, non ez lumaz ezarri ditezkean, ez irakurri, bazter guziak negarmalkoz busti gabe. Ala ere, Jesusek ez itzik atera zuten, ez zipuru bat aditu zitzaion.

Soldadutzarrak baziekiten Jesusi Juduen Erregea esaten ziotela, eta farragarri andiagorako gorputz odoldua oial gorritzko mantu zar batekin estali zioten; arantza zorrotzeko koroa buruan janzita, zapaldu zioten,

arantzak ondo-ondora sartzeraño. Eskuiko eskuan errege-zigortzat kañabera bat ipiñi zioten, eta burla egiteagatik, belaukatuta, esaten zuten: Agur Juduen Erregea. Istuz eta karkaxa nazkagarriz arpegia betetzen zioten; beren eskutzarrakin masallan, eta eskutik kañabera kenduta, beronekin buruan jotzen zuten.

Burlaz ondo beteta, burutik oñetaraño odolezko itsaso bat eginda, pretoriora itzuli zuten, eta Pilato berriz ere barandara irten zitzairen, eta esan zien: Kanpora atera eta erakustera noakizute, ezagutu dezazuten nik onengan arkitzen ez dedala zergatik il. Bereala agertu zuten Jesus, arantzazko koroa buruan, kañabera eskuan eta eskutzar zikin aiekin egindako ubeldu andiak arpegian zituela, eta soñeko gorri zar urratuaren zuloetatik zauriz eta odolez betetako aragi bizi-bizia agiri zuela; eta esan zien: Ara emen gizona. *Ecce homo*, esaten bazien bezala: Errege izan nai duela zuek salatzen dezuten gizona, ara emen. Begira ezazute, eta esan, orain dakusuten eran, gizon onek zer bildur eman dizaietkean naiz juduai, naiz erromarrai.

Pilatok etzuen onela ere ezer aurreratu. Apaiz-buru eta besteak Jesus ikusi zutenean, deadar egiten zuten: Gurutziltzatu ezazu, gurutziltzatu ezazu. Baña Pilatok esan zien: Artu, eta zerok il ezazute; bada, nik zergatik iltzekorik topatzen ez diot. Guk legea degu, erantzun zioten, eta onek dionez il bearra da, Jainkoaren Seme egin dalako. Pilatok itz oiek aditu zituenean, ikara geiago artu zuten. Arteraño egotzi izan ziozkatenak aintzakotzat artu etzitzen, baña *Jainkoaren Semearen* aitamena aditu zuenean, nastu zan. Bereala pretoriora itzuli zan, Jesus berekin zeramala, eta isillik galdetu zion: Zu nongoa zera? Jesusek ezer erantzun etzion. Pilatok orduan esan zion: Niri ez didazu itzegiten? ez dakizu Zu gurutziltzatzeko edo askatuta bialtzeko eskualdia badedala? Nigan esku-biderik izango etzenduke, Jesusek erantzun zion, goitik eman ez balitzazu; beragatik zure eskuetan Ni ipiñi nauenak zuk baño bekatu andiagoa du. Esan nai zion: Egia da Ni iltzeko eskualdiarekin zaudela; baña eskualdi au Jainkoagandik datorkizu, eta aren aurrean ikuskizun andia izango dezu, bide gabe ilerazotzen banazu. Juduak zu baño errudunagoak dira, Ni, ezin ikusiz eta didaten gorrotoz zugana ekarri nautelako; baña zuk ere zer-ikusia badezu, aien gaiztakeriari zure baimena eman ezkeru.



## 7. Jesus iltzeko Pilatoren agindua

Pilatok ordutik are eresi geiago artu zuen Jesus libratzeko; baña Juduak otsegiten zioten: Baldin orri orrela uzten badiozu Zesar-en adiskidea etzera; bada, errege egiten dana Zesar-en kontra dijoa. Itz oiek aditutakoan, Jesus gelatik atera zuen, eta Pilato bera, Greziako itzkuntzan *Litostrotos* eta Hebreakoan *Gabata* zeritzan leku goratu batean juez eseraulkia ipiñita, eseri zan, eta juduai esan zien: Ara emen zuen erregea. Juduak deadarka erantzun zioten: Ken, ken ori ortik, eta gurutziltzatu ezazu. Zuen erregea gurutziltzatuko det? Pilatok esan zien; eta apaizburuak erantzun zioten: Guk Zesar beste erregerik ez degu. Esan onekin Pilato osotoro larritu eta ikaratu zan; eta agindu zuen Jesus gurutzean il zedilla, eta bereala etsai amorratuai eman zien.

Pazkoa asitzeko ordua bazetorren, eta zerbait luzatu ezker, etzeukaten Pazkoaren ondorengo zortzi egunetan iltzerik; eta bildur ziran, bitartean atzerapenen bat sortu zedin. Goizeko bederatziak ziran Pilatoren epaia edo sententzia irten zanean, eta Pazkoa asitzen zan eguzkia sartzean edo arratsaldeko seietan. Bitarteko denboran Jesus gurutziltzatu, il, gurutzetik kendu eta lurpetu bear zan.

Pilatok il zedilla agindu bezain laster, etxe-atarian zeuden jendeak, eskriba eta fariseoak buruan zituztela, ateetara joan ziran, ain aier zitzaiozkan Jesus artzera. Jesus eskallera beera burlazko soñeko zar urratuarekin bazetorren, eta iltzera eraman bear zuten soldaduak, beren kontura artu zutenean bereala, gogortasunik ikaragarrienarekin, soñeko zar hura eranzi zioten, jariotu zitzaion odolarekin gorputz larrutuari itsatsita zeukalako, soñekoarekin batean aragi puska andiak kentzen ziozkatela. Zer miña ene Jainkoa! Zer pena! Lengo bere soñekoa jazten diote; bera il bear dan gurutze-tzar, anziñakoak diotenez bost kana luze eta iru kana zabal zana, sorbaldan ezartzen diote; eta zama pisu izugarri onekin abiatzen dira Kalbario edo Golgotako mendira, zeñak esan nai du *buru-ezurra*.

Elizako guraso askoren iritzian, izen au eman zitzaion Adanen buru-*ezurra* an topatu zutelako: bada, bigarren Adan onek autu zuen eriotza menderatzeko eta gizon guziak erosteko il-lekutat, eriotza mundura ekarri eta jende guzia onen mendean ipiñi zuen lenengo Adan zetzan lekua.

## 8. Kalbariorako joanera

Kalbarioko mendira igotzeko Jerusalem guzia ibilli bear zan, eta ibar edo balle txiki bat igarota gero, igo.

Beragatik Jesus oraindik ere jerusalendarren ikuskarriztat agertu bear zan. Ikusi izan zuten gauza onak erakusten, jaiotzatik itsuak argitzen, ogeita emezortzi urtean elbarri bizi ziranak sendatzen, lau egunean ilda zetzatenak biztutzen; ikusi izan zuten Mesiasen izenean Elizan agintzen, Anas, Kaifas, Herodes eta Pilatoren etxera lotuta eramaten. Gurutzea sorbaldan zuela Kalbarioko mendira igotzea beste zer ikusirik ia etzuten; eta au ere etorri zitzaien. Jesus Jerusalemgo karrika guzietatik barrera bazijoan; baña atzeneko arratsean soldadu giza-txarrak erakutsi ziotenarekin, eta goizean emandako azoteakin odol-ustu zutelako, pauso asko eman baño lenago aiekatuta, gurutzearen pisuak lurrera ezarri zuen.

Lenengo eroriko onetatik nolabait, nekez bedere, jaikita laster, bere Ama guziz santa, Apostolu San Juan eta emakume on batzuekin, bidera irten zitzaion. Zer pena ikusi onetan Amak eta Semeak izango zuten, ezin esan diteke. Nork adierazo bi biotz maitagarri aiek elkarri esango ziozkatzen amodiozko itzak!

Pauso negargarri onetatik bereala, Beronika zeritzan emakume on bat Jesusi alderatu zitzaion, eta arpegiko izerdi-odolak zapi batekin garbitu ziozkan, eta Jesusek lanbide on onen saritzat bere arpegi ederraren antza zapien utzi zion. Jakintsuak diote Beronika au zala Jairoren alaba biztutzera Jesus zijoala, mantuaren ertzari ukitu utsarekin aspaldian nozitzen zuen odol-miña sendatu zitzaion emakumea.

Jesus, bere gurutze-tzarra sorbaldan zuela bazijoan, eta uritik irteeran bigarren aldi lurrera erori zan. Aren etsaiak ikusirik lurrean zetzala, Kalbarioko mendira baño lenago ilko zitzaien eta gurutzean josita ikusiko etzuten bildurrak artu zituen. Orduan Alejandro eta Ruforen aita, Simon zeritzan Zireneko seme edo jatorri bat bere bas-etxetik zetorren, eta uriko atean sartzean, artu zuten gurutzea eramaten Jesusi laguntzeko. Zein zorionekoa Simon zirinear Jainkoak bere Semeari gurutzea eramaten laguntzeko autu zuena! Zein kristau ditxa artan arkitu naiko ez litzake! San Markos Ebanjelariak ain anditzat artu zuen, non ez bakarrik



Simonen izena eta erria dakarzki, baita semeena ere, mundua mundu dan artean Simon Zirinekoaren izenak iraun dezan.

Simon onek ematen zion laguntzarekin Jesus zerbait bizkortu zan bideari jarraitzeko, eta bazijoan eskriba, fariseo, kargudun eta apaiz-buruak jendetza ezin esan alakoarekin orpoz orpo zerraizkiola; bada, pauso batean ere begietatik uzten etzuten. Jesusek, nork galdu asko bazituen ere, txit ondo nai ziotenak ere bazituen, endamas Israelko emakumeen artean. Oietatik zenbait ondoren zijoazkion, beren Ongille ona erreki artan ikusita negarrez urtutzen. Jesusek bide-ertz batean ikusi zituen, eta esan zien: Jerusalengo alabak, ez niri negarrik egin, ezpada zuek zerokgatik, eta zeron humeakgatik: zeren egunak badatoz esango dutena: Zorionekoak emakume agorrek, eta aurrik artu ez duten erraiak, eta eznerik eman ez duten bularrak. Orduan mendiai asiko zaiezte esaten: Atozte gure gañera, eta muñatsai, estali gaitzazute: zergatik eze, baldin arbola ezean au egiten badu, igartuan zer egingo du? Baldin Aita Eternoak uzten badu bere Seme guziz santuari bekatariakgatik au egiten, bekatari berai, zer egingo die?

Emakume on aiei etorkizun negargarriak ikusteko prest egon zitezela onela adierazota, Kalbariora bazijoan; baña mendiaren aldatsera zanean, gurutzearen pisuarekin berriz ere lurrera jauzi zan. Ain aula eta kemengabea zegoan! Jaiki nai eta ezin jaiki ibillita, geroenean jaiki zan, eta mendi-gaña iritsi zuen. Jesusen lotsa geiagorako bi lapur gaizto ere igo zituzten, Jesusekin batean iltzeko.

## 9. Jesus gurutziltzatua

Soldatu-tzar gogorrek soñekoak kendu ziozkaten, bere zauri guziak irugarren aldian berritu, eta soñekoarekin batean oni itsatsitako aragi-puskak kentzen ziozkatela, eta ipiñi zuten, egindako idikietatik odola txirrian zeriola. Gorputz guzia onela larrututa, gurutzean etzanerazo zuten; eskuak eta oñak iltze-tzarrakin josi ziozkaten; eta zutituta, lendanaz eginda zeukaten zuloan gurutzea kolpez sartu zuten, gorputz guziari dardarazo izugarria eman, eta zauri guziak berritzen ziozkatela; eta Jesus zeru-lurren Jabea gurutziltzatua airean agertu zan, lapur bi ezker-eskuitik zituela.

Urkamendian iltzen zituztenai ematen zieten mirra deritzan argizagi-antz batekin nastutako ardoa, onekin erdi-loan jarrita, zeramazkiten penak ariñago egin zekiezten. Soldaduak Jesusi eskeñi zioten mirrarekin nastuaz gañera beazunarekin ondo mindua; baña Jesusek mirra eta beazunaren garraztasun miña artzeagatik aoan sartu, bai; baña edan nai izan etzuen, kordea galdu etzezan, zeramazkien neke-oñazeak beren indar guzian artzeagatik.

Amabien inguruan gurutziltzatu zuten, eta gurutzean itzik ere atera gabe luzaro egon zan, biotz amodiozko ark gizonagatik zenbat begiratzen zuen ezagutzeko siñale berri bat eman zuen arteraño. Barkatu zaiezu, ene Aita, zeren ez dakiten zer egiten duten: ain eriotza miña ematen ziotenakgatik Aita Eternoari esan zion. Esacera estimagarria, aztu bear ez dana, gure etsai edo etsai-ustekoen kontra zerbait egiteko gogoak erasotzen digunean! Eskaera onen ondoren aietatik batzuek barkazioa iritsi zuten, gaizki-egiña ezagutu zutelako, eta danak iritsi bear zuten, su-arri guziak baño biotz gogorrogoak izan ez baziran, eta beren itsumenean iraun nai izan ez bazuten.

Gurutzetik zinzilika zegoala, alde guzietatik neke-oñaze eta penak besterik etzetorkion. Gurutzearen aurrera begiratzen du, eta dakus jende gogor hura, iseka eta farra baizik egiten ez diola: an dakuski apaiz-buru, kargudun, eskriba eta fariseoak, lagun berriak billatzen, eman ziozkaten baño ere pena geiago emateko. Atzeraxeago begiratzen du, eta dakuski gizon eta emkume asko negarrez, eta oien artean bere Apostolu eta ikasle leialak. Gurutzearen oñean dakus bere Ama maite maitagarria, penaz eta naigabez josirik; baña negar-malko gabe, dakielako Semearen eriotzak Jainkoaren naia betetzen duela. Gurutzearen alboan dakus San Juan bere Apostolu kutuna, eta Amaren betiko laguna; an dakuski Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena, zerraizkion emakume guzietatik leialena eta iraunkorrena. Zeruronz begiratzen du, eta laguntzeko antzik ere ematen ez dio. Lurrera begiratzen du, eta soldadu-tzarrak dakuski, kendu ziozkaten soñekoak beren artean zabaltzen, eta bere Ama maite Maria guziz santaren esku ederrak egin zioten gañeko janzi jostura gabekoa, norentzat geldituko zan txotx egiten. Nor ikuskarri onen begira jarri, begiak negarrezko iturri bi egin gabe? Nork gogora ekarri dezake, biotza osotoro erdiratu gabe? O ene Jesus maitea! O ene Jabe gozoa! Nork gurutzetik jatsi zintzakean, eta Zure Ama biotzekoari besoetara eraman, odolokutsu guziak bere estalkiarekin kendu eta garbitzeko! Baña ez; ezin dite-



ke. Aita Eternoak aginduta dauka, eta lurrekoak erabaki dute, Zuk zure atzeneko asnasa gurutzean eman dezazula.

Pilatok agindu zuen, Jesusi buru gañean ipintzeko txartel bat, esaten zuena: *Jesus Nazaretoko, Juduen Erregea*. Juduak itz oiek irakurri zituztenean, Pilatori joan zitzaiozkan eta esan zioten, itz aiek kenduta, ipintzeko berak esaten zuela: Juduen Erregea naiz. Pilatok erantzun zien: Bein eskribatua, eskribatua izan bedi.

Pilatogandik nai zutenik iritsi etzutenean, Jesusi berriro eraso zioten, arpegiko keñu, buru-makurketa eta beste farragarri asko egiñaz. Adizak, esaten zioten; Jainkoaren Eliza ondatu, eta iru egunean berritzen dekan orrek, ere burua libratu ezak. Jainkoaren Semea baaiz, ortik jatsi adi. Gero elkarriz zioten: Besteak libratu zituen, eta Jainkoaren Autua bada, bera ere libratu bedi. Apaiz-buru, eskriba eta kargudunak ere burlaz zioten: Besteak libratu zituen, eta bera ere libratu bedi. Israelko Errege bada, gurutzetik jatsi bedi, eta sinistuko diogu. Uste guzia Jainkoagan zeukan; Jainkoaren Semea naiz, zion, eta orain libratu beza, maite badu. Juduen Erregea baaiz, eskuetatik joan akigu, judu zatarrak otsegiten zioten. Atzenik eskui-ezkerretan ipiñi ziozkaten lapurrak ere, besteak bezala, isekatzten zuten; eta biak ahenekoka ziarduten. Baña, o Jaunaren gogoan dauden gauzak zein ondogabeak diran! Bata gurutzean Jaunagana itzuli, eta bestea bere gaiztoan gogortzen dira. Bata barkazio eske, eta bestea gaizki esaka dagokio. Zer berdineza batagandik besteaganakoa!

Bi oietatik batek Jesusi esaten zion: Kristo baaiz libratu gaitzaguk i erori eta gu. Baña besteak lagun gaizki-itzegeña agirakutzen edo erreprenditzen zuen, esanaz: Zer? i urkamendian agoala ere, Jainkoari bildurrik artzen ez diok? Guk zeramakagun patua txit bidezkoa eta gure gaiztake-riak dagokiena dek; baña onek gaitzik egin ez dik. Eta Jesusi, berriz, esaten zion: Jauna, zure Erreinuratzen zeranean, niaz oroitu zaite. Bai, gaur Zeruan nerekin izango zera, Jesusek erantzun zion.

Eguerdik amabiak aldean ziran, eguzkia bete-betea eta zerua odei-txo bat ere gabe garbi-garbi arkitzen zala, mundu guzia illunantz batek estali zuenean. Illuntasun au, oi ez bezalakoa zalako, guziak miragarritzat jo bear zuten; baña aintzakotzat ere artu gabe, soldaduak, juduak eta gañerako guziak, Jesusen adiskideetarañoak Kalbarioko mendian zeuden. Maria guziz santa, arestian esan dan bezala, Semearen gurutzearen oñean zegoan, ezin esan ere ditekean adiña penatua. San Juan Apostolu

maitea ondotik kendutzen etzitzaion. Maria Kleofas eta Maria Magdalena ere mugitzen etziran.

Jesusen iltzeko ordua betetzer zanean, bere Ama maiteari gurutzearen oñera begiratu zion, eta Juani albora; eta Amari esan zion: Emakumea, orra or zure semea; *Ecce filius tuus*. Zer trukaera negargarria Maria Birjiña guziz santarentzat! Ikaslea Maisuaren lekuan, Juan Jesusen lekuan, Zebedeoren semea Jainkoaren Semearen lekuan ematen zaio. Gero Apostoluari esan zion: Orra or zure ama: *Ecce Mater tua*. Eta ordutik Apostoluarak Maria amatzat artu zuen. Itz oiekin gu guziok, Apostolu maitearen buruan, Maria guziz santaren mantupean, humeak amarenean bezala ipiñita, Aita Eternoari atzeneko itzak esan bear ziozkan; eta arratsaldeko iruak alderatu ziranean, ots andi batekin esan zion: *Eli, Eli, lama sabacthani*, au da: Ene Jainkoa, Ene Jainkoa, zergatik utzi nazu? Itz oiek aditu zituzten ango batzuek uste izan zuten, Eliasi deitzen ziola, etzietelako *Eli Eli*-k, Siriako itzkuntza izanik, zer esan nai zuten; eta elkarriz zioten: Begira gauden, Elias ote datorkion libratzera.

## 10. Jesusen iltzea

Jesusek baziekien, zer gauza ziran oraindik betetzaka; eta Eskritura santan aldeurrez esana: «Nere egarrin ozpiña eman zidaten» gertatu zedin, esan zuen: Egarrin naiz. Ozpin-ontzi bat an arkitu zuten, eta begira zeudenetatik batek arroki edo esponja ozpiñetan busti zuen, eta makilla luze bati erpiñean ipiñita, aora eman zion, eta Jesusek ozpiña artu zuen. Ondoren beste ots bat egin zuen, esanaz: Guzia egiña dago; eta atzenatzen bere Aita Eternoari esan zion: Ene Aita, nere espiritua zure eskuetan uzten det; eta burua makurtuta, Jesus il zan.

Arratsaldeko iruak ziran, Jesusek bere gañ artutako gure erospen edo erreddenzioko lana osobete eta egin zanean. Orduan gure zorrak kitatu zituen; baña, zein garesti! Esan degu, bere odol guzi-guziaren truke. Eskerrak eta eskerrak eman dizaiozkagun, bada, gugatik ainbeste nekepena artu zituen Jainko gizonduari. Ordu onetan berean gauza guziak adierazo zuten gertakari andiren bat izan zala. Mundu guzia bildurrik artu zuen: eguzkia illundu zan; Elizaren erdian zinzilika zegoan oiala erdibitu,



eta ainbeste lengo gizaldietan itxita egoten zan leku guziz Santua agertu zan; arriak zarrakatu ziran, lurra dardaratu zan; obiaki edo sepulturak idiki ziran; eta izatea duten gauza danak beren erara negar egin eta naigabea erakutsi zuten, guzien Egille Jesus gurutzean il zanean.

Ainbeste mirari ez-aditu oiekin, esan zitekean juduak beren gaiztake-ria ezagutu, eta Jainkoaganon z noizbait itzuliko zirala; baña arrokeriaz beteak eta berekoiegiak ziran, batez ere buru egiten zutenak, bein ateratako itza jateko eta gaizki egin zutela aitortzeko. Ala ere, Kalbarioko mendian baziran ezagueran sartu ziranak. Jesusi kontuartzeko joan ziran soldaduen agintari edo zenturionak aditu zuenean Jesusek atzeneko asnasa ematean egindako deadarra, oartu zanean bere oñ-azpiko lurra ikaritzen, arriak zarrakutzen, obiaki idikitzen eta onelako beste mirari asko egiten, larritu zan; eta otsegin zuen: Au Jainkoaren Semea zan, bai. Soldaduak ere, nagusiari zerrazkiola, aitortu zuten Jesus Jainko egiazkoa zala. Juduetatik ere askok ezagutu zuten zein gaizki ibilli ziran, Jesusi ainbeste erakusten, eta arri egiñik etxera itzuli ziran, bular-joka, Jaunari barkazio eskatuaz.

## 11. Jesus illa gurutzetik jatsitzeko prestamenak

Lanbide artan buru egiten zutenak nai guzia iritsitakoan, Pilatori joan zitzaiozkan, eta eskatu zioten agindu zezala gorputz-illak gurutzetik kentzeko, Pazkoako egun andia sartu baño lenago. Pilatok baiezkoa eman zien, eta bere aginduz soldaduak Kalbariora igo ziran, eta lapur biai bernazakiak autsi ziezteen, bereala il zitezen; baña Jesus ikusi zutenean il zala, autsi etzizkaten; eta soldadu batek lanza luze batekin eskuiko saietsa idiki zion, eta odola eta ura irten ziran.

Gauza guzietan Jaunaren esku miragarria zebillen, eta etzan ezer ere benturara eta ustekabean egiten. Soldaduak aginduak zijozzen Jesusi bernazakiak austeko, eta illa egon arren, agindua egin gabe uzteko eskurik etzuten; bestetik, egon bear etziran atzerago illari austeko, biziai baño. Anziña-anziña esanai egiztamena eman bear zitzaien. Moisesek Pazkoako bildotsagatik esan izan zuen: *Ezurrik batere autsiko ez diozute*. Lanzaz saietsa idikitzea ere, ezeri ez zitxokala egin etzan: bada, juduakgatik aldeau- rrez esan zan: *Begiratu zioten zulatatu zutenari*.

Soldaduak gisa onetan, Jainkoak profetaen bitartez lendanaz adiera- zotako gauzak egiten zituzten bitartean, Jose zeritzan Arimateako gizon on prestu, eta sanedrin edo batzarre nagusikoetatik bat, Jesusen kontrako lanetan ikuskizunik izan gabea eta isillean Jesusi jarraitzen zitzaiona, Jesus il bezain laster Jerusalemenera ito-itoka joan zan, eta Jaunaren gorputza Pilatori eskatu zion. Pilatok il-berri au artuta bereala agindu zuen emateko. Jose baimen onekin era berean korrika Kalbariora itzuli zan, gorputz-illa obiratzerara. Beste askoren artean, Nikodemo berez judua, fariseoen burua, Israelko maisua eta Jose bezala batzarre nagusikoa; Nikodemo, gau batean bere galdeak egitera Jesusi joan zitzaiona, eta Jesusekin itzezin ezkerro, isillik bedere, oni jarraitu zitzaiona, eta batzarrean Jesusen alde txit gogorkiro itzezin zuena ere Kalbariora joan zan, mirraz eta *zabila* deritzan belar min batekin egindako eun libra okendu berekin zituela, Jaunaren gorputz-illa igortzitzeko.

Jose eta Nikodemok iltzeak gurutzetik atera eta gorputza jatsi zuten, eta Ama Maria guziz santari magalera eman zioten. Zer Ama maite onen orduko biotz-erdiratzea, bere Seme biotzekoa besoetan artu zuenean! Begira-begira jarri zitzaion, eta zekusan buru guzia muñetaraño arantzaz josia, arpegia ezarri ziozkaten istu eta karkaxa zikiñakin tortikatua, saietsa lanzaz idikia, esku-oñak iltze-tzarrakin zulatuak, gorputza ainbeste milla azoterekin larrutua eta odoldua; itz batean, burutik oñetaraño guzia zauri bat egiña. Nork adierazo Amaren orduko miña! Ez, ez dezake Amak berak bestek neurtu, gisa artan Seme Jainkoa ikusteak biotz biguñ ari eman zion eta Simeon zarrak lendanaz esandako ezpatada zorrotza. Eta are andiagoa artu zuen bi gizon on aiek besoetatik kendu ziotenean, obiratze-ko.

## 12. Gorputz illaren obiratzea

Josek eta Nikodemok, bada, onek eramandako okenduarekin gorputz-illa ondo igortzi, eta Josek erositako maindire berri batean bildu zuten; arpegia izerdi-zapi batekin estali zioten, eta gorputza maindirearen gañetik paxatu edo paxaz ondo lotu zuten, gauza oiek guziak Nikodemoren okenduarekin lenago enbasatuta, juduak gizon andien gorputz-illakin egiten zuten bezala.



Obia bear zan, eta arkitu zuten gurutzetik ogeita amasei kanara zegoan baratza batean, non Josek arri bizi-bizian eraginda zeukan bera eta bere etxeok lurpetzeko; baña arteraño iñor ipiñi etzan, edo iñorekin erabili gabeko berri-berria zan. Jose eta Nikodemok gorputz-illa baratza-raman eta obi onetan ipiñi zuten, burua eguzkiaren sartalderonz zuela; eta obia ar-losa andi batekin estalita, baratzatik irten ziran, biztutzeko eman zien itza gogoan zutela. Jesusekin Galileatik etorritako emakume on piadosa aiek, aresti ezkerok esaten gatozen lanbide oietan guzietan begirik kendu etzuten, ez aldegin ere alik eta gorputza obiratuta, baratzatik irten ziran arteraño; baña beste guziak atzenean joan arren, Maria Magdalena eta Maria Santiago gaztearen amak aldegin nai izan etzuten, eta gorputz-illaren aurrean eserita geratu ziran. Emen Jaunagan pensatzen zeudela, gogoak eman zien berak ere gorputza berriro igortzitzea, eta Jerusalem-er okendu eske jatsi ziran; baña okendua erosi eta beste gauzak prestatzen zebiztan bitartean, Pazkoa-jaia sartu zan, eta onek zirauen artean alako lanak egitea, legez ez bazan ere, oituraz debekatua zalako, ondorerako utzi bearra izan zuten.

Ostiraleko eguzkia sartzearekin larunbata asten zan, eta apaiz-buru eta fariseok Pilatori joan zitzaizkan, esanaz: Jauna, oroitzen gera gezurti ark esan zuela: Iru egunen buruan biztuko naiz. Beragatik agindu ezazu, gorputz-illa sartu dan obiari kontu artzeko, berari zerrazkion ikasleak gauzez joan, gorputza ostu eta jendeari esan ez dizaioten: Illen artetik biztu zan; zeren utsegite berri au lenagokoa baño andiagoa izango dan. Gordezalalleak badituzute, Pilatok erantzun zien, zoazte eta kontu egin zaizute, dakizuten bezala.

Juduak soldadu-samalda bat beti izaten zuten Elizari kontu artzeko, eta Jainkoak gauzak zuzendu zituen juduen soldadu oiek berak gorputz-illa zantzeko, eta ez Pilatorenak, gero biztutakoan juduak esan etzezaten, Jesusen ikasleak Pilatoren soldaduakin elkar artuta, gorputz-illa eraman zutela; argatik ondo etorri zan Pilatok bere soldaduak ukatzea, eta erantzutea berak ere bazituztela. Juduak neurri au eta beste geiago artu zituzten, beren ustez, gezurren bat asmatuta, Jesus biztu zala onen adiskideak esan etzezaten. Iru egunak baño lenago obira joan ziran, ar-losa jasota an ote zetzan ikustera; an zegoan, berriro estali zuten eta sillua markatu zioten, iñork erabiltzen bazuen ere, ezagutu zedin, eta beren uste guzi-guziko kontu-artzalleak ipiñi zituzten, eta gogoak eman zien gañerako guzia, ezeri barkatu gabe, egin zuten, berenarekin irtearren; baña itsu aien asmakari guziak alperrik izan ziran, eta egia garbiro agertu zan.

## AMARGARREN IRAKURGAIA

### 1. Jesusen biztuera

Jesu Kristo gure Jaunak askotan esan izan zuen ilda irugarren egunean biztuko zala. Arteraño erakutsitako gauza guziaz sinismen osoa emateko zimendua au zan, eta esana egiztatu zuen.

Ostiral arratsaldeko iruetan il zan; eta bere gorputza arratsalde berean obian ipiñi zuten: ona emen lenengo eguna, zati bat osoaren ordeztartuta. Biaramonean, zeña larunbata zan, egun guzian egon zan: ona emen bigarren eguna. Igande goizean obitik irten zan: eta ona emen irugarren eguna, lenengoa bezala zatia osoaren ordeztartuta.

Il zan ordu bere-berean anima guziz santa jatsi zan *Abrahamen Senoa* zeritzan eta arteraño ildako on guziak arkitzen ziran lekura. Oiek aspaldietan beren Libratzalle andiaren zai zeuden, eta ikusi zutenean Jainkoaren Semea zijoakiela, argi eder batek artu zituen, eta asi ziran betiko zorionekoak izaten; artan diraute, eta sekula guzian iraungo ere dute. Igande goizeraño emen egon zan, eta goiz onetan obian zetzan gorputzari itzuli zitzaion, eta gurutzean galdutako bizia beretuta, obia estaltzen zuen ar-losa portitza ez autsi eta ez kenduta, sillua ere zana zan bezala utzirik, gorputza animarekin batean irten zan, gorputz gloriotsuaren doai eder guziak berekin zituela.

Kontu artzen zeuden soldaduak ezerzaz ere oartu etziran, alik eta lurrikara andi baten otsarekin aingeru bat Zerutik jatsi, obi gañeko ar-losa irauli eta onen gañean eseri zan arteraño. Aingeruaren arpegiak tximista zirudien, begiak txingarrak, eta soñekoa elurra baño zuriago zan. Soldadu kontuartzalleak, aingeru onen ederra eta argia ezin eramanik, atzerontz jauzi ziran, ilda bezala; eta zerbait berera ziranean, osotoro izututa, andik iges egin zuten.

Maria Magdalena eta Maria Santiago gaztearen ama, orainago esan da Jerusalem-er geratu zirala Pazkoa-eguna igaro artean, gero bereala Jesusen gorputz-illa okenduz egiteko: eta asmo on oni zerrazkiola igande goi-



zean goiz baratza ziran, beste emakume on asko, eta oien artean Juana, Herodesen kontu-eramalle Chusas-en emaztea, eta Maria Salome Santiago zarrenaren eta Juanen ama berekin zituztela. Larunbat guzia nola bakarrean eta ñorekin itzegin gabe igaro zuten, etziekizkiten Jesusen obiari kontu artzearen gañean juduak erabili zituzten lanak.

## 2. Pedro eta Juanen joanera obira

Jakin-ez onetan bazijoazen; Maria Magdalena, lagunak atzean utzita, besteak baño lenago obira alderatu zan, eta obia estaltzen zuen ar-losa zearkatua ikusi zuenean bereala pensatu zuen Jaunaren gorputza norbaitek ostua izango zala; baño aingerurik oraindik ikusi etzuen. Bere-bereala Jerusalemeko bideari eman zitzaion, baratza ziran zanean berekin artutako lagunak aren itzuleraz oartu ere gabe. Jerusalemen Pedoren etxean sartuta, oni eta Juani esan zien: Jauna obitik eraman dute, eta ez dakigu non utzi duten. Bi Apostoluak berri au aintzat bertatik artu zuten; eta ezaguturik zein konbeni zan garbiro jakitea, Maria Magdalena emakume men eta egitizat bazeukaten ere, bere eresi onagatik utsegin zezakean, edo artean illun zegoalako gauza bat beste iruditu zizaiokean bildurrez, biak obiaroz abiatu ziran, beren begiak ikustera. Biak elkarrekin bazijoazen ere, Juan, gazteagoa bezala, Pedro baño lenago eldu zan, eta makurturik, obiaren zoruan edo solairuan ikusi zituen gorputza bildutako maindirea eta lotutako paxak, baño obian sartu etzan. Gero bereala Pedro ere eldu, eta obian Juan baño lenago sartu zan. Juanek bezala maindirea eta paxak ikusi zituen; baita ere arpegia estaltzeko ipiñi zioten izerdi-zapi, Juanek ikusi etzuen, baztertxo batean. Ez Jauna bera, ez Aingerua ikusi zituen; baño bai, baratza soldadu kontu-artzalle gabe, arri-estalkia azpikoaz goora iraulia, obia utsik, il-janzia zoruan eta izerdi-zapia aldamenen: eta gauza oiek guziak argiro adierazo zioten eta sinistu zuen Jesus biztu zala. Juan ere gero sartu zan, eta Pedrok bezala guzia ikusi zuen, eta biak poz andiarekin Jerusalemera itzuli ziran.

## 3. Jesus Maria Magdalenari agertzen zaio

Maria Magdalena aiei orpoz orpo baratzaño jarraitu zitzaian, baño aiekin Jerusalemera itzuli nai izan etzan, bere Jaun maitea obiratutako lekua uzteko miñez, eta obiaren sarreran negarra zeriola geratu zan. Obiaren barrura aldian-maiz begiratzen zuen; baño ezer ikusten etzuen. Geroenean agertu zitzaiozkan zuriz janzitako bi aingeru, bata obiaren buru aldetik eta bestea oñetan eserita, eta esan zioten: Zergatik negar egiten dezu? Zeren nere Jauna kendu duten, eta non utzi duten ez dakidalako negarrez nago, erantzun zien.

Itzketa onetan ziarduela, atzeron begiratu zuen batean, Jesus zutik ikusi zuen, ez ordea ezagutu. Emakumea, zertako negar egiten dezu? noren billan zabilza? Jaunak galdetu zion. Maria Magdalenak uste izan zuen, itzegiten ziona baratza zaia edo hortelanoa zuela, eta esan zion: Zuk kendu badezu, esan zadazu non utzi dezun, eta nik eramango det. Au esanda, berriz ere obira begira jarri zan, gorputz-illa an ikusten bazuen bezala; bada burutik ezin kendu zuen. Orduan baratza-zaia zalakoak, baño Jaun egiazkoak esan zion: *Maria*. Itz bakar onekin Maria Magdalenak ezagutu zuen Jauna zala, eta poz eta atsegiñez beterik, deadar egiten du: Ene Maisu maitea!!! Auzpeztutzen zaio, atsegiñeko negar malkoekin bustitzen diozka Simonen etxean bekatuen damu eta miñez garbitu izan ziozkan oñ guziz santu aiek. Artuta muñ egin nai die, baño Jesusek esaten dio: Ez ukitu; esaten bazion bezala: Askok da; ezagutzen det zenbat nai didazun. Oraindik leku dago: Nere Aitagana orain bereala ez noa. Zu nere anaiaetara (Apostoluetara) zoaz, eta esaiezu biztu naizela, eta emendik gitxi batera igoko naizela nere eta zuen Aitagana, nere eta zuen Jainkoagana.

Jesus gorde edo ezkutatu zitzaion, eta Magdalena berriz ere Apostoluetara Jerusalemera korrika jatsi zan, eta esan zien: Jauna ikusi det; au eta au esan dit. Zer gertatu zitzaion zearo esan zien; baño Pedro eta Juan, arestian berak ikusi zutenarekin jartzen baziran ere Magdalenaren esanak sinisterra, beste Apostoluak eta ikasleak txit biotz illunakin eta negarrez arkitu zituen, beren maisu ona biztu zala ezin sinistuz. Nik neronek ikusi ditut, esaten zien, bi aingeru eder, bata obiaren buru aldetik eta bestea oñetan eserita. Nik neronek Jauna ikusi det, eta itzegin dit. Baño esan oiek artzen ziozkaten bere itsumenak eta eresiak erasandakotzat.



#### 4. Maria Magdalenaren lagunai Aingeruak itzegiten die

Maria Magdalenak or-emen guziak txit denbora gitxian egin zituen, bada eguzkia agertzerako bigarren aldirian Jerusalemenera itzuli zan. Onekin batean goizean goiz obiaronz irtendako lagunak Mariaren ibillien berririk etzuten, Mariak aietatik aldegin eta beste bide batetik atzera eta aurrera ibilli zalako; eta lagun oien bideko ardura eta jardun guzia zan, gorputz-illa nola okenduz igortziko zuten; eta elkarrizkiotsatzen: Nork obia estaltzen duen arri andi hura kenduko digu? Baratzan sartu ziran eguzkia agertuta gero, eta arria iraulita ikusteak poz andia eman zien. Idikita zegoanean, bereala sartu ziran; baña ondoraño jatsi etziran, galai gazte baten antzeko aingeru zuriz janzi bat eskuian ikusi zutelako, eta larritu ziran. Ez ikaratu, Aingeruak esan zien: Zuek Jesus Nazareteko gurutziltzatua billatzen dezute: biztu zan; emen ez dago. Atozte, eta ikusiko dezute Jauna ipiñi zuten lekua. Bereala zoazte, eta aren ikasle eta Pedrori esaiezute biztu dala, eta Galileara beren aurretik dijoakiela, eta agindu izan zien bezala an ikusiko dutela. Aingeruak esanda, obiaren ondora emakumeak jatsi ziran; begiratu zioten, baña il-janzia eta izerdi-zapia besterik arkitu etzuten. Arri egin ziran Jaunaren gorputza ikusi etzutenean, eta Aingeruak esanak ezer gitxian artuta, uste izan zuten, Magdalenak bezala, norbaitzuek ostua izan zala.

Emakume on oiek negarrari eman zitzaiozkan, eta naigabetuenak zeuden denboran bi gizon txit ederki janzitako aldamenean jarri zitzaiezten, zeñak ikustearekin lotsatu ziran, eta begiak beeratu zituzten, eta gizonak esan zieten: Zertako zabilzate illen artean bizi danaren billan? Biztu da, emen ez dago. Oroitu zaitezte nola Galilean esan zizuten: Konbeni da gizonaren Semea izan dedin bekatarien eskuetan ipiñia, gurutziltzatua; eta irugarren egunean biztutzea. Orduan gogoratu zitzaiezten Jesussek esandako itzak, eta sinistu zuten Jauna biztua zala.

Poz onekin Jerusalemeneroz bazijoazen, eta Jesus bidean bere lenago-ko antz-antzean agertu zitzaizen, eta esan zien: Jainkoak gorde zaitzazala. Bereala ezagutu zuten, auzpeztu zitzaiozkan, eta oñetatik elduta adoratu zuten. Onetan ezin aspertuz ziarduten, eta Jesussek esan zien: Ez ikaratu; zoazte eta nere anaia esaiezute Galileara joateko: an ikusiko naute. Itz

oiek esatearekin batean, Jesus ezkutatu zan, eta emakumeak bereala Jerusalemenera joan ziran.

Ordurako, Magdalenak zabalduetako albistarekin Apostoluak eta ikasle asko Pedroren etxean bilduta zeuden; emakumeak sartu ziran eta esan zieten gertatu zitzaiozen guzi-guzia. An arkitzen ziranak poz andiarekin aditzen zituzten oien esanak, Maria Magdalenarenak, Pedro eta Juan Apostoluenak; baña uzurtasun-antz bat erakusten zuten, beren begiak ikusi gabe osotero sinisteko. Jesussek bizi zala askotan esan izan zien, biztuta gero Galilean ikusiko zutela. Orain Jesussek berak eta Aingeruak emakume on aiei au bera esan zieten, eta beren gogoa osotero betetzeko, erabaki zuten Galileara joatea.

#### 5. Soldadu kontu-artzalleak nagusiai esaten diete zer gertatu zaien

Lurrikara eta Aingeruaren aurketarekin izututa, igesi joandako soldaduetatik batzuek eguzkia agertu zenerako elkargana bildu ziran; eta Jerusalemenera itzulita, apaiz-buruai esan zieten zer gertatu zitzaizen. Gau illunean lurrikara bat izan zan, zioten; eguzkia bera baño aingeru argiango bat, obia estaltzen zuen ar-losa irauli, eta gañean eseri zan. Aren begiak tximistak ziruditen, eta egin zigun begiratu ain zorrotza izan zan, non erdi-illak atzeron erori giñan. Orduan, nork bere egin alean, igesi egin genduen, eta ara emen gu, oraindik ere ikara osotero kendu gabe; baña sinits-sinits eginda Jesu Kristo biztu dala, eta aren gorputza obian ez datzala. Guri zegokigun, zuei dana dan bezala esatea, eta zuei dagokizute gai miragarri onetan zer datekean jakitea.

Soldadu aiei adituta, bereala apaiz-buru eta kargudunak batzarreatu ziran, gauza onen gañean itzegitera. Argirik asko bazuten, Jesus orainago il zutena biztu zala ezagutu eta sinistutzeko; baña gogor zeuden beren gaizki-egiña aitortzeko, eta guzia gezurtatzeko asmoak artu zituzten. Baña, nola ukatu eta isillik gorde zezaketen beren soldaduak berak esaten eta aitortzen zutena? Dirutza andi bat emango diegu, zioten, zer ikusi duten esan gabe isillik egon ditezten, eta barreatu dezaten lo zeutuzala, Jesusen ikasleak gaez etorri eta gorputz-illa ostu zitetela. Apukoaren





lotsagarria! Zer? lo dautzan batzuek dakarzkiguzute lekuko edo testigutzat? San Agustinek batzarrekoai burlaz esaten die. Apaiz-buru eta kargudunen asmakari au egiaren antz gabea bazan ere, soldaduak diruagatik pozik barreatu zuten, eta juduak gaur dan eguneraño sinismen uts onetan bizi oi dira.

Berez esana dago, berri onekin Jesusen ikasle lapur ziralakoen kontra juduak su biziak artuko zituela, eta oien bildurrez egongo zirala. Arratseraño, beintzat, ezkutuan egon ziran, eta illundu zuenean guziak, nor bere aldetik, Galilearantz abiatu ziran. Ordu gitxiren buruan, Tomas izen goitiz Didimo zeritzana ez, beste Apostoluak elkarrekin arkitu ziran, eta oiekin batean beste ikasle asko ere bai, eta guziak gela batean sartuta, jarri ziran, batetik juduen bildurrez eta bestetik Jesusen ikusiren bat emango ziren uste oso-osoan.

Ordu pozgarri onen begira zeudela, bi ikasle atea jo zuten, eta ezagunak ziralako, idiki zieten. Bi oietatik bat zan Kleofas, askok diotenez, Santiago gaztearen aita, eta bestea, batzuen iritzian, Zefas. Bi ikasle oiek Jerusalemendik eguerdian irten ziran bi orduko bidastian zegoan Emaus zeritzan gaztelu edo alderrian illunabartzean sartzeko asmoarekin. Itzketa guzia egun aietan Jerusalemendik gertatutako gauzaen gañean zeramaten, eta elkarri galdeak egiten ziardutela, Jesus urreratu zitzairen, eta oiekin batean zijoan; baña begiak lausotu zitzaiezten, Jesus ezagutu etzezaten. Jesusen esan zien: Zer itzketa da bidean daramazuten ori? eta ain triste zerk zauzkate? Kleofasek erantzun zion: Zu bakarra zera Jerusalemendik, egun oietan an gertatu dana ez dakizuna? Zer? Jesusen galdetu zien. Bidanteak erantzun zioten: Itzegin degu Jesus Nazaretokoaren gañean, zeña izan zan gizon Igarlea, Jainkoaren eta erri guziaren aurrean egin eta esanetan esku andikoa: eta nola gure apaiz-buru eta kargudunak eriotzako sententzia eman eta gurutziltzatu zuten. Guk uste genduen bera izango zala Israel erosi edo erredimituko zuena, eta gaur da irugarren eguna gauza oiek gertatu zirala. Egia da, gure emakume batzuek aztoratu edo airean ipiñi gaituzte, zergatik ezen, gaur goizean eguna baño lenago obira joan dira, eta gorputz-illa arkitu ez dutenean, etorri zazkigu esanaz ikusi dituztela Aingeruak, zeñak esan diete bizi dala, eta guretatik batzuek obira joan ziran, eta guzia arkitu zuten emakumeak esan bezala; baña Jauna etzuten topatu. Orduan Jesusen esan zien: O zoro eta biotz nagikoak, profetak esan guziak sinisteko! Zer bada! konbeni etzan Kristo iltzea, eta bere glorian onela sartu zedin? Eta agertu zien Moises eta beste profetak argatik esandako guzia. Onetan ziardutela, Emausera alderatu

ziran, eta Jesusen aurrera zijoalako egin zien; baña eskatu zioten aiekin gelditzeko, esanaz: Gurekin gelditu zaite, bada berandu da; eta eguna badijoa. Geroenean bi aiekin batean etxean sartu zan. Maiean eserita zeudela, Jesusen ogia artu, bedeinkatu eta ebaki zuen, eta ematen zien. Biak artu zioten, eta jan zuten. Orduan begiak argitu zitzaiezten eta Jauna ezagutu zuten, eta ezkutatu zitzairen.

Bakarrik arkitu ziran, elkarri ziotsaten: Gure biotzai etzizekaten, bidean itzegiten eta Eskritura Santak erakusten zizkigunean? Au esanda, maietik jaiki eta Galileara joan ziran, zer gertatu zitzairen esatera, eta arkitu zituzten Apostoluak eta besteak, ziotela: Jauna egiaz biztu da, eta Simoni agertu zaio. Ez dakigu Apostoluak emen aitatzen duten agerkera au Simon Pedrori Jaunak noiz egin zion; baña uste izaten da beste Apostoluak baño lenago agertu zitzaioala. Emausko bi aiek gero bereala zearo esan zieten bidean igarota, eta nola Jesus ogia ebakitzen ezagutu zuten.

## 6. Jesusen agerkera Apostolui

Igande edo astearen lenengo egun onen gaua aurrera zijoan, eta Apostoluak eta ikasleak, juduen bildurrez etxeko atea ondo itxita zeudela, Jesus etorri eta guzien erdian jarri zitzairen. Lenbizian ikaratu ziran, eta uste izan zuten espiritu edo antz uts gaiztoren bat zala; bada, etzeritzaten, gorputz egiazkorik ate itxietan sartu zitekeanik, eta Jesusen esan zien: Pakea zuekin. Zertako larritu zerate eta gogorazio bildurtiai leku eman diezute? Ez ikaratu. Ni naiz; eta ikusitakoan, adoratu zuten. Baña aien artean baziran batzuek osotoro oraindik sinisten etzutenak, eta Jesusen esan zien: Begira nere esku eta oñai, eta Ni nerau naiz. Ukitu eta ikusi espirituak aragi eta ezurrik ez duela, Nik dauzkadala, dakusuten bezala. Au esanda, eskuak, oñak eta saietsa erakutsi ziezten. Baña oiek guziak ikusi arren, uzkur zeuden sinisteko; uste zuten, alabañan, pozak begietan ipintzen zien irudipenen bat zala; eta Jesusen esan zien: Zer janik badezute? Ezkalu erre bat eta ezti-abaraska bat eman ziozkaten. Jesusen jan zituen; eta ezagutu zezaten ezkalu eta ezti berez ziran eran jan zituela, kondarrak eman ziezten, jan zitzairen.



Gauza oiek guziak Jesusek ain zearo eta banaka egin zituen, uzkurta-sun guziari utzita, bete-betean sinistu zezaten egiaz biztu zala; eta gero esan zien: Zuekin nenbillenean au esan nizuten: Moises, profetak eta Salmoak nigatik aldeaurrez esandako guzia egin bear zala. Orduan eman zien Eskritura Santari igerritzeko, edo zer esan nai zuen ezagutzeko argia, esanaz: Onela eskribatua dago, eta onela konbeni zan, Kristo il eta irugarren egunean illen artetik biztu zedin, eta bere izenean penitentzia eta bekatuen barkazioa jende guziarentzat, Jerusalemik asita, predikatu zitezen. Gauza oiek guziak zuek zerok ikusi eta aditu dituzute. Itzketa au eginda, Jesus ezkutatu zitzairen, eta urrengo iganderaño berriz agertu zitzaienik ez dakigu.

## 7. Jesusen berrizko agerkeria Apostolui

Igande batetik besteraño zortzi egunak Apostoluak eta ikasleak, juduen bildurrez, ezkutuan egin zituzten, beren Maisu maitea berriz ere agertuko zitzaielako ustean; eta ala gertatu zan. Lenengo igande gau artan Tomas beste Apostoluakin arkitu etzan Jesus agertu zitzaienean, eta aste bitartean lagunak ikusi zutenean bereala esan zioten Jauna ikusi zutela; baña Tomasek erantzun zien: Nik ez badakust aren eskuetako iltze zuloa, eta nere beatza an eta eskua saietseko idikian sartzen ez baditut, sinistuko ez det. Apostolu onek asko eskatzen zuen; baña Jesusek guzia egin zion.

Bigarren igandean, au da, biztu zanetik zortzigarren egunean, Apostoluak eta ikasleak elkarrekin, ateak itxita, ezkutuan zeuden, Tomas berekin zutela, eta Jesus lenagokoan bezala sartu zitzairen, eta erdian jarrita, esan zien: Pakea zuekin. Gero Tomasi esan zion: Zure beatza emen sar ezazu, eta begira nere eskuai, eta zure eskua indazu, eta nere saietsean sar ezazu eta etzaita izan sinisgogor, eta bai siniskor. Tomasek, noski, biotzik izango etzuen eskurik luzatzeko eta ukitzeko ere, Jesusek ain zorrozkiro itzegin zionean. Bakarrik itz oiek esan zituen: Ene Jauna, eta ene Jainkoa!!! Eta Jesusek esan zion: Ikusi nazulako, Tomas, sinistu dezu. Zorionekoak ikusi etzutenak eta sinistu zutenak; zan esatea: Zu baño zorionekoagoak izan ziran ikusi gabe sinistu zutenak. Au esanda, Jesus ezkutatu zitzairen.

## 8. Jesusen irugarren agerkeria Apostolui

Egun onen ondoren laster bein batean agertu zitzairen Pedro eta Santiagori; beste bein amaika Apostolui, elkarrekin zeudela; eta beste askori, berriz, Tiberiadesko itsas-ondoan, onela: Simon Pedro, Tomas, Natanael (zeña batzuek diote Bartolome zala), Zebedeoren seme Santiago eta Juan, eta beste bi ikasle elkarrekin arkitzen ziran; eta Simon Pedrok esan zien: Arrantzara noa. Gu ere bai zurekin, lagunak erantzun zioten. Guziak itsasora urreratu, eta ontzian sartu ziran; baña gau guzian sareekin ibillita, ezer ere arrapatu etzuten. Eguna argitu zanean, Jesus ur-ondoko erriberan aurkeztu zan; baña ezagutu etzuten; eta esan zien: Semeak, zer janik badezute? Ez, erantzun zioten. Sarea ontziaren eskuira bota ezazute, eta arkituko dezute, Jesusek esan zion. Bota zuten eta ezin jaso-al arrai sartu ziran (eunda berrogeita amairu puska). Orduan Juan, Jesusen Apostolu maiteak Pedrori esan zion: Jauna da. Pedro, au aditutakoan, azpiko janziaren gañetik mantua gerrian bilduta, itsas-urean abiatu zan, lur-leorrean bazijoan bezala, Jesusi oñetan jartzeko eresiarekin. Bitartean beste Apostolu eta ikasleak ere ur-ertzera bazetozen sare arraiez bete ontzian zutela; bada, arrantza miragarria egin zuten tokitik ur-ertzera eunen bat kanako bidea zegoan. Pedro, bere agur atsegiñezkoa Jaunari egin zionean, lagunetara itzuli zan; sareari bere arrai guziakin eldu zion eta lurreratu zuen, pisu andikoa izan arren batere urratu gabe. Leorrera ziranean ikusi zuten su-brasa bizi bat, onen gañean arrai bat erretzen, eta aldamenean ogi bat. Atozte eta jan ezazute, Jesusek esan zion. Joan zitzaiozkan, eta etzan ziran, oitura zuten bezala, jateko; baña iñor benturatu etzitzaion galdetzera: Zu nor zera? jakiñik Jauna zala.

Irugarren aldia zan Jesus Apostolui, elkarganatuta zeudela, agertu zitzairen oraingoa. Lenengo egunean amarri agertu zitzairen; bada, Judas saltzallea ordurako urkatua zan, eta Tomas agiri etzan. Andik zortzigarrenean amaikai, Tomas barrunen zala; eta oraingoa Tiberiadesko ondoan. Emen agertu zitzairen bada, ez bakarrik arrigarrizko arrantza egin eta ikusteko, baita beste gauza gogoangarri asko eta andiak egin eta erakusteko ere.



## 9. San Pedro Elizaren buru egiña

Jan ondoan Jesusek Simon Pedrori galdetu zion: Simon, Juanen semea, oiek baño zuk maiteago nazu? Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala, Pedrok erantzun zion. Bada nere arkumeak bazka itzatzu, Jesusek esan zion. Berriz ere galdetu zion: Simon, Juanen semea, maite nazu? Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala, Pedrok erantzun zion. Bada nere arkumeak bazka itzatzu, Jesusek esan zion. Irugarren aldian Jesusek galdetu zion: Simon, Juanen semea, maite nazu? Berriz eta berrizko galde onek Simon Pedrori barruna illuntasunez bete zion. Bere ustean biotz-biotzetik maitatzen zuen; baña iru galde oiek gogoraerazo ziozkaten Kaifasen ezkarazeko iru uko-aldiak, eta bear ainbat maite etzuen bildurrak ematen zion; eta tristura andi eta biotz illarekin erantzun zion: Jauna, Zuk gauza guziaz igerritzen diezu. Zuk dakizu, nik maite zaitudala. Bada, nere ardiak bazka itzatzu, Jesusek esan zion.

Itz gitxi oiekin Jesusek Pedro poztu zuen, eta galdeak eman zioten miña gozotu zion. Oiekin bere Elizaren buru egin zuen: eta Pedroren kontura utzi zituen, ez bakarrik arkumeakin adierazten zituen kristau beekoak, baita ardiakin adierazotako artzai eta apaiz andiak ere. Itz oiekin egin zuen artzai guzien Artzai, obispo guzien Obispo, eta lurtean bere Ordeko eta gu guzior Buru. Gero esan zion kargu onek zer lanak eta nekeak erakarriko ziozkan; baita eriotza bera ere atzenean. Egi-egiaz esaten dizut, zion, gaztea ziñanean, zerorri gerrilotzen ziñan, eta nai zenduen lekura zinjoazen; baña zartuko zeranean, eskuak luzatuko dituzu, bestek gerrilotuko zaitu eta nai ez dezun tokira eramango zaitu. Itz oien ondoren esan zion: Darraidazu. Pedro abiatu zan; atzeron begiratu eta ikusi zuen Juan ere zerraikiola. Pedrok baziakien Jesusek apostolu maite oni zein asko nai zion, eta galdetu zion: Jauna, onek zer? esaten bazion bezala: Zuk agindu didazu zuri jarraitzeko; eta, au nerekin etorriko da? Jesusek etzuen jakin-nai onetatik Pedro atera nai izan, eta erantzun zion: Orrela nai det, ori geratu dedin, Ni natorren artean: zuri zer zatzu? Zuk darraidazu. Itz oietatik oña artuta, beste lagunen artean barreatu zan Juan ilko etzala; baña Jesusek Pedrori esan etzion Juan ilko etzanik; ezpada orrela nai zuela geratu zedin, Jesus etorriko zan arteraño. Jesusek, oraindik bizi zala, bi anaia Santiago eta Juan esanak zituen, berak edango zuen kaliza, aiek ere edango zutela; eta Jesusek itz au jan nai etzuen, eta itzke-

ta hura izan zan Pedro Juan baño lenago ilko zala adierazteko. Oiek eta onelako beste gauza aso esanda, Jesus ezkutatu zitzairen.

Andik laster beste egun batean amaika Apostoluak eta bosteun ikasle baño geiago elkarrekin Galilean zeudela, Jesus agertu zitzairen; baña agerkera onen gañean Ebanjelariak beste berririk ematen ez digute. Onen ondoren beste bein batean Santiago gazteari agertu zitzaion; baña onen gañean berebat isillik daude, agertu zitzaizela baizik esan gabe.

## 10. Jesusen agerkera Maria guziz santari

Baña agerketa guzietan pozik andienekoa eta maitagarriena dudarik gabe izan zan bere Ama guziz santari Semeak egin ziona. Ebanjelariak esaten ez digute Semea Amari agertu zitzaionik, ez noiz, ez zenbat aldiz: baña sinismen oso-osoan egon bear gera, lenen-lenengo Amari agertu zitzaizola, eta biztu zanetik Zerura igo arteko munduan egin zituen berrogei egunetan sarri eta maiz elkar ikusi zutela, eta itzketa luzeak egiten zituztela. Munduko kriptura guzietan lenengoa zan, eta Semeak maiteenmaiteena zuena eta bere amorioaren sinalerik bizienak ematen ziozkan, txit askotan agertuaz, eta Zeruan sartuko zan bitartean, lurtean izan zeza-kean zorion guzi-guzia emanaz. Baña atzeneko agerketara eldu gaitezen.

## 11. Jesusen atzeneko agerkera Apostolui

Gizonaren salbazioko lanari buru emateko denbora betetzer zan: eta Jesusek Apostolui agindu zien, biztu zanetik berrogeigarren egunean Jerusalem biltzeko. Ala egin zuten; eta esan zien: Zeruan eta lurtean eskubide dana eman zat. Zoazte bada, eta jende guziaz erakutsi zaizute, Aitarean, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuaz; agindu dizutedan guzia gordetzen erakutsiaz. Zoazte mundu guzitik barrera, eta kriptura guziari Ebanjelioa predikatu zaiozute. Sinisten duena eta bataiatzen dana salbatuko da: baña sinisten ez duena, kondenatuko da. Ara Ni



emen munduaren atzenaño zerokin non beti nazuten. Sinisten dutenak siñale oiek emango dituzte: deabruak nere izenean botako dituzte, itz-kuntza berrietan itzegingo dute, sugeak kenduko dituzte; eta gauza ilgarriren bat edaten badute, gaitzik egingo ez die; eskuak eriai ipiñiko diez-tee, eta sendatuko dira. Mirari oiek guziak Elizaren asieran, Fedea oñ onean ipiñi artean, egiten zituzten: bada, landare berri bat ipintzen danean, sustraiak egin, lurrian indarra artu eta azi artean, erregatzen edo urarekin laguntzen zaion bezala, San Agustinek dio, Elizaren asi-berrian ere mirari oiek egin bear izan zirala, kristauen biotzetan fedeak erroak eman zitzan, eta sendotu zitezen, etorriko zitzaiezen erasoai eta galbideai gogor egiteko.

## 12. Konfesioko Sakramentu Santuaren ipintzea

Jesusek atzeneko afari gogoangarrian Aldareko Sakramentu guziz santua ipiñi zuenean, bere Apostoluai eman zien eskubidea aren Gorputza eta Odola donekidatzeko edo konsagratzeko; baita ere erakutsi zien, legea mundu guzian zabaltzeko berez eta berak aututzen zituzten ondorengoen bitartez. Orain Aingeruai ere eman izan etzien eskubidea gizonai emateko, esan zien: Pakea zuekin. Ni nere Aitak bialdu ninduen bezala, Nik ere zuek bialtzen zaituztet. Au esanda, aizeman edo asnasa bota zien, esanaz: Espiritu Santua ar ezazute. Zuek bekatuak barkatzen dieztezutenai, barkatuak geratzen zaiezte; eta zuek barkatzen ez dieztezutenai, barkatu gabe geratzen zaiezte. Arnasa zorioneko onekin bere Eliza santan, sazerdoteen eskuetan, utzi zigun bekatuak barkatzeko eskubide, bein ere bear adiña andizkatu ezin ditekeana, zeñaren bitartez Zeruko atea idiki ditzakegun.

## 13. Jesusen Zerura igotzea

Jesusek iritzi zionean bere aldetik guzia egiña zegoala, eta Espiritu Santua etortzea beste zer egiñik etzala, Jainkoak erabakita zeukan denbo-

ra bete zanean, prestatu zan Zerura itzultzeko, eta eskeñi izan zuen bezala, Espiritu Poztutzallea bialdu, eta bera bere Aita Jainkoaren eskuitik betiko geratzeko. Onetarako Apostolu eta ikasleak Jerusalemene bilduta zeuden tokian, guziakin jan ondoan, esan zien: Nere Aitaren Eskeñia zuei bialtzera noa. Zuek Jerusalemene egon zaitetzte, Aitak nere aotik eskeñi dizutena datorkizuten bitartean; bada, Juanek urarekin bataiatzen zuen; baña zuek egun gitxiren buruan Espiritu Santuan bataiatuak izango zerate. Orduan an ziranak galdetzen zioten: Jauna, Israelko Erreina orduan berrituko dezu? Apostoluak oraindik ere uste zuten Jesusek Israelen erreinu bat ipiñi, eta lurreko erregeen antzean anditasun guziarekin berak aginduko zuela, eta itsumen onetatik irten etziran, alik eta Espiritu Santuak bere etorrerako egunean argitu zituen arteraño. Zuei ez dagokizute, Jesusek esan zien, jakitea, Aitak bere eskuan ipiñi zituen denbora eta mementoak; baña Espiritu Santuaren indarra artuko dezute, eta orduan lekuko edo testigu izango zatzazkit Jerusalemene, Judean, Samarian, eta munduaren araurrenean ere.

Jesusekin arkitzen ziran bere Ama guziz santa, amaika Apostoluak eta ikasle asko, eta guziak berekin artuta, eguerdi aurrean Jerusalemendi irten zan, Betaniatik barrena Olibeteko mendira joateko. Bide askoz gogoangarri dan mendi onetara amabietarako igo ziran. Jesusek eskuak jasota bedeinkatu zituen, eta ez-arian ez-arian Zeruronz abiatu zan. Zekusten, nola donario ederrean eta anditasun guziarekin igotzen zan, alik eta odei argi eder bat erdian jarrita, txit ezkutatu zitzaien arteraño. Orduan Infernu guzia garaitu zuen munduaren Salbatzallea Zeruetan sartu, eta Aita Jainkoaren eskuian betiko eseri zan. Eskritura Santak ez digu esaten, baña sinismen osoan gaude, Jesu Kristok Zerura berekin eraman zituela Adangandik asita, arteraño Jainkoaren grazian ildako Abrahamen senoan zeuden zorioneko guziak; bada, Zeruan lenago iñor ere sartu etzan.

Zer ikuskarri ederra eta maitagarria an ziran zorioneko aientzat! Zer poza Maria guziz santarentzat bere biotzeko Seme-Jainkoa, etsai guziak menderatuta, bere betiko Aitaren ondora itzultzen ikustea! Zer atsegina Apostolu eta ikasleentzat beren Maisu ona, esan izan zien guziari egiztamen emanda, garailari igo zala pensatzea! Poz eta atsegin onekin alde batetik, eta lurrian berriz elkar ikusiko etzuten miñez bestetik, eraman zuen bidera begira ezin aspertuz zeudela, zuriz janzitako bi aingeru gizon antzean aurkeztu zitzaiezen, esanaz: Galileako gizonak, zertako zaudete Zeruronz begira? Zerura igotzen ikusi dezuten Jesus au etorriko da,



Zerura igotzen ikusi dezuten gisa berean. Au aditu zutenean Jerusalemenera itzuli ziran, eta etxe-ganbara batean sartuta, orazioan jarri ziran eta itxendon zuten, Espiritu Santua noiz etorriko zitzaizen begira.

Oiek dira, bada, Jesusek egin zituela Ebanjelariak esaten diguten agerketak; baña badakigu etzizkigutela, ez oien eta ez beste gauza askoren berri guziak osotoro utzi: bada, San Juan, lau Ebanjelarietatik batek, eta Jesusekin geien-geiena itzegin eta ibilli zanak, bere Ebanjelioaren atzeneko itzetan esaten digu, baldin Jesusek egin zituen gauza guziak bat-banaka eskribatuko balira, egin bearko lirakean liburuak, mundu guzian kabituko ez lirakeala.

## AMAIKAGARREN IRAKURGAIA

### 1. Judasen lekurako San Matias autua

Jesu Kristo gure Jauna, lan guziak lurrean eginda Zerura igo zanean, berak emandako legea eta au gordetzearekin irabazi ditekian betiko zoriona mundu guziari erakusteko karguarekin Apostoluak gelditu ziran. Apostolu oiek, bada, orañago esan dan bezala, Espiritu Santuaren zai edo ustean Jerusalemene zeuden. Bitartean zekusten, Judas saltzalea urkatuta, onen aulkia utsik zegoala; eta emen eseri zedin, artu zuten amabigarren Apostolu bat aututzeko asmoa. Onetarako San Pedro, guzien buru bezala, eunda ogeiren bat lagun elkarrekin zeudela, guzien aurrean jaiki zitzaizen eta esan zien txit konbeni zala, Jesusekin asieratik atzeneraño ibilli izan ziran ikasleetatik bat aututzea, Judasen aulkian eseri zedin, eta zorigaiztoko ark galdutako Apostolutza artu zezan. San Pedoren iritzia guziak ontzat artu zuten, eta bereala bi izentatu zituzten, Jose Barnabas, izengoitiz Justua zeritzana, eta Matias, biak gizon zuzen eta Jainkoaren bildur andikoak. Gero Jainkoari eskatu zioten, guzien biotzak ezagutzen dituenak bezala, iragarri zizaiela bi aietatik zein aututzen zuen Judasen lekuan esertzeko. Eskari onen ondoren txotx egin zuten, eta Matiasi erori zitzaion; eta arteraño ikasle baizik etzana, ordutik Apostolutzat artu zuten, eta Apostoluen amabiko kopurua osotu zan. Eta dira: San Pedro, San Juan, Santiago, San Andres, San Felipe, Santo Tomas, San Bartolome, San Mateo, Santiago gaztea, San Simon, San Judas Tadeo eta San Matias.

### 2. Espiritu Santuaren etorrera

Israeldarrak beste jai-egunen artean txit ardura andiarekin gordetzen zuten, Pazkoatik berrogeita amargarren egunean, Jainkoak Sinaiko mendian bere legea erakutsi zieneko oroipenean egiten zan Pentekostesko



pesta. Jesus Zerura igo zanetik amargarren egunean Maria guziz santa, Apostoluak, ikasleak eta len esan diran emakumeak prestatu ziran jai-egun au al zan ondoena gordetzeko; eta nork bere aldetik Jainkoari erre-gutzen eta bear ziran beste gauzak egiten ziardutela, goizeko bederatzie-tan aditu zan aize-bolada baten antzeko ots bat-batetako bat, zeuden etxe guzia mugitzen zuena. Ots onen ondoren bereala airean agertu ziran suzko mingañ-antz batzuek eta bakoitzari berea, gañean guziaz jarri zitzairen. Orduan guziak Espiritu Santuz bete ziran, eta onek erakusten ziren neurrian, itzkuntza askotan itzegiteari eman zitzaizkian.

Egun aietan Jerusalem arkitzen ziran, pesta au egitera eguzkiak argi egiten duen leku guzietatik etorritako Abrahamen ondorengo gizon on asko. Baita ezin esan adiña jentill pesta ikustera bildu ziranak ere, zein-tzuetatik askok Moisesen legea artu izan zuten. Len aitatu dan Zeruko otsa Jerusalem guzian adituta, jende guzia inguratu zitzairen, eta arriturik geratu ziran, nork bere itzkuntzan aditzen zitelako; eta elkarrizkiotsaten: Au zer da? Itzegiten diguten oiek guziak Galileakoak ez dira? Nola, bada, guziok, nork bere jaiotzako itzkuntzan aditzen diegu? An arkitzen ziran partook, medoak eta elamitak, Mesopotamian eta Kapadozian, Ponton eta Asian, Frigian eta Panfilian, Egipton eta Libiako bazterretan bizi ziranak, Erromatik joanak, judu eta proselitoak, kretes eta Arabiakoak, eta guziak, nori bere itzkuntzan esaten bazitzaizkian bezala, Jainkoaren mirariak aditzen ziezteen; eta guziak arritzen ziran, esanaz: Onek zer esan nai du? Baña ala ere, baziran batzuek burlaz esaten zutenak, ardoz beteak zeudela.

Eskriba eta fariseoak beren setan gogor zeuden. Len esaten zuten, Jesusek mirariak deabruaren eskuz egiten zituela; eta orain, berriz, dakus-tenean Apostoluak onela itzegiten, diote eskubide au ardoak ematen diela. Itsumenaren negargarria! Baziekiten Abrahamen humeak, oraziora-ko ordu jakin bat arteraño, baraua austen etzutela, eta ala ere, beren begia-kin zekuskizaten mirariak ukatzen zituzten, edo gaiztoago dana, edanari egozten ziozkaten.

### 3. San Pedrok lenengo sermoiarekin iru milla gizon Jesusentzat irabazten ditu

San Pedrok etzuen isillik utzi nai izan gaizkiesale aien erausi txar au, eta beste Apostolu eta ikasleak inguruan zituela, zutik jarrita, jende guzia-ri itzegin zion, esanaz: Judeako gizonak, eta zuek Jerusalem bizi zerate-nok, kontuz aditu zadazute esatera noakizuedana. Nere lagun oiek ordi-tuak ez daude, ez, zuek uste dezuten bezala: oraindik bederatziaik dira, eta ezer artu ez dute. Zuek ikusi eta aditzen dezuten au Joel Profetak anziña-tik esana da. Gero esan zien Jesus, ainbeste mirari eginaz aien artean ibi-lli eta atzenean gurutziltzatu eta il zutena, illen artetik biztu zala. Au an ziran guziak ziekitelak, beren begiak ikusi zutelako. Jesus au zala egiazko Mesias, profetak adierazoa, eta aiek itxedoten zutena. Oiek eta onelako beste gauza asko San Pedrok esanak aditu zituztenean, Jesusgan sinistu zuten, eta lenengo itzaldi edo sermoi onekin San Pedrok iru milla lagun irabazi zituen, eta bereala bataiatu ziran, eta bizitza on eta Jainkoaren txit bildur andikoari ekin zioten.

### 4. San Pedrok jaiotzatik elbarri bat sendatzen du

San Pedrok lenengo sermoi onekin bere egitekoari ain asiera ona emanda gero, Eskritura Santak aitatzen digun lenengo miraria, erren baten sendatzea izan zan. Jaiotzatik oñak elbarriak zituen erren bat, Eli-zako ate ederra zeritzan batean, bestek ipiñita egoten zan, Elizara zijoan jendeari amoina edo limosna eskatzen. Juduen oiturari zerraizkiola, Jesu-sen Apostoluak eta ikasleak ordu jakiñetan Elizara igotzen ziran, otoitz-aldia egitera. Bein batean San Pedro eta San Juan arratsaldeko iruetan bazijoazen, eta gizon elbarriak ikusi zituenean Elizan sartzen, besteai bezala limosna eskatu zien. Pedro Juanekin batean begira jarri zitzaion, eta esan zion: Begira zaguzu. Elbarria begira-begira jarri zitzairen, zerbait emango ziotelakoan. Pedrok esan zion: Urre eta zillarrik ez daukat; baña dedana ematen dizut: Jesu Kristo Nazaretekoaren izenean altxa zaite, eta



zabilza. Eta eskuiko eskutik artuta, jaikitzen lagundu zion. Ordu bere-berean orgatillak eta oñazpiak sendotu zitzaiozkan, eta salto bat eginda zutik jarri zan, eta ibilliari eman zitzaion, eta aiekin batean Jauna alabatuaz Elizan sartu zan. Elbarri onek berrogeita geiago urte zituen, eta Eliz-atarian eskean ainbeste aldiz ikusi izan zutelako, guziak ezagutzen zuten, eta orain sendatuta bere ongillearen eskutik zekusatenean, jendetza andia inguratu zitzaion.

## 5. San Pedrok bigarren sermoiarekin bost milla gizon irabazten ditu

San Pedrok ainbeste jende bere aurrean ikusi zuenean, etzuen ain era ona itzegiteko galdu nai izan, eta esan zien: Israelko semeak, zerk orrela arritzen zaituzte? eta zergatik zuen begiak gugan daukazute, guk gure eskuz edo poderez gizon au ibillierazo bagendu bezala? Abraham, Isaak eta Jakobon Jainkoak glorifikatu du bere Seme Jesus, zuek bere etsaien eskuetan ipiñi eta Pilatoren aurrean ukatu zendutena, eta onek libratu bear zala esan arren, zuek nai izan etzendutena. Zuek, bada, Santua utzita, gizon-iltzalle bat eskatu zenduten. Zuek il zenduten biziaren Egille au, Jainkoak illen artetik biztu zuen: onen lekuko edo testigu gu gerok gera, eta onen izenean, zuek elbarri ezagutu dezuten gizon onen oñak sendotu dira, eta zuen aurrean sendatu da. Jainkoak bere profetaen bitartez esana zeukan Jesu Kristo ilko zala; ala gertatu da. Orain bada, gaizki egiñaren damua ar ezazute, eta ondu zaitezte, zuen bekatuak barkatuak izan dakizkitzuten. San Pedro gisa onetan itzegiten luzaro aritu zitzaion, eta gizon utsak, emakume eta aurrak gabe, bost milla Jesusentzat irabazi zituen, eta bataiatu ziran.

Jesusen biztutzearen gañean Apostoluak ain argiro itzegiten zuela eta ainbeste jende beretzen ikusita, Elizako kargudun eta apaizak, illen biztutzea sinistu nai etzuten saduzeo batzuekin batean aztoratu ziran, eta iskanbilla andia sortu zuten. Illunabarra zan, eta auzi-legea asteko lekuri etzutelako, jendea sakabanatu eta bi Apostoluak itxian sartu zituzten, biamonean Anas, onen sui Kaifas eta gañerakoak batzarrean bildu, eta zer egin bear zitzaion erabakitzeke asmoan. Biamonean goiz batzarre

guziaren aurrera Apostoluak eraman zituzten, eta galdetu zieten ea noren eskuz edo izenean erren elbarri hura sendatu zuten. San Pedrok Espiritu Santuz beterik esan zien, aiek gurutziltzatu zuten eta Jainkoak illen artetik biztu zuen Jesu Kristoren izenean eta eskubidearekin an zekusatengizon hura sendatua izan zala. Jesus au zala, aiek utzi bazuten ere, salbazioko zimenduaren arria, eta beste izenik zerupean etzala zeñaren bidez gizonak Zerua iritsi dezakean.

Batzarreko jaunak baziekiten, eskolatu gabeko gizon ezjakiñak ziralala; baita egun gitxiz lenago zein argaltasun eta bildur andia erakutsi zuten, beren Maisuari aldegiteraño; eta orain zekuskizatenean alako jakinduriarekin eta ain irmotasun biziarekin itzegiten, arritu ziran. Begietan zeukaten zein eskualdi andikoak ziralala esaten zien maki sendatua, eta zer egin ezin asmatuz ziardutela, batzarretik atera zituzten, eta berak gelditu ziran gai onetan itzegiten. Zer egingo degu? elkarri ziotsaten. Ezin ukatu ditek mirari andi bat egin dutela: Jerusalem guziak badaki; baña errian geiagobarreatu ez dedin, agindu dizaiegun Jesu Kristoren izenean ez iñori berriz itzegiteko. Batzarrera berriz eraman zituzten, eta debekatu zitzaion Jesusen izenean berriz itzegitea eta erakustea. Baña Apostoluak erantzun zieten, esanaz: Zuek zerok esazute, bidezago dan zuei aditza, Jaunari baño: bada, gu ezin gaudezke ikusia eta aditua esan gabe. Berriz ere lena bera agindu zitzaion, eta bialdu zituzten gaitzik egin gabe, makiaren sendatzea ikusita Jauna alabatzen zuen jendearen bildurrez.

Apostoluak, batzarretik irtenda, beren lagunetara joan ziran, eta zer gertatu zitzaion esan zieten. Guziak Jaunari eskerrak ematen jarri ziran; eta etsirik, batzarreak orduan ezer egin izan ez arren, luzaro pakean utziko etziela, Jaunari eskatu zioten bere izen santua erakustera zijozzen oiei mirariak egiteko eskubidea emateko; eta eskari onetan ari ziralala, Jainkoak adierazo zuen aditu ziela. Zeuden etxea ikaratu zan, eta etxeko guziak Espiritu Santuaren doaiez bete ziran.

## 6. Lenengo kristauen biziera eta lurreko gauzaen utzimena

Geroz Apostoluak txit irmotasun biziarekin erakusten zuten Jesus illen artetik biztu zala, eta onen lege santa zabaltzen zijozzen, esanak egin



miragarrizkoakin egiztatzen zituztela. Jesus Jainkotzat askok aitortzen zuten, eta kristaututzen ziran, eta bizitza on eta txit jainkozkoari ematen zitzaiozkan. Lenbiziko kristau zorioneko aiek biotzak Zeruronz jaso, eta lurreko atsegin guziak ezeretzat zeuzkaten. Oien gogoak etziran betetzen agindua egin utsarekin; onena zala zeritzatena egiten zuten. Beren ondatsun guziak Apostoluen eskuetan ipintzen zituzten, eta oiek persona bearren artean zabaldu eta guzien ez-izanak estaltzen zituzten, eta zure eta nere gabe bizitzen ziran, Jesusen ez-izan edo pobrezari zerraizkiola. Batzuek onela ikusten ziranean, besteak ere artzen zuten dana utzi eta Jesusgana jartzeko gogoa. Oien artean lenengo mallan ipintzea merezi duena, Jose zeritzan Txipreko bat izan zan. Jose onek, zeñari Apostoluak Bernabe izena eman zioten, lur-erlo andi bat zuen, eta salduta, onekin artutako dirua Apostolui eraman zien, beartsuetan zabaldu zezaten, eta bera ezer ere gabe uts-utsik gelditu zan. Eliz-gizon bekenkoa edo lebita zan, eta Apostoluak laguntzat artu zuten, eta Apostolu deitzen ere zaio.

## 7. Ananias eta Safiraren kastigua

Onen ondoren, Eskritura Santak beste bat aitutzen digu, ez ordea ain oso bere gauzai utzi naiekoa. Ananias zeritzan batek, bere emaztearekin elkar artuta, soro bat saldu zuen, Bernabek bezala, dirua Apostolui emateko asmoan. Baña, zer egin zuen? Deabruari leku eman zion; eta zati bat gordeta, bestea Apostolui eraman zien, guzia zeramalako irudian. Espiritu Santuak argituta, San Pedrok jakin zuen, eta Ananias esan zion: Zertako Satanasi leku eman diozu, dirua gordeta, Espiritu Santuari gezurra sartzeko? Zer bada? Soroa saltzen ez bazenduen, zurea etzan? Eta saltzen bazenduen, dirua ere zurea etzan? Esaten bazion bezala: Nork beartu zaitu soroa saltzera eta onen dirua iñori ematera? Iñork ez. Zertako, bada, zati bat gordeta, munduaren begietan guzi-guzia eman-irudia egin nai izan dezu? Ori Jesusen serbitzari oso batentzat ez da. Gero esan zion ez gizonai, ezpada Jainkoari gezurra sartu nai izan ziola. San Pedrok au esaten ziarduela, Ananias erori eta bereala il zan. Begira zeudenak ikaratu ziran, eta gazte batzuek gorputz-illa jasota eraman zuten, eta lurra eman zioten. Andik iru bat ordura Safira emaztea agertu zan, senarrari gertatu zitzaionaren berri gabe, eta San Pedrok galdetu zion: Emakumea, esan

zadazu: soroa onenbestean saldu dezute? Bai, Safirak erantzun zion: nere senarrak zuri eman dizunagatik saldu degu. San Pedrok esan zion: Zergatik elkar artu dezute Jaunaren Espirituari gezurra esateko? Ara or atean, zure senarra lurpetu dutenen oñak, eta zu ere eramango zaituenak. Safira bereala erori, eta il zan. Gazteak sartu ziran, eta ikusi zutenean illa zetza artu eta eraman zuten, senarraren ondoan lurpetzera.

Bi kastigu gogor oiek bereala barreatu ziran, eta guziak izu-ikara andiak artu zituen. Oiezaz gañera asko ziran Apostoluak egiten zituzten gauza arrigarriak, batez ere San Pedrok, zeña nondik nora zebillen jakinda, eri eta gaxoak oietan ipiñita kaleetara zeramazkiten, aren itzalak ukitu zizaien eta gaitz guzietatik sendatu zitezten. Bazter-errietatik ere jendea eri eta gaizkiñak zeuzkatenakin Jerusalemara samaldaka zijoan, Apostoluak ikusi ezkerro sendatuko zituzten uste oso-osoan, eta nai guzia iristen zuten.

## 8. Apostoluak itxian sartzen dituzte, eta Aingeruak ateratzen ditu

Mirari oiek ikusita, Jerusalem guzia laster kristautuko zan, baldin buru egiten zutenak besterik izan balira; baña Jainkoaren bildur gabeko gizonak ziran, eta jendearen aldaketa on au eraman ezinda, artu zuten Apostolui galerazotzeko asmoa. Onetarako Apostolui bein batean eskuak ezarri ziezteen eta itxian sartu zituzten, biaramonean auzi-legea egiteko, baña Jaunaren Aingeruak gauzez atek idiki, eta esan zien Elizara joan eta salbazioko bidea erriari erakusteko. Aingeruaren esan onekin Apostoluak goizean Elizara joan ziran, eta erakusten ziarduten. Bitarte onetan batzarrea bildu zan, eta Apostoluak itxian zeuzkatelakoan morroiak eske bialdu zituzten; baña bereala itzuli ziran, esanaz presondegiko atek itxiak eta kontuartzalleak atean arkitu zituztela; baña iñor barrunen ikusi etzutela. Batzarreko jaunak albista onekin elkarri begira jarri ziran, zer gertatu ote zan ezin pensatuz. Onela luzaro egonkizunik etzuten izan, bada berriemalle bat joan zitzaien esatera, aurreko egunean itxian ipiñitako gizonak jendeari erakusten Elizan ziardutela.





Orduan buru-aurkiak Elizara joanda, batzarrera berakin batean eraman zituzten begiramen guzian eta bear etzanik bidean egin gabe, egiten zituzten mirariakin biotzak irabazi ziozkaten jendeari bildur zitzaiozkalako. Batzarrean sartu ziranean apaiz nagusiak esan zien: Agindu giñizuten orren izenean ez erakusteko, eta zuek gure esana ezertan artu gabe, Jerusalem guzia zeron erakutsiakin bete dezute; eta gizon orren odola guri egotzi nai diguzute. San Pedrok bere lagun guzien izenean, aurrekoan bezala, erantzun zien gizonak esana baño Jainkoarena lenago zala: Jesus, aiek gurutziltzatua, Jainkoak biztu zuela, eta onen izenean baizik bekatuena barkazio eta salbaziorik etzegoala. Itz oiek aditu ziozkatenean, aserretuta, ortzakin karraska-otsak egiten zituztela jarri ziran, eta iltzeko gogoak ere ematen zien. Baña batzarreko bat Gamaliel zeritzana, gizon aditua eta errian txit asko zezakeana, fariseoa bazan ere, jaiki zan, eta Apostoluak gelatik aterata, batzarrekoai gizon zintzo eta argiari dagokion eran itzezin, eta atzenean esan zien: Zertako orrela nekatzen zerate? Baldin gizon oriek darabilten lana gizonena bada, berez eroriko da; baño Jainkoarena bada, alperrik gogor egingo diezute. Eta zuen egin-al guziakin mundu guziaren aurrean zerok Jainkoaren etsai agertzea baizik egingo ez dezute, eta, zer gauza ikaragarriagorik au baño? Gamalielen esanai ondo iritzi zieten; baño Apostoluakganako gorrotoa osotoro utzi etzuten, iltzeko zerabilten asmotik atzeratu baziran ere.

Batzarrera berriz eramanda, guzien aurrean lotsa geiagorako, azoteak eman ziezteen, eta Jesusen izenean ez berriz itzegiteko aginduta, bildu zituzten. Batzarrekoak, iñolaz ere, uste zuten ain azote farragarriak artutako gizonak etzerala benturatuko lege berri bat erakustera eta, artaratzen baziran ere, aditzalle eta ikaslerik etzutela izango; baño utsegin zuten.

Apostoluak batzarre-gelatik txit poz andiarekin irten ziran, Jesusen izenean eta Jesusgatik zerbait eramateko zoriona izan zutelako. Apostolu guziak ikasleekin bildu ziran, eta atseden ere gabe zebilzan, bein Elizan, bein etxeetan, Jaunaren legea erakusten, eta Ebanjelioa zabaltzen. Batzarrean egin nai izan zitzaien azotezko isekak etzien beren ikasleetatik bat bakarra ere kendu, eta ez atzeratu; egunetik egunera are geiago zerraizkion; eta ikusirik amabi Apostoluentzako adiña baño lan geiago sortzen zitzaizela, egiteko batzuetarako lagun jakiñak aututzeko asmoak artu zituzten.

## 9. Zazpi diakonoen aukera

Jesu Kristo Zerura igo zanetik seiren bat illabetean Apostoluak berak, ongilleak ematen ziezteen gauzak, kristau beartsuen artean zabaltzen zituzten; baño kristauak askotu ziranean, neke egiten zitzaien guziaz berdin eta bear bezala begiratzea, Apostolutzako beren lan andienai utzi gabe. Bitartean hebrearren eta greziarren artean despita bat sortu zan. Greziakoak esaten zuten, oien emakume alargun beartsuak etzerala ain ondo begiratuak eta lagunduak nola Hebreakoena; eta beti gaizki-esaka erausian ziarduten. Despita oni asieratik zañak ebakitzeko, Apostoluak ikasle guziak batera bildu zituzten, eta esan zieten autu zitzaizela beren arteko zazpi gizon birtutetsuenak, Espiritu Santuz beteak eta jakintsuenak, artu-eman oien kontua izan zezaten, berak otoitzari eta predikuari heteroago eta arazo gitxiagorekin emateko. Apostoluen esana guziaz ondo erori zitzaie, eta bereala autu zituzten Esteban, gizon fede andikoa eta Espiritu Santuz bete, Felipe, Prokoro, Nikanor, Timon, Parmenas eta Nikolas Antiokiatic joan berria. Apostoluak otoitz eginda, eskuak ipiñi ziezteen, eta diakono egin edo Ebanjelioz ordendu zituzten.

Langille berri oiekin Jesu Kristoren ikasleak eta jarraitzaileak egunetik egunera ugaritzen ziran, batez ere Jerusalemenean, eta besteen artean Aaronen jatorriko apaizak ere, Moisesen legea utzita, Jesusena artzen zuten. Baña zazpi langille berrietatik geiena bere jakinduri, itzegiteko argiarekin eta mirarietarako eskualdiakgatik agertzen zana San Esteban zan. Onen izena eta lanak barreatu ziran. Sinagogako jakintsu-usteko batzuek jaiki zitzaiozkan, berarekin eleatu eta kontra egitera; baño ezer egin ezin zuten, eta laster isiltzen zituen. San Estebanen egin-al guzia zan erakustea Jesu Kristo Jainko egiatzkoa dala; eta emendik oña arturik, abiatu ziran San Esteban iltzeko asmoan. Lekuko edo testigu gezurti batzuek irabazi zituzten, esan zezaten Jainkoaren eta Moisesen kontra blasfematzen aditu ziotela. Eskuak bereala ezarri ziozkaten, eta batzarrera eramanda, esan zioten zer gauzak egozten zitzaiozkan. Andizki eta jende asko bildu ziran, zer erantzuten zuen edo bere burua nola garbitzen ote zuen ikusi naiez. San Estebanek bazekusan galdu nai zutela, eta erioa gañean zuela; baño bere barrunari bazizekan Jesusen amorez eta Jesusen izenean zerbait igaro bearra zuelako pozez. Laster ezagutu zan Jainkoak begiratzen ziola; bada, arpegia ain ederra eta argia bat-batetan jarri zitzaion, non begira zeudenak uste izan zuten aingeruren bat zekusatela.



Orduan apaiz nagusiak galdetu zion ea ezarri zioten gaiaren gañean ezer esan bearrrik zuen.

gorputz-illa isillik artuta, Jerusalemik zazpi orduko bidean zeukan sororan, obi berri batean ipiñi zuen, non Gamaliel bera, bere seme Abibon eta Nikodemo, Jesus gurutzetik jatsi zuenarekin batean geroago lurpetua izan zan.

## 10. San Estebanen eriotza

San Esteban, Espiritu Santuaren argiz beterik, asi zitzaien itzegiten. Esan zien, aien lenagokoai, Abrahamgandik asita, Jainkoak zer mesedeak egin ziezten eta Jainkoarekin zer erantzupide izan zuten; Jainkoak esanak artu bearrean, zer egin izan zioten; eta atzenean esan zien: Zuek, gizon burugogordunak eta biotz gaiztoak, Espiritu Santuari beti gogor egiten diozute, zuen asabak egin izan zioten bezala. Zein profetari zuen asabak bizia barkatu zioten? Aiek Kristoren berri-emalleak il zituzten, eta zuek Kristo bera il dezute. Au aditu zutenean aserre bizian sartu eta ortzakin karraska-oska jarri ziran. San Estebanek laster igerri zien zer egitera zijozkion, baña zetorkion il bearrak etzuen atzeratzen, eta ditxarik andienekotzat zeukan Jesusgatik bizia galtzea, lenbaitlen Zeruan elkar ikusteko. Eresi onekin begiak zeruronz jasota, esan zuen: Ara non dakuskidan zeruak zabal-zabalik, eta gizonaren Semea Jainkoaren eskuian zutik. Juduak ez geiago aditzeagatik belarriak estali zituzten; iskanbilla andi batekin gañean ezarri zitzaiozkan, eta gogortasun guziarekin Jerusalemik aterata, arrika eraso zioten. Lekuko edo testiguak ziran kastiguera au ematen oituraz lenbiziko asitzen ziranak, eta arazo gitxiagorekin egin zezaten, beren kapak Saulo zeritzan gazte baten oñetan ipiñi zituzten. Gorputz guzia laster mallatu eta urratu zioten; odol guzia arri-zuloetatik bazerion; eta bere buruari igerri zionean indarrak aitu zitzaiozkala eta iltzera zijoala, esan zuen: Ene Jaun Jesus, nere espiritua ar ezazu. Jesus bere Maisuak, iltzalleakgatik Aita Jainkoari gurutzean esandako itzak, arria arriaren urrena zetorkion estuenean ere, gogoan zeuzkan, eta atzeneko asnasaetan belauniko jarrita, begiak zeruronz zituela, deadar egin zuen: Jauna, bekatu au aintzat artu ez dizaiezula, arren. Eta itz oiek esan orduko, il zan.

Jesusen etsaiak bildur andia ematen bazuten ere, aren izenean ezer egiten zutenentzat, Jerusalemen arkitu ziran gizon on eta Jainkoaren bildurrekoak, etorkizun guziak aztuta, San Esteban lenengo martiri onen gorputz-illa artu, garbi-garbi egin eta okenduz ondo igortzita, negar min eta progu andiarekin lurpetu zutenak. Urreneko arratsean Gamalielek



## AMABIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Elizaren esetsia edo persekuzioa

San Estebanen eriotzarekin Elizaren nekeak asi ziran. Arteraño Jerusalemenez aterako leku guzietan kristauak eramankizun andi gabe pake onean bizi ziran. Jerusalemene ere, Apostolui bein azoteak eman baziezen ere, Jesusen izena ez berriz aitatzeko agindu utsarekin, geiago gabe, utzi zituzten, eta Jesusen etsaiak zerbait gogoan iduki arren, etziran txit agertzen; eta Apostoluak ere Jesusen legea, isill edo agiri, erakusten ziar-duten. Baña San Estebani bizia kentzera bein jarri ziranean, estalki guziak bota zituzten eta argiro asi ziran kristauaren zantzuko guzia galdu naiez, eta Jerusalemene irazekitako sua inguruetara zabaldu zan.

Apostoluak, ikusirik kristauak zein irrisku andian arkitzen ziran ain gozoz artutako Jesusen legea galtzeko, egin-al guzian nekatzen ziran sendotzeko, ezeri ere barkatu gabe. Esetsi edo persekuziorik gogorrena nola Jerusalemene jaiki zan, pensatu zuten, asi-berri artan berak emen egotea onena zala, guziaz arpegi emateko; eta beren lekuan arestian aitatu diran langille berri San Esteban zanaren sei lagunak eta beste asko Judea guzira eta inguruetara zabaldu zituzten, eta oiek beren erakutsi eta bizitza onarekin, eta egiten zituzten mirariakin lenak bizkortu, eta asko berri kristaututzen zituzten.

Felipe, langille oietatik bat, Samariako alderdira joan eta Ebanjelioa erakusten baziardun, bere esanai mirari askorekin lagunduaz. Samariako uri Siken-en bizi zan Simon zeritzan bat, bere sorgintza eta gezurrakin jende guzia beretu zuena, eta gizon anditzat zeukatena; eta «Jainkoaren bertutea» deitzen ziotena. Sikendarrak orain Feliperi aditutakoarekin Jesusgan sinistu zuten, eta gizon-emakumeak eta zar-gazteak bataiatu ziran; atzenik Simon berak ere Feliperen esanai ezin arpegi eman izan zien, eta bataiatu zan.

### 2. San Pedro eta San Juanen joanera Samariara

Felipek diakono utsa zalako, beste sakramentuak ezin eman zitza-kean, eta bataiatu berri aiei eman naiez, batez ere Konfirmazioko Sakramentua, zeñaren bitartez kristauai Espiritu Santua eta onekin mirariak egiteko eskua zetorkien, Jerusalemenera Apostolui gaztigatu zien Samariak Jainkoaren esana artu zuela eta on izango zala Apostolu batzuek joan, eta Sakramentu sendogarri au ematea. San Pedro bera, eta San Juan bere lagun kutuna joan ziran, eta eskuak gañean ipiñita, andi-txiki guziak konfirmatu zituzten.

Simon, arestian aitatuak, ikusirik Apostoluak eskuak ipintzearekin Espiritu Santua zetorrela, eskatu zien ari ere eskubide hura eman zizaio-tela zerbait diruren truke. San Pedro aserretu zitzaion, eta esan zion: Zure dirua zure galmen izan bedi, Jainkoaren doaia diru-truke ematen dala uste izan dezulako. Gero iragarri zion zein barru galdukoa eta biotz gaiztokoa zan, eta bere gaizki-egiñaz damutu zedilla, eta Jaunari barkazio eskatzeko. Simonek baiezeko itza eman zion; baña, inolaz ere, bere gaizakerian il zan, bere utsegiteak ezagututa, Jaunaren bidean jarri gabe. Simon onegandik dator *Simonia* deritzan eta Elizak ain zorrotz debekatzen duen lurreko gauzakatik animakoen salmenta. Hereje guzietan lenengoa Simon au bera da.

Samariarrai Konfirmazioko Sakramentua emanda, bi Apostoluak Jerusalemenera itzuli ziran, Jesusen legetik ain urrutik zebilzan jende aiek Jesus Jainkotzat ezagutu zutelako txit poz andiarekin.

### 3. Etiopiarraren bataioa

Apostoluak aldegin zutenean bereala, aingeru bat Feliperi agertu zitzaion eta esan zion Jerusalemendik Gazaronzko bidean barrera eguerdi-aldean joan zedilla. Bidean jarri zan, eta bereala topatu zuen gizon bat, *Kandaze*-ren izenarekin emakumeak bakarrik agintzen zuten alderdi bateko erregiñaren ministro eta ondasun guzien kontuartzallea. Etiopiar au noizbait jentilla izan bazan ere, ordurako Moisesen legea artua zan; bera-



gatik Jerusalemgo Elizan Jainkoa adoratzeko izanda, etxerantz bere gurdian eserita zijoan, Eskritura Santa irakurtzen. Felipe, Jainkoak ala iragarrita, gurdira alderatu zitzaion, eta ezaguturik Isaiasen liburua irakurtzen zuela, esan zion: Igerritzen diozu irakurtzen dezun orri? Etiopiarrak umiltasun guziarekin erantzun zion: Nik nola igerrri dizaioket, norak erakutsi ez badet? Gero esan zion, gurdian sartu eta aren ondoan esertzeko. Irakurtzen zuen Eskritura Santak au zion: Ardia bezala, il-tokira eraman zuten; eta bildots bat motxallearen aurrean bezala, isillik egon zan, itzik ere atera gabe. Etiopiarrak Feliperi galdetu zion ea Isaiasek hura zeñgati zion: bere buruagatik edo besteren batgatik? Felipek, emendik ari artuta, esan zion profeta aren esana nola bete zan Jesus Nazaretekoaren eriotzan, zeñaren berri, uste zuen, etiopiarrak berak Jerusalemegondako eguntan izango zuela. Gero erakutsi ziozkan Ebanjelioari dagozkion gauzak, eta zer egin bear dan betiko bizitza iristeko. Itzketa onetan zijoazela urondo batera eldu ziran, eta etiopiarrak Feliperi esan zion: Ara ura emen, zerk eragozten du ni bataiatzea? Baldin biotz-biotzetik sinisten badezu, Felipek esan zion, bataiatua izan zaitezke. Etiopiarrak erantzun zion: Sinisten det Jesu Kristo Jainkoaren Semea dala. Orduan gurdia geldierazo zuen, biak urera jatsi ziran, eta Felipek bataiatu zuen. Uretik igo ziranean, Espiritu Santuak Felipe artu zuen, eta etiopiarrak berriz ikusi etzuen. Gurdian sartuta, bere bideari jarraitu zitzaion poz andian eta artu zuen Jesusen Ebanjelioa bere alderdian erakusteko eresi biziarekin. Felipek bere burua Azoto filistindarren urian arkitu zuen, eta emendik asita inguruetako erri guzietan erakusten ibilli zan, Zesareako bere errira joan zan arteraño.

#### 4. Saulo kristauen etsaia

Jerusalendik zerbait urrutian zeuden alderdietan kristauak, oraindik ere, pakean eta neke andi gabe bizi ziran, eta Jerusalendik zabalduetako langilleak Ebanjelioaren aziak sosegu guziarekin erein eta aboztu onak iristen zituzten; ez ordea Jerusalemegondako kristauen odola txirrian zijoan, eta martiri askok zerua irabazten zuten. Jesusen etsai odol-zaleak onean ezin eraman zituzten urrutietatik zetorzkien Jesusen aldeko berriak; eta

guzien artean gogortasunik andiena agertzen zuena, oraño aitatu dan Saulo zan.

Saulo, gazte bizi ezerk bildurtzen etzuen eta ezerगतik ere oña atzeratzen etziakiena; berez argia, iztun ederra, jakintsua, bere bizieran ezertan ere maixiatukizun gabea, Moisesen legean ondo ikasia, berak zintzo gorde eta besteai gorderagiteko txit kontu andikoa zan; beragatik bere erlejioko guziak txit asko nai zioten, eta bere esanera zeuzkan. Profetaen esanak ondo aratuak edo errejistratuak zituen, eta oietatik igerritzen zion Mesiasen etorrerak etzuela luzatuko; baña beste juduak bezala, lurreko erregeen antzeko anditasunean etorriko zalakoan zegoan; eta Jesusgan onelako aztarnarik nola etzuen ikusten, ezin sinistu zuen Mesias egiazkoa zala, eta ekin zion berri au ematen eta sinisten zuten guziaz gogor egin eta galdutzeari.

Sauloren gogoia asetzen etzan San Estebanen iltzallei lagundu izanarekin; ez Jerusalemegondako bizi ziran beste kristauak egin-al guzian nekatu eta penatzearekin: kanpokoai ere aier zitzaien; eta apaiz nagusiari eskatu ziozkan bear ziran baimen eta eskubideak, alderdi guzietara, batez ere Damaskora, joanda, arrapatzen zituen kristau guziak Jerusalemegondako eramateko. Apaiz nagusiak gauza gogokoagorik etzuen; eta Saulori argibide guziak eman ziozkan, ziona egiteko.

Saulo Jerusalemegondako aserre bizian irten zan, eta Damasko ondora eldu zanean, zeruko argi batek inguratua arkitu zan; eta lurrera erorita, ots bat aditu zuen esaten ziola: Saulo, Saulo, zertako jazartzen edo persegitzen nazu? Saulok bereala esan zion: Nor zaitut, Jauna? Ni naiz Jesus, ain aier zu zatzaiona, Jesusek erantzun zion; zuretzat akullua ostikatzea gogorra da. Saulo txit larritu zan, eta galdetu zion: Zer nai dezu, bada, nik egin dezadan? Urira zoaz, Jaunak esan zion, eta an esango zatzu zer egin. Sauloren lagunak arri egiñik zeuden, otsa aditu, bai, eta iñor etzekustelako.

#### 5. Sauloren ondutzea eta lenengo lanak

Saulo jaiki zan, eta begiak zabaldua, ezer ikusten etzuen. Orduan lagunak, eskutik artuta, Damaskora sartu zuten. Iru egunean egon zan ezer ikusi, jan eta edan gabe. Bitarte guzia igaro zuen Jaunari erregetzen,



bere gaiztakeriak ezagutzen, oien barkazioa Jaunari eskatzen, eta Jaunak aginduko zion guzia egiteko prestatzen. Denbora onetan Damaskon arkitzen zan Ananias zeritzan Jesusen ikasle bat, zeñari Jaunak agindu zion Saulogana joateko. Ananiasek baziakien Saulo kristauen zein etsai gogorra zan, eta uzkur zegoan; baña Jainkoak esan zionean Saulo jentillai eta erregeai bere izena eramateko autu zuen bat zala, agindua egitera jarri zan. Iru egunen buruan Saulori ere iruditu zitzaion Ananias zeritzan bat zijoakiola, eta eskuak gañean ipintzen ziozkala. Esan eta egin: Ananias, Jaunak esan bezala joanda, Sauloren etxean sartu zan, eta eskuak gañean ipiñita, esan zion: Saulo anaia, onara zenekarren bidean agertu zitatzun Jaun Jesusek bialdu nau, zure begiak argitu ditezen, eta Espiritu Santuz bete zaitez. Au esan orduko, Sauloren begietatik ezkamaren antzeko zerbaitzuek erori ziran, begiak argitu zitzaiozkan; jaiki zan, eta bereala bataiatua izan zan. Zerbait janda bizkortu zan, eta ondorengo egun batzuek Jesusen ikasleakin Damaskon egin zituen. Ananias, Jaunak agindua zintzo eginda, etxera itzuli zan, eta Saulo gelditu zan Jaunari eskerrak eta eskerrak ematen, gorputzeko argiarekin batean animan ere argitu zuelako.

Saulok bere burua kristautua ikusi zuenean, Ebanjelioa egin-al guzian, ezeri ere barkatu gabe, erakusteko asmoa artu zuen. Bereala asi zan Damaskoko sinagoga edo juduen elizaetan predikatzen Jesus Jainkoaren Semea zala. Aditzen zioten guziak arriturik, esaten zuten ea hura etzan Jesusen izena erakusten zutenak galdutzen Jerusalem zebillena, eta Damaskora ere emengoak ara eramateko apaiz nagusiaren eskubide guziakin etorri zana. Oiek zenbat geiago esan eta arrituagotu, Saulok anbat biziago erakusten zuen, Jesus zala Mesias egiazko Jainkoaren Eskeñia.

Damaskoko juduak onean ezin eraman izan zuten, orañago beretakoia zan gizon argi onek Jesusen alde ala itzegitea; eta dudatzaka Saulo iltzeko asmoa artuko zuten, benik-bein Damaskotik joan zan Arabiara, Ebanjelioaren berririk arteraño zabaldu etzan alderdira. Emen iru urte igarota, Damaskora itzuli zan, damaskoarrak utzi zituenean baño samurragoak eta Ebanjelioa artzeko prestatuagoak arkituko zituelakoan; baña bere usteak uts irten zitzaiozkan. Juduak ezaguturik Saulo bezain gizon argiaren esanak zein itzal andikoak ziran, batzarrea eginda agindu zuten il zedilla. Damaskoko eraentzalle edo gobernadoreagandik bereala iritsi zuten uriko atecetan kontuartzalleak ipintzea, isillik iges egin etzezan. Saulok ibilli oien berriak artu zituen. Urian ziran Jesusen ikasle andientsuakin

gai onetan itzezin zuen, eta uri-bazterreko etxe batera joanda, saski batean leiotik lurrera gauzez jatsi zuten, eta galdu nai zutenen eskuetatik iges egin zuen.

Saulok eta San Pedrok elkar oraindik ezagutzen etzuten, eta Jesusen ordeko oni zor zion begirunea erakusteko, eta ezagutzeko zeukan eresia-rekin, Damaskotik aldegin da Jerusalem joan zan. San Pedrori bereala aurkeztu zitzaion; Jainkoak egin ziozkan mesede andien eta bere ibilli guzien berri eman zion, eta San Pedrok aita on bati dagokion begibitar-tearekin artu zuen. Emen etzuen San Pedro eta Santiago gaztea beste Apostolurik ikusi, gañerakoak ordurako, noski, Judeara zabalduak zirala-ko, Ebanjelioa erakustera. Jerusalem amabost egun bakarrak egin zituen; bitartean ala jentillai nola juduai Jesusen gañean itzegiten zien, lenagoko bere utsegiteen orde; eta atzenerako juduak, arpegi ezin ematik, iltzeko asmoa artu zuten.

Saulo bere biziaren gora-beeragatik Jerusalem egongo zan, Ebanjelioa geiago eta geiago erakusten, baña jentillen Apostolutzarako Jainkoak autua zan, eta adierazo zion, galdu nai zutenetatik aldegin zezala. Adiskideak igerriziotenean bazijoakiela, Zesarearaño lagundu zioten, eta Tarsora bialdu zuten, bere aide, adiskide eta ezagunen babesean juduen aierkuntetik obeto gorde zedin.

## 6. Ebanjelioaren aurrerapenak

Bitartean Ebanjelioak Judean, Galilean eta Samarian irabazi andiak ateratzen zituen, eta kristauak pake onean bizi ziran. Au gogoan zeukala, San Pedrok esetsi edo persekuzioa, surik bizienean zirauenean Jerusalem-dik aldegin ez bazuen ere, orain zerbait itzaltzera egin zanean, artu zuen alderdi aietan jira bat emateko asmoa. Jerusalem-dik irtenda, Judea, Galilea eta Samariako erririk andienak ikusi zituen, Jesusen Ordeko lurrean eta guzien aita zan aldetik erakutsi onak ematen ziezuela; eta atzenean joan zan Lida zeritzan urira. Emen baziardun, aspertu ere gabe, guziai Jesusen legea erakusten; eta eri oatuta zeudenak ere San Pedroren itz onak aditu gabe gelditu etzitezen, etxez etxe zeramatzen, eriak ere, besteak bezala, poz au izan zezaten. Lanbide on onetan zebillen bein batean joan zan, zortzi



urte gorputz erdi-illarekin oian zeramazkien gizon Eneas zeritzanaren etxera; eta esan zion: Eneas, Jaun Jesu Kristok sendatzen zaitu; jaiki zaite, eta zere oia tolestatu ezazu. Eneas jaiki zan eta oia tolestatu zuen, ikusi zezaten egiaz sendatu zala. Ezin sendatu zitekean eritzat zortzi urte aietan zeukatenaren bat-batetako sendatze au zabaldu zan uri eta Saronako ballera guzian, eta danak kristau egin ziran.

## 7. San Pedrok Tabita biztutzen du

Mirari andi onen otsa iritsi zan Lidatik bi orduko bidera zegoan Jope zeritzan uri larri batera ere. Jopen zan emakume alargun bat, Tabita zeritzana, Jesusen ikasle txit ona, bertutetsua eta persona bearrari on egiten beti ziarduena, eta pobre guziak amatzat begirutzen ziotena. Tabita il zan, bere mesedetu guziak negarrez utzita. Atzeneko progurik andienarekin lurpetzeko gorputza garbituta, okenduz ondo igortzi zuten eta gela eder batean ipiñi zuten, eta bere on-egindako asko inguruan jarri zitzaiozkan.

Joeko kristauak jakin zutenean San Pedrok Lidako etiarekin zer egin zuen, bi mandatari bialdu ziozkaten, esatera Jopera, arren, berebereal joan zekiela. San Pedrok gaztigu au artu zuenean bereala, zertako zan esan ez bazioten ere, bideari ekin zion. Gelan sartu zan, eta arkitu zuen andre-alargun samalda andi bat, Tabita zanak egin izan ziezten soñekoak negar-malkoz bustitzen zituztela. San Pedrori, ikusi orduko, asi zitzaiozkan erreguka, arren, aien guzian ongille andi hura biztu zezala. San Pedrok guziak gelatik kanpora bialdu zituen, eta bera bakar-bakarra gelan geldituta, gorputz-illaren ondoan belaunikatu zan, eta Jainkoari otoitz-aldia eginda gero, Tabita zanari begira jarri zitzaion, eta esan zion: Tabita, jaiki zaite. Begiak bereala zabaldu zituen eta, San Pedro ikusita, eseri zan. San Pedrok eskua eman zion, eta jaiki zan. Gero Jesusen ikasle eta andre negartiai otseginda, Tabita biztua eta sendatua eman zien. Biztutze miragarritzko au Jope guzian barreatu zan, eta gitxi batzuek ez besteak Jesusgan sinistu zuten, eta kristau egin ziran. Poz onekin ondorengo egunetan San Pedro Jopen egon zan, Simon zeritzan larru-ontzalle edo kurtidore baten etxera biltzen zala.

## 8. Kornelio eta bereen bataioa

Joeko kristau berriak kontu artzen San Pedrok, iñori utzi gabe, berez ziar dun bitartean, Zesareako urian are ots andiagoko langai bat Jainkoak prestatzen zion. Uri onetan zegoan *Italiako lejioa* esaten zitzaion soldadu-samalda baten buru egiten zuen Kornelio zeritzana (edo eun soldaduzko konpañia baten kapitana). Kornelio txit ona eta Jainkoaren bildur andikoa zan, eta etxeok ere berebat ziran. Persona bear asko estaltzen zituen, eta otoitz-aldi luzeetan egoten zan. Bein batean arratsaldeko iruen aldean iruditu zitzaion aingeru batek itzegiten ziola, esanaz: Kornelio, zure otoitz eta limosnak Jainkoaren aurrera igo dira. Mandatariak Jopera bialdu itzatzu, eta Simon larru-ontzallearen etxean bizi dan Pedro, era berean Simon deritzanari gaztigatu zaiozu zugana etortzeko. Berak esango dizu zer egin. Aingerua ezkutatu zitzaionean, Korneliok Jainkoaren bildurreko bi morroi eta soldadu bat Jopera bialdu zituen. Biaramonean Jopera ozta urreratu ziran denboran, San Pedro amabien inguruan etxeok ganbarara igo zan otoitz egitera. Gosetu zan, eta zerbait jateko asmoa artu zuen. Jana maneatzen ari ziran bitartean, korde gabe jarri zan, eta onela zegoala iruditu zitzaion ikusten zuela Zerua idikia, eta zapi bat lau ertzetatik lotuta ontzi baten gisan Zerutik lurrera zetorrela. Ontzi onetan zetozen lurrean dabilzan lau oñeko bizidun guziak eta aireko egaztiak; eta aditu zuen ots bat ziona: Jaiki zaite, Pedro, il eta jan ezazu. Pedrok erantzun zuen: Ez nik orrelakorik, Jauna, bada gauza loirik egundaño jan ez det. Berriz ere otsegin zitzaion, esanaz: Jainkoak garbituari ez zuk loia esan. Itz oiek iru aldiz aditu zituen; eta atzenean zapizko ontzia Zerura itzuli zan. San Pedro kordera zan, eta irudipen onek zer esan nai ote zuen ezin igerriz ziarduela, Korneliok bialdutako iru gizonak atean otsegin zuten, galdez Simon, Pedro zeritzana, an bizi ote zan. Jainkoak San Pedrori biotzera esan zion nola zijozkion, eta gizonai bidera irtenda, esan zien aiek billatzen zutena huraxe zala, ea zer nai zuten. Erantzun zioten, Kornelio gizon on eta Jainkoaren bildurreko eta juduen artean izen andikoari Aingeruak agindu ziola, hura bere etxera eramateko eta zer esaten zion aditzeko.

San Pedrok ostatuz bere etxean artu zituen, eta biaramonean Zesarearonz abiatu zan, iru mandatariak eta Jesusen ikasle batzuek lagun zitue-



la. Bigarren egunean eldu ziran Zesareara, non Korneliok bere aide eta adiskideakin itxedoten zion. San Pedro etxeko ateetara zanean, Kornelio aurreratu zan, eta oñetan auzpezturik, agur egin zion. San Pedrok esan zion: Jaiki zaite; bada, ni ere gizona naiz. Eta biak sartu ziran aide eta adiskideak zeuden gelan. Guziak San Pedrori aditzeko eresi andiarekin arkitzen ziran, eta Apostoluak au ezagututa, bereala asi zitzairen Jesu Kristoren gañean itzegiten: erakutsi ziezten Ebanjelioari dagozkion gauza andiak, eta bere itzaldiari oraindik buru eman baño lenago, Espiritu Santua, guziak zekustela, aditzalle guzietara jatsi zan, eta asi ziran itzkuntza askotan itzegiten eta Jaunaren berri andiak ematen. Au ikusita, Jopetik berekin eramandako lagunak arritu ziran, ez anbat berai, judu kristautuak izanik, etorri zitzaielako, zenbat Kornelio eta onen aide eta adiskide jentill ziranai: bada, uste izaten zuten jentillak Jesu Kristoren Elizan sarrerarik etzutela edo, benik-bein, Moisesen legea lenago aitortu bear zutela, eta gero Jesusenean sartu. Baña San Pedrok, Jesu Kristoren ordekoak bezala, erakutsi zien Jesusek beregana edozein artzen duela, naiz judua izan, naiz jentilla, bada Jaunarentzat guziak berdiñak dirala. Eta Jopeko bere lagunai agindu zien, Kornelio eta gañerakoak bataiatzeko. Kristau berri oiek San Pedrori eskatu zioten egun batzuek aiekin egin zitzaela, eta poz au eman zien; baña luzaro egon gabe, bere egitekoak beste lekuetara deitzen ziotelako, Zesareatik irten zan.

Zesareakoakikoa eginda, San Pedro Jopen artutako lagunakin Jerusalemeneron abiatu zan. Alderatu baño lenago, beste Apostoluak eta judu kristautuak jakin zuten jentillak ere Jainkoaren itza artu zutela; eta Jerusalemeneron sartu orduko eraso zioten, ea zertako jentillakin bat egin zan, oien etxean sartuaz eta oiekin janaz. San Pedrok esan zien Aingeruarekin zer gertatu zitzaion eta, onen esanera Zesareara joanda, itzegiten ari zitzaie, nola Espiritu Santua argiro jatsi zan; eta atzenean bizi-bizi esan zien, ea hura nor zan Jainkoari neurriak artzeko edo lan au eragozteko. Guziak isildu ziran, itzik ere geiago trukatu gabe; eta Jauna alabatzen zuten, esanaz: Beraz, Jainkoak guri bezala jentillai ere eman die Jesu Kristogan sinistea, penitentzia egitea, bataiatzea eta betiko bizitza irabaztea. Onenbestez zapaldu zan jentillen deiaren gañean sortutako despita guzia.

## AMAIRUGARREN IRAKURGAIA

### 1. Ebanjelioaren irabaziak Antiokian

San Esteban ilda ondoren kristauen kontra sortu zan gerra eta esetsi gogorragatik, or-emen zabalduetako Jesusen ikasle txipre eta zirinear batzuek Antiokiara joan ziran, eta aditu zutenean Kornelio bere aide eta adiskideakin Zesarean bataiatua izan zala, eta nola San Pedrok erabaki zuen jentillak ere kristautzara artu zitezkeala, Ebanjelioa erakusteari eman zitzaiozkan, ez bakarrik juduai, batzuek lenago egin izan zuten bezala, baita jentillai ere, endamas juduakin ezer aurreratu ezin zala zekustenean, eta asko ipintzen zituzten bataiatzera; bada, uriko buruak ere gogorrik egiten etzuten, ikusirik lanik gitxiena ematen zutenak eta oitura zuzenetaoak kristauak zirala.

Antiokiako berriak Jerusalemeneron San Pedrok laster izan zituen, eta pensatu zuen aibeste jendeko uri batek bere ardura eta ajola guzia eskatzen ziola. Beste Apostolu eta ikasle bikañtsuakin gai onetan itzezin zuen, eta erabaki zan San Bernabe Antiokiara bialtzeko, ango eginkizunen buruan jarri zedin eta obispotzako lanak egin zitzaion; bada, beste lenagoko erakusleak oraindik obispo etziran.

Aukera obeagorik ezin zitekean. Animaen artzai bati dagozkion doai on guzietakoa zan, eta berez Txiprekoa izanik, Antiokiako itzkuntzan txit trebatua eta argia. Sartu zaneko, bere erri Txipreko eta Zirineko erakusle aiekin itzezin zuen; eta gauzak nola zeuden jakindun bereala egin zan; eta obispo etor-berriak eta lenagoko erakusleak elkar artuta, ezin esan adiña persona Jesusgana ipiñi eta bataiatu zituzten, alako moduan non, urte bete igaro orduko pensatu zuen lagun baten bearrean arkitzen zala; eta anziñako adiskide Saulori begiak bereala ezarri ziozkan. Saulok bere erri Tarson ziardun Ebanjelioa erriko eta inguruetako juduai erakusten. San Bernabe Tarsora joan zitzaion, eta elkarrekin itzeginda, Antiokiara biak itzuli ziran.



Saulok arteraño etzien juduai baizik Ebanjelioa erakusten; baña bein San Pedrok erabaki zuen ezkerro jentillak ere, juduak bezala, artu bear zirala eta bataiatu, asi zan jentillai ere erakusten, eta bi Apostoluak Antioikian urte beteanean zuten lanarekin ainbeste lagun, batez ere jentilletatik beretu zituzten, non Jesusen jarraitzaileak *kristauak* deitzen, lenbizi emen asi ziran. Antiokiaren izena urrutietara zabaldu zan, eta alde guzietatik jendeak zijoazen ango kristauak ikustera.

Oien artean Agabo zeritzan bat ere joan zan. Agabo au profeta zan, eta Jainkoak ala argituta, esan zuen mundu guzia gosete izugarri batek artu bearra zala. Berri onekin Antiokiako kristauak ain jainkozkoak eta ongilleak batetik, eta ondasunez ere beste zenbat lekutan baño obeto bizi ziranak, bestetik, izanik, erabaki zuten nork bere al zezakeanarekin Judeako anaiari laguntzeko. Oietatik geienak persona bearrak ziran, dala beren izan guziak Apostolui eman ziezteelako, dala San Esteban ilda ondorengo esetsi gogorrean guzia galdu zutelako. Apostoluak, beren kontura kristau ongilleak utzitako ondasunakin esturasun jakiniak estaltzen zituzten; baña goseteak zekarzkienetaraño iritsiko etziran bildurrak eman zien: argatik antiokiarrak aitatu dan lanbide artara aurreratu ziran. Zerbait ondo bildu zanean, Jerusalemgo eta inguruetakoko diakono eta zarrari Saulo eta San Bernaberekin bialdu ziezteen, gosetea zetorreanean beartsuak estali zituzten.

## 2. Santiago zarrenaren eriotza

Bi Apostolu oiek Judean egiteko onetan erriz erri zebilzan denboran Herodes Agripa Galileako erregea, Jesusen jaiotzan aurrak ilerazo zituen Erodesen billoba edo semearen semea, Jerusalemgo Pazkoa aurrean joan zan, gosetea asi baño lenago, Jesusen jaiotzatik berrogeita irugarren urte inguruan. Herodesek Galileako kristauai etzien gaitz andirrik egiten, eta epel-epelian, ezer ez baziran bezala, begiratzen zien, bururik oiekgatik asko berotu gabe. Baña sinagogako jaunak kristauetara gorroto bizian zeuden, batez ere Apostoluetara, eta pensatu zuten Herodesen etorrerak era ona ematen ziela, ain aier zitzaietenak ondartzeko. Herodesi bereala itzegin zioten, esanaz txit konbeni zitzaiola kristau guziak galdutzea; bada, lanbide onekin juduen gogoak beretuko zituela, eta erromarren aldetik

esturasunik iñoiz bazetorkion, berak lagunduko ziotela. Herodesi, gizon bat edo geiago odol otzean ilerazo arren ezer etzitzaion, eta jarri zan juduak eskatzen ziotena egiteko. Ez dakigu denbora onetan Jerusalemgo zenbat Apostolu arkitzen ziran. Guziak batean irteten etziran, eta guziak elkarrekin egon ere ez; baña gitxienaz San Pedro bera, Santiago zarrena, onen anaia San Juan eta Santiago gaztea Pazkoako egun oietan emen zeuden. Herodesek lau oiekin nai guzia egin zezakean, naiz guziak batean, naiz banaka illaz: eta inolaz ere banaka iltzeko asmoarekin, Santiago zarrena artu zuten, eta ordu gitxiko auzi-lege bat eginda lepoa ebaki zioten, eta Jesusgatik bere bizia Apostolu guzietan lenengo galdu zuena au izan zan. Martiri andi onen gorputz-buruak bilduta, kristauak progua andiarekin lur eman zioten.

## 3. Santiago zarrena Española etorri zalako berriak

San Estebanen eriotzatik Santiagorenera bitartean Jesu Kristoren Apostolu eta ikasle andienak mundu guzian zabaldu ziran, Ebanjelioa erakustera: eta Eskritura Santak esaten ez badigu ere, jakintsu geienen iritziari, eta ezin ukatu ditekeana da, Santiago zarren au gure Española etorri zala, eta Ebanjelioaren lenbiziko berriak Apostolu onek gure asabai erein ziezteela. Alderdi au guzia ibillita gero, Jerusalemgo itzuli zan, zazpi ikasle Torkuato, Tesifonte, Segundo, Indalezio, Zezilio, Hesikio eta Efrasio berekin zituela, zeñak Apostoluak obispo eginda, berriz Española bialdu zituzten, Santiagok asitako lanari kontu artu eta aurreratzera. Zazpi ikasle oiek berekin ekarri zuten beren maisu Santiagoren gorputz-illa, eta urte askoan ezkutuan egonda, gaur arkitzen da Santiago deritzan Galiziariko uri batean. Españarrak beren bitarteko edo patroitzat anziña-anziñatik dute, eta txit jaiera edo debozio andia diote, promesean bide luzeetan agur egitera joaten zaiozkala.





## 4. San Pedro itxian sartua eta Aingeruak libratua

Herodesek ikusirik Santiago il izanarekin juduai zer poza eman zien, San Pedro ere iltzeko asmoa artu zuen. Kristau guzien buru au galdu ezkeru, uste zuen juduak edozeñ esturasunetan bere alde izango zituela. Pazkoa bereala asten zan, eta geroko utzi gabe, eskuak ezarri ziozkaten eta itxian ipiñi zuten, Pazkoa ondoan bereala iltzeko. Amasei soldaduk kontu egiten zioten; oietatik bi albo bietan eta beste bi atean zituela, eta ordutik ordura aldatzen ziran, begietatik beñere kendu gabe. Au guzia gizon bakar bat gordetzeko asko ez bazan bezala, burnizko bi katerekin bi eskuak lotu ziozkaten; baña gizonen egin-al guziak Jainkoarentzat ezer etziran.

Kristauak jakin zutenean San Pedro itxian zeukatela bereala iltzeko, bildu ziran Jainkoari eskatzera, arren, bizirik gorde eta galdu nai zutenen mendetik atera zezala. Soldaduak kontu artzen bezala, kristauak ere txandaka otoitz egiten eta beren aita onagatik erregutzen ziarduten, ordurik ere utzi gabe. San Pedro ainbeste kontuartzalleren erdian arkitzen bazan ere, lo etzan zan, biotzeko lasatasun guziarekin, eta laster eman nai zioten eriotzaren kezka andi gabe. Onela zetzala, il asmo zuten bezpera arratsean aingeru bat itxian edo karzelan sartu zan, eta guzia argi-argi egin zuen. San Pedrori ondora joan zitzaion, eta saietsean jota esnatu zuen, esanaz: Azkar jaiki zaite. Eta eskuetako kateak erori zitzaiozkan. Gero esan zion: Gerrikoa lotu ezazu, eta abarkak janzi itzatzu. San Pedrok ala egin zuen. Berriz esan zion: Kaparekin estali zaite, eta darraidazu. San Pedro itxitik irtenda, Aingeruari ondoren bazijoakion; baña egiten zuena egiaz zanik ezagutu gabe; bada uste zuen irudipen uts bat zala. Lenengo eta bigarren kontuartzalleak edo guardiak igaro zituzten, eta Jerusalem sarreran zan burnizko atera urreratu ziranean, berez idiki zitzairen, eta emendik etxadi edo barrio batera joan ziran, eta Aingerua ezkutatu zitzaion. San Pedro orduan korderatu zan, eta esan zuen: Oraitxe dakit, bai, Jainkoak bere Aingerua bialdu didala, eta Herodesen eskutik eta juduen begitangotza guzietatik atera nauela.

San Pedro bereala joan zan Maria Kleofas zeritzan emakume alargun on baten etxera. Emakume au, Jesusek bere aurretik bere erakutsiak artzeko bideak prestazera bialdu zituen irurogeita amabi ikasle aietatik

Juan Markos zeritzan baten ama zan. Onen etxean, bada, kristau on asko bilduta zeuden, San Pedrogatik Jainkoari erregutzen, Apostoluak atea jo zienean. Roda zeritzan neskatxo bat atera jatsi zan, nor ote zan ikustera; eta ezagutu zuenean San Pedro zala, atea idikitzeko beta gabe, lasterka igo zitzairen, esanaz: Pedro atean dago, Pedro atean dago. Sinistu etzioten, esanaz burutik jauzi zala. Baña neskatxoaren leia ikusirik, esan zuten aren Aingerua izango zala. San Pedrok bitartean ate-joka ziardun, eta geroeanean atea idiki zioten; eta ikusi zutenean Pedro zala, aien biotzak zer poza eta atsegiña artu zuten ezin esan diteke.

Gertatu zitzaion guziaren berriak eman ziezten; atzenean esan zien, Jainkoak aditu zituela egin ziozkaten erreguak eta negarrak; eta errukiturik, aingeru baten bitartez esturasunetik atera eta bere seme maiteen erdian, zekusatzen bezala, ipiñi zuela. Agindu zien, Jerusalem zan Apostolu bakar Santiagori eta beste anaiari esateko zer gertatu zitzaion; eta bere gogoz jende on arekin egongo bazan ere, berriz atzitu etzezaten, egunsentia baño lenago aldegin zuen, eta Antiokiaronz abiatu zan. Kontu artzen zioten soldaduak ezertaz ere oartu etziran, eta biaramonean karzelan inñor gabe arkitu ziran. Zer egin ote zien edo zer gertatzen zan ezin igerriz aztoratuta zebilzala, artu zuten itxian zeukatelakoa urkamendira eramateko erregearen agindua; baña Herodesek jakin zuenean San Pedro gabe arkitzen zirala, zer-ikusí edo kulpa gabeak baziran ere, bere-bereala ilerazo zituen, eta juduai onela adierazo nai izan zien, aiek gogo zutena egiteko zer eresiarekin ibilli zan.

## 5. Herodes kastigatua

Asko luzatu baño lenago, gizaxo aiei egin ziena eta Apostoluari nai izan zionagatik Jainkoaren esku zorrotzak jo zuen. Tiro eta sidondarrakin aspaldian aserre bizian zebillen, eta debekatuta zeukan, bere mendetik bi uri aietara jan-gauzarik eramatea. Oiek ere estu ziran, zer-jana sortu ezin zutelako; eta errege Herodes zerbait urreratu zitzaienean, gogoak eman zien adiskidetzeko egin-alean saiatu bear zirala. Beste lan guzien aurretik, erregearen gela-zai Blasto irabazi zuten, beren esankizunak aditzeko adiña leku eman zizaien, eta iritsi zien. Herodes gauza guzietan txit arroa, eta bere burua inñor ez bezalako iztuntzat jotzen zuena zan: eta Tiro eta Sidon



inguru aietan bi erri aberatsenetako mandatariak zetozkionerako prestatu zan, errege bati zegokion janzi eta beste edergarri guziakin. Mandatariak jende askoren aurrean artu zituen, eta beren eskariak egin ziozkatenean, asi zitzaien itzegiten, eta aditzalleak esan zuten: Jainkoak itzegiten digu, eta ez gizonak. Herodes lenaz gañera, esan onekin arrotu zan; baña bere andiuste guzian zegoala, aingeru bat jatsi zitzaion, gorputza bat-batetan zauriz bete zion, oñaze min-miñak artu zuten; eta ar zikin nazkagarritz josita, lotsa gorrian esan zien: Ara emen zuen Jainkoa iltzen; eta egun gitxiren buruan il zan.

Herodesen eriotzarekin kristauen etsaiak zerbait oztu ziran, eta Jesu- sen Eliza asko zabaltzen zan, bada Apostoluak eta artarako ipiñitako lan- gilleak isildu gabe zebilzan Palestina guzian, batez ere Judean eta Jerusa- lenen bertan, non arteraño ainbeste esetsi eta neke eraman izan zuten; eta leku guzietan Jesuentzat irabazi andiak ateratzen zituzten: eta pake-aldi onetatik asita geroko ogeita lau bat urtean Palestina guzian zer esan bere- zirik etzan ikusi. Eta kristauak pake andian bizi izan ziran. Beragatik emengo berriak erabat utzita, Antiokiako Elizari eta jentillen Apostolu Saulori garraizkion.

## AMALAU GARREN IRAKURGAIA

### 1. Jentillai Ebanjelioa erakustera Saulo eta San Bernabe bialduak

Saulo eta San Bernabek Antiokiako kristauak, orañago esan dan bezala, Judeako beren kristaukideentzat oparo emandako limosnak zabal- du zituztenean, Antiokiara itzuli ziran, eta Ebanjelioa erakusten ziarduten, zeñak len eta gero ainbeste jende beretu zuten, ezen San Pedrok Elizaren asieran leku jakinik artu gabe, batera eta bestera, premiarik estuenak dei- tzen zion lekura ibilli bazan ere, Jesu Kristoren Ordeko edo Aita Santua- ren aulkia zazpi urtean emen iduki zuen, Jesusen jaiotzatik berrogeita iru- garren urtean gitxi-gorabeera mundu guziaren erri-buru zan Erromara aldatu zuen arteraño, non bizi izan zan, geroago esango dan bezala.

Bein batean, bada, obispo eta beste eliz-gizon asko elkarrekin Jain- koa serbitzen eta alabaten zeudela, Espiritu Santuak esan zien: Saulo eta Bernabe berezi edo apartatu itzatzute nik eman nai diedan lanerako. Bereala barautu eta otoitz eginda, eskuak ipiñi ziezteen, eta bialdu zituz- ten Espiritu Santuak zeramazkien lekura, Ebanjelioa jentillai erakustera. Egun au ezkerro Saulok buru egiten zuen, eta San Bernabe bigarrena zan. Lenengo Seleuziara joan ziran, Juan Markos berekin zutela; gero itsasoz Txipreko erri-buru Salaminara, eta emen asi ziran sinagoga edo juduen elizaetan predikatzen, eta oiek aditzen etzietenean, geienean gertatzen zitzaiena, jentillai itzegiten zieten. Salaminan aldi batean nekatuta, Pafos- era aldatu ziran.

### 2. Sergio Pabloren bataioa

Pafosen bizi zan Erromako prokonsul Sergio Pablo zeritzana. Berez gizon ona eta egia jakin naiekoa zan, eta Apostoluen berriak izan zituen



ezkero, beren aotik aditzeko eresi andiarekin bizi zan; baña bere zorigaitzean, etxean zeukan morroi bat, Elimas zeritzana, txit biurria eta deabruarekin elkartuta sorgintzan oi zebillena. Apostoluak Sergiok bere aurrera eraman, eta Jainkoaren gauzak erasaten ziezten; baña morroiak beti atzeratzen zuen, aietara jarri etzedin. Saulok orduan Elimasi aurkez aurke jarrita, esan zion: O gizon gezurtia eta dollorra! Deabruaren semea! Onaren etsaia! Jainkoaren bide zuzenai arazoak ipintzez aspertzen etzerana! Ara non Jainkoaren eskuak jotzen zaituen, eta aldi baterako itsutzen zeran. Elimas bat-batetan itsutu zan. Sergiok Jesusen legea osotoro artu zuen; bataiatu zan; eta geroztik Sauloren txit adiskide andia eta maitea izan zan. Batzuek diote, San Pablok Saulo bere lengo izena utzita, Pablarena artu zuela bataiatu zanean: baña jakintsu geienen iritzian, Elimasekin gertatutako mirari eta Sergioren aldaketa onetatik asi zan Pablo deitzen, erromarren itzkuntzari obeto zegokiolako, eta Eskritura Santak ere izen au lenbizi orain aitatzen du, eta onekin geroz deituko diogu.

### 3. San Pablo eta San Bernaberen ibilliak

Pafostik Panfiliako Perge-ra itsasoz joan ziran, Pafosen kristaututako asko berekin zituztela. Juan Markosek emen aldegin zien; bada arkitzen etzan, dirudienez, bear adiña biotz edo espiriturekin, aiek izango zituzten neke eta ibillikizunai arpegi emateko; eta bere ama Kleofasen ondora Jerusalemara bialdu zuten. Pergetik bideari jarraitu zioten Pisidiako Antiokiaraño. Emen juduak beren jai-egunean sinagogara biltzen ziran, eta oiekin batean Jainko egiazkoa aitortzen zuten jentill asko ere bai. Bi Apostoluak ere sartu ziran, eta sinagogako buru egiten zutenak beren liburu oituak irakurri zituztenean, San Pablori, gizon argi eta itzun ona igerrita, leku eman zioten, esanaz zerbait itzegin zizaiela. San Pablok isillik egoteko eskuarekin keñu eginda, jarri zitzaizen itzegiten, Jainkoak aien asaba eta gurasoai denbora guzietan egindako mesedeen gañean, nola beti begiratu izan zien bere Erri autuari bezala, eta atzenean bere Seme bakarra bialduta, artu nai izan ez ezen, gurutziltzatu eta il zuten. Baña berak irakurtzen zituzten profetak alde-aurrez esan bezala, biztu zala, eta onen lege Zerurako bide bakarra erakustera zijoazkiela. Geroe-

nean esan zien kontuz ibiltzeko, bada arteraño iñork ezer esan ez bazien ere, gaurgero aitzaki eta apukorik ezin ipiñiko zutela.

San Pabloren itzaldi au aditu zutenean buru-makurtuta zer pensatu andiak gogoan zituztela, etxeetara itzuli ziran, urrengo jaiean aditzeko asmoan, baldin berriz itzegin nai bazien. Apostolui ostaturaño askok lagundu zieten, ikasbide berriak aditzeagatik, eta Apostoluak ere egin-al guzia egiten zuten, erakusteko eta artzen zuten Jesusen legean irauteko. Urrerango jaiean uri guzia sinagogan bildu zan San Pablori aditzera; baña judu gogor buru egiten zutenak ainbeste jende ikusi zutenean, aserretu ziran, eta Apostolui gaizki-esaka eta añenekoakin eraso zieten. Orduan San Pablo eta San Bernabek esan zieten: Konbeni zan zuei lenengo Jainkoaren itza erakustea; baña ezertan artzen ez dezuten ezkero, jentilletara goaz, Jainkoaren aginduari garraizkiola. Aditzen zuten jentillak txit poztu ziran, eta Jainkoa askok bertatik aitortu eta alabatu zuten. Juduak, kontrara, aserre biziagoan sarturik, atsedean etzuten Apostoluak andik bialdu arteraño. Oiek ikusi zutenean zer iskanbilla jaso zan, oñetako autsak astindu, eta Ikoniora aldatu ziran.

Ikonion ere, Antiokian bezala, sinagogara joan ziran, eta Jesu Kristoren legea zerua irabazteko zein premiakoa eta bearra dan ain argi eta garbi erakutsi zuten, ezen judu eta jentill asko kristau egin ziran. Urte erdi bat eta geiagoan emen egon ziran; bitartean judu sinisgogorrek eragozpen andiak ipintzen ziezteen, nai zituzten guziak irabazteko; baña esanak mirariakin egiztatuta, arrigarrizko aldaketak egiten zituzten. Geroenerako Jesusen etsaia iskanbilla latz bat sortuta, arrika emateko asmoa artu zuten. Apostoluak igerrri zitetenean zer zerabilten, iges egin zuten, eta Listra eta Derbe-ra joan ziran. Emen ere beren betiko lanari ekin zioten, Ebanjelioa erakutsiaz eta mirariak egiñaz.

Listran zan gizon bat jaiotzatik elbarria, eta bein ere oñez ibilli etzana. Egun batean bere burua eraman-erazo zuen San Pablok predikuan ziardun tokira, eta eseri zan. Apostoluak ikusirik zein arduraz eta kontuz aditzen zuen, esan zion jaiki zedilla, eta zutik jartzeko. Elbarria bereala jaiki zan, eta ezagutu zanean oñez ibiltzeko adiña, pozez saltoka abiatu zan. Begira zeudenak arriturik, deadarka asi ziran, esanaz: Ez gizonak, ezpada gizonen janzian Jainkoak jatsi zazkigu. Eta San Bernaberi bere ederragatik Jupiter, eta San Pablori bere itzketa argiagatik Merkurio deitzen zieten. Jupiter jainko gezurrezkoaren apaiza Apostolui bereala joan zitzaizen zezen eta loreakin ofrendak egitera. Apostoluak, aien itsumen



negargarria ikusita, soñekoak urratu zituzten, eta jende artera sartuta, otsegiten zuten: Gizonak! Zer egiten dezute? Gu ere, zuek bezala, gizon ilkorrak gera, erakutsi nai dizutegunok, ez dala Jainko egiazko zeru-lurrak, eta itsasoa, eta oietan diran gauza guziak egin zituen bat bakarra baizik. Guzien Egille oni, bakar-bakarrik, ofrendak eta adorazioak zor zaiozka. Esan oiek eta onelako beste askorekin atzeratzen zituzten, Jainkotzat adoratu naiez zebilzkien ez-jakin itsu aiek; eta nekerik andiengan zebilzan uanean, irten-bide ustez-uste gabekoa sortu zitzaien.

Pisidiako Antiokian eta Ikonion jazarri edo persegitu zituzten juduak, aditu zutenean zenbat kristaututzen zituzten, Apostoluetarako gorrotoari zerraizkiola, Listrara joan ziran, eta adoratzeko utzi naiezko elean estuena ziarduten denboran, Antiokiakoak eta Ikonioakoak oska asi ziran, Pablo eta Bernabe deabruakin bat eginda engañatzen zebilzan gizon gezurti batzuek zirala, eta ikusi ziezteen mirariak ere gaizkiñen laguntzarekin egin zituztela. Listrarren biotzak esan oiekin alako moduan trukatu zituzten, non itzetik ortzera jarri ziran Jainkotzat zeuzkatenai arrika ematera. San Pablo bereala iltzat eman zuten, eta erritik kanpora aterata, bazter batean utzi zuten. Bere ikasleak etziztaiozkan aurretik kendu, eta igerrri ziotenean oraindik asnasa bazuela, berotuaz eta beste sendagariakin lagundu zioten zuzpertzten eta bizkortzen, eta errira isillik sartuta, biaramonean San Bernaberekin batean Derbes-era joan zan, non bereala asi zan berriz ere Ebanjelioa erakusten. Derbesdik Pergesera aldatu ziran; eta emen ere lagun asko kristautu zituzten: eta jira guziak eginda, bi urteren buruan itzuli ziran Siriako Antiokiara, nondik aitatzen gatozen misio au egitera irten izan ziran. Antiokiako apaiz eta beste kristau guziak batera bilduta, eman ziezteen urte bi aietan izandako gora-beera guzien berriak; eta antiokiarrak aditu zutenean zer irabazi andiak Jesusentzat atera zituzten, txit poz andia artu zuten; eta are andiangoarekin beren artean Apostolu on aiek luzaroago idukiko zituzten; baña Jerusalemenera joateko asmoa artu zuten. Ara zergatik.

#### 4. Zirkunzisia bearrekoa zan edo ezeko despita

Jesusen ikasle eta jarraitzaileen artean despita andi bat sortu zan, Moisesen legeak agintzen zuen zirkunzisiaoren gañean. Judu kristautuak

zioten, Jesusen legea artu nai zuten guziak, aurrena zirkunzidatu bear zirala eta Jerusalemendik Antiokiara joandako ikasle batzuek ere iritzi oni zerraizkiola, erakusten zuten jentil kristautuak ezin salbatu zitezkeala, Moisesen legeak agindua egin etzutelako. San Pablok, San Bernabek, eta oiekin beste askok kontrara zioten, zirkunzidatu bearrik etzutela. Batzuek eta besteak elkarrekin itzketa luzeak eginda, jarri ziran Jerusalemenera joan, eta emengo Apostolu eta ikasle bikañenakin ezda-baida au ikusteko eta erabakitzeke. Antiokiako jentil kristautuen aldetik bi Apostoluak joan ziran, Tito San Pablaren ikasle maitea irugarrena berekin zutela. Jerusalemenera bildu ziran San Pedro guzien burua, gertuena izaten ziran beste Apostoluak, apaizak, eta Jesu Kristo ezagutu zuten ikasle zarretatik ere asko. Elizaren lenbiziko batzarre edo konzilio onetan, nork bere iritzia, guziak eman zuten, beren alde arkitzen zituzten argibide eta sinisgarriekin. San Pablok esaten zuen, zirkunzidatu bearrik etzala zeraman iritziarekin utsegitera, Jainkoak etziola ainbeste mirari agirikorekin lagunduko, eta bere lanak ontzat emango. Guzien iritzia adituta, San Pedro Jesu Kristoren Ordeko eta Espiritu Santuaren argituari zegokion, norenari jarraitu bear zitzaion erabakitzea. Eta zutik jarrita, esan zien: «Anaiak, badakizute, Jainkoak antziñatik agindu zuela, jentillak nere aotik Ebanjelioa aditzeko eta sinisteko. Eta biotzak ikusten dituen Jainkoak au egiztatu du, Espiritu Santua, guri bezala, aiei ere emanaz: eta biotzak fedearen bitartez garbitu ezker, aiek eta gu berdinak gera. Zertako orain egotzi nai diezute gure gurasoak eta guk ezin eraman izan degun uztarria? Uste degu, bada, salbatuko gerala, aiek salbatu ziran bezala.» Aditzalle guziak isildu ziran; San Pedrok erabakia ontzat eman zuten, eta auzia bukatu zan. Bereala Judas eta Silas gizon elduenak autu zituzten Antiokiara bialtzeko, auzia erabaki zala esatera, eta erabaki au eskribuz ezarrita eman zitzaien.

Batzarrearen bi mandatarri oiek, San Pablo eta San Bernaberekin batean, Antiokiara joan ziran; eta ain ondore negargarriak izan zitzaiekan despita, guzien gogora zapaldu zalako berria zer poz eta atsegiñekin ango kristauak artu zuten esatea, erraz ez da. Egun asko elkarri erakusten eta poztutzen egin zituzten, eta gero Silas Antiokian geldituta, Judas Jerusalemenera itzuli zan.



## 5. San Pablo eta San Bernabe banakatzen dira

San Pablok eta San Bernabek beste lagun askorekin Antiokian baziarduten Ebanjelioa erakusten eta zabaltzen. Baña San Pablori gogoak eman zion, ordurako egin zituzten langilleak Antiokiako asko zirala pensatuta, lenago ibillitako tokietara joatea, artu izan zuten legean nola zirauten edo zenbat aurreratzen zuten ikustera. San Pablok bere lagun San Bernaberi eresi au agertu zion, eta San Bernabe ere artara jarri zan: baña gauza batean berdin etzetozen. San Bernabek berekin eramanez zuten Juan Markos bere lengusua; baña San Pablok erantzuten zion, hura eramatea ondo etzetorkiela; baziekiela, alabañan, nola Panfilian utzi zituen, eta amaren ondora Jerusalemenera joan zan. Lenagoko ibilli eta nekeai arpegi emateko gorputzik izan etzuela, eta orain ere lena izango zala. San Bernabek bere lengusuagan beste usterik zuen; eta bi Apostoluak jarri ziran, nor bere aldetik ibiltzera, edo obeto esateko, Jainkoaren eskua zebillen, despita onen bitartez bata batera eta bestea bestera joanda, Ebanjelioa geiago zabaldu zezaten. San Bernabe Juan Markosekin Txiprera joan zan, eta jende guzia Jesu Kristoren legera ipiñi zuen. Andik Italiara aldatu zan, non lan berean zerbait denboran jardun zuen, on andiak eginaz; eta gero bere erri Txiprera itzulita, berri-emalle edo historiadore askoren iritzian, Jesusen etsaiak sortutako iskanbilla batean arrika il zuten. Iltzalleak gorputz-illa erre nai izan zuten; baña Juan Markosekin urrengo arratsean isillik artuta, Jesu Kristoren martiri bati zegokion progurekin lurpetu zuen. Gero denboraren denbora gorputz-ill au, bere eskuz eskribatutako San Mateoren Ebanjelioa bularrean zuela, arkitua izan zan.

San Pablok laguntzat artu zuen Jerusalemetik Antiokiara joandako mandatari Silas arestian aitatu, zeñak, ordurako obispo bazan ere, San Pabloren agindura joatea ez egokitzen etzeukan. Biak, bada, Antiokiatik irtenda, Sirian eta Zilizian ibilli ziran, kristau berriak egiten eta lenak fedean sendotzen. Ikonio, Derbe eta Listra ere joan ziran, eta emen arkitu zuten Timoteo zeritzan kristau gazte bat aita jentillaren eta ama berez judua, baño bataiatuaren semea. Timoteo onegatik San Pablori txit berri onak eman ziozkaten, eta bertatik laguntzat artu zuten juduai Ebanjelioa erakusteko, lenago Tito jentillai erakusteko bezala. Bazter oietatik aldatu zan, Silas, Tito eta Timoteo zerrazkiola, Asia txikienera barrena Mazedoniara. Lukas bere aidea ere, askok diotenez, bidaje onetan batu

zitzaion; Eskritura Santak, beintzat, lenbizi orain aitatzen du San Pablori zebillela. Bitarte onetan, Filipon beste askoren artean kristau egitera ipiñi zuten Lidia zeritzan merkatari ots andiko bat.

## 6. San Pablo azotatzen dute

Beste batean Jainkoari otoitz egitera zijoazela, San Pablok ikusi zuten neskatz bat ondoren zerraikiena, esanaz: Gizon oiek salbazioko bidea erakusten diguten Jainkoaren serbitzariak dira. Neskatz onek ondorengo egunetan ere au bera egiten zuen; baña deabrua zan, errukarri aren barrunen sartuta, ala itzegiten zuena; eta neskatz gaxo aren izaerak biotza erdiratuta, Apostoluak deabruari Jesu Kristoren izenean agindu zion gorputz artatik irteteko, eta bereala iges egin zuen.

Neskatz onek deabrua berekin zuela, aztikeria eta sorgintza asko egiten zituen, eta bere nagusai irabazi andiak ematen ziezten, eta nagusai orain zekusatenean San Pablok deabrua kendu ezkeron irabazia ere galtzen zitzaizela, iskanbillatu ziran, eta San Pablo eta Silas atzitura, erriko buruetara eramanez zituzten, esanaz erria nastutzen zebilzan eta lege berriak ipiñi nai zituzten judu aztoratzalle batzuek zirala. Erriko buruak, erromarrak izanik, juduen izena aditu utsarekin aserretzen ziran, eta atzealdetik soñekoak urratuta ezurretaraño azotetz ebaki eta itxian sartu zituzten, eta amabiari agindu zioten kontu egiteko. Amabiak bereala barrunagoko ziega illun batean sartu, eta oñak zepoan zituztela ipiñi zituen.

Gauerdian San Pablo eta Silas otoitzean zeudela, lurrikara batek etxe guzia zimenduetaraño dardaratu zuen, ate guziak idiki ziran eta zepo guziak askatu zitzaizten. Amabiak au ikusita, iges egin ziotelakoan bere burua il naiez abiatu zan; baña San Pablok ots andi batekin esan zion etzezala alakorik egin, an zeudela. Amabiak, berera zanean, argia biztu zuen; itxi edo kartzela guziaz begiratu zien, eta danak an arkitu zituen: eta ezaguturik San Pablok eta Silasek beren otsakin gorde zutela bere burua galtzetik, oñetan auzpezez jarri zitzaizten, eta esan zien ea zer egin bear zuten salbatzeko. Erantzun zioten, Jesusgan sinisteko, eta bera eta etxe guziak salbatuko zirala. Azotek egindako zauriak amabiak bereala garbitu ziezten; eta bera eta etxe guziak bear ziran ikasikizunak San Pablo eta Silas-



gandik artuta bataiatuak izan ziran. Etxera eraman zituen eta jaten eman zien.

Biaramonean Erriko buruak amabiari gaztigatu zioten itxian zeuzkanai joaten uzteko. Albista au San Pablori eman zionean, Apostoluak erantzun zion: Zer? gu erromarrak izanik, arrotzak bagina bezala agiri-agirian azotatu eta itxian sartu gaituzte, eta orain gu isillik bialdu? Ez, berak betozkigu, eta berak atera gaitzate. Tarsoarrak noizbait egindako mesedeen batzuegatik, erromarren eskualdi guziak zituzten, eta San Pablo angoa zalako beartu nai izan zituen aitortzera, ari eta bere lagunari lotsa hura ematen zein gaizki egin zuten. Esan eta egin, ikuskizunen bat gero izan zezaten bildurrez, San Pablori joan zitzaiozkan eta eskatu zioten, arren, erritik irten zedilla. Itxitik irtenda, joan ziran Lidiaren etxera, non arkitzen ziran lagun guziak naigabe andiarekin, eta beren maisuari zer gertatuko ote zitzaion kezkatan; baña ikusi, eta nola ibilli ziran aditu zutenean, txit poztu ziran.

Filipon Lukas eta Tito inolaz ere utzita, San Pablo Silas eta Timoteorekin Tesalonikara joan zan. Emen ere sinagogan sartuta, egiten zituen predikuakin asko eta asko bereganatzen zituen, eta kristau egiten ziran, bai juduak eta bai jentillak. Baña San Pablok zenbat irabazi, judu sinistu nai etzutenak anbat gorroto geiago artzen zioten. Atzenean, jendearen artean iskanbilla andi bat jaso zuten, eta il naiez abiatu zitzaiozkan; baña Jason zeritzan ikasle baten etxean isillik gordeta, gero gauzez Berea-ra iges egin zuten. Tesalonikarrak jakin zutenean auzo-erri Berean zebilizala, joan ziran; jendea asaldatu zuten; baña San Pablok ordurako Berean ikasle maite asko egin zituen, eta oiek, itsas-ontzi batean artuta, isillik Atenasera eraman zuten, eta Silas eta Timoteo Berean gelditu ziran. Orain ez dakigu, edo ezertarako leku gabe bat-batetan irten zalako, edo aierrena Apostoluari zitzaiozkalako, edo beste zergatik San Pablo bakarria joan zan.

Atenasek denbora artan gizon jakintsu, eta gauza berriak eta ez-oiutuak aditu naieko asko zituen; baña ordu berean jaingo gezurrezkoetara txit etziñak ziran: bada, edozeñek bere gogokoen bat jainkotzat artu eta adoratu zezakean; beragatik Atenasen bakarrak jaingo geiago ezagutzen ziran, gañerako Grezia guzian baño. San Pablo ikusi zutenean, Jesus aientzat Jaingo berria, eta Jesusen Ebanjelioa berebat ez oitua erakusten, agertu zioten gauza oien gañean itzketa eta jardun-aldi batzuek elkarrekin egiteko eta eleatzeko eresia. Asi ziran, eta San Pablok, Espiritu Santuaren

eskolan ikasiak bezala, gauza guzietan bereala isiltzen zituen. Askok sinistu zioten eta kristautu ziran, zeñaen artean San Dionisio Areopagita eta Damaris emakume ots andikoa.

Atenastik Korintora joan zan. Emen ere arkitu zituen judu gogor galdu nai izan zutenak; baña bai jentill sotil, Jesusgana jarrita txit poz andia eman ziotenak ere. Antiokiatic irten zan ezkerro, Korinton bezain egonaldi luzerik beste erritan egin etzuen; bada urte bat eta erdian egon zan, Elizari hume on asko ematen ziozkala, eta oietatik bi, Akila eta bere emaztea, isillik utzi bear ez diranak.

Jesu Kristoren jaiotzatik berrogeita bederatzigarren urtea zan San Pablo Korintora joan zana. Klaudio Erromako enperadoreak urte onetan agindu zuen judu guziak Erromatik irteteko. Akila zeritzan bat Priszila bere emaztearekin arkitu zan Erroma utzi bearrean, eta Korinton sartu zan, San Pablo ere ara iritsitako egunetan. Ezaguerak bereala artu zituzten, eta adiskide egin ziran. San Pablok laster igerri zion zein biotz onekoa zan, eta bear ziran gauzak erakutsita, kristau egin zuen. Akilaren etxean ostatuz jarri zan, eta onekin batean soldaduentzat larruzko estalpeak egiten bere ogia irabazten zuen, iñor nekatu gabe bizitzeagatik. Jai-egunetan sinagogara joan, eta judu eta jentillai Jesu Kristoren gañean itzegiten zien; baña jentillak baño juduak beti gogoragoak arkitzen zituen, erakutsia sinisteko. Neke onetan ziarduela, Timoteo eta Silas Berean gelditu ziranak etorri zitzaiozkan, eta biotza txit zabaldu eta lasatu zitzaion; bai oiek bere ondoan ikustearekin, bai tesalonikarrak fedean zein sendo eta oituraetan zein kontuzkoak bizi ziran esan ziotelako.

## 7. Sinagogako buru Krisporen bataioa eta beste garaipenak

Bein batean, besteetan bezala sinagogara joan zan, eta Jesus Mesias egiazkoa zala juduai erakusten ari zala, ain sinisbide argiak eman ziezten, non zer erantzun etzutela ipiñi zituen; eta besterik eziñean, Jesu Kristoren kontra añenekoak botatzen edo blasfematzen asi ziran. Sinagogan ziran jentillak juduen esan oiekin gaiztorako biderik artu etzezaten, San Pablo guzien aurrean jaiki zan eta bere soñekoak astinduta, esan zien:



Zuen odola zuen gañ izan bedi, nik zer ikusirik ez det, eta jentilletara bertatik noa. Juduak, Jainkoaren mandatari onek egindako kiñadarekin, bate-re malmetituz etziran; eta Apostolua sinagogaren ondoan bizi zan Tito jentill on baten etxera bere-bereala ostatzuz aldatu zan, Akilarekin, jaiotzatik judua zalako, ez egoteagatik. Ala ere, sinagogako buru Krispok bere etxe-koakin sinistu zion; Titoren etxera guziak joan zitzaizkion, eta bataioa artu zuten. Oien ondoren beste asko ere Jesusgana jarri ziran, eta bataiatu zituzten. Irabazi andi oiek ikusita, San Pablori eman zion juduak aztoratuko ziran bildurrak, eta beste errietatik bezala iges egin bearra izango ote zuen kezka; baña bildur eta kezka oietan zebillela, Jainkoak ametsetan esan zion ez ikartzeko, isildu gabe itzegin zezala: Berak lagunduko ziola, eta inork gaitzik egingo etziola. Korinton bere aldeko jende asko zuela. Jainkoaren gaitzigu pozgarri onekin baziardun Ebanjelioa geiago eta geiago erakusten eta kristauak ugaritzen, Jainkoak beste asmorik artzen zuen bitartean. Geroenean irten-bearra etorri zitzaion, orain esatera goazenaren bidez.

Erromarrak Akaia guziko buru Galion egin zuten, eta Korintora bizitzez joan zanean bereala, juduak asi ziran San Pablo galtzeko bideak prestatzen. Eskuak ezarri ziozkaten, eta Galioni aurkeztu zioten esanaz gizon ark jendeai erakusten ziela, aien lege eta oiturak agintzen zuten ez beste era batean Jainkoa adoratzeko. San Pablo asi zan itzegiten; baña Galionek eragotzi zion, eta juduai esan zien, baldin gaitzakeria andi batekin joan bazitzaizkion, adituko ziela, agintean dagoanari dagokion eta bear duen bezala; baña espa guziak juduen lege eta gauzaen gañean ziran ezkerro, aien beren egitekoa zala, eta aien lanetan sartzera etzijoala; eta onen-bestez bere aurretik kendu zituen. Juduak etzuten alako erantzuerarik artu uste, eta su bizian sartu ziran; eta oni errekin geiago emateko, San Pablo ere triska edo bullizian ezkutatu zitzaion. San Pablori Galionen aurrera Sostenes berez judua baña Jesu Kristoren ikasle egiñak lagundu zion; eta Apostoluak iges egin zuela zekusatenean, Galionen beraren aurrean Sostenesi eraso zioten, eta kolpatu zuten. Gero aien eskuetatik nola ere bait aldegin, San Pablo topatu zuen, eta onen ibilli eta neke guzietan lagun izateko itza eman zion.

Egun batzuetan, isillik bedere, Korinton oraindik egon zan, eta ango kristau askok oñ onean irauteko gauza guziak zuzendutakoan, itsasoz Efesora joan zan, Akila eta Priszila berekin zituela. Efesoarrak luzaro iduki nai izan zuten; baña San Pablori erantzun zien, aldi artan ezin gelditu zitekeala, eta Akila eta Priszila bere ordeztu zitza, geroago itzultzeko

itzean, Asia txikieneron abiatu zan, len-lenago ibilli izan zituen errietan, eta kristautu zituenak ikusteko asmoarekin. Ikasbide berriak guziari eman ziezten, eta lenago artutako fedean sendotu zituen, eta Efesora itzuli zan.

San Pablo, orañago aitatu dan bezala, Efesotik irtenda laster, ara joan zan Apolo zeritzan alejandriar bat, jaiotzaz judua eta gero kristau egiña. Gizon argia, iztun ederra eta Eskritura Santaetan ondo ikasia izanaz gañera, Jesusen legea zabaltzeko txit eresi andikoa zan, eta juduakin ere elea latzak izaten zituen. Berezko gogo on oni zerraikiola, San Pablori bere lekuan utzitako Akila eta Priszilarekin elkartuta, Apostolua Efesora itzultzerako legean txit ondo trebatu asko zeuzkaten, eta San Pablo etorri zanean, bataiatuak izan ziran.

San Pablo Efeson iru urte urrean bizi izan zan, irten-aldiak auzoetara egiten zituela. Bitarte onetan jendearen arrigarrizko aldaketak egin zituen, eta ezin esan ditekete zenbat lagun kristautu ziran. Ain jakinduri andiarekin itzegiten zien, non bein aditzea asko zan, Ebanjelioa legea artzeko eta kristau egiteko. Esanai mirariakin laguntzen zien; bada berak erabilitako soñeko, zapi edo gerrikoarekin eriai ukitze utsaz gaitz guziak sendatzen ziran.

## 8. Judu konjuratzalleen kastigua

San Pablori lanbide onetan ziardun bitartean, juduak ere bazebilzan beren aldeko zerbait egin naiez, eta onek beronek San Pabloren itzari indar geiago eman zion. Zekusten, gaizkiñak zeuzkatenak San Pablori bazijoazkion, eta San Pablori Jesusen izenean agindu irteteko, bereala iges egiten zutela. Juduak ere bazituzten exorzistak edo gaizkiñak botatzen zituztelako egiten zebizanak; eta ikusirik San Pablori zer egiten zuen, oiek ere asi ziran Jesusen izenean agintzen irten zitezela. Eszeba apaiz-buruaren zazpi seme ziran egiteko onetan erriz erri ibiltzen ziranak. Bein batean gaizkindun bati beren itzketa-mordolloan asi zitzaizkion, eta ezer iristen etzutenean, Jesusen izenari otsegin zioten; baña gaizkiñak erantzun zien: Jesus ezagutzen dikat; Pablo nor dan bazekiat, baña, zuek zer zerate? Au esanda gaizkinduna itsasi zitzaion, eta ain abarrakituta utzi zituen, non larrugorrian eta zauriz beterik etxetik doi-doi irten ziran. Berria Efeso



guzian judu eta jentillen artean barreatu zan, eta guziak Jaunari bildur andia artu zioten, eta Jesusen Izen santua altxatu zan. Onen ondoren askok sinistu zuten, eta bataiatu ziran: eta bataioak arterañoeko bekatuak osotoro barkatzen baziezen ere, lotsa geiagorako San Pablori joan zitzaiozkan gaizki-egin guziak aitortzera, lenagokoen damu miñ-min eta berriz ez egiteko itzarekin, eta au biotz-biotzetik ziotela iragarritzeko, argibide ezin obeagoa eman zuten. Aietatik asko ziran liburu gaiztoetan ikasita sorgintzan zebilzanak, eta erri guziaren agirian eta begietan liburu danak erre zituzten. Zer ikasbide ederra lenbiziko kristau zorioneko aiek munduari eman zioten, eunda berrogei milla erreal balio zituzten liburu galgarri guziak ain oparo erretzearekin! Ai au ondorengoak egingo balute!

## 9. Demetrio zillargilleak Efeson sortutako iskanbilla

Efesoarren prestutasunak San Pablaren biotza zenbateraño zabaldu zuen, zer esanik ez da; baña atsekabez laster bete zitzaion. Asia guzian txit ots andikoa zan, Diana jainko gezurrezkoak Efeson zuen eliza, eta jendetza andiak urrutietatik zijozkion adoratzera, eta etxerakoan zeramazkiten zillarrez egindako elizatxo batzuek Dianaren irudia erdian zutenak. San Pablori asperzaka beti ziardun idolo edo jainko gezurrezko guzien kontra itzegiten, eta ezer utsak zirala erakusten: eta jendeak uzten zion zillarrezko eliza oiek erosteari, zerekin zillargilleai irabazia kentzen zitzairen. Demetrio zeritzan zillargille bat, langille asko artuta eliza oiek egiten aritzen zan, eta igerri zionean San Pablaren erakutsiak etziola bere irabazian onik egiten, langilleak bildu eta esan zien, baldin erakusle ari artan uzten bazitzaion, denbora gitxiren barruan etzuela aien eskuko lanik iñork erosiko, eta zer-jan gabe arkituko zirala; eta bere irabaziagatik zebil- lera uste izan etzezen, eta San Pablaren kontra geiago sututzeko, esan zien, Diana andiaren eliza iñork ezertan artu ez, eta laster lur-joko zuela. Demetriok opa zuen bezala, langilleak aserre bizian sartu ziran, eta zerasaten: Efesoko Diana andia! Efesoko Diana andia! Erri guzia aztoratu eta nastu zan.

Guziak bereala biltoki edo teatorra joan ziran, bidean topatu zituzten San Pablaren lagun Gaio eta Aristarko berekin zeramazkitela, iñolaz ere, maisuaren ordege erantzun zezaten. San Pablori jakin zuenean, joan nai izan zan; baña adiskideak utzi etzioten, naspilla artan zerbait egin zitzaizoten bildurrez. Jesusen Ebanjelioak bezala, Moisesen legeak ere Jainko bakarra besterik adoratzera debekatzen zuen; eta juduak larritu ziran, Dianaren aldekoak aien kontra aztoratuko ziralakoan, eta beren odoleko Alejandro iztun andia bialdu zuten, gai artan egitekorik izan etzutela esan eta sinisterazotzera; baña asaldatuak jakin zutenean hura ere judua zala, gogorrako zerasaten: Efesoko Diana andia! Efesoko Diana andia! Alejandrok ezer iritsi etzuen, eta ordu bian deadarka irauñ zuten. Geroenean, uriko sindiku prokuradorea sartu zitzairen, eta isilltzeko kiñua eginda esan zien paketu zitezela, iskanbilla geiago ipiñi gabe: ez gizon aiek zer ikusirik zutela, ez iñork Dianaren elizan bear etzanik egin zuela; eta Demetriok eta onen langilleak esankizunik bazuten, uriko kargudunak antxe zeudela eta batzarrean erabakiko zala. Itzketa onekin isildu ziran, eta nor bere aldera joan zan.

San Pablori ondo etzeritzan Efeson luzaroago egotea. Kristau asko baziran ere, bildur zan gaiztoak beste iskanbilla bertiren bat sortu zezaten: eta garagarillaren lenengo egunetan Pazkoa Espiritu Santuko inguruan Efesotik irtenda, joan zan Mazedonia, Tesalonika, Berea eta Filipoko Elizak ikustera, Lukas lau urtez lenago Filipon utzia bere lagun zuela; eta oietako kristauak arkitu zituen txit pake andian, eta lenago eman izan ziezten ikasbideetan txit sendoak eta Jainkoaren bildur andikoak; baita zuten guzia beartsuai emateko ere biotzik onenakin. San Pablori onelako prestamena ikusita, aurreratzen zituen obra on eta Jainkoaren ain gogokoa egitera, batez ere Jerusalem bizi ziran senide errukarriakin, bada oiek ez-izanik negargarrienean arkitzen ziran, non eta nola irabazi izan gabe, eta juduak egunetik egunera gogorrako eta eutsiago agertzen zitzaiztelako.





## AMABOSTGARREN IRAKURGAIA

### 1. San Pabloren joanera Jerusalemenera

Ibilli onetan sei illabete egin zituen, eta bildu zuenarekin Jerusalemengo anaia errukarriai laguntzen prestatu zan; baña etsaia ere lo etzetzan, eragozten ote zitzaion egin-alak egiteko. Eman ziozkaten limosna ugarien gañean iñork gaizpensatu etzezan, diruaren eramantzalle artu zituen Bereatik Sopatro, Tesalonikatik Aristarko eta Segundo, Derbetik Kaio eta Efesotik Tichiko eta Trofimo, guziak, nor bere erriak lanbide artarako autuak; eta Korinton elkarganatu ziran, emendik itsasoz irteteko asmoan. Juduak jakin zutenean nola San Pablo zijoan, eralle edo gizon-iltzalle batzuek ontzian sartu zituzten itsasoan iltzeko edo, au ezin bazan, San Pablo lurreratuko zan tokietara beste batzuek bialdu zituzten, atzitzen zuten lekuan il zezaten.

Zer zerabilten San Pablok igerra zien, eta lagunak aurrera ontzian bialduta, bera San Lukas adiskide maitea berekin zuela Mazedoniatik barrera abiatu zan, eta Filipora eldu zanean gelditu zan, Pazkoako sei egun emen egiteko. Gero itsasoz bost egunean Troade-ra joan zan, non arkitu zituen aurrera bialdu zituela arestian esandako lagunak. Troaden zazpi egun zeramazkien, ango kristauai atsegin ematen; eta San Pablo bere gogoz luzaroago egongo bazan ere, Jerusalemenera iritsi nai zuen Pazkoa Espiritu Santukoa baño lenago, eta apirillaren ogeita batgarrena irte-teko izentatu zan. Troadeko kristauak jakin zutenean San Pablo eta onen lagunak zein egunetan irteten ziran, bezperan jendetza andia bildu zan Apostolua ostataz zegoan etxera, atzen agur egitera, eta komunio santa goizean artzeko asmoan. Apostolua asi zitzaien onetarako zegozkien erakutsiak egiten, eta onetan ziardutela, ez-arian eta oarzak, gauerdia eldu zan. Argi asko zeuden irazekiak, ez ainbat gauagatik zenbat artzera zijoan Sakramentu Santu Aldarekoagatik.

### 2. San Pablok Eutikio illa biztutzen du

Eutikio zeritzan gazte bat San Pablori aditzen leio gañ batean jarri zan, eta predikuak luzatuta, loakartu zuen, eta irugarren bizitza edo endanatik atarira erori, eta il zan. Zorigaitz onek guziak atsekabetu zituen: ikustera lasterka joan ziran, baña ilda arkitu zuten. Lurrak eskualdirik etzuen il hura biztutzeko, eta San Pablok zeruari eskatu zion. Apostolu andi au uste oso-osoa mutil illaren gañean etzan zan, eta jaikita, esan zuen: Iñor larritu ez bedi: gorputz onek anima berekin dauka. Eutikio bereala biztua jaiki zan. Mirari berri onekin guziak arritu ziran. San Pablok esan zien Jainkoari zer eskerrak zor ziozkaten. Gero Komunio Santa eman zien, eta goizean goiz prestatu zan irteteko.

San Pablo Troadetik Ason-go portura zijoala, Eutikioren guraso eta etxeokak berarekin bidera irten zitzaiozkan eskerrak ematera. San Pablok txit begitarte ona egin zien; eta iñolaz ere Eutikio geroz bere ongillari jarraitu zitzaion, seguru esaten ez bazagu ere. Asongo portuan itsasoan sartuta, bostgarren egunean Miletora iritsi ziran, eta lurra egin zuten. Emendik gaztigatuta, Efesoko obispo, apaiz eta zarrak beregana eraman zituen: esan zien zer neke eta eramankizunak zetozkion, batez ere Jerusalemenera zijoanean; baña etzala atzeratuko, zeren Jainkoak agindua egiten zuen. Aiek ere norik galduak izango zituztela, eta kontuan ibiltzeko, iru urtean eman izan ziezten ikasbideaz aztu gabe. Atzenean esan zienean menturaz berriz ikusiko etzutela, negarrari eman zitzaiozkan. Gero, ordua bete zanean ontzian sartuta Tirora iritsi ziran, Troadetik irten ziranetik amalaugarren egunean. Tirotik aldatu zan, ogei urtez lenago galdu nai izan zuten juduai iges egiteagatik utzitako Zesareara, non arkitu zuen San Felipe, Apostoluak beren laguntzat artu zituzten zazpi diakono aietatik bat, zeñaren etxean ostataz jarri zan.

### 3. Agabo profetak San Pabloren Jerusalemengo nekeak adierazten ditu

Emen atsedeten zeudela, Jerusalemendik joan zitzaien Erromako enpedadore Klaudioren denboran zetorren gosetea aldearez asmatu zuen



profeta Agabo, lenago aitatu dana. San Pablori urreratu zitzaion; gerrikoa kendu zion, eta onekin bere esku-oñak lotu zituen, guziak zekustela, eta deadar egin zuen: Ara Espiritu Santuak zer dion: gerriko onen jabea juduak Jerusalemen onela lotuko dute, eta jentillen eskuetan ipiñiko dute. San Felipe eta gañerako an ziran guziak erregutu zioten, Jerusalemenera, arren, ez joateko; baña San Pablok erantzuten zien, esan eta erregu aiekin etzutela ezer aurreratzen; bada prest zegoala Jesusen izenagatik Jerusalemen lotua izateko ez ezen, iltzeko ere. Ikusirik etziotela oñik atzeraerazotzen, esan zuten: Jainkoak nai duena izan bedi.

#### 4. San Pablo Jerusalemen

Zesareatik Jerusalemenerantz irten zan, berekin zeramazkiela lenagoko lagunak, eta berriro batu zitzaiozkan beste ikasle asko, zeñaen artean Nason zeritzan txiprear, Jesusen anziñako ikasle bat ere bai. Onen Jerusalemengo etxea zan ango kristauen eliza, eta San Pablo eta bere lagunak ere ostatuz emen jarri ziran. Jerusalemengo kristauak txit arrera on eta pozgarria egin zieten. San Pablo biaramonean Jerusalemengo obispo Santiagori joan zitzaion ikustera, eta emen zar guziak bilduta, itzaldi gozo bat egin zuten. San Pedro an etzan, Aita Santutzako lanetan kanpoan izan, edo ordurako Erromara aldatua zalako. Zortzi urtez lenago San Pablok arterañoko bere lanak esan izan ziezen, eta orain gerozko guzien berriak eman, eta Jainkoak Asian, Frigian, Galazian, Mazedonian eta Grezian bere bitartez egindako gauza arrigarriak, zenbat jendetzari Jesusen legea erakutsi eta bataiatu zituen, zearo esan zien. Eta zar benegarri entzuleak Jainkoari eskerrak eman eta altxatzen zuten. Baña San Pablori Espiritu Santuak barrunen esana betetzera zijoan.

Lenengo ikusi au Santiago eta besteai emanda, ondorengo egunetan etxez etxe ibilli zan, eraman zuen limosna-dirua persona bearrari ematen, erri ongille aietatik artutako mandatari edo diru-eramalleak beti berekin zituela, ezer esateko biderik izan etzedin. Pentekostes edo Primiziaetako Pazkoa zeritzana egitera Asiatik etorritako judu Jesusen legea artu nai etzuten batzuek San Pablo ikusi zuten etxez etxe nola zebillen, Trofimo berez jentilla lagun zuela: eta gero berriz Elizan ikusi zuten bein batean eskuak ezarri ziozkaten, zerasatela: Israelko semeak, lagundu zaguzute:

Au da erriaren, legearen eta leku santu onen kontra erakusten non-nai dabillen gizona. Gañera jentillak ere onara ekarri ditu. Trofimorekin etxez etxe ikusi zutelako, uste izan zuten Elizan ere berekin zuela; argatik zioten leku debekatura jentillak eraman zituela; baña gezurra zan. Ala ere, uriko jende guzia asaldatu zan, eta Elizara bilduta, San Pablori eldu zioten, Elizatik kanpora atera zuten kolpez iltzer uzten zutelara, eta atea itxi zituzten, berriz sartu etzedin, aren odolarekin Eliza ez loitzeko aitzakitan. Bereala il nai izan zuten; baña Elizari kontu artzen zioten erromar soldaduen agintari Lisias jendearen iskanbilla adituta zijoakiela oartu ziranean, utzi zioten. Orduan Lisiasak San Pablo bi katerekin lotuerazo zuen; eta galdetu zuen ea gizon hura nor zan edo zer egin zuen. Batzuek bat, besteak bestea erantzuten zioten, eta ikusirik ezer garbirik ateratzen etzuela edo iskanbilla hura zertatik sortu zan ezin jakin zala, agindu zuen gaztelura eramateko. Onen eskalleraren lenengo mallara orduko, judutzar asko bildu ziran, zerasatela: «il ezazu, il ezazu» eta soldaduak elduta, eraman bearrean arkitu ziran. Gazteluko atera iritsi ziranean, San Pablok Lisias esan zion: Itz bi esaten utziko didazu? Lisiasak galdetu zion ea Greziako itzkuntzan al zekien, edo ez al zala iskanbilla izugarri bat orañago jaso, eta lau milla lapur lister eremura eraman zituen ijito hura? San Pablok erantzun zion, berez judua eta Tarsoko semea zala; baña jendeari itzegiteko baimena eman zizaiola. Lisiasak eman zion, eta eskalleraren goeneneko mallan jarrita, jendeari itzegiten asi zitzaion, eta Hebreako itzkuntzan ziarduela zekusatenean, are ardura geiagorekin jarri zitzaiozkan.

Kristauak jazarri edo persegitzen zituenetik asita, arterañoko bere bizitza guzia esan zien; eta aditu ziotenean, arako Jainkoaren itza jentillai erakustera bialdua zala, lenago isillik egon bazitzaiozkan ere, deadarrari eman zioten, tribunoari eskatzen ziotela gizon galgarri hura ilerazotzeko, eta kapak bota eta autsa airean banatzen zuten. Au ikusita, tribunoak agindu zuen gazteluan sartzeko eta azoteak emateko, jakin zedin ea zergatik ots aiek aren kontra juduak ateratzen zituzten; gero abe bati ualakin ondo lotzeko, erromarrak mendeko edo esklaboakin egin oi zuten bezala. Soldaduak prestatu ziran nagusiak agindu guzia egiteko; eta asitzera zijoazen unean, San Pablok kapitanari esan zion: Erromar bat bide onez azotatu dezakezute zergatik esan edo ikusi gabe? Kapitana bereala tribunoari joan zitzaion esatera, begira zezala gizon arekin zer egiten zuen, bada erromarra zala ziola. Tribunoa San Pablogana joan zan, eta galdetu zion ea erromarra zan. Bai, San Pablok erantzun zion. Orduan tribunoak esan zion: Nik izen ori diru askoren truke erosita det. Ni bada jaiotzatik naiz, Apos-



toluak erantzun zion. Geiago gabe, burlazko kastigu hura ematera zijoazkion guziak isill-isillik aldegin zuten, eta tribunoa bera ere txit larritu zan, lotu eta azotatzeko agindu zuena erromarra zala aditutakoan.

Tribunoak biaramonean juduen batzarrea bilduerazo zuen, eta San Pablo, lotura guziak kenduta, aurkeztu zien, aren kontra zer esankizun ote zuten ikusteko. San Pablo asi zitzairen itzegiten, eta nai etzuten gauzaren bat esan zuelako, masallako bat eman zioten. Gero batzarreko Jaunak erdiratu ziran, batzuek San Pablaren alde, eta besteak kontra. Guziak itzegiten zuten, eta elkarri ezin ezer adierazo zioten. Atzenerako aserre latza sortu zan; eta San Pablo bertan galduko zuten, baldin tribunoak, bere soldaduakin artuta, gaztelura itzuli ez balu.

## 5. Jainkoak San Pablori itzegiten dio

Urrengo gauean Jainkoa San Pablori agertu zitzaion, eta esan zion ez bildurrik izateko: Jainkoaren Izena Jerusalemenean erakutsi zuen bezala, Erroman ere erakutsi bear zuela. Esan onekin San Pablo bizkortu zan, ez anbat irrisku gogor artatik ateratzen zan usteagatik, zenbat aren Izen santua eta legea Erroman erakusteko aututzen zuelako. Baña irrisku berri batean, eta Jainkoak esana egia zala pensatzeko bidean laster arkitu zan.

Juduak ikusirik tribunoak gazteluan gordetzen zuela ain aier zitzaiozkan Apostolua, berrogeita geiago lagunek promestu edo boto egin zuten, San Pablo bizi zan artean ez ezer jateko, ez edateko. Promes gogorra zan, eta San Pablo bereala ez iltzera, goseak eta egarriak asko galdu bear zituen. Eta, nola il gazteluan gordeta zegoana? Ezin au bazekusten, eta apaiz-buruai esan zieten, tribunoari eskatzeko batzarrean berriro ikusi zitzaizela San Pablori egozten zitzaiozkan gauzak; eta gaztelutik batzarrera zeramaten bitartean, berak bidean ilko zutela. Zer sare ondo zabaldua! baña Jainkoaren eskuarentzat indargabekoa. Aien asmo guziak, bada, kea bezala desegin ziran.

San Pablaren arreba bat Jerusalemenean bizi zan, eta onen seme batek jakin zuenean bere osabarekin zer egiteko zebilzan, osabari gaztelura joan zitzaion eta jakin zion ipiñi zuen. San Pablori bereala zenturion edo kapitan baten bitartez illoba tribunoagana bialdu zuen; eta esan ziozkan juduen

barau, eskaera eta beste lan guziak, eta zer asmo zerabilten, eta bere eskuetatik ez, arren, San Pablo uzteko. Tribunoak guzia aditu zion, eta isillik gorde zezala illobari esanda, kapitan biri agindu zien, bere-bereala prestatu zitzaizela berreun soldadu oñezko, irurogeita amar zaldizko berreun aiotezkin, eta abere bat San Pablarentzat; bada arratseko bederatzietan irten bear zirala, San Pablo segurantz guziarekin Zesareako eraentzalle Felixi eramatera. Gauza guziak zuzenduta, Zesarearantz irten ziran. Tribunoak Felixi txartel batean gaztigitatu zion juduakin gertatu zitzaion guzia, eta bialtzen ziola, alde biai aditu ondoan, zeritzana egin zezan. Onetarako salatzalleai ere esan zien, zer esanik bazuten, Zesareara joateko. San Pablarekin zijoazenak Zesareara iritsi ziranean, Felixek Apostolua ipiñi zuen Herodesek egindako etxe galant batean, kontuartzalleak ondoan zituela, salatzalleak zetozenean auzia ikusteko.

## 6. San Pablo Zesarean

Bost egunen buruan Ananias apaiz-burua eta beste kargudun batzuek, Tertulo iztun ots andikoa berekin zutela, aurkeztu ziran Felix eraentzalleagana. Onak salatzalleak eta salatua bildu zituen; Tertulok San Pablaren kontra egin-al guzian itzezin zuen. Gero gobernadoreak San Pablori agindu zion, zer erantzunik bazuen, esan zezala. Felixek bi aldekoai aditu zien, eta garbiro ezagutu zuen juduak San Pablaren kontra zekarzten espa guziak ezer etzirala; baña juduai atsekabe osoa ez emateagatik, esan zien donarioz pensatuko eta erabakiko zuela. Bitartean agindu zuen San Pablo itxian idukitzeko; baña begiramen guziarekin, bear etzaznik egin gabe; eta iñor bereetakorik ikustera bazijoakion, sartzen uzteko.

Andik egun batzuetara Felix bere emazte Drusilarekin San Pablori joan zitzaion, itxian zegoan tokira. Jesusen legeko gauzaetan itzaldi luze bat elkarrekin egin zuten; baña San Pablo asi zitzaionean zerbait esaten zuzentasun, garbitasun eta Jainkoari egunen batean guziok eman bearko diogun kontu estuaren gañean, Felix izutu zan, eta etzion geiago itzegiten utzi, esanaz beste batean itzketa hura berrituko zutela. Felixi gai aietan asko ukitzen zitzaion, argatik alako gauzarik aditu nai etzuen. Berriz eta berriz ere elkarganatu ziran; baña Felix biguntzen etzan, ez zeukan bidegabeko itxi artatik Apostolua ateratzeko, ez onak erakusten zion legera



jartzeko. Juduakin izan zuen itzketatik Felixek igerri zion Jerusalemenera persona berriai dirua eramatera joana zala, eta oraindak txit ustua izango etzakoan, eraentzalle diru-zale ark San Pablaren esanai, itz-bitarteak sartu eta geroko epea ematen zien, itxitik ateratze-truke ezer eskeñtzen ote zion ikusteko. Bi urte onetan igaro ziran, itxian zeukana ez lotu, ez askatu egin gabe, agintean bere ondorengotzat Porzio Festo joan zitzaionean.

Esan zitekean Felixek agintea uztean, San Pablori nai zuena egiteko eta noranai joateko eskubidea emango ziola, bere etsaiak egozten ziozkaten gauzaetatik garbi zegoala ziekien ezkeror; baña dirurik iritsi ezin izan zuenean, juduakin ere osotero autsi nai izan etzuen, Erromara zetorrenean bere alde izateko ustean.

## 7. San Pablok Zesargana gañdeitzen du

Festok bere egiteko berria Zesarean artuta, irugarren egunean Jerusalemenera joan zan. Apaiz-buru eta judu andizkiak bereala aurkeztu zitzaiozkan San Pablo Jerusalemenera bialdu zezan eskearekin, bidean ilera-zotzeko asmoan. Jainkoaren eskua, lenago bezala orain ere bere Apostolu onekin zan. Festok erantzun zien, San Pablo Zesarean zegoala, eta onen kontra zer esanik bazuten, ara joateko eta adituko zuela. Jerusalemenera zortzi edo hamar egun eginda, Zesareara itzuli zan. Biaramonean Festo erabaki-leku edo tribunalean eseri zan eta San Pablo erakarri zuen, eta Jerusalemendik jatsitako juduak bereala asi zitzaiozkan gaiztakeria eta gaiztakeria egozten; baña egiak zirala sinisterazotzeko ezer agertu gabe. San Pablok batere malmetitatu gabe erantzuten zuen, ezertan ere ukitu etziela ez juduen legerari, ez Elizari, ez Zesar-i. Orduan Festok galdetu zion, juduakikoa obeto egiteagatik, noski, ea Jerusalemenera igo nai zan, eta egozten ziozkaten gauzai aren aurrean erantzun. San Pablok esan zion, Zesaren tribunalean zegoala, eta emen juzgatua izan bear zala. Juduai gaiztik egin ez diet, esaten zuen, zuk zerorrek obeto dakizun bezala, eta ezer egin badiet edo iltzeko biderik zerbaitekin eman badet, ara ni emen prest. Baña dioten gauzarik ez badidate arkitzen, inork ez dauka ni oiei uzteko esku-biderik. Zesargana gañdeitzen edo apelatzen det. Orduan Festok bere konsellariakin itzeginda esan zion: Zesar-i deitzen diozu? Zesargana joango zera. *Cesarem apellasti! ad Cesarem ibis.*

## 8. San Pablo Erromara ekartzeko prestamenak

Egun batzuen buruan San Pablo Italiara ekartzeko prestamenak egin zebizlan bitartean, Galileako errege Agripa eta onen arreba Berenize Zesareara joan ziran, Festori ongietorria egitera, eta itzak itzbidea emanda, Festok Agripari esan zion, San Pablarekin juduen artean zer gertatzen zitzaion. Nik neronek ere gizon orri aditu nai nion, erregeak esan zion: eta biaramonean ikusteko gelditu ziran.

Agripa eta Berenize anai-arrebak ordu jakinerako tribunalean aurkeztu ziran, anditasun guzian, eta erriko andizki eta persona bikañ danak lagun zituztela. Festok bereala San Pablo erakutsi zien, esanaz: Ara emen gizon au, zeñaren bizi eske judu guziak Jerusalemenera jarri zitzaizkidan, baña nik ezer topatzen ez diot iltzeko. Zesargana joan nai du, eta bialtzera noa; baña nere nagusi enperadoreari zer esan ez dakit. Zuk itzegiozute, eta gero erakutsiko didazute zer esan bear diodan: bada, ondo ez deritzat gizon bat lotuta edo preso bialtzea, zergatik bialtzen dedan esan gabe.

Errege Agripak San Pablori esan zion itzegiteko. Apostoluak etzuen galdu nai izan aurkeztutzen zitzaion ain era ona, bere ikasbidea edo dotriña agertzeko. Erakutsi zien, bada, ezin ukatu zezaketan moduan, Jesu Kristo juduak il zutena dala Jainko-Seme eta Mesias egiazkoa. Profetaen anziñako esan guziak onegan bete zirala. Au ondo ezagutu, eta lenagoko bizitza utzirik, Jesusen Ebanjeliora jarri zala. Esan zien mirarizko bere itsutzea, argitzea eta gertatu zitzaion gañerako guzia. Festok, jentilla zalako, etzion San Pablaren itzketari igerritzen, eta esan zion: Zuk buru guzia nastua daukazu. Ez, Festo, ez, San Pablok erantzun zion. Nik diodana egia garbia da. Aditzen dagokidan erregeak ondo daki, eta egiztatu nazake, zeren gauza oiek gertatu diran ez bazter isill batean, ezpada Jerusalemenera, Judean eta Palestina guzian; eta Moises eta profetak eskribatuta utzi zizkiguten. Gero, Agripari itza emanda, esan zion: O errege Agripa! Zuk profetai sinisten diezu? Badakit, bai, sinisten diezula. Orduan Agripa larritu zan, eta San Pablok bere esanakin geiago estutu etzezan, esan zion: Gitxigatik kristau egiten ez nazu. Ai, bada, ori egingo bazendute zuk eta aditzen didazuten beste guziok! San Pablo isilldu zanean, erregea, arreba, Festo eta gañerakoak jaiki ziran, eta elkarri esan zioten etzitzaiola iltzeko



ez ezen, itxian idukitzeko ere biderik ezertan arkitzen; eta Agripa erregeak Festori esan zion, baldin Zesargana joateko konturik aitatu ez balu, nai zuena egiteko eskubidea eman zizaiokeala; baña barreatu zan ezker, Zesargana bialdu gabe ezin utziko zala.

## 9. Zesareatik Erromarako San Pablaren bidajea

Gauza guziak biderako zuzenduta, illabeteren barruan Festok San Pablo beste preso batzuekin Erromara itsasoz bialdu zuen, Julio zeritzan euntari edo kapitan erromar bat kontuartzalle zuela. San Pablok berekin zeramazkien, Jerusalem eskuak ezarri ziozkaten ezker beti lagun izan zuen San Lukas eta limosna-diruaren eramalle aietatik bat, Aristarko zeritzana. Juliok laster ezagutu zuen San Pablogandik beste presoetarako berdineza, eta iñori ez bezalako begirunea agertzen zion. Bidean itsasoak txit aldi gaiztoak izan zituen: itotzeko zorian askotan arkitu izan ziran, eta esturasunik latzenez, «oraintxe itoko gera» esanaz zebilzanean, Jainkoak San Pablori iragarri zion ontzia porrokatu eta ondatuko zala, bai; baña ontzian zijoanik iñor ere galduko etzala. Berri onekin guziak bizkortu ziran, eta ontzi erdi-autsiari egin-alean lagunduaz, Maltako kostara alde-ratu ziran, eta arroka bat jota ontzia galdu zan; baña ontziko berreunda irurogeita sei lagunak, batzuek igeri, besteak ol-puskaetan, sei illabeteren buruan lurrera bizirik irten ziran.

## 10. San Pablaren Maltako sarrera

Maltarrak, errukarri aien errekiak ikusita, txit arrera ona egin zieten. Su on bat bereala eginda, leortzen eta berotzen ipiñi zituzten. Onetarako San Pablo ere besteekin batean bazebillen egurra suari inguratzen eta artu zuen sorta-egurrean suga bat zegoan, eta suaren beroarekin bizkortu zanean, eskutik eldu zion; eta zinzilika jarri zitzaion. Maltarrak ala ikusi zutenean, elkarri ziotsaten: Gizon au, noski, gizon-iltzalleren bat da; beintzat, itsasoaren aserrearri iges egin orduko, orain bizia kendu nai dio. San

Pablok eskua astindu, eta sugea sutara bota zuen. Maltarrak uste izan zuten aurrena puztu edo anditu, eta gero bereala ilko zala. Luzaro begira egon zitzaiozkan, eta zekusatenean pozoniak ezer egin etziola, lenagoko usteak trukatu, eta esan zuten jainkoa zala. San Pablok bereala kontra egin zien, esanaz Zeru-lurrak egin zituen Jainkoa baizik etzala, eta au bakarrik adoratu bear zala. Geroztik ugarte edo isla artako sugeak pozonirik ez dute.

Ugarteko buru edo prinzipte Publiok bereak zituen itsasotik irtenda lurra artu zuten bazterrak. San Pablori sugearekin gertatu zitzaiona jakin zuen, eta etxean ikusteko eresia agertu zuen. San Pablo bere bi lagun San Lukas eta Aristarkorekin joan zitzaion; iru egunean emen txit ondo egon ziran; eta Publiok aiekin egindako onaren saria, Jainkoak laster itzuli zion. Publiok aita aspaldian sabelzardun edo beerakoarekin eta berotasun edo kalenturarekin gaxo zeukan. San Pablo sartu zitzaion ikustera; otoitz egin zuen; eskuak gañean ipiñi ziozkan, eta bertatik sendatu zan. Mirari au ugarte guzian barreatuta, eri eta elbarri guziak San Pablori zeramazkieten, eta guziak sendatzen zituen: eta gorputzeko gaitzak ez ezen, animakoak ere kentzen ziezten. Miragarritzko sendatze oiekin jende guzia beretu zuen, eta danak bataiatu ziran.

## 11. Maltatik Erromarako San Pablaren irteera

Maltarren atsegiñik andiena izango zan beren ongille eta animako maisua berekin luzaro idukitzen; baña San Pablo autua zan mundu guziaren erri-buru Erroman Ebanjelioa erakusteko, eta aronz irteteko denbora bazetorkion. Bitartean ugartear esker onekoak biderako bear zuen guzia oparo prestatu zioten. Julio kapitanak ontzia artu zuen eta Maltatik apirillaren erdian irtenda, irugarren egunean itsasoz Puzol-era joan ziran, emendik Erromara leorrez joateko asmoan. Lenbiziko kristauak Puzolen arkitu zituzten, eta San Pablaren berriak ordurako bazituztelako, txit arrera ona egin zioten. Oraindik kateakin lotuta zijoan, eta begiramen guziarekin muñ egiten zieteen. Puzolen zazpi egun egin zituen, ango kristauak mesede au eskatu ziotelako; oien ondoren Erromarantz irten zan. Erromako kristauak artu zutenean San Pablo urreratzen zitzaien albista, batzuek emezortzi leguan, besteak amaikan bidera irten zitzaiozkan. Zer



arrera egin zioten, ezin esan diteke; eta San Pablok bere bi lagun maiteekin Jainkoari eskerrak eman ziozkan. Gañerakoak ere, Jainko egiazkoaren legea oraindik ikasi gabeak baziran ere, beren erara eman nai izan ziozkatzen, ain ito-bide andietatik itsasoan gorde eta ainbeste laguntza lurtean eratu zieztelako.

## 12. San Pablo Erroman

Jesu Kristoren irurogeita batgarren urteko maiatzaren asieran Erromara iritsi ziran; eta Julio kapitana, bidean ain ondo begiratu izan zionak, Erroman ere berebat egin nai izan zuen. Zeremazkien beste preso guziak itxira edo karzelara eramanda, San Pablo kanpoan utzi zuen, soldadu bat beste kontuartzalle gabe, zeñarekin izaten zan bi adiskide elkarrekin bezala; baña bere katekin beti, bada oiek kentzen etzizkaten.

San Pablo orduko, Festo Zesareako eraentzalleak Erromako Enperadoreari bialtzen ziozkan San Pablaren berriak iritsi ziran. Ark oni esaten zion, juduak egozten ziozkatzen gauzak indar gitxikoak zirala: gizon prestua zala; bere iritzia asko ez ezen, errege Agripari ere erakutsi ziola, eta biak bat zetoze; eta Zesargana apelatu ez balu, an bertan askatuko zuela. Berri oiek alde batetik, eta bidean gertatutako gora-beera miragarri, Juliok eta gañerako bide-lagunak esandakoak bestetik, jende guzia San Pablaren alde eta ikusteko eresian ipiñi zuten. Pretorio edo auzi-gelan bereala aurkeztu zan; bere burua garbitu zuen; baña bertatik libratzea bazegokion ere, utzi nai izan etzioten, Jerusalemetik etortzeko ziran salatzalleak eldu arteraño: eta dala oien etorrerak luzatu zuelako, dala erromarrak gauza betaz eta donarioz artu zutelako, San Pablok, beintzat, bi urte bere katekin igaro zituen; ala ere oiek eragozten etzioten Ebanjelioa leku guzietan erakustea. Berak naiena zuen tokian ostatuz jartzeko baimena eman zioten, eta autu zuen lanik geiena egin zezakean lekua.

Erromara iritsita irugarren egunean judu andientsu eta bikañenai gaztigatu zien, aren etxera joateko eta esango ziela zergatik Zesargana apelatu zuen, adierazo nai ziezten beste zenbait gauzarekin. Joan zitzaiozkan; esan zien, Jerusalemeko gauzak egotzi ziozkatelako Zesargana apelatu zuela; ez juduen kontra emateagatik, ezpada bere burua gar-

bitzeko. Etzezetela pensatu, kate aiekin bazekusten ere, gaitzgeren bat zala, ez. Zeremazkiela Israelen itxedoten zuen Mesias predikatzen zuelako. Juduak erantzun zioten, ezer etziekitela. Gero, berriz ere, beste egun batean goizetik arratseraño itzezin zien Jesu Kristoren Erlejiaren gañean, begien aurrean ipintzen zieztele, onek bere alde zituen profetaen esan eta beste sinisbide guziak. Askok ondo artu zioten, eta kristau egin ziran: baña geienak gogor agertu zitzaiozkan, eta esan zien, juduai eskeñtzen zitzaien salbazioko bidea jentillai emango zitzaie, aiek baño obeto oiek artuko zutelako. San Pablo Apostoluaren ibilli, oraindaño aitatu ditugunak, San Lukas Ebanjelariak *Apostoluen egintza*-en izeneko liburuan dakarzki: eta gerozkoak Eskritura Santak esaten ez badizkigu ere, ezin ukatu eta zalantzan ipiñi ere ditezke, sinisbiderik argienak ezeretzat jo gabe. Au bera diot, emendik aurrera ezarriko degun gañerako guziagatik.



## AMASEIGARREN IRAKURGAIA

### 1. San Pabloren kateetatik libratzea. Gure Españarako etorrera

Erroman bi urtean egon zan, aitatu dan bezala, enperadorearen tribunak libratzeko agindu zuen arteraño. Bitartean on andiak egin zituen. Asko joaten zitzaiozkan ikustera, eta bere jakinduri ez-oiuarekin guziak arritzen zituen, eta Jesu Kristoren Ebanjeliora jarri eta kristaututzen ziran. Itzez erakutsi ezin zien urrutikoai, eskribuz gaztigatzen ziezten bere kartetan irakurtzen ditugun Zerurako ikasbide andiak.

Bi urteren buruan kateak askatuta, noranai joateko eskubidean jarri zanean, ibilli andiak egin zituen, berak lenago ipiñitako Elizak ikusten eta berriak ipintzen. Gure Españara ere denbora onetan etorri zan. Emen eta ibilli zan leku guzietan Ebanjelioa erakutsi eta zabaldu zuen, ezin esan-al jentill Jesu Kristorentzat irabazten zituela. Atzenerako Erromara itzuli zan. Neron enperadore gogor aren etxean ere kristau asko egin zituen; oien artean Neron beraren emazte-ordeko emakume galdu bat; baña Jainkoaren ain gogoko lan oiekin Jainkoaren etsai guzien gorrotoa irazeki zan; eta arteraño neke guziak bere odolarekin sillatzeko bidea bazetorkion.

San Pablok, Erromara itzuli zanean, emen arkitu zuen San Pedro, Apostolu guzien burua, lurrean Jesusen ordekoa eta lenengo Aita Santua. San Pabloren gañean zearo itzegiten asi giñanean esan zan, bere aulki nagusia zazpi urtean Antiokian iduki zuela, eta andik Erromara aldatu zala. Esan eta egin: bere bizileku jakiña au zuen; baña, mundu guzian zabaltzen zijoa Elizaren kontua bere gañ zeukanak bezala, ibilli-bear andiak izan zituen. Eguzkiaren sortaldera joan zan, eta eguzkiaren sartaldera etorri ere bai; eta badira jakintsuak diotenak, gure Españan ere izan zala, Ebanjelioa erakutsi zuela, eta emen bere ondorengo obispo eta apai-zak utzita, Erromara itzuli zala. Gure erresuma edo erreinu au izanik erromarren mendeko bazterrik bikañenena, gizonik andienak bere semeetan zituena eta ondasunik aberatsenakin erromarrai laguntzen

ziena, badirudi, guzian Aitaren ardura andian alderdi au ere sartuko zala, eta gure asaba eta anziñako emen bizi ziranak ikusi naiko zituela.

Gai onetan dana dala, beintzat, bere egitekoetan zebillenean, Jainkoak iragarri edo adierazo zion laster il bearra zala, eta berri onekin Erromara itzuli zan. Bizitzan kristauai erakutsi izan ziezten egjak, ilda gero ere gogoan iduki zitzaaten, bi karta txit ikasikizun asko eta andikoak eskribatu zituen.

### 2. San Pedro eta San Pablo elkarrekin Erroman

Bi Apostolu andiak, bada, elkar artuta Ebanjelioa erakusten baziar-duten, Neron munduan izan dan gizon biotz gogorrenekoak biak galtzeko asmoak artu zituenean. Ara zergatik. Simon Mago, lenago iñoiz aita-tua, Samariatik Erromara etorri zan, bere erakutsi gezurrezkoak eta sorgintzak zabaltzera. Neron berez izanik gaiztakeria guzietara etzina eta griñatua, Simonekin txit adiskide egin zan, eta bere atsedena-aldi guziak onen sorgintzak aditzen eta ikusten igarotzen zituen. Beste gezur askoren artean, Neroni sinisterazo zion zeruetaraño igoko zala, zeñaren bitartez erakutsi nai izan zuen Jesu Kristok ez ezen, ark ere au egiteko eskubidea bazeukala; artarako uste zuen deabruak lagunduko ziola.

San Pedro eta San Pablo bi Apostoluak zekusten, baldin igo-irudi edo antz bat ere egiten bazuen, asko itsutu eta beretuko zituela: eta otoitz-barauakin berak prestatu, eta gezurti ark indarrik izan etzezala Jainkoari eskatzeko kristauai esanda, igo bear zan tokira joan ziran. Simon goronz abiatu zan; baña bereala erorita, bi anak autsi zitzaiozkan. Sendatzeko asmoan aldameneko etxe baten goeneneko bizitzara eraman zuten, eta ikusirik bere eskeñi eta esan guziak gezurtatu zitzaiozkala, bere burua leiotik bota eta il zan.

### 3. San Pedro eta San Pabloren eriotzak

Apostoluen kontra lenagoko aserre guzia Neroni irazeki zitzaion. Katez ondo lotuerazota, bederatzit illabetean itxian iduki zituen. Emen ere



geldi eta alperrik egon etziran. Beren kontu-artzalletatik bi, Prozesu eta Martiniano, itxian zeuden beste berrogeita zazpi lagunekin Jesusentzat irabazi eta bataiatu zituzten. Geroenean agindu zan il zitezela; eta biak beren odolarekin bizitza sillatu zuten. San Pedro gurutzean buruz beera josita il zan, eta San Pablo lepo moztuta, garagarrillaren ogeita bederatzigarren egunean. Bi Apostolu gogoangarri oien ikasleak eta adiskideak kontu andia izan zuten, al zan progu onrotsuenarekin gorputz-illak gordetzeko, eta orain Erroman dautza. San Pedoren emazteak, senarrak baño ere lenago Jesusgatik bizia galdu zuen. Apostoluzan asi baño lenago izan zuen alaba Santa Petronilla ere berebat il zan.

#### 4. Beste Apostoluen berriak

Gañerako Apostolu, San Juan ez besteak ere, nor bere alderdian edo Ebanjelioa erakusten ibilli ziran tokietan Jesusen izenean odola isuri, eta illak izan ziran. Bakarrrik San Juan zartuta berez il zan, baña onek ere bizi-tzan Jesusgatik martirioa artu zuen. Efeson bizi zan lekutik Domiziano enperadoreak Erromara eramanerazo, eta olio irakiñetan sartu zuen; baña frijtituta irtengo zala uste zutenak arriturik gelditu ziran, len bezain larminz eder leunekoa, eta akatsik ere egin gabe irteten ikusi zutenean. Geroz ere urte batzuetan bizi izan zan; eta atzenean Jesusen beste Apostolu guzieren ondoren, zartuta beste gaitz gabe, eun urtekoa Efeson il zan, eta adiskideak progu andiarekin lurpetu zuten.

Jesusen langille andi oiek, bada, mundu guzira zabaldu zuten beren Maisu Jainkoagandik artutako legea, eta ala asieran nola gero infernu guzia jaiki izan bada ere, osotoro kendu eta galdu naiez, Jainkoaren itzaren indarrak etsai guziak azpiratu izan ditu, eta sinismen osoan gaude, aurrera ere mundua mundu dan artean iraungo duela.

#### 5. Jesusen Ama guziz santaren atzeneko berriak

San Juanen eriotzarekin mundutik ezkutatu ziran Jesusekin itzegin, ikasi eta ezagutu zutenak. Orain itzegin bear degu, aspaldian aitatu ez dan Apostolu guzieren Amandre, Jesusen Ama eta zeru-lurren Erregiña Maria guziz santaren gañean.

Lenago esan da, Jesus zerura igo zanean, Maria guziz santa Apostoluakin batean Olibeteko menditik Jerusalemara itzuli zala, Espiritu Santuaren etorreraren zai egotera. Jatsi zanean, bere Esposari bezala begiratu zion, zegozkion doai eder guziakin apaintzen zuela. Gertaera onen ondoren, Maria guziz santa Jerusalemen San Juan Apostoluaren etxean bizi izan zan. Zein bizitza ona eta jainkozkoa egin zuen, zer esan ez da. Ordu guziak otoitz edo orazioan zeramazkien, Seme Jainkoarekin, lurrean ibilli zan bitartean mingañez bezala, zerura joan ezkeru biotzez itzegiten zuela. Kristauak begirunerik andiena zioten. Apostoluak beren nekeen poza, jakinkizunen argia eta eginbearretarako indarra Ama maitagarri onegan zeukaten. Semearen lekuan Ama andi oni gauza guzietarako begiratzen zioten, eta oni esan gabe ezer ere egiten etzuten. Amarren bat urte Jerusalemen igaro zituen, eta Jesusen etsaiak kristauen kontra jaikita Apostoluak Jerusalemendik irten bearrean arkitu ziran, Maria guziz santa seme-ordeko San Juanek Efesora eraman zuen, eta aldi batean emen bizi izan zan. Gero, berriz ere Jerusalemara itzulita, Markosen ama Mariaren etxean bizi izan zan, San Juanek begietatik beñere utzi gabe, egin-al guzieren laguntzen ziola.

Geroenean Maria guziz santak jakin zuen noiz ilko zan. Jerusalemeko kristauai gaztigatu zien, eta zetzan oitxoaren ingurura bildu zitzaiozkan, atzeneko itz gozoak aditu, eta munduan betiko agur egitera. Santo Tomas ez, beste Apostolu guziak, ordurako munduan sakabanatuak baziran ere, bere gelan bat-batetan aurkeztu zitzaiozkan, berak baizik iñork etziokiela. Jesusen beste ikasle asko ere an arkitu ziran: eta Ama maitagarriak biotz-biotzetik guziaz esan zien, Jesusen legea zabaltzen nekatu zitezela, eta berak bere Semearen ondotik lagunduko ziela. Jesus, ezin esan-ala aingeru ederrekin inguratuta agertu zitzaion, eta anima zorion guzieren gañean zorioneko hura zerura bere ondora eraman zuen. Atzeneko asnasa eman bezain laster, zetzan gela miragarritzko argiz bete zan, eta begira zego-





kionak aditu zituzten zeruko aingeru guziak beren Erregiñari kantatzen ziozkaten soñu gozoak. Bereala belaunikatu ziran, eta begirune guziarekin oñ santuetan muñ egiten zioten, negar-malkoz bustitzen ziozkatela.

Jerusalenen eta ingurumai guzian barreatu zan, eta alde guzietatik ikustera zijoazkion eri, elbarri eta gaxoak artuta, eta iñor ere sendatzaka gelditu etzan. Guziak beren deboziozko gogoak agintzen ziena egindakotan, gorputz-illa illoi eder batean ipiñita, Getsemaniko errira Apostoluak sorbaldan eraman zuten, beste guziak eskuetan argiakin ondoren zerraizkiela. Gorputz-illa obi galant batean ezarrita, arlosa batekin estali zuten. Geroko egun batzuetan Apostoluak ondotik kendu etzitzaiozkan, eta zeruko Aingeruakin txandaka progua egiten zioten. Santo Tomas begira etzan Maria guziz santa il zanean, ez obian ipiñi zutenean ere: eta berri au artu zuenean korrika joan zan, proguko egunak betetzera. Eskatu zuen, Jainko gizon egiña bederatzi illabetean sabelean iduki zuen zorioneko gorputz hura ikusten, arren, uzteko. Eskaera au ontzat artu zioten; obia idiki zuten, eta arkitu ziran gorputz-illa gabe, il-janzi edo meztidura utsakin, zeñak ematen zuten usai gozoak inguru guzia lurrindu zuen. Ikusketa onekin guziak arritu ziran, eta pensatu zuten gizontzeko Jainkoak autu izan zuen gorputz beñere loitu gabea, eriotzak dakarren usteltasunak ere ukitutzaka garbi-garbi gorde nai izan zuela, eta anima eta gorputza bat eginda, bere Ama maitagarria ilda irugarren egunean Zeruko gloriara bere ondora eraman zuela. Au sinistu eta aitorturik, gure Eliz-Ama santak aboztuaren ama-bostgarren egunean egiten du Jainkoaren Ama zerura igo izan zaneke elizpesta edo Asunpzioa. Iltze au noiz edo zein urtetan gertatu zan ez dakigu; baña bai San Pedro eta beste Apostolu batzuek oraindik bizi zirala; bada, arestian aitatu dan gisan, begira arkitu ziran. Guziok, bada, poztu gaitezen, bekatarien Ama au Seme Jainkoaren ondoan gure bitarteko nagusi dauka-gulako, zeñaren erreguz betiko zoriona iritsi dezagun.

Amandre andi onen eta Apostoluen gañerako berri guziak ematea luzaroko lana litzake, eta nere sallari atzena ematera noa israeldarren edo juduen erri doakabearen ondamen negargarriarekin.

## AMAZAZPIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Juduen izaera

Jesu Kristo gure Jaunak juduai askotan esan izan zien, Jerusalem eta Israel guzia zein patu negargarriaren begira zeuden, bere garaiean Egia sinistu eta Argia ikusi nai etzutelako; eta Jesusen aldeurrezko esanak betetzeko ordua bazetorren. Ogeita amar urte eta geiago zeramazkiten beren belarriakin aditu izan ziotenetik; baña Jaunaren aserrea obra onakin itzali, eta aren ezpata zorrotza penitentzia egiazkoarekin atzeratu bearrean, egunetik egunera gaiztoagotuzten ziran. Mesias egiazkoa illarekin utsegitarik izugarrienean bein erori ezker, adimentua illundu eta borondatea okertu zitzairen. Ez beren erlejioko lanetan, ez munduko gobernuari zegozkionetan gauza zuzenik egiten zuten. Onela bizi zirala, Jainkoaren zigorrada urreratzen zitzaielako aztarna eta zanzua, Erromatik zijoazkien eraentzalleetan zekusten. Oiek, zein baño zein gogorrangoak sortzen zitzaiezten. Kupidio Fado, Tiberio Alejandro eta Bentidio Kumanio, Ponzio Pilatoren ondorengoak, bidegabeko eskaera eta ondasun-gose ezin asearekin ondatzen zituzten eta ernegatzeko zorian jarri ziran. Onezaz gañera Kaligula enperadorea ere leiatu zitzairen, bere irudi bat Jerusalemgo Elizan ipiñi, eta jainkotzat adoratu zezaten. Ikusirik zer ezin bizian arkitzen ziran eta zer gogortasunarekin agintzen zieten, berak ere gogor egiten asi ziran. Juduak Jesusekiko lanetan bezain elkar beste gauzaetan artu izan balute, esango zan berenarekin irten zitezkeala; baña zorrigaitz geiagorako, gai askotan bat etzetozen; eta atzenerako kanpoetara irten, eta nor bere erara legearen begiramen gabe eta iñoren aginte gabe, gogorak ziona egiñaz bizitzen ziran. Erromarretatik ez-bearren bat zetorkienean asten baziran arpegi ematen, beren buruak galdu eta bazter guziak juduen odolez gorritzen zituzten, zala erromarren ezpatak isurita, zala elkarrekin aserretzen ziralako. Baña negarbide oiek guziak gerokoen asiera txiki bat baizik etziren; bada bete-betean erori bear zitzairen, Jainkoaren Semearen odola eskatu zutenean beren buruai egotzitako biraua; eta geroko oien berriak asi ziran agertzen.



## 2. Ondamenaren adiragarriak

Jesu Kristoren jaiotzatik irurogeita bostgarren urteko apirillaren zortzian, Pazkoa egiten zan egunean Jerusalemgo Eliza egunez bezain argi gauerdian jarri zan. Eguzkiaren sortaldeko atea izanik ogei gizonek doi-doi mugitzen zuten bronzeko txit pisua, eta morrollo sendo eta burnizko balanka alboetan ondo sartuakin itxia, berez idiki zan. Andik berrogeita geiago egunera, maiatzaren ogeita batean, Jerusalemen eta ingurumai guzien gañean suzko ezpatak, gurdiak eta armadunak ziruditen asko agertu ziran. Ondorengo Pazkoa Espiritu Santuko egunean juduen apaizak Elizan sartuta, iñor ere barrunen etzala, aditu zuten ots andi bat, esaten zuena: *Emendik irten gaitezen, emendik irten gaitezen.*

Arrigarrizko gertaera oiek pensakizun andia ematen zieten; baña are geiago izutu eta ikarutzen zituen Ananoren Seme-Jesus zeritzan gizon arrotz batek, zeña Tabernakuloen pesta egitera joanda, asi zitzaizen esaten: Ai Eliza, Eliza; sortaldeko otsa, sortaldeko otsa; lau aldeetako otsa; ai Eliza, ai Jerusalem! Jesu Kristoren irurogeita bigarrenean asita, lau urtean jardun zuen Jerusalemgo karriz karriz itz oiek bakarrak esaten, egunez eta gauez isiltzaka. Betiko ots oiekin kargudunai gogaitutzen zien, kastigatzen zuten isillik egon zedin; baña alperrik. Luzinio eraentzalleagana eramanda, onek azotetz zeaerazo zuen ezurzak agertzeraño; baña batere esparik agertzen etzuen, eta kolpe bakoitzean zion: Ai Jerusalem zorigaiztoko! Galdetu zion nongoa zan edo nondik zetorren, eta ots aiekin zer esan nai zuen, eta itzik erantzuten etzion, eta beti bere soñuan ziardun. Noizbait aspertuta, erotzat utzi zuten, eta bazebillen, iñorekin itzegin gabe; ez gaitz egiten ziotenagatik kejatzen zan, ez on egiten ziotenai eskerak ematen ziezen. Bitartean erromarrak ikusirik juduak etzietela nai luketean bezain sotilltasun andia erakusten aien mendean bizitzeko, eta lenagoko urteetan elkarrekin izandako autsi-osoakgatik, artu zuten osotero eskuetaratzeko asmoa. Soldadu-talde andiak bialduta, Jerusalem inguratu zuten. Gauzak onela zeudela, Ananok bere otsakin baziardun. Geroenean deadar andiangoak egiteari eman zitzaion, esanaz: Zorigaiztoko Eliza, zorigaiztoko Jerusalem, zorigaiztoko Erria! Atzenean otsegin zuen: Ai nere zorigaiztoko! eta itz oiek esatearekin batean, erromarrak kanpo-

tik botatako arri andi batek azpian artuta, plastatu edo zapaldu zuen, eta lau urtean oska ibillita gero il zan.

Ez Ananoren otsak, ez aireko suzko gizon eta beste adiragarriak izan ziran, juduak beren ondamen-bidetik ateratzeko adiaña. Oraingoan erromarrakikoa zerbait egin zuten, eta garaipen onekin are geiago arrotu ziran, eta guziak menderatzeko ustea artu zuten. Agripa erregea bitarteko sartu zitzaizen, erromarrakin juduen arteko pakeak egin naiez: baña igesi bialdu zuten. Gero Masadako gazteluan indarrez sartuta, kontu artzen zioten soldadu erromar guziak il zituzten. Eleazar, apaiz nagusiaren semeak denbora berean debekatu zuen enperadoreagatik len egiten ziran ofrendak berriz egitea; eta lanbide onek zekarzkien ondoreak ezagutzen zituztenak leiatu bazitzaiozkan ere Eleazar lan artatik ateratzeko, aditzen etzitzaien. Batzuek eta besteak despitu ziran; geroenean Eleazar-en aldekoak geiago zezaketen: Jerusalemgo er-goenez eta Antoniaren gazteluaz jabe egin ziran. Urian arkitzen ziran erromarrak dorre batzuetan sartu bearra izan zuten; baña egun gitxiren barruan zer-jana aitu zitzaielako, menderatu ziran gaitzik ez egiteko itzean, juduak laster autsi bazuten ere, bada eskuratuta bereala il zituzten. Bidegabekeria au Zesareako erromarrak aditu zutenean, asaldatu ziran, eta ogeita geiago milla judu il, eta bizirik utzitako banakak ere itsas-ertzetara bialdu zituzten.

## 3. Juduakin siriarren arteko despita, eta aien galmena

Juduak eta siriarrak elkarrekin txit oker lenagotik zebilzan; eta orain Zesarean egindako ilkintzaizugarria ikusi zutenean, juduak Siriako bazter guzietan zabaldu ziran, erriak eta etxeak erre, eta arrapatzen zituzten pertsonak illaz. Siriarrak ere prestatu ziran gogor egiteko. Juduetan baziran lanbide oiek ontzat artzen etzituztenak, eta siriarrak jendetza andia batu zitzaizen, lege gabe zebilzan gizon-odolzaileen mendetik iges egiteagatik. Siriarrak, zala igutzen zituztelako, zala oien itzetan sinismen osorik etzuztelako, lagun berri oiek mendi-baso batera bialdu zituzten eta denbora asko baño lenago amairu milla judu emen il zituzten. Oietatik bat Simon zeritzana eta Siriara joateko geiena nekatu ziranetakoak, ikusirik bere



lagunak erreki onetan iltzen, ernegatzen jarrita, esan zuen: Nik eriotza ondo irabazia det; baña ni neroni dagokit artzea. Gero bere etxeoai begira jarrita, aitari lenengo ille zurietatik itsatsi zion, eta ezpataz josi zuen. Urrena amari au bera egin zion. Gero bere emazte eta humeak il zituen; eta atzenean, oraindik odola zerion ezpatarekin, besoa goratuta bere burua josi zuen, eta il zan. Gisa onetan Sirian iltzen ziran bitartean, Egipton ere bazter guziak odoletan zeuden. Alejandrian bertan ainbeste judu il zituzten, ezen berrogeita amar milla gorputz-ill pilla batean arkitu ziran.

Bitarte onetan juduak Siriako eraentzalle Zestio Gallorekin Jerusalemen ekin-aldi latz bat izanda, igesi bialdu zuten: zerbait jende galdu, eta kalte asko egin zioten. Orduan juduak arroturik, Jerusalemgo pareta edo murrak arabatu eta sendotu zituzten; Judeako gazteri guziari armak bialdu ziozkaten, eta prestatu ziran erromarrai, il edo bizi, arpegi emateko. Jerusalemen bizi ziran kristauak, Jerusalemengatik Jesusen aurrez-esanak gogoan zeuzkatela, Pella zeritzan erritxo batera joan, eta bizitzez jarri ziran.

#### 4. Vespasianoren joanera Jerusalem aldera

Erromako enperadore Neronek jakin zuenean Zestiok Jerusalemen izandako ez-bearra edo desgrazia, eta juduak zein arro jarri ziran, Zestioren lekurako Vespasiano bialdu zuen. Gerrari adietu eta argi onek irurogei milla gizonekin Galilea guzia, Jotapatako erria ez bestea, bereala menderatu zuen. Eun milla judu Josefo buru zutela Jotapatan sartu ziran, gogor egiteko asmoan; baña berrogei egunean itxian idukita, Vespasianok artu zuen; bitartean erdiak eta geiago barrunen il ziran. Gañerakoak arzu lo batzuetan gordeta, atzenean elkar il zuten. Josefo, Vespasianoren presutasunaren berria izanda, aurkeztu zitzaion, eta bizirik gelditu zan. Jotapata artu ondoren ibilli batzuek egin zituen, jende guzia bere mendera ekartzeko, eta Jerusalemen ekin baño lenago etsai guziak garbitzeko. Lan oietan zebilela, Erromako gora-beerakgatik, aurrerakoari utzi bearrean arkitu zan.

Neron enperadore arri guziak baño biotz gogorragoko hura bere lasaikeria eta beste biurrikeriakin guzien begitan jarri zan; eta agintea eta

bizia kentzera zijoazkiola igerri zionean, Jesusen irurogeita zortzigarren urteko garagarillaren bederatzian, ganibita batekin bere lepoa ebakita, ogeita amabi urtekoa il zan. Onen ondoren agintea eskutik eskura luzaro ibillita, atzenean Vespasiano, Judeako gerran zebillena, enperadore egin zuten. Bereala Erromara etorri zan agintea artzera, eta bere lekuan eta orde zuten, lendanaz an zebillen gerrari Tito bere semea.

#### 5. Jerusalem Titok setiatua

Oiek onela, eta Jerusalemgo juduak gauza askotan bat etzetozelako eta guziak agindu nai zutelako, elkar iltzen zebilzan, eta izaerarik mingarrienean arkitzen ziran, Jesusen irurogeita amargarren urteko udaberrian Titok setiatu zuenean. Pazkoako egunak ziran, eta pesta au egitera ain jendetza andia bildurik, jakintsuak diotenez, millatan milla, edo milloi bat eta bosteun milla lagun barrunen baziran, zenbate onetan Moisesen legeaz kanpoko eta aurak sartu gabe.

Ainbeste jenderekin batetik, eta elkarren arteko egunoroko despitaikin bestetik, igerri diokegu erri itxi bat nola arkituko zan. Ala ere guzien etsaitzat zeuzkaten erromarrai gogor egiteko bat egiten ziran. Judea eta alderdi aietako jende guziak osotoro sinistuta zeuden, mundu guzia menderatuko zuen gizon bat denboraz aietatik sortuko zala; eta itsumen onekin andi eta txikiak, zar eta gazteak, gizon eta emakumeak prest zeuden atzeneko odol-tantaraño isurtzeko. Uria alde guzietatik ondo irmotua zan; gizonaren eskuak geiago ezin ziokean egin: iru pareta sendo edo murru lodirekin itxia zan; unetik unera dorre txit goratuak zeuzkan. Eliza bera ere mendi-gañ batean zegoan, gaztelu baten antzean eta, onen gordelari bezala, Antoniaren gaztelua. Onezaz gañera lurpeko bide asko zituen, isillik irteteko eta sartzeko, nondik etsaietara itsumustuan noiznai joan zitezkean. Oiek guziak ondo pensatuak eta egiñak ziran; baña ainbeste jendek barrungo janak laster ezkutatu zituzten, eta gosetea bereala asi zan.

Apirillaren amalauean, zeña Pazkoa eguna zan, Eleazar eliz barruan zegoanak atek idiki zituen, eta Giskala, eliz-ataria gordetzen zuena, Eleazar-ekin bat etzetorrelako, bere jenderekin bat-batetan sartuta Eleazar-



en jende geiena ondatu zuen, eta len atariaz bezala, gero barrunez jabe egin zan. Beren arteko despita oien berriak artu zituenean, noski, Tito seieun zaldizkorekin urreratu zan uria ikustera; baña gitxigatik galdu etzuten, eta nekez bederik, iges egin zien.

Andik amabost egunera, maiatzaren iruan, lenengo pareta zulatuta erromarrak sartu ziran, eta uriaren ifarralde Zedrongo ibarrerañoeko guzia menderatu zuten. Bost egunen buruan bigarren paretari eraso zioten, eta jende askoren truke bederik, artu zuten. Emen jendeari zerbait atsedean ematen Tito jarri zan; eta jende galtze geiago ez ikusteagatik, barrungoak ere aspertuta egongo ziralakoan, bialdu zien beren erritar Josefo, Jotapatatik bizirik irtenda Vespasianori aurkeztu zitzaiona, ondo esanez umillatzen ote zituen ikustera; baña alperrik: garaipenarekin irten eta mundu guziaren jabe egiteko profeta gezurti batzuek ematen ziezteen usteak, Joseforen esanak baño indar geiago zuten, eta Josefo ondo-esalea ezer egin gabe itzuli zan. Ez goseak, ez suak, ez uriaren zati andi bat etsaiaren mendean egoteak beren uste zorotik ateratzen zituen.

## 6. Jerusalemgo gosetea

Titok ikusirik onez-onean ezer egiterik etzegoala, agindu zuen iru egunen barruan uri guzia pareta sendo batekin inguratzeko. Bi legua luzeko pareta eskatzen zuen; ala ere ordu esanerako egin zan, or-emen gaztelutxoak zituela. Eta itxitu berri onekin jan-gauzak barrunera sartzea eragotzi zuten.

Goseteak lenengo egunetik kalte andiak egiten zituen; baña atzene-ko lanbide onekin lenagokoen azkarria sartu zan. Gari eta beste jan-gauzarik aspaldian etzan saltzen; zerbait zeukanak isillik gorde bearra zuen; bestela gogorrago bat etxean sartuta kenduko zion. Bat bazekusten gizen-txoa edo arpegi betekoa, edo kolore onekoa, bereala eraso, eta arrapatu guzia kentzen zioten, iltzen ez bazuten ere. Ate bat itxita ikustea asko zan, zerbait jateko bazegoala pensatzeko; puskatzen zuten, eta etxeoak bear-tzen zituzten dana agertzera. Emakumeak illeetatik arrastaka eta aurrak ostikopean zerabilzkiten, ogi-zerra bat ateraeragiteagatik. Uriko aberatsenak beren lurak gari-bikor batzuegatik saltzen zituzten, gero etxean

ezkutuan ogia eginda edo gal-ale gordiña jateko. Edozein apukogatik etxeetan sartu, personak il eta zegoana berekin zeramaten. Okellura joanda, zimaurrek likitsenak, ubal-puska zarrak, belar ustelduak jaten zituzten. Aide maiteenak, adiskide kutunenak elkarri erasotzen zioten, zer-janen bat zuela igerri ezker. Inori ere barkatzen etzitzaion, amorratzen zerabilzkien gosea zerbait kentzearen. Baña zenbaterañoeko gosea sartu zan jakiteko, Maria zeritzan emakume batek egiña aditzea asko da. Emakume au etxe oneko alaba eta guriro azia zan. Bere zorigaitzoan, beste asko bezala Pazkoa egitera Jerusalem sartu zan, eta zeraman guzi-guzia bereala kendu zioten. Miñaren miñez askoak esan ziezten, aserrerezota il zezaten; eta ikusirik ala ere iltzen etzutela, bularreko bere aurra eskuetan artuta, esan zion: Zorigaitzoko aurra, zertako zaitut? ez-izan izugarri oietan izateko? goseak iltzeko edo etsairik gogorrenen eskuetan jartzeko? Au esanda, lepoa ebaki zion, eta burrunzian erreta erdia jan zuen, eta gañerakoa berrizko gorde zuen. Besteak aragi errearen usaia artu zuten; etxean sartu zitzaiozkan, eta ezpata bularrean ipiñi zioten, zeukana eman zizaien. Nik zati bat gorde dizutet, esan zien, eta aur erdi-jana aurrera ekarri zuen. Au ikusi zutenean aldegin nai ziotelako, esan zien: Jan dezakezute, bai; bada, ez emakume bat baño begiratuagoak, ez ama bat baño biguñagoak izango zerate. Arri egiñik iges egin zuten. Gertaera izugarri ez-aditu au uri guzian barreatu zan, eta barrungoak ez ezen, kanpokoak ere ikaratu ziran. Onela bete ziran Jesusek esandako itz oiek: *Etorriko da eguna, zorionekotzat artuko dana aurrerik izan ez duen emakumea, eta eznerik eman gabeko bularra.*

## 7. Jerusalemgo izurritea

Goseteari izurritea lagun etorri zitzaion: biak egunoro zeramazkite-nak ainbeste ziran, non etxeak eta karririk gorputz-illez beteak zeuden, kiratsa zeriela. Jendeak karrika eta plazaetan arrastaka bezala zebilzan, eta bat-batetan illotzak erortzen ziran. Gorputz-illak asieran gobernuaren kontura uritik ateratzen zituzten: ate bakar batetik bi illabete eta erdian ateratuak eunda amabost millatarano igo ziran, barrundik kanpora iges egindako illoizale eta zulogilleai pagatzeko kontua zuen batek Tito berari esan zionez. Beste batzuek zioten, ate guzietatik ateratuak seieun milla bazirala. Geroenean, onela ere ezin burutu zutelako, uriko pareta-gañeta-



tik kanpora bota edo etxe utsetan montoiak egin, eta txit betetzen zira-  
nean atek isten zituzten. Tito ere nazkatzen zan, bazter guzietara zijoan  
kirats eta usai zikiñarekin; eta biotza erdiraturik, esaten zuen Jainkoak  
baziekiela ez-bear eta negarbide guziak uri doakabe argandik zetozela.

Jerusalendar batzuek gosetea sortu zanean, asi ziran kanpora irten-  
da belarrak biltzen, gosea zerbait elikatzeko. Tito oartu zanean zaldizko-  
ak bialduta, atzitzen zituztenak gurutziltzaten zituzten, iseka eta farraga-  
rri asko, berak Jesusekin egin izan zuten gisan, eginda. Eta baziran egu-  
nak, bosteun onela iltzen ziranak, barrungoak ezagueran sartu zitezten.  
Beste asko, berriz, eskuak, sudurrak eta belarriak kenduta, barrunera  
itzultzen zituzten: baña lanbide eta kastigu oiekin juduak biguntzen etzi-  
ran menderatzera. Erromarrak lenago errukitu ziran, eta barrundik igesi  
zijoazkienak artzen asi ziran; eta etorri orduko jaten ematen zieten; baña  
barrun otzarekin eta txit eroriak zetozelako, janak berak bota eta illik  
uzten zituen. Igeslari aietatik askok, erromarretan aurkeztutakoan, zera-  
maten dirua kentzeko bildurrez jan, eta gero sabeletik zijoakiena zandu  
eta aratuta, dirua arkitzen zuten. Kanpoko soldaduak oartu ziran juduak  
zer egiten zuten; bereala barreatu zan Jerusalendik iges egindakoak sabe-  
lak urrez beteak zeuzkatela, eta diru-gose onekin, batez ere arabia eta  
siriarrak, igesi zijoan bat ikusi orduko sabela idikitzen zioten; eta gau bat  
bakarrean bi milla onela il zituzten. Titok jakin zuenean bereala zorrotz  
debekatu zuen berriz alakorik egitea; ala ere, isillik bederik, zenbait galdu  
zituzten.

## 8. Jerusalem Titok artua, eta Elizaren erretzea

Geroenean Tito prestatu zan Jerusalem indarrez sartzeko. Ekinal-  
di latzak egin zituzten, eta noizbait, jende asko bat eta bestekoa galduta,  
urian sartu ziran. Oraindik ere juduai Eliza eta Eliz-inguruko bazter  
andiak gelditzen zitzaizten: Eliza bi pareta edo murre lodirekin ingura-  
tua zan, Antoniaren gaztelua babes zuela: baña azoraturik zebilzan, beren  
legeak agindutako sakrifizio, anziña-anziñatik beñere utzi gabe egiten  
zetozena, ezinean zeudelako; bada uztaillaren amarrean apaiz eta beste  
sakrifikatzaile gabe arkitu ziran. Lanbide onetan zekusten profetak esana  
bete-betean erori zitzaizela, ala ere aien begiak zabaltzen etziran; eta uste

zuten Elizaren sendoa, inguruetakoa pareta lodiak eta gaztelu nai bezala  
egindakoa asko zirala, etsaien eraso guziaz arpegi emateko.

Juduai apaizik ez izanak ematen zien azoramena gogoan zutela,  
erromarrak erasotzera jarri ziran. Lenengo pareta-aldiak odol askoren  
truke artu zituzten, eta su eman ere bai. Bigarren endanakoak artzeko  
asmoan, eskallerakin igo ziran; baña juduak gogor eginda, atzeratu zituz-  
ten. Orduan Titok bigarren endanako ateari aboztuaren zortzian su eman  
zien, eta garrak Eliz-atarira sartuta, eliz-inguruko baranda edo galeria ira-  
zeki zitzaien, eta egun eta arrats osoan erretzen egon ziran. Titoren eresi  
guzia Eliza erretzaka gordetzekoa zan, eta suak zirauen bitartean, solda-  
duak itzaltzen aritu zituen, barrunera zabaldu etzedin, gero indarrez sar-  
tzeko asmoan. Biaramonean lanbide onetan asi ziran; baña juduak seku-  
lan baño bizkorrago eta gogorrago agertu zitzaizten, eta atzeratu bea-  
rrean arkitu ziran. Orduan soldadu batek bere lagun besoburuan jarri-  
ta, illeti bat leiotik barrunera sartu zuen, eta eliz-barru guzia bat-batetan  
su eta gar jarri zan, eta alde guzietatik bazizekan, jentillak berak ere arri-  
tu, eta lurrez gañeko gauza zala aitortzeraño. Tito egin-al guzian berez eta  
bestez bazebillen itzaltzen; baña zenbat soldaduk egiten etzuten, suari  
lagundu, errekiñak eman eta naspilla geiago ipiñi baizik. Zekusten Eliza-  
ren paretak kanpoko aldetik urrez estaliak zeudela, eta uste izan zuten  
barrunen ere ondasun andiak izango zirala; beragatik, alde batean itzal-  
tzen bazan, bestean sortzen zan. Geroenean Titoren egin-al guziakgatik  
Eliza gogoangarri, bere parekorik munduan izan ez duena erre eta kiskal-  
du zan Jesu Kristoren irurogeita amargarren urteko aboztuaren amarrean,  
Salomonek egindako lenengoa Nabukodonosor-ek errea izan zan egun  
bere-berean. Soldadu garailariak aserre bizian sartu ziran, eta iñor ere  
bizirik utzi etzuten, eta bazter guziak gorputz-illez beteak ikusten ziran.  
Baña beste zorrigaiztoko askoren artean begitangoenak ziran profeta  
gezurtien esanak sinistuta, garaituko zutelakoan uritik Elizara igotako sei  
milla gizon, emakume eta aur, zeñak an bertan il zituzten, eta Eliza guzia  
plei-plei aldarearen berdiñeraño gorputz-illez bete zuten. Jende setatsu  
aren buru egiten zuten Juan de Giskala eta Simon de Giorak, ezpatak  
eskuan zituztela jende artetik bidea eginda, Siongo mendira edo Jerusale-  
nen lekuri goenenera igo ziran, eta emen, oraindik ere, gogor egiteko  
asmoa artu zuten. Titok bizia eskeñi zien, bereala menderatzen bazi-  
tzaiozkan; baña nai izan etzuten, beren emazte eta humeakin baso-mor-  
tura joateko itzean baizik. Titok etzien eskaera au ontzat artu. Aserretu  
zan; bet-erria edo Jerusalemgo zatirik beeneneko guziari su eman zion;



bereala auts egin zan; eta er-goena ere indarrez artzeko, aboztuaren ogei-tik agorraren zazpiraño, bear ziran prestamenak egin zituen. Egun onetan eraso zion, eta biaramonean sartu ziran. Juduak etsi zutenean galduak zirala, batzuek lurpe eta karkabaetan edo zimaurtegietan gorde ziran; eta besteak erromarren eskuetan bizia galdu zuten; bada etzan iñor ere bizirik gelditu, eta gauza guziak, sartuta bereala ondatu zituzten. Eguzkiaren sartaldeko murru eta iru dorre bakarrak beren oñean gelditu ziran, ondorean oroitgarri izan zitezten. Gero juduak ondasunak lurpean gordeak izango zituztelakoan, Titok Jerusalemgo oru edo lur guzia goldez egin eta aretu zuen; eta lanbide onekin bete-betean egiztatu zan arria arriaren gañean Jerusalemni utziko etzitzaiola Jesu Kristok esana. An ondatu ziran ondasunak, neurririk etzuten; ala ere topatu zana ain asko eta ugari izan zan, non alderdi aietan urrearen balioa erdira jatsi zan. Lurpe eta karkabaetan sartu ziranetatik bi milla persona, goseak edo elkar ilda arkitu zituzten. Giskala eta Giora, ainbeste ondamen egiteko bideak eman zituztenak, zer-jana aitu zitzaientean erromarren eskuetan jarri ziran. Lenengoa itxi batean betiko sartu zuten. Bigarrenak egun asko baño lenago bere gaiztakeriak urkamendian nozitu zituen.

## 9. Jerusalemen artu-ondoreak

Ezin esan diteke gerra galgarri onetan zenbat judu il ziran. Beraren berriak utzi zizkigun Josefok dio, Jerusalemgo setioak iraun zuen bitartean, milloi bat eta eun milla illak izan zirala; eta oiei batutzen bazaiezte Judeako beste errietan denbora onetan il ziranak, milloi bat irureunda ogeita amazapi millara igotzen zirala, zenbate onetan ez-jakin asko sartu gabe. Eun milla atzeman edo prisionero ere artu zituzten, zeñak salmentan ipiñi arren, ozta erosleak izan zituzten, iñork ere ezertan etzeuzkalako.

Ain ots andiko garaipen onen ondoren auzoetako jendeak Titor aurkeztu zitzaiozkan, oitura zuten bezala koroak eskeñtzera, ainbeste etsai menderatzeko zoriona izan zuelako; baño artu nai izan etzietzen, esanaz Jainkoak autu bat baizik izan etzala, erri doakabe bere Jainkoaren iltzalleari zegokion zigorrada emateko.

Titok Jerusalem ondatuari kontu artzen soldadu batzuek utzita, urre-neko negua Zesarean igaro zuen. Gero Erromara etorri zan, non bere aita Vespasianok garailari andi bati zegokion ongietorriarekin artu zuen. Titorren lekuan Luzilio Baso joan zan, Judeako kondar guziakikoa egitera, zeñak Herodion eta Makerunte-ko gazteluak menderatu zituen. Baso ilda, Publio Silbak ordaindu zuen. Masadako gaztelu, ezin artu zitekealakotzat zeukatenari eraso zion: eta barrungoak etsi zutenean aienak egin zuela eta luzarago ezin gorde zitezkeala, erabaki zuten, aurrena emakumeak eta aurrak iltzeko; eta gizonak, berriz, atzena zein geratuko zan txotx eginda, elkar il zuten; eta atzenekoak, guziaz ilda ote zeuden begiratura, bera nor illik etzuela zekusanean, gazteluari su eman zion, eta bere burua ganibitaz il zuen. Biaramon goizean erromarrak sartu ziran; baño gorputz-ill mon-toiak baizik arkitu etzuten: eta Judea guziko jaun eta jabe onekin gelditu ziran. Enperadorearen aginduz juduen lur guziak saldu eta emanak izan ziran. Gerra galgarri au sortu eta su eman izan zioten buru-aurki batzuek Egiptoronz iges eginda, Alejandrian eta beste tokietan beren erriarrak aztoratu eta asaldatu naiez ibilli ziran; baño laster galdu zituzten, eta Judean ezkutuan gordetako gitxi batzuek baizik, bizirik gelditu etziran. Oien ondorengoak geroztik or-emen sakabanatuak bizi dira, iñor ere erriarik egin gabe, arrotzak eta er-bestekoak bezala.

Orra Jakoben jatorriko israeldar, beren Jainkoa ainbeste mirari egiten ikusi, eta bere esku oparoetatik ain mesede andiak artu izan zituzten esker-gaiztoko aien patu zorigaiztokoak, ain luzaro itxedoten zuten eta argiro erakutsi zitzaien Mesias egiazkoa ezagutu nai ez, eta gurutziltzatu-ta il zutelako. Orra Jerusalem ospatsu, bere Jaunaren odolez gorritutakoaren atzen doakabea. Orra parerik gabeko Eliza gogoangarri ain ondasun andiak bere erraietan zeuzkana eta mundu guzia arritzen zuenaren ondamen negargarria. Au guzia Jaunaren Profetak anzina-anziñatik adierazoa zan. Orain gertatu guzia Jesusek juduai berai aldeaurrez esana zan: eta Jainkoak gauzak zuzendu zituen bere esanak egiztatzeko eran, mundu guziak ezagutu zezan, Jesu Kristo Belenen jaioa, Nazareten azia, Judean erakusten ibillia, Jerusalemen gurutzean illa, irugarren egunean Biztua eta berrogeigarrenean Zerura igoa, dala Mesias eskeñia, Patriarkak opatua, profetak adierazoa, Jainko egiazkoa, zeñaren legea dan Zerurako bide bakarra, eta guziok ibilli bear gerana.

TESTAMENTU BERRIKO KONDAIRAREN ATZENA